Lorturiko datuen arabera, eremu elektromagnetikoek eragin toxikoa dute giza **fibroblastoen** geneetan. [Berria - Gaiak](#)

fibroma *iz* zuntz ehunez osaturiko tumor onbera.

Emazte hori aiaiaika etortzen zaigu lanera [...] soinean behera dena oinaze: ziatika garaiza, flebitisa beharbada, non ez den **fibroma**! [Itxaro Borda](#)

fibromialgia iz giharretako mina.

Depresioak jota zegoen, **fibromialgiak** eragindako minak gainditu ezinik. [Berria - Euskal Herria](#)

Fibromialgia larria. [Berria - Euskal Herria](#)

Fibromialgia sindrometzat hartzen da soilik, ez gaixotasuntzat. [Berria - Euskal Herria](#)

fibrosi iz zuntz ehunaren eratze anomala.

Loditurik eta **fibrosiak** jota zeuden Virgilen birrikak; bronkitis eta enfisema aurreratuak zituen. [Xabier Olarra](#)

Belauna garbituko diote orain ebakuntza haren ostean sortutako **fibrosia** kentzeko. [Berria - Kirola](#)

Fibrosi kistikoa, berriz, arnas aparatuari, pankreari eta izerdi guruinei erasaten dien gaitza da. [Berria - Gaiak](#)

fida egon da ad fida izan.

Ziur eta **fida** gaude, urteen buruan, gero eta gehiago garelako herritarrok, ohartuak garenok, Euskal Herria badela, gure jende kopuru seinlatu bat jokatzeko delakotz nazio bat balitz bezala. [Piarres Xarriton](#)

fida izan 1 da ad fidatu.

Bainan palestindarrak ez dira **fida**. [Herria](#)

Nardaturik, Durruy jauna haren erraneta ez zela **fida** ikustean. [Elena Touyarou](#)

Nitaz guztiz **fida** izan bazina. [Jon Muñoz](#)

Aitzineko paretatik zutik egon da osoan, baina seguritate zerbitzuak ez baitziren **fida** noiz arte, berek lurrera botatzea erabaki dute. [Herria](#)

. Ez baita oraino **fida** prest direla irakurriak hortako. [Herria](#)

Nori **fida** ? elgarri! [Herria](#)

ik fidatu.

Bere buruaz **fida** eta burua xut hasi da Panpi. [Herria](#)

Denak ez oraino **fida** haatik. [Herria](#)

Langile sindikatak ez batere **fida**. [Herria](#)

Geroak erranen du hori bainan gu ez **fida**.. [Herria](#)

Batzu ez **fida** hitzeman lanpostu guziak sortuko direla. [Herria](#)

2 segur eta fida izan

Segur eta **fida** naiz, ez duela orotzapen hori ahantzia Etxegaraik. [Piarres Xarriton](#)

Eta etxerako bidean, han edo hemen, gurutzatuko nuela, segur eta **fida** nintzen. [Daniel Landart](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina ez fida (3); **ez batere fida** (4); **ez fida** (15); **ezin fida** (10); **fida hadi nitaz** (4); **fida zaitezke nitaz** (3); **nola fida** (3); **nori fida** (7); **oraino fida** (3); **osoki fida** (3); **segur eta fida** (6); **sobera fida** (5); **soberakinik fida** (4)

fidabera izond fidatzeko joera duena.

Eskubideen larregiak egiten ditu gizakiak **fidabera**. [Andres Urrutia](#)

fidaeraz izond fidakorra.

Apirilarekin **fidaeraza** izanen da kaletarra, baina baserritarrek eskarmentu handi eta negargarria zuen bere bizkar bildua. [Pello Zabala](#)

fidagaitz (orobat fidakaitz eta fiakaitz g.er.) 1 izond fidatzen ez dena. ik irudikor. ant fidakor.

-Ikusten, piztia **fidagaitza** ? -esan zion. [Julen Gabiria](#)

Cook andrea bizi-bizi mintzo zen, eta ozenezi, gorrek ohikoa duten ahots **fidagaitzez**. [Mirentxu Larrañaga](#)

Zerorren barruko gune **fidakaitzena** fidakortzen doan neurrian. [Pello Zabala](#)

Betizua beti **fidakaitza** bada, askoz gehiago umea duenean. [Gotzon Garate](#)

Lotsagabe bezain **fidagaitzak** dira txoriok. [Gotzon Garate](#)

Kallisthenes Skuludis **fidagaitz** samarra zen arrotzekin. [Anton Garikano](#)

Fidagaitza agertu beharko zuela gizon bat ikusi orduko. [Karlos Zabala](#)

Zahartzaroan, hain **fidagaitz** bihurtu zen, non erabateko gotorleku bihurtu baitzuen bere logela. [Jon Muñoz](#)

-Lehengusuak dira eta elkar hartuak daude -esaten zuten **fidagaitzek**, sekulako pila baitziren. [Koro Navarro](#)

2 (adizlagun gisa)

Ihesi datorren judu askok **fidagaitz** begiratzen digu, eta ez da harrizko. -Zergatik galdetzen didazu hori? -itaundu zion, **fidagaitz**. [Anjel Lertxundi](#)

Petrov barrez hasi zen, **fidagaitz**. [Jose Morales](#)

Kezkati eta **fidagaitz** begiratzen zionean. [Karlos Zabala](#)

Bagdadeko bi gizon haietako bat, **fidagaitz**, zutitu egin zen, karabanara joan, eta mutikoa nola zegoen begiratu zuen. [Juan Kruz Igerabide](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta fidagaitz (3)

fidagaiztasun iz mesfidantza, uste txarra.

Ondarrutarra? -esan zuen lapurren buruak bere hortzeria urriko belzkara eta **fidagaiztasuna**, biak batera, erakutsirik. [Anjel Lertxundi](#)

Baina berehala **fidagaiztasunez** begiratuko diogu zatiketa horri. [Isabel Arrigain](#)

fidagaiztu, fidagaiztu, fidagaiztu, fidagaiztu, fidagaiztu du *ad* mesfidatu.

Fidagaizten dut, zeren ez baita zurea bezalakoa. **Jon Muñoz**

fidagarri *izond* fidatzekoa.

Ez zuela etsiko Mathieu apeza toki **fidagarrian** utzi arte. **Elena Touyarou**

Agian datorren astean arrasto **fidagarriren** bat aurkitzeko gauza izanen naiz. **Alberto Ladron Arana**

Datuak **fidagarriak** badira behintzat. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

1800-a arte egia erran, konduak ez dira arras **fidagarriak**. **Herria**

Estatistikarik **fidagarrienen** arabera. **Xabier Olarra**

Lekuko **fidagarriengandik** entzun duena kontatzea. Iturri **fidagarrietatik** dakigu. **Askoren artean**

Holako muntadurak aski **fidagarriak** direla, horra zer erran duten handik etxerat jin ondoan. **Herria**

Eta horregatik guztiagatik duk, hain zuzen ere, **fidagarriagoa** naturaieza. **Joan Mari Irigoien**

Ustea sortzeko prozesua oso **fidagarria** bada, orduan ustearen egitasun-maila ere oso **fidagarria** izango da. **Askoren artean**

Armen inguruan ondutako txostena «informazio **fidagarrian** oinarrituta» zegoen. **Berria - Mundua**

Ez duela dokumentu hori helarazi, ez zelakotz xifre **fidagarrietan** bermatzen ahal. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aski fidagarria (3); **batere fidagarria** (3); **da fidagarria** (5); **datu fidagarriak** (3); **datu fidagarriak** (4); **dira fidagarriak** (3); **eta fidagarria** (12); **eta fidagarriak** (5); **eta fidagarriena** (4); **fidagarri bakarra** (4); **fidagarri eta** (4); **fidagarria da** (13); **fidagarria dela** (5); **fidagarria eta** (6); **fidagarria ez** (6); **fidagarria izan** (4); **fidagarria izango** (3); **fidagarria zela** (5); **fidagarria zen** (3); **fidagarriagoa da** (3); **fidagarriak dira** (7); **fidagarriak eta** (3); **fidagarriaren truke** (3); **fidagarrien arabera** (3); **guztiz fidagarria** (3); **guztiz fidagarriak** (3); **informazio fidagarria** (5); **informazio fidagarriaren** (3); **informazio fidagarriaren truke** (3); **iturri fidagarrietatik** (3); **oso fidagarria** (6); **oso fidagarriak** (4); **talde fidagarria** (3)

fidagarritasun *iz* fidagarria denaren nolakotasuna.

Hura sortzeko prozesuaren **fidagarritasun** kognitiboa. **Askoren artean**

Nire ikusmen-prozesuaren **fidagarritasunari** buruzko usterik ez dut behar, **fidagarritasunaren** auzia ez zait sortzen, eta sortu beharrik ere ez dauka, zerbaiti buruzko usteren bat dudanean. **Askoren artean**

Errendimenduaren eta **fidagarritasunaren** arteko oreka. **Irene Aldasoro**

Munduko merkatuak eskatzen zituen kalitatea, **fidagarritasuna** eta prezioak bermatzeko. **Koro Navarro**

Bozek menturaz zer gerta ere, Txokoren erranei **fidagarritasun** zerbait kausitu zien.. **Itxaro Borda**

Baditut zalantzak hontzarekiko **fidagarritasunaz**, baina aurkitu ahal izan dudana onena da. **Iñaki Mendiguren**

Ez da, haatik, ezer asmatu, ez da ezer ekarri orrialdeotara gutxieneko **fidagarritasunik** eskaintzen ez zuena. **Lourdes Oñederra**

Badira epe erdiko nahiz luzerako iragarpenak, baina **fidagarritasun** maila txikia dute, %30 ingurukoa. **Berria - Euskal Herria**

Egin diren testen **fidagarritasun** falta. **Berria - Kirola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta fidagarritasun (3); **eta fidagarritasuna** (3); **fidagarritasun maila** (4); **fidagarritasun osoa** (3); **fidagarritasuna eta** (3); **fidagarritasunik** ez (3)

fidakaitz ik fidagaitz.

fidakor *izond* fidatzen dena.

Gustua ematen du hain jende **fidakorra** eta txukuna zelatzea. **Anton Olano**

Zeren neskatila ttipi hori bere maitale zuhurra baino askoz **fidakorragoa** baita. **Jon Muñoz**

Fidakorra zen, izatez, bihotz onekoa. **Patxi Zubizarreta**

Fidakorregia izan zen menturaz, edo ausartegia edo ergelegia. **Aitor Arana**

Inuxentegia izan zinen, **fidakorregia**. **Xabier Montoia**

fidakortu, fidakor(tu), fidakortzen da *ad* fidakor bihurtu.

Zerorren barruko gune fidakaitzena **fidakortzen** doan neurrian. **Pello Zabala**

fidantza ik fiantza, fidantzia.

fidantzia (*orobat fidantza g.er.*) *iz* uste ona. ant mesfidantzia.

Animaliak fidatzen dira Bev-ekin, eta Bev-ek haiek akabatzeko erabiltzen du **fidantzia** hori. **Oskar Arana**

Magalik erran zidan **fidantzia** osoa bazuela ni baitan. **Janbattitt Dirassar**

Aita sainduak haren baitan daukan **fidantziaren** froga ezin ukatua. **Herria**

Fidantzia handiz mintzo zait. **Jon Muñoz**

Ez hain zuzen egitasun atsegina, **fidantzia** ezia, adiskidantza sentikorra balioesten ez ditudalako... **Jon Muñoz**

Beldur herrestorik gabe, hain du **fidantzia** azkarra Jainkoa baitan. **Herria**

Ez direa, elgarren arteko **fidantzia** batean bezala, eskuz esku ari hor nolazbait ikaslea eta erakaslea, ahal bezenbateko lehia batean! **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta fidantzia (4); **fidantzia eta** (4); **fidantzia handiz** (3); **fidantzia hori** (4); **fidantzia osoa** (5); **nire fidantzia** (4); **zure fidantzia** (3)

fidatu, fida, fidatzen (*orobat fiatu*) 1 da *ad* uste ona izan. (-z atzikiaz)

Ez da mutilaz **fidatzen**, leialtasuna galdu diola uste du. [Antton Olano](#)

Fidatzen al zara zure lagunez? [Berria - Kultura](#)

Fida hadi nitaz! [Jon Muñoz](#)

Ez zen batere haietaz **fidatzen**. [Elena Touyarou](#)

Ez zen bere irizpideaz, ez eta anaienaz ere **fidatzen**. [Askoren artean](#)

Ez zaitezte itsu-itsuan **fida** zuen oraingo zaletasun beroaz. [Askoren artean](#)

Jainkoaren gidaritzaz bakarrik **fidaturik**. [Askoren artean](#)

Auzi honetan neure buruaz ere ez naiz **fidatzen**. [Agustin Otsoa](#)

2 (-n atzikiak)

Gure seme-alabak zu bezalakoan eskuetan uzten ditugu, zuengan **fida** gaitzkeela uste dugulako. [Oskar Arana](#)

Ezin bagara unibertsitatean **fida**, norengan **fida** gaitzke? [Oskar Arana](#)

Nire abantailan **fidaturik**. [Javi Cillero](#)

Konforme, Morfeo, hire hitzetan **fidatuko** nauk! [Antton Olano](#)

Hola ari nintzen nihauri galde eta galde, ez gehiago ikusten-eta Magali baitan **fidatu** behar nuen ala ez... [Janbattitt Dirassar](#)

Ez zaitezela han **fida**, hangoak izigarri gaiztaginak baitira. [Aurelia Arkotxa](#)

Neure buruan baizik ez nintzen **fidatzen**. [Josu Zabaleta](#)

3 (-ekin atzikiak)

Fida hadi nirekin. [Harkaitz Cano](#)

Ez **fidatu** giputzeekin. [Unai Iturriaga](#)

"Ez naiz mutil horrekin **fidatzen**", jarraitzen du berak. [Oskar Arana](#)

Animaliak **fidatzen** dira Bev-ekin, eta Bev-ek haiiek akabatzeko erabiltzen du fidantzia hori. [Oskar Arana](#)

Azaroan sartu orduko, eguraldiarekin gehiegi **fidatzerik** ez zegoela. [Pello Zabala](#)

Pantxorekin ez zegoela **fidatzerik**. [Bernardo Atxaga](#)

4 (-i atzikiak)

Gure aitzinekoak gehiegi **fidatu** ziren, beharbada, Lege Zaharrari eta Jainko onaren... esku eskuinari! [Piarres Xarriton](#)

Begiari **fidatuz**, kilometro bat guti gora behera. [Piarres Aintziart](#)

Zorteari **fidatuz** beren buruari baino lehen. [Piarres Xarriton](#)

Nor nori **fida** ditakeen funtsezko aintzinamendu batzu segurtatzeko gisan? [Herria](#)

ik fida izan.

Holako bati nehor ezin **fida!** [Janbattitt Dirassar](#)

Zeri eta nori **fida** egungo egunean? [Herria](#)

5 (bestelakoak)

Kanpoan ez dut inor ikusi, baina ezin gara **fidatu**. [Alberto Ladron Arana](#)

Zergatik **fidatu** behar du jeneralak? [Juan Kruz Igerabide](#)

Fidatzea beste erremediorik ez daukat. [Josu Landa](#)

-Ez **fidatzen**? [Aingeru Epaltza](#)

Hipogrifoak ez dira **fidatzen** begiak larregi kliskatuz gero... [Iñaki Mendiguren](#)

Ez dago **fidatzerik**, azaldu zuen arrantzaile batek. [Berria - Harian](#)

6 du ad

Gizarteak ja ez dio **fidatu** nahi bere zortea erlijioari edo tradizioari. [Joxe Azurmendi](#)

Geu esperimendu arriskutsuak egiten hasi baino, jada egindako esperientzietan ausaz hobe dugula **fidatu**. [Joxe Azurmendi](#)

Neure asmoari jarraiki, **fidatu** nion segur nengoela ezen haren alabaren eta Dancenynen artean bazela harreman arriskutsu bat. [Jon Muñoz](#)

Egon zaitezke segur fidelki eta gogo onez gordeko dudala zuk **fidatu** didazun gordailua. [Jon Muñoz](#)

Baldin zure alaba andereñoak sekretuok zuri **fidatu** nahi balizkizu, mintza bekizu. [Jon Muñoz](#)

7 fidatzeko ik fidagarri.

Fidatzeko gizona, edonola ere. [Anjel Lertxundi](#)

Sleegers **fidatzekoa** den jakin beharra dago orain. [Josu Zabaleta](#)

Bere polizia sekretua, Saget andereñoa, ez baitzitzaion guztiz **fidatzekoa** iruditzen. [Karlos Zabala](#)

Gizon arriskutsua eta ez oso **fidatzekoa**. [Ander Irizar](#)

Silaba bakarrek hitzak baino ez dira jada **fidatzekoak**, eta horien artean ere ez guztiak. [Oskar Arana](#)

Banengoen ba ni, ez zirela **fidatzekoak**! [Jon Arretxe](#)

-Fidatzeko moduko jendea gara -bukatu nuen esaldia. [Alberto Ladron Arana](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina ez fidatu (3); **bati fidatu** (5); **berarekin fidatu** (4); **da fidatu** (9); **da gehiegi fidatu** (3); **ez da fidatu** (6); **ez fidatu** (32); **ez fidatu nirekin** (3); **ezin gara fidatu** (5); **fidatu behar** (40); **fidatu da** (3); **fidatu egin** (3); **fidatu eta** (5); **fidatu ez** (6); **fidatu gabe** (5); **fidatu izan** (3); **fidatu izana** (3); **fidatu nahi** (7); **fidatu nirekin** (3); **fidatu zen** (4); **fidatu ziren** (4); **gara fidatu** (5); **gehiegi fidatu** (9); **gehiegi fidatu behar** (3); **nitaz fidatu** (4); **sobera fidatu** (6); **sobera fidatu behar** (5); **zergatik fidatu** (5); **zergatik fidatu behar** (3)

afrikarraren senaz fidatuz (3); **da sekulan fidatzeko** (4); **eskuen indarreki fidaturik** (3); **ez fidatzea** (4); **ez fidatzeko** (18); **fidatuko ez** (4); **fidatzea baino** (3); **fidatzeko esan** (3); **fidatzeko eta** (3); **fidatzeko gizona** (4); **fidatzeko moduko** (8); **fidatzeko modukoa** (3); **fidatzekoa da** (3); **sekulan fidatzeko** (5)

asko fidatzen (3); **askorik fidatzen** (4); **berarekin fidatzen** (3); **buruaz fidatzen** (3); **dira fidatzen** (6); **erabat fidatzen** (3); **ez da fidatzen** (11); **ez dira fidatzen** (5); **ez fidatzen** (5); **ez gara fidatzen** (3); **ez naiz fidatzen** (10); **ez nintzen fidatzen** (4); **ez zen fidatzen** (11); **ez ziren fidatzen** (4); **fidatzen ahal** (5); **fidatzen al** (4); **fidatzen da** (4); **fidatzen dena** (4); **fidatzen dira** (5); **fidatzen eta** (6); **fidatzen ez** (15); **fidatzen ez den** (4); **fidatzen hasi** (3); **fidatzen naiz** (9); **fidatzen nauk** (3); **fidatzen zen** (6); **gehiago fidatzen** (6); **gehiegi fidatzen** (3); **gutxiago fidatzen** (3); **haietaz fidatzen** (3); **inorekin fidatzen** (5); **nintzen fidatzen** (4); **nirekin fidatzen** (3); **nitaz fidatzen** (6); **zen fidatzen** (12)

ez dago fidatzerik (4); **fidatzerik ez** (3); **sobera fidatzerik** (3)

fidatzaile iz bermatzailea; mailegu-emailea.

Bere burua jarriz emandako hitzaren **fidatzaile**. Ez zaitez egin **fidatzaile** zeure baliabideen gainetik; egiten bazara, jo zeure burua zordun. [Askoren artean](#)

Ongilea lagun hurkoaren **fidatzaile** bihurtzen da; lotsagalduek, berriz, bertan behera uzten du. [Elizen arteko biblia](#)

Burugabea galanta, eskua emanez lagun hurkoaren **fidatzaile** bihurtzen dena! [Elizen arteko biblia](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

fidatzaile bihurtu (3); **lagun hurkoaren fidatzaile** (3)

fideikomiso iz bitartekari baten bidez bideratzen den jarauntsi xedapena.

Esan dugu erromatarren jurisprudentziak ez zuela onartzen **fideikomisorik**. **Iñaki Iñurrieta**

Zenbait kasutan aldaketa egin zitekeen, eta jarauntsia beste oinordeko bati pasa zekiola agindu; baina inoiz ezin zen **fideikomisorik** egin, alegia norbaiti enkargatu, erregru gisa, jarauntsia edo jarauntsiaren parte bat beste norbaiti itzultzeko. **Iñaki Iñurrieta**

fideista iz fideismoaren jarraitzailea.

Leturiak, Parisen, gogoeta latz ugariren ondorioz bihotza adimenaren gainetik jarriko du, konponbide **fideista** bat aurkituz. **Berria - Kultura**

-Fideista hutsa zara, John. **Karlos Linazasoro**

fidel izond leiala.

Horra gelari **fidela** nire isiltasunaren truk adosturiko saria ekartzera etorria. **Jon Muñoz**

Telemakok, berriz, Euriklea **fidelari** agindu bat eman zion: [...]. **Juan Kruz Igerabide**

Liza zerbitzari **fidelak**. **Julen Gabiria**

Senar-emazte **fidel** eta bertutetsuentzat. **Andres Urrutia**

Ikuskizunaren portreta ahalik eta **fidelena** marraztuz. **Aingeru Epaltza**

Ez baita ez kopiarik ez aldakirik jatorrizkoa baino seguruagorik eta **fidelagorik**. **Pello Salaburu**

Leial eta **fidel**, zin guztiak beteko ditu. **Agustin Otsa**

Edo zein da kontua, erremediorik gabeko babalore bati **fidel** izatea? **Karlos Zabala**

Herria eta Baas-zaleak **fidel** izan bekizkio lehendakari berriari. **Juan Kruz Igerabide**

Beren senarrei emandako hitzari **fidel** egon nahi duten emazteei. **Xabier Olarra**

Baina noble batzu, nahiz eta Eliza katolikoari **fidel** egon, oldartu ziren. **Michel Oronoz**

Berrogei urtez egon omen zitzaion **fidel**. **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ahalik eta **fidelena** (3); **aliatu fidela** (3); **bere fidelak** (3); **beti fidel** (4); **eta fidelena** (4); **fidel egon** (4); **fidel eta** (7); **fidel ez** (5); **fidel izan** (19); **fidel izan beharraz** (12); **fidel izango** (4); **fidel izatea** (4) leial eta fidel (3); **fidela da** (3); **fidela dela** (3); **fidela izan** (4); **fidelak dira** (3); **jarraitzaile fidelak** (3)

fidelitate iz fideltasuna, leialtasuna.

Landan zaude beraz, sentimendua bezain asper, eta **fidelitatea** bezain triste! **Jon Muñoz**

fidelizatu, fideliza, fidelizatzen du ad bereruez mintzatuz, iraunkor bihurtu.

Gainera, urteik urtera ikusle kopurua handiagoa da eta **fidelizatu** egin dute publikoa; alegia, orain dela bederatzai urte ikusle zirenak oraindik ere badira. **Berria - Kultura**

fidelki adlag leialki.

Haiek errana eta manatua **fidelki** obratuz. **Itxaro Borda**

Egon zaitezke segur **fidelki** eta gogo onez gordeko dudala zuk fidatu didazun gordailua. **Jon Muñoz**

Erakaslen erranak **fidelki** behatü. **Herria**

fideltasun iz leialtasuna.

Saldukeria da gizakiak izan dezakeen jarreretan makurrenetakoa; **fideltasuna**, leial izatea, gorenetakoa. **Berria - Kultura**

Haren **fideltasuna** ezin dudatzukoa zen. **Aingeru Epaltza**

Hitleri dion **fideltasun** gaixotiagatik eusten dio karguari. **Alberto Ladron Arana**

-Non da elkarrri agindu genion **fideltasuna**? **Patxi Zubizarreta**

Kartografo baten **fideltasunaz** deskribatzen zuen hiria ilargian baizik ez zen existitzen. **Ander Irizar**

Sultanari **fideltasuna** aginduta pasha bihurtuta itzuli zela. Historiarekiko **fideltasuna** kontzeptu abstraktua izan zitekeen, bai, baina egiazkoak ziren Intxortan hil ziren mendizale gazte haiek. **Fernando Rey**

Gorputzen proportzioetan edo anatomia-legeekiko **fideltasunean** jarri beharrea arreta, azal hutsean jarri nuen. **Bernardo Atxaga**

Jainkoaganako **fideltasuna** eta leialtasuna. **Joan Mari Irigoien**

Nork bere buruarenganako **fideltasuna** eta besteearenganako errespetua, norbanakoaren baiespena eta gizarte-solidaritetea, zoriona eta jakitea elkarbigizatzen dituena. **Piarres Xarriton**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

fideltasun osoz (3); **fideltasuna eta** (5)

Fidelzale izond Fidel Castroren zale dena.

Baina Chavez latinoamerikako ezker tipiko batekoa da, oso ezker autoritarioa, oso **Fidelzalea**, Komandante Jefeak esaten du zer egin eta denok haren aginduetara. **Pako Aristi**

fideo iz zopako pasta, hari itxurakoa.

Hongxing jatetxera joan eta lehen egosialdiko **fideoak** jan ahal izateko. **Pablo Sastre**

Fideo -zopa bat, xerra bat, fruta bat. **Rafa Eiguren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

fideo zopa (3)

fideoagintza *iz* fideoak egiteko jarduera.

Irautza garaian **fideoagintzan** pilaturiko dirutza. **Markos Zapiain**

fidjiar ik **fijiar**.

fido izan ik **fio izan**.

fiduziario *izond* fiduzia bat hartzen duena.

Jorge Oteizaren oinordeko **fiduziarioarekiko** harremanak ere aztertu ziren bileran. **Berria - Kultura**

fieltro ik **feltro**.

fier 1 *izond* sendoa.

Duen beso **fierrarekin** min egiten baitu hunen pilotak. **Herria**

Chupa Chups lantegian arrangura **fierrak** zituzten joan den asteartean. **Herria**

Denek jakin dugu, komunikabide guzietan errepikatu baitute buruko min **fier** bat ukan duela Nicolas Sarkozy-k. **Herria**

Eztabaida **fierra** sortzen duen puntua. **Herria**

2 *adlag* harro.

Berek diotena "Amerikar-euskaldunak" bainan biziki **fier** euskaldun izaitez, eta oraino **fierrago** euskaraz kantuz ari zirela. **Herria**

Emaitzarekin nahikoa **fier** zen Joanes. **Itxaro Borda**

Eta **fier** izaiten ahal dire beren bigarren lekuarekin, herri guzietako muslariak arras mail onekoak baitziren. **Herria**

Bere bihotzeko andere-gazteaz biziki **fier** baitzen. **Herria**

Ene buruaz **fier**, harro. **Daniel Landart**

Ezteiez geroztik, ez zen nehoiz hain **fier** sentitu. **Itxaro Borda**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

biziki fier (3); **ene iruinseme fierra** (3); **iruinseme fierra** (8)

fierki *adlag* harrotasunez.

Eta zuri ere hasieran erdaraz egingo dizutela, nahiz eta eskatu bezain laster **fierki** euskararen gaitasun agiria aterako dizuten. **Pello Salaburu**

fiertasun *iz* harrotasuna.

Segur naiz hunkitu egingen zaituela alargun horren **fiertasun** xaloak. **Koldo Izagirre**

Haren poza, iduriz, edo bederen **fiertasuna**! **Piarres Aintziart**

Fiertasun haundi bat da guretzat Frantziako xapelgoan sartzea. **Herria**

fiertate *iz* fiertasuna.

Ikustatez bezenbat gisa bateko **fiertatez** ere. **Herria**

Baita De Trevillier ere, bere jauregi paregabea **fiertatez** altxatu berri zuela. **Imanol Zurutuza**

fierxko (*orobat fiersko*) *adlag* harro samar.

Gaur egin ditudan 34 km-**ez fierxko** naiz. **Piarres Aintziart**

Fiersko ahal ginen! eliza aitzinean gelditu ginen. **Michel Oronoz**

figura 1 *iz* (*literaturan*) hizkera lauetik aldaratzen den estilo edo hizkuntza adierazpidea.

Figura, jakina den bezala, egitura gutxi-asko bakandu bat da hitzezko adierazpenaren barruan. **Josu Zabaleta**

Metafora metaforaren gainean metatzean datzan **figura** erretorikoa. **Joan Mari Lekuona**

Azken batean, **figura** erretoriko-poetikoak erabiltzen ohitzea baino ez da. **Andoni Egaña**

Alderantziz, **figura** "gastatuek", klaxe bihurtuek, eguneroko hizkuntzan sartzeko joera izaten dute, beren **figura** -balioa galdurik. **Josu Zabaleta**

Espazioaren irudikapenaren **figura**. **Josu Zabaleta**

Jauzia **figura** estilistiko bat da. **Josu Zabaleta**

2 (geometrian) bolumenak, gainaldeak, lerroak eta puntuak, bere hartan hartuak. **ikirudi 5**.

Horrela, **figuren** tratatuak geometria izena hartzen du; mugimenduarenak, fisika. **Esteban Antxustegi**

Geometrak **figuren** beharra dauka matematikako erlazioen eskemak egiteko. **Askoren artean**

Figura handi simpleak -laukia, triangelua, zirkulua, laukizuzena- identifikatu eta bakoitza dagokion zuloan sartzeko jostailua. **Xabier Olarra**

Sarritan forma ezberdinez eta **figura** anizkoitzez karratua bezalako **figura** bakarra egin ohi denez. **Xabier Amuriza**

3 irudia, itxura.

Atzerago mutil baten **figura** iluna heldu da. **Pello Lizarralde**

Eta lausoa zen haren **figura**, ala geroago lausotu zen? **Juan Garzia**

Bitxi egin zitzaidan aurren-aurrenetik haren **figura** segaila kale-jantzian ikustea. **Inazio Mujika Iraola**

Orduan, hatzat buru-azalke ditu eta **figura** bat agertzen hasi da. Pello Lizarralde
Bere modeloen begi bati, sudurrari, zangoari, musajeari ematen dio bizia: ez daki bizi arazten **figura**. Juan Garzia
Orduan bururatu zitzaion harearen gainean geomantziatzko **figura** bat marraztea. Juan Garzia
Denborarekin, arrastoen kopurua handitu egin zen nire espirituan, eta bazirudien, paper txurian zirriborro bat egiten denean bezala, **figuraren** bat erneko zela handik. Bernardo Atxaga
Baina neure buruan ez zen **figura** erabat zehazten. Bernardo Atxaga
Bere txakurrak ari zitzaizkion zaunkaka, baina orain **figura** tragiko bat baino ez zen, eta ez zien aurre egin. Julen Gabiria

4 (irudi materiala)

Zortzi **figuraz** osatutako naximentu zaharra, aingeruari eusten dion kometa eta guzti. Xabier Etxabe
Gabonetako **figurak** erosi behar genituen. Unai Elorriaga
Bi **figura** eder ziren, neurri naturalekoak, oso lirainak: aingeru bat, hegoak jausita zituena, oin bakarrean bermaturik, soldadu baten gorpua besoetan zuela. Ramon Saizarbitoria
Bestela zaldiko-maldiko bihurtuko zitzaidalakoan, zalapartatsua, **figura** beti berberen erakusle. Bernardo Atxaga
Aitak erregearen **figura** luzexka hartu eta hatzen artean erabili zuen. Alberto Ladron Arana

5 hed

Aitaren eta amaren **figurak** beharrezkoak dira. Berria - Harian
Gidoilariaren **figura** berreskuratu nahi du Bilboko zinema jaialdiak. Berria - Kultura
Zentroetako zuzendarien **figura** indartu egin behar dela diote. Berria - Euskal Herria
Gobernuak sexu hezitzailearen **figura** kendu duela gaineratu zuen. Berria - Euskal Herria
Dinamizatzailearen **figura** sortu du. Berria - Euskal Herria
Elkarren kontrako borroka horretan kanpoko arerioaren **figura** betidanik erabili du botereak herriak batzeko eta horren izenean sakrifizioak eskatzeko. Berria - Harian
Jean Etxegoien pertsonaiaren **figurari** gorpuzten du Montoiak traizioaren ideia. Berria - Kultura
Oteizak berak sortu zuen bere **figuraren** inguruko mitoak. Berria - Kultura

6 pertsona ospetsua.

Hogeigarren mendeko **figura** handienetako bik -Leninek eta Gandhik. Iñaki Mendiguren
Mito grekoetan, Dedalo ez da inoiz **figura** nagusia izan. Juan Garzia
Ugalde XXgarren mendeko gure **figura** nagusienetakoa da. Hasier Etxeberria
Senarra da izarra, eta hari itzalik ez egiten erakutsi zioten, haren **figura** kolokan ez jartzen. Pako Aristi
Bere bizialdiko azken 10 edo 15 urteetan, gure garaiko literaturgile nagusietakotzat jotzen zenean eta, beraz, ordurako **figura** publikoa zenean. Juan Garzia
Figura horien kontra jokatzeko zen nire ametsa. Berria - Kirola
Beragaz ibili ziran guztiak dinoen zuten aitak bera **figura** handia zalako kontzientzia osoa eukala. Xabier Amuriza
-Rufinok bere burua **figuratzen** eukan, ez, bazala sinesten ebalako bakarrik, halantxe plazaratu behar zala uste ebalako baino. Xabier Amuriza

7 (hitz ellartuetan)

-Hik uste dok Rufino Arrolak baeukala halako **figura** -usterik? Xabier Amuriza
-Berezko indar behar bada inkontzientez gainera, berak **figura** kontzientzia eukala uste dok? Xabier Amuriza
Umeak bere, lehenago, **figura** usainean etorten ziran, baina orain anbizino hori asko txikitu da. Xabier Amuriza
Ganera, ikasleak **figura** goserantz orientatetik, porrota baino ez dator. Xabier Amuriza
- *izond* -Oso penagarria niretzat, Zaldun **Figura Trixite** jauna, berorrek nire lurretan egin duen lehenbizikoa. Patxi Ezkiaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

amaren **figura** (3); baten **figura** (3); bera **figura** (3); bere **figura** (5); beste **figura** (5); beste **figura** batzuk (3); bi **figura** (7); den **figura** (3); ere **figura** (3); eta **figura** (19); **figura** agertu (3); **figura** agertu zen (3); **figura** bat (18); **figura** baten (4); **figura** batzuk (4); **figura** berri (4); **figura** eta (7); **figura** guztiak (6); **figura** handi (3); **figura** historiko (4); **figura** hori (7); **figura** sortu (4); **figura** trixite (9); **figura** trixite jauna (3); **figurak** eta (3); **gaijartzailearen figura** (3); **giza figura** (8); **giza figurak** (3) **halako figura** (4); **haren figura** (11); **zaldun figura** (8); **zaldun figura trixite** (6); **zuen figura** (6)

figurakeria iz

"Legea duk... paisajea, **figurakeria**," esan zuen Mandik. Pablo Sastre

figural izond figurarena.

Aztealdea dirudiena forma **figuralean** arteko espazio hutsa izan daiteke, eta espazio huts horiek, aldi berean, forma izan daitezke. Berria - Kultura

figurante 1 iz film eta antzerki lan batean hitz egin gabe parte hartzen duen aktorea.

Zirkuko **figuranteak** beren ezpata zuzekoak. Juan Garzia
Roselliniren film batetik erazutitako **figurantea** ematen zuen. Josu Landa

2 hed

Komunikazioaren inguruan **figurante** ugari daude: gobernuburu dezente, baita enpresaburu ezagun asko ere. Txema Ramirez de la Piscina

figuratibismo iz errealitateko irudiak antzemateko eran irudikatzen dituen arte joera.

Abstrakzioak, **figuratibismoak**, argazkilaritza periodistikoak, surrealismoak. Berria - Kultura

figuratibo izond arteetan, errealitateko irudiak antzemateko eran irudikatzen dituen.

Figuratiboa denez gero, irudimenik gabe adimenaren bitartez soilik gertatzen den sintesi intelektualetik ezberdintzen da. Ibon Uribarri

Irudi **figuratibo** batean. Josu Zabaleta
Marra multzoak ziren, irudi **figuratiborik** gabeak, lehen begiratuan behintzat. Iñaki Iñurrieta
Nire obra ez da erabat abstraktua; forma **figuratiboek** indar handia dute. Berria - Kultura
Hogeita hamar urtez ukitu ez zituen gaietara pasatu zen, naturatik zuzenean margotzera, dantzari eta zaldi-lasterketen margolan **figuratiboetara**. Xabier Olarra
Arte **figuratiboetan**. Josu Zabaleta
Arte abstraktua ukazioz baizik ez da definitzen, beraz: irudikapenezko irudiak ez diren artea da ("ez **figuratiboena**" esaten da gehiago), irudikapenaren galeraren artea.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

lan figuratiboak (3)

figuratu *izond* irudizkoa.

Liburuek bizi propioa dutela esan bada, zentzu **figuratuan** esan ohi da, didaktikoan, lirikoan, erromantikoan, baina hortik liburuek euren kasa mugitzeko ahalmena dutela adieraztera jauzi kualitatibo izugarria dago. **Karlos Linazasoro**

Eta ni ahoa bete hortz gelditu nintzen (zentzu **figuratuan** har bedi, mesedez, adierazpidea). **Karlos Linazasoro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adiera figuratuan (3); zentzu figuratuan (4)

figuratxo *iz* irudi txikia.

Wendyk ikusi zuen zelan **figuratxo** erromantiko hura kuku-erlojuaren gainean pausatzen zen atsedean hartzeko. **Julen Gabiria**

Tximeleta formako **figuratxoak**: kartoizkoa bat, plastikozkoa bestea, burdinazkoa hurrengoa, zurezkoa edo okumezkoa hurrenagokoa... **Bernardo Atxaga**

figurazio *iz (arteetan)* errealitateko irudiak antzemateko eran irudikatzea.

Grabatu hartan bazegoela **figurazioa**, alegia lerro multzo haiek Kontxako paisaia irudikatzen zutela. **Iñaki Iñurrieta**

Urteekin, alabaina, **figurazioari** eta errealismoari heldu, eta estilo berezia finkatzera iritsi da. **Berria - Kultura**

Figuraziotik abstrakzioarako jauzia egin zuen, eta espazioko kolore puruei bidea eman zien. **Berria - Kultura**

Figurazioaren nozioaren beraren barruan dago hori. **Josu Zabaleta**

Pentsatu zuen deabruak jarraitu ote zion haraino, eta jiratu egin zen, **figurazio** gaiztoren batekin topatzeko ustean. **Juan Garzia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

figurazioa eta (3); figurazioaren bidez (4)

fijatu, fija, fijatzen **1** da *ad* ohartu, erreparatu.

Fijatu zara zelako ezpainak dauzkan? **Jon Arretxe**

Ez ginela txalupan **fijatuko** salbamentu-txalekoaz hornitutako chihuahua harengatik izan ez balitz. **Bernardo Atxaga**

-Ba, **fijatzen** egon nauk, eta Valentinak ez dik begirik kendu denbora guztian. **Pedro Alberdi**

Ondo **fijatzen** bahaiz, ispiluz bestaldean ematen ditugun irudiak doble inperfektuenak dituk. **Iñaki Iñurrieta**

2 arreta ipini.

Beti ere bere adineko emakumeetan **fijatzen** da, eta ez gazteagoetan. **Berria - Kultura**

Zita egin zuten gauean ere, ondo **fijatu** balitz, ikusiko zukeen "Turgeniev"eko lurrean, Asierren aurrean, Dunhill zigarro bat, itzali berria... **Pako Aristi**

Nola da posible horrelako mutil puska batengan sekula **fijatu** ez izana? **Sonia Gonzalez**

fijazio **1** *iz* finkagailua.

Taula berriak erosiko ditut, eta seguraski, bide batez, **fijazio** berriak ere bai, zeren nireek holgura pixka bat daukate. **Jon Arretxe**

2 (orobat fixazio) obsesioa.

Bere adiskidearen fobia, **fijazio** eta obsesioen kontaduriak ez omen zuen emakumearen lilura itzali. **Joxean Agirre**

Brasildarrek ipurdi politikak dituzte, brasildarrek ipurdiekiko **fijazio** patologiko bati ematen diote su, eta jatorri afrikarra izatea omen da arrazoa. **Karlos Zabala**

Arretagune bakarreko **fixazio** edo motibazio suhar batek eutsiak. **Xabier Olarra**

Grina gogorrak izan ditzake autistak, indar handiko **fixazio** eta lilurak, edo, Templek bezala, ia gehiegizko samurtasun eta ardura, zenbait arlotan. **Xabier Olarra**

fijiar (*ETCn 62 agerraldi; orobat fidjiar ETCn 11 agerraldi*) *izlag/iz* Fiji uhartedikoa, Fiji uhartediari dagokiona; Fiji uhartediko herritarra.

Landestarrak idorki lotzen dira uztartzeetan eta bi jokalaria **Fidjiarrek** markagailua aitzinatzen dute. Jokaldi horretan, hala ere, Valbon **fijiarra** egotzi zuen epaileak. **Herria**

Urteko jokalaria onena izendatu dute Vijay Singh **fidjiarra**. **Berria - Kirola**

3 eta 0 **Fidjiarren** alde eta gero 8 eta 3 entsegu bat markaturik. **Herria**

fijo **1** *izond* finkoa.

Ohitu nintzen irribarre itzal hartara, hasi nintzen parrokiario **fijo** harganako interesa hartzen. Irudi **fijo** eta estatikoekin egin dugu lan. **Matías Múgica**

Egitura **fijo** bat dago eta oso elementu gutxi dira aldatzen direnak eszena batetik bestera. **Berria - Kultura**

Zamaketai kuadriletan urtebete zeramatenak **fijo** egiteko eskaera **Koldo Izagirre**

2 adlag seguru.

Esan nizun: kulata izango da hori; kulata... **fijo** gainera. **Pablo Sastre**

-Hurrengoan, Manu, hurrengoan **fijo**. **Urtzi Urrutikoetxea**

fiktizio *izond* fikziozkoa.

Gero estatuen berdintasun **fiktizioa** errealitate latzaren ildora ekartzeko. **Iñaki Mendiguren**

fiktzioki adlag fikziozko eran.

Guk geure buruari **fiktzioki** ezarri arren sekula existitu ez den penitentziarentzat ez da inoiz ez benefizio ez inbentariorik izan.

Harkaitz Cano

fikus iz Ficus generoko zernahi zuhaitz edo zuhaixka, besteak beste etxe barruko landare apaingarri gisa erabiltzen dena.

Etxea hamaika **fikus**, espatifilos eta marantaz beterik daukagu. Iban Zaldúa

Arropa-esekitokiaren eta **fikusaren** artean. **Fikus** baten itzalperantz abiatu ziren Sara, Sergio eta Matias. Patxi Iturritegi

fikzio 1 iz irudimenaren edo asmamenaren sorkaria.

Lurralde mugakideak dira **fikzioa** eta errealitatea. Imanol Zurutuza

Fikzioa baino arrotzagoa da errealitatea, guk sortua baita **fikzioa**. Anjel Lertxundi

Fikzioa ahalik eta testuingururik egiantzekoenean kokatzearren. Mirentxu Larrañaga

Fikzioak errealitatea antzirudikatu, imitatu egiten omen du. Joxerra Garzia

Ni nago, ordea, Auschwitzekin zerikusirik ez duten obretan adina **fikzio** (edo gehiago) dagoela Auschwitz buruzkoetan. Juan Garzia

Fikzioak soilik erakuts omen dezake garai baten egia, behar bezala. Hasier Etxeberria

Badute **fikziotik** eta badute aldi berean errealitateetik ere. Andoni Egaña

Uste dut, gure gizarteak isilean pasatzen dituen gertakari horiek **fikziorat** pasatzea beharrezkoa dela. Ana Urkiza

Hau ez dela anbulatorioko itxarongela, literatura baizik, **fikzio** hutsa azken batean. Orduan ere, errealitateak **fikzioa** gainditu zuen. Imanol Zurutuza

Fikzioa versus simulakroa. Ana Urkiza

"Beste" nagusia ordena sinbolikoa besterik ez da; ordena hau ez da kausalitate materialean oinarritzen, **fikzio** sinbolikoetan baizik. Joseba Zulaika

2 fikziozko idazlana.

Fikzioak -liburuko lehen orrialdean hasi eta azkenekoan bukatzen zen istorio asmatuak-. Anjel Lertxundi

Esango nuke halako puritanismo batek galarazten digula batzuei idaztea; **fikzioa** idaztea, alegia. Iñaki Iñurrieta

Eleberri batean edo edozein motatako **fikzio** batean. Xabier Arregi

Fikzioa egiten duen idazleak soilik kontu ditzakeela gauzak, behar bezala. Hasier Etxeberria

Poetak **fikzioak** eraikitzen ditugu sentimenduak eta ideiak adierazteko. Ana Urkiza

3 (hitz elkartean)

Garai hartako **fikzio**-liburuak. Antton Olano

Hemingwayren **fikzio** lan gehienetan. Edorta Jimenez

Fikzio-idazlea naiz ni funtsean. Xabier Mendiguren Elizegi

Egia baino ez da, egiantzik gabeko egia, **fikzio** itxurako errealitatea. Imanol Zurutuza

Filmak eragiten dituen gainerako sineste-fenomenoak, **fikzio**-efektuaren bidez eragiten dituenak batez ere. Josu Zabaleta

Izenen jokoak **fikzio** puntua sorrarazten badu ere. Berria - Kultura

Poesia-**fikzioa** da hau dudarik gabe. Bernardo Atxaga

4 fikziozko

Fikziozko irakasle bati egina. **Fikziozko** pertsonaia bat haragizko izaki bihur daiteke baldin eta haren egileak bere indar guztia horretan jartzen badu. Iban Zaldúa

Fikziozko errealitate batean. Josu Zabaleta

Fikziozko planotik kantatzen ari zen esparruko plano errealerara jauzi eginez etengabe. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Fikziozko munduren batean murgiltzea. Imanol Zurutuza

Fikziozko lanak irakurtzen baintuen gehienbat. Oskar Arana

Mark Brozet zinemagilearen Holy Cross **fikziozko** film luzeak. Berria - Kultura

Gertaera hori **fikziozkoa** bada. Josu Zabaleta

Humpy Dumty benetakoak **-fikziozkoak**, alegia-, zera esaten dio une jakin batean Alizeri: "Ederra egin dugu!". Joxerra Garzia

Agintaldian **fikziozko** enpleguak sortu zituela aitortu du Flossek. Berria - Mundua

Gertakizun historikoak ala **fikziozkoak** kontatzen zizkizuten? Ana Urkiza

Aurkeztuko diren filmetako hiru izango dira ez **fikziozkoak**. Berria - Kultura

5 zientzia-fikzio

Eleberriak, saiakerak, polizi-eleberriak, **zientzia-fikzioa**, bidaiaik, eskulanak, etab. COUn nengoela, **zientzia fikziozko** ipuin batzuk egin nituen. Jon Muñoz

Zientzia fikziozko eta fantasiako bildumak. Iban Zaldúa

Sobrironk estrategia aldatu bide zuen hurrengo urteko *Larrosa minerala* **zientzia fikzio** itxurako eleberri laburrekin. Iban Zaldúa

Zientzia fikziozko pelikuletan loaldi infinituak egiten dituzten astronauta horien moduan. Joseba Sarrionandia

Duela 20 urteko **zientzia fikziozko** filmetan. Iñaki Heras

-Zuk, maitea, **zientzia-fikzio** sobera irakurtzen duzu. Itxaro Borda

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ala fikzioa (3); da fikzio (3); da fikzioa (6); da zientzia fikzioa (3); duen fikzioa (3); dut fikzioa (3); edo fikzioa (3); errealitatea eta fikzioa (12); eta fikzio (3); eta fikzioa (24); eta fikzioa nahasten (3); fikzio bat (7); fikzio baten (8); fikzio hori (3); fikzio hutsa (13); fikzio lan (4); fikzio lana (3); fikzio net (4); fikzio da (11); fikzio dela (7); fikzioa egiten (4); fikzioa eta (21); fikzioa eta errealitatea (5); fikzioa ez (4); fikzioa nahasten (3); fikzioak errealitatea (3); fikzioak eta (3); negozioazioaren fikzioa (3); oinarritutako fikzioa (3); politika fikzioa (3); zientzia fikzio (9); zientzia fikzioa (19); zientzia fikzioa da (3)

errealitatearen eta fikzioaren (6); eta fikzioaren (18); eta fikzioaren artean (3); eta fikzioaren arteko (10); eta fikziozko (10); eta zientzia fikzio (3); fikzioaren artean (3); fikzioaren arteko (10); fikzioaren arteko muga (3); fikzioari esker (3); fikziorik ez (5); fikziorik gabeko (3); fikziozko espazioak (4); fikziozko film (8); fikziozko film luzeak (4); fikziozko istorio (5); fikziozko lan (3); fikziozko lanak (4); fikziozko pertsonaia (8); fikziozko zinema (3); historiaren eta fikzioaren (3); zientzia fikzioan (3); zientzia fikzioaren (7); zientzia fikzio (8); zientzia fikziozko (22)

fikziogile izond/iz fikziozko idazlanak egiten dituen pertsona.

"Ez ezazue Levi **fikziogilea** ahantzi!", erregutu zigun bere irakurleoi. Juan Garzia

fikziogintza iz fikziozko idazlanak egitea; fikziozko idazlanen multzoa.

Horrexegatik diogu beldurra **fikziogintzari**; munduaren, gure munduaren ardatza apurtu egin daitekeela uste dugulako. Iñaki Iñurrieta

Gure inguruko **fikziogintzan**. Berria - Kultura

fikzionalismo *iz*

Erlatibismoa gaur egun aurkitu, perspektibismo, historizismo, soziologismo, psikologismo, antropologismo, biologismo, eboluzionismo, pragmatismo, **fikzionalismo**, etab., gisan aurkitzen da de fakto. **Joxe Azurmendi**

fikzionatu *izond* fikzio bihurtua.

Erreala, jadanik, gauza **fikzionatu** bat da; errealtatea, aldiz, basatia da, nahasia, anitz formatakoa eta ez dugu sekula kontrolatzen. **Ana Urkiza**
Euskal literaturari, besteak beste, maskulinoari eta femeninoari buruzko teoria **fikzionatua** ekarri dio. **Ana Urkiza**

fila 1 *iz* ilara.

Otxandorena beti zan duk primerako atzelaria, hemen betiko pasatzean da telebistan eta torneo garrantzitsuetan agertu arte jendeak ez dik bigarrenko **fila** batean edukitzen zaitu. **Berria - Kirola**

2 *brasiliar* fila zakur arraza baten izena.

Bestelakoak: 131 pitbull, 96 argentinar dogo, 32 **brasiliar** fila, 49 kanariar presa, 37 napolitar mastin, **Gotzon Garate**

filado *iz* soinu bat gozatua atxikitzea.

Abesteko teknika handia erakutsi zuen, baita edertasuna adierazteko musikaltasuna ere: gurguiluak, **filadoak**, fraseatze txukuna, ziur goi eta behe erregistroan, epelago agian erdikoan. **Berria - Kultura**

Portamento eta **filado-**etan ondo aritu zen. **Berria - Kultura**

filakteria *iz* juduen kutun modukoa.

Filakteriak larruzko bi kutxatila dira, larruzko zintak atxikiak dituztenak, eta Pentateukoko pasarteak dituzte barruan, hebreeraz idatziak. **Koro Navarro**

Lastozko maleta batean barneko arropa, **filakteriak** eta liburu batzuk sartu, eta oinez abiatu zen Lublin aldera. **Koro Navarro**

Hadass segituan hasi zen Anshelen **filakterientzako** zaku bat, hallahko jantzi bat, match poltsa bat josten. **Koro Navarro**

filamentu *iz* harizpia.

Ez dago zientziarik foliolo baten tegumentuarenik, zelula baten **filamentuenik**, odol-zain baten makodurarenik, aztura baten manierenik, aiurri baten gorabeherenik. **Juan Garzia**

filantropia *iz* gizadiarenganako maitasuna; filantropoaren bertutea.

Txaloak jotzea eta irribarre egitea, sinpatiaz eta **filantropia** apur batez. **Unai Elorriaga**

Gure herriak eskatzen duena ez da **filantropia**, baizik eta justizia. **Berria - Mundua**

Bazitekeen haren **filantropia** gogaikarriak nire lasaitasunean ere pentsatu izana. **Anjel Lertxundi**

Maitasuna askorenganakoa denean da **filantropia**. **Pako Aristi**

filantropiko *izond* filantropiari dagokiona; filantropian datzana.

Bat-batean, gogoak ematen digunean, hutsetik sortzen ditugu elkarte **filantropikoak**, onegintzakoak eta beste edozein motatakoak. **Jose Morales**

Ez zaizkit batere atsegin lan **filantropikoetan** parte hartzen duten emakume horiek. **Antton Olano**

Ustezko jokaera **filantropiko** horrek kontzientzia lasaitzeko baino ez duela balio, sarri. **Berria - Gaiak**

Moda-bildumaren garrantzi etiko **filantropikoa** azpimarratzen. **Patxi Iturritegi**

Nik uste dut zibilizazioak gehiago zor diola berekoikeriari erlijio guztiei eta utopia **filantropiko** guztiei baino. **Josu Zabaleta**

Harrapatzen nituen seilu guztiak bildu, eta haiei etekin **filantropikoa** ateratzen zien Alderdiko erakunde filateliko batera bidaltzen nituen. **Anjel Lertxundi**

filantropo *izond/iz* gizadiarenganako maitasuna agertzen duena; gizakien bizimodua hobetzen aritzen dena.

Buenos Airesen ikusi zuen argia lan horrek, 1962an, Manuel Puente bankari **filantropoaren** finantzazioa lagun. **Berria - Kultura**

Filantropoa zen Henri Dunant. **Unai Elorriaga**

Hau da jende askok, errege-erreginek, militarrek, abenturazaleek, **filantropoek**, mende askotan izan duten ametsa. **Pello Salaburu**

George Soros **filantropo** aberatsa. **Berria - Mundua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

george soros filantropo (3)

filaria *iz* tropikoetako nematodo bizkarroia, hainbat gaitzen eragilea.

Filaria izeneko har batek sortzen du berez, eta eltxoek zabaltzen dute gizakietara. **Berria - Gaiak**

filarmenika (*orobat pilarmonika*) *iz* ahoko soinua; eskusoinua.

Baina inork ez zuen **filarmenika** joko, inork ez zuen abesti gozorik hasiko. **Koldo Izagirre**

«Esku soinua (trikitia), pianola (soinu handia) eta **pilarmonika** (ezpainetako soinua) ume umetan ezagutu nituen, eta beti eman zidan inbidia izugarria jotzen ez jakiteak» aitortu zuen atzo Joxe Mari Iriondok berak. **Berria - Kultura**

Eta gero, **pilarmonika** nai dutenak, dantzan egin. **Iñigo Aranbarri**

filarmonikoko 1 *izond* orkestraz mintzatuz, zenbait orkestra sinfonikori ematen zaion izena.

Londresko Orkestra **Filarmonikoak** bi kontzertu eskainiko ditu Kurasaaleko auditoriumean. **Berria - Kultura**

Txekiar Orkestra **Filarmonikoak** bi lan aurkeztu zituen Donostian eskainitako emanaldian. **Berria - Kultura**

Milango alla Scala antzokiko orkestra **filarmonikoa** zuzenduko du Juanjo Mena Bilboko Orkestra Sinfonikoko zuzendariak.

Munduko orkestra **filarmoniko** handietan. **Joxean Agirre**

Xabier Maistrerena Vienako Orkestra **Filarmonikoko** harpa jotzaileak egingo du bakarlari. **Berria - Kultura**

2 musikarena.

Bielorusiako Elkarte **Filarmonikoko** Orkestra eta Korua. **Berria - Kultura**

3 orkestra filarmonikoko kidea.

Biolin jotzailea New Yorkeko, Londresko, Berlingo eta Stockholmeko **filarmonikoekin** aritu da. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

londresko orkestra filarmonikoak (3); **orkestra filarmonikoa** (11); **orkestra filarmonikoak** (10); orkestra filarmonikoa (11); **orkestra filarmonikoarekin** (5); orkestra filarmonikoaren (3); **orkestra filarmonikoko** (3); **rotterdamgo orkestra filarmonikoa** (3)

filatelia *iz* posta zigiluak ezagutzeko eta bildumatzeko antzea.

Filatelia elkarteek. **Anjel Lertxundi**

ik filateliko.

filateliko 1 *iz* filateliari dagokiona.

Bata dantza-irakaslea eta bestea **filatelikoa**. **Fernando Rey**

Harrapatzen nituen seilu guztiak bildu, eta [...] Alderdiko erakunde **filateliko** batera bidaltzen nituen. **Anjel Lertxundi**

2 filatelien aritzen den pertsona.

Bi anaia judu alemaniar, bata dantza-irakaslea eta bestea **filatelikoa**, Bernardo eta Villi izenekoak. **Fernando Rey**

filatelista *iz* posta zigiluen bildumatzailerak, zigilu bildumatzailerak.

Euskal **filatelistek** euskaraz idatzitako zigiluak plazaratuak izan dituen eskatu dute. **Herria**

Munduko **filatelista** anitzekin harremanetan zen, ahal zituen tinbre berri guztiak erosten zituen. **Marzel Etxehandi**

filatxo *iz* (kokainazkoa)

Listo, filatxo zuri bat eta **dei** egingo diot. **Sonia Gonzalez**

Ahal duzunean **filatxo** bat jarriazu. **Unai Iturriaga**

Nirekin bazatuz **filatxo** bana ipiniko digu doan. **Sonia Gonzalez**

-Komunera, **filatxo** bat jartzera. **Unai Iturriaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

filatxo bat (5)

filia *iz* zaletasuna, begikotasuna.

Bistakoa da hainbat **filia** eta fobia sortzen dituela frantziar bigotedunak. **Iñaki Heras**

Bere **filia**k nabarmentzeko, bere fobiak zehazteko, bere mozkorrak deskribatzeko. **Jon Alonso**

Horregatik nion halako **filia** partidu hari. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Euskadiko Ezkerrarekiko **filia** hark ere jarraitzen zuen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Nekrofilia, koprofilia, eta beste **filia** asko, ez, inondik ere ez. **Karlos Zabala**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

filia eta **fobia** (5)

filial 1 *izond/iz* enpresez mintzatuz, beste baten mendekoa dena, nahiz finantza autonomia izan.

Gaur egun Arrasateko kooperatiba taldeak [...] mundu zabalean barrena hainbat enpresa **filial** ditu. **Iñaki Heras**

Gainera, haren bi **enpresa filial** lortu zituen Cheneyren konpainiak. **Berria - Mundua**

2 (izen gisa)

Enpresa multinazionalen **filialek** 1996an egindako inbertsioetatik, laurden bat baizik ez zen finantzatu enpresa nagusiaren kapital-ekarpenen bidez. **Koro Navarro**

1998an, UNCTADek jasotako datuen arabera, 60.000 enpresa multinazionalak kontrolaturiko 500.000 **filialen** negozio kopurua, guztira, 11.000 mila milioi dolarrekoa zen.

Koro Navarro

Nazioarteko zuzeneko inbertsioen helburua, kasu horretan, ez da izaten ekoizpena herrialde hartzaileko barne-merkatura bideratua lukeen **filial** autonomo bat sortzea, **filial** /lantegi bat sortzea baizik, produktu bukatuak soldata apaleko eskualdeetan muntatzeko helburuaz maizenik, herrialde aberatsetako merkatuetara berriz esportatzeko gero. **Koro Navarro**

Babcockek Madrilen eta Asturiasen dituen **filialetako** beharginek. **Berria - Ekonomia**

1980ko hamarraldiaren erdian, enpresa multinazionalen **filialen** desjabetzeak zerora jaitsiak ziren berrit. **Filialekiko** sozietateen sorrerari esker, malgutu egin zen enpresen egitura. **Koro Navarro**

Ferrovial [...] eraikitza enpresak, Australiako Macquarierekin zuen lankidetzat utzi eta Cintra **filiala** burtsaratzea erabaki du. **Berria - Ekonomia**

3 gizarte edo zibilizazioez mintzatuz, beste batetik sortu dena.

Zibilizazio "guraso" eta **"filial"** baten arteko lotura. **Iñaki Mendiguren**

Gizarte Helenikoa Minoikoaren **filiala** zen. **Iñaki Mendiguren**

Zibilizazio **filialetako** bakoitza hartzen badugu. **Iñaki Mendiguren**

Auzitegi Nazionalako **fiskalburua**. Candido Conde-Pumpido **fiskalburuak**. Berria - Harian

Jaime Goiena Gipuzkoako **fiskalburuak**. Berria - Euskal Herria

Auzitegi Nazionalako **fiskalburu** kargua utzi du Eduardo Fungairiñok. Berria - Euskal Herria

Fiskalburu izandakoaren urteotako lana goretsi zuen Acebesek. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

auzitegi nagusiko fiskalburu (5); **auzitegi nazionalako fiskalburu** (14); **auzitegi nazionalako fiskalburua** (5); **auzitegi nazionalako fiskalburuak** (3); **conde pumpido fiskalburuak** (3); **dfko fiskalburu** (3); **espainiako fiskalburu** (6); **espainiako fiskalburu candido** (5); **espainiako fiskalburuak** (9); **espainiako fiskalburuari** (3); **estatuko fiskalburuak** (7); **fiskalburu candido conde** (5); **fiskalburu eduardo** (3); **fiskalburu kargua** (4); **fiskalburu maria angeles** (3); **fiskalburuaren arabera** (3); **mexiko dfko fiskalburu** (3); **nagusiko fiskalburu** (5); **nagusiko fiskalburu maria** (3); **nazionalako fiskalburu** (14); **nazionalako fiskalburu eduardo** (3); **nazionalako fiskalburu kargua** (3); **nazionalako fiskalburua** (5); **nazionalako fiskalburuak** (3); **pumpido espainiako fiskalburuak** (5); **pumpido fiskalburuak** (3); **zuen estatuko fiskalburuak** (4)

fiskalia iz fiskalaren egoitza. ik fiskaltza.

Ni joan naiz **Fiskaliara**, giza-eskubideen elkartetara ere bai, baina orain arte ez dugu erantzunik jaso. Pako Aristi

fiskalitate 1 iz zergei buruzko lege eta arauen multzoa.

Hala ere, UPNk ez du Nafarroako **fiskalitatea** EBn zuzenean defendatzeko premiarik ikusten. Berria - Euskal Herria

Koordinazio bat dago, eta zeharkako **fiskalitatea** ezartzeko dugun eskumena gure interesen defentsan Bruselarekin partekatzen dugu. Berria - Euskal Herria

Nafarroak **fiskalitate** propioa duela eta Madrilekin Itun Ekonomikoaren bidez zehazten duela. Berria - Euskal Herria

Telefonoz egindako hitzorduetan 149.000 pertsonek errenta aitortu zutela jakinarazi zuen **Fiskalitateko** diputatuak. Berria - Ekonomia

2 (hitz elkartuetan)

2002ko **fiskalitate** txostena kaleratu du EAEko Kontu Publikoen Auzitegiak. Berria - Euskal Herria

Afrikarrek euren herrialdetara bidaltzen dituzten diruketei **fiskalitate** trabak arintzea. Berria - Mundua

Fiskalitate gaizkiletzako ikerketetan espezializatutako Parisko Philippe Corroye epaileari. Berria - Mundua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

fiskalitate eta (4); **fiskalitateko diputatuak** (3)

fiskalizatu, fiskaliza, fiskalizatzen du ad kontrolatu.

Lege-proiektuaren zirraborra gobernukideen artean komentatzen nahiz **fiskalizatu** beharreko organoetara bidaltzen hasi ziren. Berria - Euskal Herria

Nik, doinu horretan aritzeko asmorik ez nuenez, **"fiskalizatu"** egin nuen Gabixolaren lana. Andoni Egaña

fiskalizazio 1 iz fiskalizatzea.

Erakundeetatik kanpo daudenetik, Nafarroako Gobernuaren **fiskalizaziorik** ez dela egiten esan zuen Barrenak.

2 zerga ikuskatzailetza ezartzea.

Estatuaren baliabideen **fiskalizazioa**, XII. mendean abiatuak, lasterragotu egin zen XIV. mendean. **Koro Navarro**

Comptos Ganberak egindako **fiskalizazio** txostenaren arabera. **Berria - Kultura**

fiskalorde iz fiskalaren hurrengoa, eta, egoera jakin batzuetan, haren ordekoa. ik**prokuradoreorde**.

Sergei Fridinski **fiskalordeak**. Udan, Egipton [...] ez da izango landetako **fiskalordearena** baino lan gogorragorik. **Pablo Sastre**

Fiskalordeak halako sentiberatasuna erakustea ez zen izan erakoa. **Pablo Sastre**

fiskaltza 1 iz fiskalaren kargua eta jarduna. ik**fiskalia; prokuradoretza**.

Hori dela eta, «terrorismoa goratzea» leporatzen die **Fiskaltzak**. **Berria - Euskal Herria**

Gobernuak eta **Fiskaltzak** HZren aurkako inpuazioa iragarri dute. **Berria - Euskal Herria**

2 (erakunde ofizialen izenetan)

Estatuko **Fiskaltza** Nagusiak dituen datu guztien arabera. **Berria - Euskal Herria**

Belgikako **Fiskaltza** Federalak atzo adierazi zuenez. **Berria - Euskal Herria**

Espainiako **Fiskaltzak** iazko urteari buruz kaleratu duen txostenean. **Berria - Euskal Herria**

Helegitea jarri du Auzitegi Nazionalako **fiskaltzak**. **Berria - Euskal Herria**

EAEko **Fiskaltzak** kereila jarri zion Madrazori hitz haiengatik. **Berria - Euskal Herria**

Azaroaren 15ean zabaldu zuen ikerketa Gipuzkoako **Fiskaltzak**. **Berria - Euskal Herria**

Auzitegi Goreneko **Fiskaltzari**. **Berria - Euskal Herria**

Bizkaiko Lurralde Auzitegi Korruptzioaren Kontrako **Fiskaltzak** egindako akusazioa dela-eta. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adingabeen fiskaltza (3); da fiskaltza (3); espainiako fiskaltza (5); estatuko fiskaltza (21); estatuko fiskaltza nagusiak (8); estatuko fiskaltza nagusiarik (6); eta estatuko fiskaltza (4); eta fiskaltza (10); eta fiskaltza nagusiak (3); eta fiskaltza nagusiaren (3); fiskaltza antiterroristak (5); fiskaltza eta (3); fiskaltza nagusiak (18); fiskaltza nagusiaren (8); fiskaltza nagusiarik (11); fiskaltza nagusiko (5)

abokatuak eta fiskaltzak (8); adingabeen fiskaltzak (3); atzo fiskaltzak (4); aurkako fiskaltzak (5); auzitegi nagusiko fiskaltzak (4); auzitegi nazionalako fiskaltzak (12); auzitegioko fiskaltzak (4); baina fiskaltzak (7); belgikako fiskaltzak (10); da fiskaltzak (3); die fiskaltzak (11); ditu fiskaltzak (6); donostia gipuzkoako fiskaltzak (3); donostiako fiskaltzak (5); du fiskaltzak (42); eaeo fiskaltzak (5); egin du fiskaltzak (3); errusiako fiskaltzak (4); eskatu du fiskaltzak (7); espainiako fiskaltzak (17); estatuko fiskaltzak (15); estatuko fiskaltzak eta (3); eta estatuko fiskaltzak (3); eta fiskaltzak (35); eta fiskaltzak hzren (3)

fiskaltzak aginduta (3); fiskaltzak atzo (9); fiskaltzak aurkeztutako (5); fiskaltzak auzitegi (5); fiskaltzak bederatzi (3); fiskaltzak bere (3); fiskaltzak bi (8); fiskaltzak bi urteko (4); fiskaltzak bost (3); fiskaltzak bost eguneko (3); fiskaltzak edo (3); fiskaltzak egindako (6); fiskaltzak ere (3); fiskaltzak erredakzioa (5); fiskaltzak espetxeratzeari (4); fiskaltzak eta (18); fiskaltzak eta estatuaren (6); fiskaltzak eta manos (4); fiskaltzak ez (11); fiskaltzak ez du (6); fiskaltzak hamar (3); fiskaltzak hamar urteko (3); fiskaltzak helegitea (12); fiskaltzak helegitea aurkeztu (4); fiskaltzak helegitea jarriko (3); fiskaltzak hiru (4); fiskaltzak hzren (4); fiskaltzak ikerketa (4); fiskaltzak kereila (5); fiskaltzak otegiaren (3); fiskaltzak salaketa (4); fiskaltzak uko (3); fiskaltzak ustez (3); fiskaltzak zortzi (5)

frantziako fiskaltzak (7); gipuzkoako fiskaltzak (28); gobernuak eta fiskaltzak (5); italiako fiskaltzak (3); kontrako fiskaltzak (3); leporatzen die fiskaltzak (3); milango fiskaltzak (4); nafarroako fiskaltzak (4); nagusiko fiskaltzak (4); nazionalako fiskaltzak (13); orain fiskaltzak (3); parisko fiskaltzak (4); uste du fiskaltzak (4); ustelkeriaren aurkako fiskaltzak (4); zion fiskaltzak (5); zituen fiskaltzak (6); zuen fiskaltzak (13)

dio fiskaltzaren (3); estatuko fiskaltzaren (3); eta fiskaltzaren (10); fiskaltzaren arabera (15); fiskaltzaren aurrean (4); fiskaltzaren erabakia (4); fiskaltzaren esanetan (6); fiskaltzaren eskariz (5); fiskaltzaren esku (8); fiskaltzaren eta (6); fiskaltzaren jarrera (4); fiskaltzaren kereila (3); fiskaltzaren ustez (4); gobernuaren eta fiskaltzaren (4)

auzitegi nazionalako fiskaltzari (4); eaeo fiskaltzari (3); espainiako fiskaltzari (3); estatuko fiskaltzari (5); eta fiskaltzari (5); fiskaltzari eta (6); fiskaltzari igorri (4); nazionalako fiskaltzari (4)

fisionomia ik fisionomia.

fistula iz gorputz organo bat kanpoaldearekin edo bi organo elkarren artean lotzen dituen hodi anormala.

Gure Ordenako anaia batek asko sufritzen zuen albo batean zuen **fistula** batengatik. **Askoren artean**

Anaia bat sabelpeko **fistulatik** sendatua. **Askoren artean**

fisura iz hezur bateko pitzatu luzea.

Gizonezkoak, bizkarrean eta ornoetan kolpe ugari eta bularrezurreko **fisura** ditu. **Berria - Euskal Herria**

Pelbisean **fisura** du. **Berria - Euskal Herria**

Horrelakoetan, eta gaixoak mina nabaritzen duenean, batez ere, **fisura** bat izan ohi da arazoaren iturria. **Berria - Gaiak**

fite 1 *adlag* berehala, laster.

Zatozte **fite**! -entzuten diozu erraten. **Ramuntxo Etxeberri**

-Itzuli **fite** erredakziora. **Aingeru Epaltza**

-Horrela jokatu, asteak **fite** pasatuko dituk. **Daniel Landart**

Biziki aise eta **fite** irakurtzen den liburu harrigarri bat, erakuspen ainitzekin. **Herria**

Fite igaraiten beita hanitxen bizia. **Herria**

Errepidea utzi behar nitek **fite**! **Piarres Aintziart**

Esne ona baldin badute bildotsak **fite** egiten dira. **Michel Oronoz**

Hemen Baionan aski **fite** akort izan gira. **Herria**

Orena biziki **fite** joan zen. **Marzel Etxehandi**

-Ikaragarri **fite** gertatzen ari duk dena. **Aingeru Epaltza**

Minutu batez iduritu zait sobera **fite** ibili naizela. **Piarres Aintziart**

Zerbait egin behar nuen, **fite** egin ere. **Aingeru Epaltza**

Fite behar zen gauza trinkatu. **Herria**

Ikusi behar da zein **fite** ari diren lanean. **Herria**

Elizatik atera bezain **fite**. Aingeru Epaltza

Ahal den bezain **fite** lasterka ihes egin! Aurelia Arkotxa

Guziak senda ditela ahal bezain ontsa eta ahal bezain **fite**. Herria

ADSL ren bidez, aise **fiteago** ibiltzen ahal da Interneten. Herria

Gero ta **fiteago** nabil. Piarres Aintziart

Frantsesez lasterrago, **fiteago** irakurtzen dutala eskuaraz baino. Menane Oxandabartz

Urrats beretik azken patarrari lotzen dira, mendizalea kasu eginez **fiteegi** ez doala eta karrikako mutikoa segitzen zaiola. Michel Oronoz

2 fite-fite

Eta aholkurik galdetu gabe **fite fite** urrundu gara! Ramuntxo Etxeberri

Goazen **fite-fite**. Txillardegi

Errepikak **fite fite** egin ondoan, batzuek etxetik ekarri bazkaria, Getxoko toki atseginetan hartu dute, besteek ostatuan. Herria

Harrigarria! **fite fite** ari ziren pusken biltzen, bainan ez dute denborarik izanen denen eramaiteko! Herria

3 fitexago

Eskuin hartarat ere **fitexago** ernatzekotan. Herria

3 fitezago

Gero, igan zen osaba arestian seinalatu zuhaitzerat, ohi zuen bezala, urtxintxa baino bizkorrago eta **fitezago**. Joan Mari Irigoien

Eta ez ote zituen Mignon biluziak ere oinetakoak jarririk, ez bere ahalkearen eta bere dekoraoaren ezkutatzeko, nola aitortu baitzidan, baina arintkiago eta **fitezago** ihes egin ahal izaiteko? Joan Mari Irigoien

Zeren eta berri hura oinazturak hartua bezala zabaldu baitzen Europa osoan, ezin **fitezago**. Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aditu bezain fite (17); **ahal bezain fite** (4); **akabatu bezain fite** (3); **aski fite** (7); **bezain fite** (123); **biziki fite** (6); **egin bezain fite** (6); **entzun bezain fite** (5); **erran bezain fite** (4); **fite agertu** (3); **fite ari** (3); **fite egin** (3); **fite egiten** (5); **fite fite** (7); **fite joan** (4); **fite ohartuko** (3); **hasi bezain fite** (3); **hoin fite** (5); **ikusi bezain fite** (7); **iragan bezain fite** (3); **iritsi bezain fite** (5); **jakin bezain fite** (5); **laster eta fite** (3); **sartu bezain fite** (3); **sobera fite** (6)

baino fiteago (5); **eta fiteago** (4); **gero eta fiteago** (3)

fitekara *adlag* laster samar.

Charles X.ak bere alkea utzi zuen **fitekara**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Haatik, iguzkia atera aitzin, beren ziloetara itzultzen ziren **fitekara**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

fitexko *(orobat fitesko g.er.) adlag* laster samar.

To! buruzagiak atxeman ditie, orai **fitexko** libro izanen gaituk! Herria

Ez ote ziren **fitexko** ari. Xipri Arbelbide

Beste partida hau ere **fitexko** joan da. Herria

Fitesko eraman dute irabazleek, besoz ere nausi, partida hau astelehenean. Herria

Menpeko nuen haur babesgabe horrekin **fitexko** joan nahi eta horra ondorioa! Aingeru Epaltza

Eta **fitexko**, gainera! Daniel Landart

fitness *iz* gorputza sasoian atxikitzeko gimnastika teknika.

Izena emanda nago **fitness** klub batean. Javi Cillero

Ba nire **fitness** irakaslearenak ikusiko bazenu... Patxi Iturritegi

fitologia *iz* botanika.

Kosmologia: kosmogonia, **fitologia**, zoologia, giza kultura. Xabier Amuriza

fitonimo *iz* landare izena.

Horregatik harritzen nau, Tipulatz, Babaze eta gisako aztarnen alboan, azari atxekitako euskal **fitonimorik** inon aditu ez izanak. Patziku Perurena

fitopatogeno *iz* landare batean bizkarroi dagoen organismoa.

Berrotegiak 288 metro koadro dauzka eta landareak -baita **fitopatogenoak** ere segurtasunarekin manipulatzeko aukera ematen du. Berria - Euskal Herria

fitopatologia *iz* landareen gaitzen azterketa.

Fitopatologiari eta parasito hauei guztiei buruz mintzatu zen Jesus Calvillo teknikaria. Berria - Euskal Herria

fitoplankton *iz* landare organismoz osaturiko planktona.

Fitoplanktona da itsasoan dagoen landare unizelularra. Berria - Gaiak

Inguru horretako **fitoplanktona** eta zooplanktona landare eta animalia ñimiñoak desagertzen ari da. Berria - Gaiak

Fitoplanktonaren kontzentrazioa handia denean. Berria - Gaiak

fitosanitario *izond* landareen gaitzen prebentzio eta sendaketari dagokiona.

Fitosanitarioen eta petrolio gaien igoerak nahiz iazko idorteak egoera larriagotu egin dute. Berria - Ekonomia

fitoterapia iz landareen edo landare gaien bidezko sendabidea.

Erresuma Batuko 16 **fitoterapia** konpainiatatik 11k ingurune naturaletan lortzen dituzte sendabelarrak **Berria - Gaiak**

fits 1 iz lasto izpia; ale txit txikia edo hutsala.

Horra **fits** bat gogamenaren begia larritzeko gai. **Juan Garzia**

Argiak urrezko distira piztu zuen irisaren **fits** nabar txikien gainean. **Lopez de Arana**

Edo baturatik zerbait, **fitsa** bada ere, kentzea. **Xabier Amuriza**

Hartarik deus ukigarriak gelditzen bazen, **fits** bilakatu zuen Kristinaren oihu txunditu-larleriatsu-erreak. **Aingeru Epaltza**

Hareazko **fitsek** hortzen artean. **Lopez de Arana**

2 **fitsik** (ezezko esaldietan) ezer ere (*orobat **fritsik** g.er.*) ik izpi 10.

Ez nian **fitsik** ikusten baina haur negar ozen bat entzun nian. **Daniel Landart**

Oinetakoek min egiten badiote, berak ez du **fitsik** ere esaten, ezta hatzak korapilatzen zaizkionean ere. **Itziar Otegi**

Ez zidaten **fitsik** erraiten, ez eta nik ere, baina elgar ulertzen ginuen. **Filipe Bidart**

Biek bide egin zuten, karrikan barna, elkarki **fitsik** erran gabe. **Elena Touyarou**

Ongi pentsatu eta, ez nintzen ez, **fitsik** balio ez duten trixte-trixte haietarik. **Daniel Landart**

Eta, azkenekoz, neska guztiek jakinen zutela Paxkal rugbyariak ez zuela ohean **fitsik** balio. **Daniel Landart**

Eta nik, **fitsik** ez dakit. **Daniel Landart**

Ez dakit **fitsik** ere Harry Dunkelen gainean. **Oskar Arana**

Kuriosogia agertuz, arriskatzen nuen **fitsik** ez jakitea. **Daniel Landart**

Ezin zion bihotza zabaldu, ezin zuen **fitsik** kontatu. **Anjel Lertxundi**

Gosariak geroztik **fitsik** ahoratu gabea nintzen. **Aingeru Epaltza**

Ez dut zuritu nahi hemen kontua, gertatu dena gertatu baita eta ez baita **fitsik** zuritzeko edo azaluskerietan ibiltzeko. **Pello Salaburu**

Hainbat gaixto zuentzat 48 orenez ez duzue bertze **fitsik** ukanen. **Eneko Bidegain**

Urrats batzuk... burdinazko ate bat zabalitzen... urrats eta harrabots bitxi batzuk... burdinazko ate bat hestean... eta **fitsik** ez gehiago. **Filipe Bidart**

Orduan hoberena da, ahal bezain gauza gutti galdegitea... eta ahalaz, **fitsik** ez! **Filipe Bidart**

Mitard-ean izanez zer irriskatzen nuen gehiago? **fitsik** ez. **Filipe Bidart**

Ez dut ez kaferik, ez azukrerik, ez **fitsik**, ur berorik ere ez. **Filipe Bidart**

Librantza eguna arte (45eko apirilaren 29a), deusik ez zen izan, **fritsik**. **Marzel Etxehandi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

dakit fitsik ere (3); **dio fitsik** (3); **eta fitsik** (3); **ez da fitsik** (3); **ez dakit fitsik** (3); **ez dik fitsik** (3); **ez dit fitsik** (3); **ez du fitsik** (9); **ez dut fitsik** (8); **ez dute fitsik** (3); **ez nuen fitsik** (7); **ez zen fitsik** (3); **fitsik balio** (8); **fitsik ere esaten** (5); **fitsik ere esaten** (3); **fitsik ere esaten** (3); **fitsik ere esaten** (3); **fitsik erran** (9); **fitsik erran gabe** (3); **fitsik erranen** (3); **fitsik erraten** (3); **fitsik esan** (13); **fitsik esan gabe** (6); **fitsik esan nahi** (3); **fitsik ez** (30); **fitsik jakin** (3); **fitsik konprenitzen** (4); **fitsik ulertzen** (4); **nuen fitsik** (8); **zuen fitsik** (5)

fitskeria (*orobat **fiskeria***) iz huskeria.

Betarik ba al duzu nirekin **fiskeria** batez mintzatzeko? **Matías Múgica**

-Fitskeria bat. **Aingeru Epaltza**

Auzoko eskusoinu batek infinituki ekiten zion La Cumparsitari, kantu zaharra delako ustekeria irentsarazi diotelako hainbat jende atsegin duen **fitskeria** samin-espantuzko horri... **Juan Garzia**

fitxa 1 iz txartela edo kidekoa.

Ohar luzez beteriko **fitxa** ugari. **Iñaki Mendiguren**

Multzotik **fitxa** batzuk hartu eta lehenengoari begira jarri zen. **Iñaki Iñurrieta**

Erizain bat **fitxa** bat ari da betetzen. **Ramuntxo Etxeberri**

Irakurriak nituen liburuetakoa aipua **fitxetan** jasotzea. **Iñaki Iñurrieta**

Bilduak ditu milaka **fitxa** Garibaik erabili zituen iturri buruz. **Anjel Lertxundi**

Fitxaren buruak erreferentzia bibliografikoa identifikatzeko behar diren datu guztiak eduki behar ditu. **Askoren artean**

Oharra eta **fitxak** nola egin, ideiak nola egituratu, azaldu, aurkeztu.... **Askoren artean**

Fitxa pertsonala. **Alberto Ladrón Arana**

Paper guziak emaiten dizkigute, deportatu izanak garelakoak barne; gero dutxa, eta medikuak: **fitxa** medikala. **Marzel Etxehandi**

Galdeketa **fitxa** teknikoak ikusirik. **Berria - Euskal Herria**

Zapata kaxetan gordetzen zituen Mitxelenak hiztegiarako egindako **fitxak**. **Berria - Harian**

2 (poliziarena)

Nire **fitxa** poliziala? **Aingeru Epaltza**

Alemanez idatzi zegoen eta SSetako artxibotik ateratako **fitxa** baten tankera hartu nion. **Alberto Ladrón Arana**

Fitxa egin behar didan funtzionarioak zer alderditakoa naizen galdetu dit. **Agurtzane Juanena**

Gero komisariara, interrogatorioak, artxibotik **fitxa** aterako lukete, kolpeak, mehatxuak. **Iñaki Zabaleta**

"Ezagunak egingo zaizkizu", esan, eta **fitxa** luzatu dit. **Anjel Lertxundi**

Nire **fitxa** zeukat, xehetasun guztiekin: bazekiten idazlea nintzela, bazekiten zer idatzen nuen, nire prentsa artikuluen berri zehatza zuten, jakiteagatik, bazuten azken bost urteetan unibertsitatean sinatu nituen manifestuen berri ere. **Harkaitz Cano**

Gauza dira poliziari dei egin eta nire **fitxa** berriz ere dantzan jartzeko. **Javi Cillero**

Pasaportea eskatu eta **fitxa** bat betearazi diote. **Berria - Harian**

3 (futbolearen-eta)

Hasierako hamaikakoan egotetik, **fitxa** barik egotera igaro zen egun batetik bestera atezain gipuzkoarra. **Berria - Kirola**

Unelco Tenerife taldea diruz larri dabil, jokalariei **fitxak** ordaindu ezinik. **Berria - Kirola**

Komunitario ez diren jokalarientzako **fitxa** bat libre du Donostiako klubak. **Berria - Kirola**

Tauko David eta Macijauskasek ez dute atzeritar **fitxa** izango.

1,8 milioi euroko **fitxa** du Davidsek. **Berria - Kirola**

Lehen Mailako talderen batean jokatzeko arazorik ez badu ere, duen **fitxa** da beste talderen batera joateko oztopo nagusia.

Nafarroako Atletismo Federazioko **fitxa** du. Berria - Kirola

4 (jokoetako pieza)

Jokalari bakoitzak **fitxak** jarri zituen mahaian. Iñaki Zabaleta

Gizonak eta emakumeak damatako **fitxak** bezala izan ziren erabiliak. Anton Garikano

Dominoko **fitxak** lau ilaratan zeuden mahai gainean. Anton Garikano

Han zeuden bere laurogeita hamar koroak, domino-**fitxen** bi errenkaden artean. Anton Garikano

Fitxa bat jarri zuen mahaiaren erdian, eta hasi zen jokoa. Anton Garikano

Josebak bost dolarren balioko **fitxa** bota zuen. Iñaki Zabaleta

5 (hitz elkartuetan)

Lau horma zabalak zurezko **fitxa** -kutzatilaz estalirik zeuden abezedarioaren arabera, "G" hizkiarena hartu eta izenak pasatzen joan zen fitxa aurkitu arte. Iñaki Zabaleta

Aho-**fitxak** egin eta egin aritu garenok, sinisten dugu eskolaumeek ahozkotasanunaren arloan aurrera egin dezaten premia badagoela. Andoni Egaña

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atzerritar fitxa (19); **atzerritar fitxa betetzen** (5); **atzerritar fitxa izango** (3); **baina fitxa** (3); **bere fitxa** (9); **du fitxa** (4); **duen fitxa** (6); **eta fitxa** (9); **federazioko fitxa** (3); **fitxa bana** (3); **fitxa bat** (20); **fitxa baten** (4); **fitxa batzuk** (5); **fitxa bete** (3); **fitxa beteko** (3); **fitxa betetzen** (5); **fitxa bikoitza** (3); **fitxa du** (4); **fitxa egin** (3); **fitxa hartu** (4); **fitxa hartu zuen** (3); **fitxa hartuko** (3); **fitxa horiek** (3); **fitxa hura** (4); **fitxa irakurtzen** (5); **fitxa irakurtzen jarraitu** (3); **fitxa izango** (6); **fitxa izenburua** (3); **fitxa kendu** (9); **fitxa mugitu** (7); **fitxa mugitzea** (4); **fitxa teknikoa** (3); **grosrouvreren fitxa** (3); **hurrengo fitxa** (4); **hurrengo fitxa hartu** (3); **jaunak hurrengo fitxa** (3); **jokalariaren fitxa** (3); **nire fitxa** (4); **zen fitxa** (3); **zuen fitxa** (3)

atzerritar fitxak (4); **atzerritar fitxarik** (3); **atzerritar fitxarik izango** (3); **dominoko fitxak** (3); **eta fitxak** (8); **fitxak egin** (4); **fitxarik ez** (4); **fitxarik gabe** (10); **fitxarik gabe utzi** (4); **fitxarik izango** (3); **oharrak eta fitxak** (3)

fitxaje iz fitxatu den pertsona.

Gainera, erromatarrek propio munduko gerlaririk onenak ekarri **-fitxaje** bereziak nonbait- eta "burnizko jantzi berri eta sendoa" eginarazi zituztela entzun dute. Martin

Anso

Gaizka kabroiak, berriz, zelako **fitxajea** dakarren! Jon Arretxe

fitxaketa 1 iz fitxatzea.

Hamahiru urteko mutikoa, artean seigarren mailan zegoena, Hulk-en eskuak eta Frankensteinen burua zituena... egundoko **fitxaketa**, baldinbaitere! Jesus Mari

Mendizabal

Argentinan ziharduten komunisten **fitxaketaz**. Edorta Jimenez

2 (futbolean eta)

Mallorcak ere lau **fitxaketa** egin ditu. Berria - Kirola

Fitxaketen epea amaitu arte aukera guztiak aztertzeko prest gaude. Berria - Kirola

-Zorionak **fitxaketagatik**, baina zoriona ez duk hori... Joan Mari Irigoien

Real Madridekin itxear nintzen balizko **fitxaketaren** kontra mintzatzen zirela. Joan Mari Irigoien

Bi izan dira aurtengo udan Alonsoren **fitxaketa** lortzen saiatu diren taldeak. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurtengo fitxaketa (4); **aurtengo fitxaketa nagusia** (3); **azken fitxaketa** (9); **bere fitxaketa** (7); **bi fitxaketa** (14); **bi fitxaketa egin** (6); **bigarren fitxaketa** (4); **bost fitxaketa** (3); **bost fitxaketa egin** (3); **da fitxaketa** (5); **dituzte fitxaketa** (3); **du fitxaketa** (3); **duen fitxaketa** (3); **egindako fitxaketa** (3); **ere fitxaketa** (4); **eta fitxaketa** (14)

fitxaketa baieztatu (5); **fitxaketa baieztatu du** (3); **fitxaketa bakarra** (3); **fitxaketa bat** (4); **fitxaketa berria** (5); **fitxaketa berriak** (12); **fitxaketa berrien** (4); **fitxaketa da** (9); **fitxaketa egin** (37); **fitxaketa egin ditu** (14); **fitxaketa egin dituzte** (12); **fitxaketa ere** (3); **fitxaketa eta** (4); **fitxaketa ez** (3); **fitxaketa garaia** (4); **fitxaketa garestiena** (4); **fitxaketa garrantzitsuena** (3); **fitxaketa gehiago** (4); **fitxaketa gehien** (4); **fitxaketa handiak** (3); **fitxaketa itxi** (3); **fitxaketa mordoa** (3); **fitxaketa nagusia** (6); **fitxaketa on** (4); **fitxaketa onak** (16); **fitxaketa onak egin** (12); **fitxaketa onena** (3); **fitxaketa oso** (3)

hiru fitxaketa (9); **hiru fitxaketa egin** (8); **hirugarren fitxaketa** (4); **inoizko fitxaketa** (3); **inoizko fitxaketa garestiena** (3); **lau fitxaketa** (6); **lau fitxaketa egin** (4); **lehen fitxaketa** (9); **neguko fitxaketa** (3); **oso fitxaketa** (4); **oso fitxaketa onak** (4); **palermoren fitxaketa** (3); **udako fitxaketa** (5); **zuen fitxaketa** (4)

alavesen azken fitxaketak (3); **aukbasqueren azken fitxaketak** (3); **azken bi fitxaketak** (4); **azken fitxaketak** (15); **bi fitxaketak** (8); **da fitxaketak** (3); **eta fitxaketak** (5); **fitxaketak egin** (11); **fitxaketak egitea** (6); **fitxaketak egiteko** (22); **fitxaketak egiteko epea** (8); **fitxaketak ere** (3); **fitxaketak ondo** (3); **neguko fitxaketak** (4); **neguko fitxaketak egiteko** (3)

du fitxaketarik (6); **du fitxaketarik egin** (3); **dute fitxaketarik egin** (3); **ez du fitxaketarik** (5); **ez dute fitxaketarik** (3); **fitxaketaren bat** (10); **fitxaketarik egin** (16); **fitxaketarik egin ez** (5); **fitxaketarik egiteko** (4); **fitxaketarik egiteko asmorik** (3); **fitxaketarik ez** (5); **fitxaketarik garestiena** (8); **fitxaketen inguruan** (3); **historiako fitxaketarik** (4); **historiako fitxaketarik garestiena** (3); **osasanaren historiako fitxaketarik** (3)

fitxategi 1 iz fitxak gordetzeko altzari edo kutxa.

-Hauxe da kontua -jarraitu zuen gero, mahai gaineko **fitxategi** bat seinalatuz. Iñaki Iñurrieta

Metalezko **fitxategiaren** azpian. Iñaki Iñurrieta

Idazmahaiko miaketa bukatutzat emanda, bulegoko bi **fitxategi** metalikoetara jo nuen. Alberto Ladron Arana

Gasteizko Sancho El Sabio liburategira joan eta **fitxategia** kontsultatzen hasi nintzen. Iban Zaldúa

Niri zegokidan karpeta **fitxategi** bihurtuaz oroitu nintzen. Aingeru Epaltza

Fitxategi, bibliografikoa. Askoren artean

Gaien **fitxategia**. Askoren artean

Funtsezko materiala hautatu ahala, beraz, komeni zaizu hura **fitxategietan** sailkatzea. Askoren artean

Nabarmen azaltzen ziren bereziki amak, bere familiaren alde bietako genealogia zehazteko, ilaratan bilduak zituen karpetak, **fitxategiak** eta dokumentuak. Joxan Elozegi

Fitxategia eta nomenklatura bidaltzeko eskatuko nioke. Jon Muñoz

2 (hitz elkartuetan)

Fitxategi -mota asko dago (bibliografikoak, irakurketarenak, tematikoak (gaienak), aipuenak, ideienak, izenenak, etab.). Askoren artean

-Gure liburu **fitxategia** izango da, irakurri ditugun liburuak, haien egileen izenak eta data idazteko. Josu Zabaleta

3 (ordenagailuetan)

Ordenagailuaren disko gogorretik **fitxategi** bat borratzen denean. Fernando Morillo

Fitxategia diskoan gorde eta izena jarri diot nire idazlanaren lehenengo kapitulari: "I. Ama". Xabier Etxabe

Aurkitu **fitxategia** zioen leihatila hautatu nuen. Aingeru Epaltza

Harri eta zur ikuskatu nuen pantailara etorritako emaitza: hamazazpi **fitxategi**, osotara. Aingeru Epaltza

Dokumentua gorde eta bilatzaileari berriz ere lana emateko asmoz eragin nion xaguari, **"Fitxategia"** zitzaien laukitxoaren gainean. Aingeru Epaltza

Txundituta, "Aurkitu **fitxategia**" zanpau eta horixe bera tekleatu nuen: "edu-2". Aingeru Epaltza

"Ez da **fitxategia** aurkitu", makinaren erantzun biribila. Aingeru Epaltza

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

fitxategi bat (8); **fitxategi hori** (3)

fitxatu, fitxa(tu), fitxatzen 1 du *ad* fitxa egin.

Nobela liburutegira heldu orduko, **fitxatu** eta zigilua jarri zion 111, 211 eta 311. orrialdeetan. **Iban Zaldúa**

Fitxatzeko unean, liburu hori irakurriko zuela erabaki zuen, hasiera gainetik leitzeko aukera izan zuelako, eta gustatu zitzaiolako. **Iban Zaldúa**

2 (poliziak)

Horrelako telefonoak seguruak izan zitezkeen, baldin eta **fitxatu** gabe bazeuden. **Fernando Morillo**

1987 urtean, artean poliziak **fitxatu** ez zuelarik gertatutako zerbait zen. **Harkaitz Cano**

Oraindik **fitxatu** gabea izanagatik, oso bizitza diskretua zeraman. **Harkaitz Cano**

Fitxatua edukiko zuen. **Koldo Izagirre**

3 (futbolean eta)

Gero talde profesional batek **fitxatu** ninduen. -Egia al da Barça**k** **fitxatu** nahi zaituela? **Unai Elorriaga**

Eta inoiz Real Madridekin **fitxatzen** baduk, akabo, ez diat hitz egingo! **Joan Mari Irigoien**

Realak ez du baztertzen defentsaren bat **fitxatzea**. **Berria - Kirola**

Bi arraunlari **fitxa** ditzake Castro taldeak datozen egunotan. **Berria - Kirola**

Hedabide askotan eskaini diote tartetxo bat, eta The Guardian egunkariak kronikari **fitxatu** du. **Txema Ramirez de la Piscina**

Haiekin batera, baina janzkera apalagoarekin, Sukii -bateria **fitxatu** berria- eta Frank Factor gitarra-jole mitikoa. **Patxi Iturritegi**

4 lantokietan, langileak kontrol erlojuan fitxa sartu sartzean eta ateratzean.

Orain ez zegok bromarik, fabrikan **fitxatu** egin behar duk. **Pello Lizarralde**

Brusa grisa janzteko, arrapataka ibili beharra; erloju aurrean, bultzakada artean **fitxatzea**; makinaraino arrapaladan joan beharra. **Eskarne Mujika**

Gisa hartara, 7:43an iristen denak bere jarlekuan gelditu beharko du 15:07a arte, eta 7:59an **fitxatutakoak**, berriz, ez du gauza bera egiten ahal 15:19a baino lehen.

Aingeru Epaltza

Idazleok eta jende desokupatuak horrela **fitxatzen** dugu egunero gure bulegoan, gure faktoria imajinarioan: baguette bat eta Le Monde erosiz. **Harkaitz Cano**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

a fitxatu (3); **aduriz fitxatu** (3); **argentinarra fitxatu** (5); **asko fitxatu** (3); **athleticek fitxatu** (6); **atzelari frantziarra fitxatu** (3); **atzerritar fitxatu** (5); **atzerritarrak fitxatu** (4); **aurrelari bat fitxatu** (5); **aurrelaria fitxatu** (8); **aurrelaria fitxatu du** (5); **bartzelonak fitxatu** (6); **bat fitxatu** (33); **bat fitxatu du** (5); **bat fitxatu nahi** (8); **bat fitxatu zuen** (3); **beñoñ bera fitxatu** (7); **bera fitxatu nahian** (3); **berria fitxatu** (3); **beteranoa fitxatu** (4); **beteranoa fitxatu du** (3); **betetzeko fitxatu** (3); **bi jokalaria fitxatu** (5); **bi urterako fitxatu** (5); **brasildarra fitxatu** (3); **brasildarra fitxatu du** (3); **entrenatzailea fitxatu** (6); **erdilaria fitxatu** (5); **ere fitxatu** (8); **espainiarra fitxatu** (4); **espainiarrak fitxatu du** (3); **estaltzeko fitxatu** (3); **estatubatuarra fitxatu** (3); **eta fitxatu** (3); **eta ondo fitxatu** (3); **fitxa dezake** (4)

fitxatu ahal (4); **fitxatu aurretik** (9); **fitxatu badute** (3); **fitxatu baititu** (4); **fitxatu baitu** (3); **fitxatu behar** (7); **fitxatu berri** (9); **fitxatu berri du** (3); **fitxatu berri duen** (3); **fitxatu ditu** (57); **fitxatu dituen** (4); **fitxatu dituzte** (15); **fitxatu du** (153); **fitxatu du bi** (5); **fitxatu du bidasoak** (3); **fitxatu du hurrengo** (3); **fitxatu duela** (9); **fitxatu duen** (6); **fitxatu dute** (38); **fitxatu dutela** (3); **fitxatu duzu** (4); **fitxatu egin** (4); **fitxatu eta** (9); **fitxatu ez** (4); **fitxatu nahi** (75); **fitxatu nahi badu** (3); **fitxatu nahi ditu** (3); **fitxatu nahi du** (8); **fitxatu nahi duela** (6); **fitxatu nahi duen** (3); **fitxatu nahi dute** (6); **fitxatu nahi izan** (10); **fitxatu nahi zaituela** (3); **fitxatu nahi zuela** (4); **fitxatu nahi zuen** (3); **fitxatu nahi zuten** (3); **fitxatu nahian** (11); **fitxatu ninduen** (5); **fitxatu nuen** (3); **fitxatu zintuen** (4); **fitxatu zituen** (15); **fitxatu zituzten** (3); **fitxatu zuela** (5); **fitxatu zuela zabaldu** (3); **fitxatu zuen** (111); **fitxatu zuen arte** (3); **fitxatu zuen atzo** (6); **fitxatu zuen osasunik** (3); **fitxatu zuen realak** (7); **fitxatu zuenean** (9); **fitxatu zuenetik** (5); **fitxatu zutela** (3); **fitxatu zutelako** (3); **fitxatu zuten** (19); **fitxatu zutenean** (11)

frantziarra fitxatu (5); **gazte bat fitxatu** (3); **hamaika jokalaria fitxatu** (3); **handiko jokalaria fitxatu** (3); **hungariarra fitxatu** (3); **hungariarra fitxatu du** (3); **inor fitxatu** (5); **italiarra fitxatu** (5); **jokalaria bat fitxatu** (3); **jokalaria fitxatu** (20); **jokalaria fitxatu ditu** (11); **jokalaria fitxatu dituzte** (3); **jokalaria onak fitxatu** (3); **jokalaria fitxatu** (10); **jokalaria fitxatu aurretik** (3); **jokalaria fitxatu** (13); **jokalaria fitxatu ditu** (3); **jokalaria fitxatu zituen** (4); **madrilek fitxatu** (8); **madrilek fitxatu zuen** (7); **manzano fitxatu** (3); **miarritzek fitxatu** (3); **ohia fitxatu** (3); **onak fitxatu** (4); **onak fitxatu ditu** (3); **ondo fitxatu** (5); **ondo fitxatu dute** (4); **ordezkatzeko fitxatu** (3); **real madrilek fitxatu** (6); **realak fitxatu** (4); **serbiarra fitxatu** (3); **taldeak fitxatu** (14); **taldeak fitxatu du** (3); **taldeak fitxatu zuen** (4); **taldearekin fitxatu** (7); **txirrindularia fitxatu** (3); **udan fitxatu** (6); **udan fitxatu zuen** (3); **ugari fitxatu** (3); **urterako fitxatu** (7); **urterako fitxatu du** (5); **urterekin fitxatu** (4); **urterekin fitxatu zuen** (3); **zergatik fitxatu** (3)

bat fitxatuko (4); **ere fitxatuko** (3); **fitxatuko du** (8); **fitxatuko duen** (3); **fitxatuko zenuke** (3); **fitxatutako azken** (3); **jokalaria fitxatuko** (3)

bat fitxatzea (11); **fitxatzea erabaki** (8); **fitxatzea erabaki zuten** (3); **fitxatzea eta** (3); **jokalaria bat fitxatzea** (3); **jokalaria fitxatzea** (3); **norbait fitxatzea** (4)

alonso fitxatzeko (5); **aurrelaria fitxatzeko** (3); **bat fitxatzeko** (10); **bera fitxatzeko** (16); **bera fitxatzeko duen** (3); **bera fitxatzeko interesa** (3); **ere fitxatzeko** (4); **fitxatzeko ahalegina** (4); **fitxatzeko asmoa** (11); **fitxatzeko asmorik** (3); **fitxatzeko aukera** (17); **fitxatzeko duen** (3); **fitxatzeko interes** (3); **fitxatzeko interesa** (15); **fitxatzeko interesa azaldu** (4); **hura fitxatzeko** (5); **jokalaria bat fitxatzeko** (3); **jokalaria fitxatzeko** (4); **jokalaria fitxatzeko** (9); **ni fitxatzeko** (8); **ocio fitxatzeko** (3); **tolosarra fitxatzeko** (3); **xabi alonso fitxatzeko** (4)

atzerritarrak fitxatzen (3); **bat fitxatzen** (7); **bat fitxatzen duen** (3); **batek fitxatzen** (4); **fitxatzen duen** (6); **fitxatzen ez** (3); **fitxatzen hasi** (8); **fitxatzen saiatu** (5); **jokalaria bat fitxatzen** (3); **jokalaria fitxatzen** (4); **talde batek fitxatzen** (3)

fitxatze**ar** *adlag* fitxatzeko zorian.

Erdilari bat fitxatu dute eta aurrelari bat **fitxatze**ar**** dira. **Berria - Kirola**

Itxaso Egañak Bera Beran jokatuko du; Libe Altuna, **fitxatze**ar****. **Berria - Kirola**

Euskaltel-Euskadi taldeko Migel Madariaga managerrak Aitor Gonzalez **fitxatze**ar**** dagoela jakinarazi zuen atzo. **Berria - Kirola**

Zumarragakoa **fitxatze**ar**** dagoela esan du Migel Madariaga managerrak, aukera ona delako. **Berria - Kirola**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

fitxatzear** dagoela** (3)

fitxero *iz* fitxategia.

Baconari "hirugiharra" deitu zion, beste bat **fitxerora**. **Joxean Sagatzizabal**

fiu 1 txistu-hotsaren onomatopeia.

Itzuli zenean, Gandiaga agurtzera joan eta honek **fiu** ihes egiten ziola ikusi zuen. **Pako Aristi**

2 (errepikatua)

Eta tiro hotsekin batera berunezko balek **fiu fiu fiu** egiten zuten gure belarrien ertzean. **Joseba Sarrionandia**

Baina, Txomintxu nire laguna, irten orduko fi-fi-**fiu** agurtzen dudana, gaur mutu harrapatu dut. **Pello Zabala**

fiul *iz* ipar fuela.

Mugerreko garraio lekuan kokatuko direla Prestige untziaren **fiul** errestoak. **Herria**

Azken egun hauetan berriz ere heldu da **fiul** ondarkin andana bat. **Herria**

20000 tona **fiul** bildu dute itsasoan berean. Herria
Herriko Etxeko 60 langile prest dira hasteko **fiul** opil bilketa lanetan. Herria
Zer **fiul** mota den Prestigeakoa. Herria

fiumetar *izlag/iz* Fiumekoa, Fiumeri dagokiona; Fiumeko herritarra.

Fiumetarra hurbildu zitzaien. Josu Zabaleta

fixazio ik **fijazio**.

fixismo (*orobat fijismo*) *iz* espezie biziak aldaezinak direla dioen doktrina.

Eboluzionismoaren eta **fixismoaren** gatazka. Xabier Arregi
Honela Linnaeusen **fixismoari** Darwinen eboluzionismoa kontrajartzen zaio. Xabier Arregi
Lehenari, historia naturalari, **fixismoa** dagokio eta bigarrenari, biologiari, eboluzionismoa. Xabier Arregi
Ez dago zehatza izan den taxonomia naturalik, **fijismoa** izan ez bada. Xabier Arregi

fixista 1 *izond* fixismoari dagokiona.

Linnaeusen hastapen **fixista**. Xabier Arregi

• **2 izond/iz** fixismoaren aldekoa dena.

Arkeologia saiatzen da erakusten nola baieztapen biek, **fixistak** eta "eboluzionistak", baduten bateratzen dituen leku bat espezieen eta generoen deskribapen jakin batean. Xabier Arregi

flagelazio *iz* zigorkatzea.

Bere ustez, garai bateko psikosi kolektiboak, **flagelazioa** eta dantza-epidemia bitxiak, haxixaren edo antzeko narkotiko baten gehiegizko kontsumoak eragin zituen. Anton Garikano

flakatu, flaka, flakatzen **1 da/du ad** ahuldu.

Erialdi bakoitzean hondatzen eta higatzen zaigu gorputza, urritzen eta murrizten zaizkigu indarrak eta kemenak, ahultzen eta **flakatzen** gara. Joan Mari Irigoien
Joanttok, **flakaturik** eror ez zedin gerritik beso batez atxikitzen zuen Mari, bere gorputzaren kontra tinkatu zuen. Elena Touyarou
Bazen lehoian bat hiltzerat zoana eta lehen hain azkarra zena arras **flakaturia**. Herria
Ene lagunetarik antzek, arrunt **flakatuak**, azken hatsa emaiten dute. Michel Oronoz
Osagarriz **flakaturia** izanez duela zenbait ilabete bere sort etxeko iloba Jean Baptiste Iriart familiarat erretiraturia zen eta hor eman du bere azken hatsa. Herria
Baina biziki **flakaturia** hogoi bat kilo galdu nituen hilabete bat eskas barne. Marzel Etxehandi
Armadako arropa soberakinez beztitu adineko gizona begiztatu nuen **flakatzen** ari zitzaion zakila eskuan, esperma uherrez blai. Itxaro Borda
Barneko ikara arin batek boza **flakatzen** diolarik. Michel Oronoz
Ariel Sharonek, bere eskuin alderdia utzirik beste partidu bat sortu zuenaz geroztik, horrek **flakatu** baitu Likoud alderdia. Herria
Sinestea **flakatzen** ari balinbada ere herri "aintzinatuetan", ederki hedatuz doala aldiz Afrikan, Asian, Ipar Amerikan. Herria
Ekonomia arras **flakaturia** du Japoniak, langabezia ere haunditzen ari. Herria
Norbait mendratu edo **flakatu** nahi dutenean, delako horren obrari antzematen zaizkion eraginak aipatzen dituzte. Bernardo Atxaga

2 (era burutua izenondo gisa)

Tren geltokiaren inguruan mutil **flakatu** bat ikusi nuen, azalean XX. mendeko izurriaren seinaleak zeuzkana. Bernardo Atxaga

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

flakatzen ari (3)

flakezia *iz* ahulasuna.

Tulunbiotik atezuan bizi gara, begiak zorrotz, ea non aurkituko [...] lehen **flakezia** arrastoa, estreinako ahuldadea. Karlos Linazasoro
Ekonomia halako **flakezia** batek hartua du. Herria
Nik eroapen handiz jasan omen nuen besarkada, gizasemeok emakumeen beroaldi edo **flakezia** horiek jasaten ditugun eran. Joxean Agirre
Maitasunaren ondorengo unadura edo gorputz-arimen **flakezia**. Felipe Juaristi
Haragiaren **flakezian** eroririk. Karlos Linazasoro

flakia 1 *iz* ahulezia.

Etapa hasi eta berehala taldekide biri gaizki sentitzen nintzela esan nien, 200 kilometro egiten dituzunean egoten zaren moduan, **flakiak** jota. Berria - Kirola
Lo-ezak eraginda, **flakiak** jota, zurrutak nahastua, haren buruak ezin zuen onik egon egoera hartan. Pako Aristi
Goseak amorratzen hago, **flakiak** jota, ke honetatik elikatzen.... Unai Iturriaga

2 (ez-fisikoa)

Gai zen aurrean geneuzkan gutariko gazte bakoitzaren dohain nagusiak eta **flakia** eraginkorrenak zehazteko. Anjel Lertxundi
Ditugunok, errazago ezkutatu ditugu gure **flakiak**. Pello Zabala
Berritu dezadan, memoria **flakiak** jota dutenen mesedetan eta bertsoak gogoratzen dituztenen amorragarri, bertsolari donostiarrak kontatutakoa. Anjel Lertxundi
Ene zerebroak bizi zuen **flakia** eta ahuleria egoera hartan. Joxan Elozegi
Hark bazekikeen zerbait gogoaren eskasia mota hartaz, borondate **flakiak** jotakoaz. Iñaki Iñurieta

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

flakiak jota (9)

flakiatu, flakia(tu), flakiatzen du *ad* flakiak jo.

Ilbeherako bakeak eta orekak zeru atariko sosegu bareenean mantsotzen, hustutzen eta **flakiatzen** nau. Pello Zabala

flako *izond* ahula; argala.

Flako bainan ez eri. Herria

Orduan ere abererik **flakoenari** eman baitzion kargarik itsusia... Joan Mari Irigoien

Petrola lanpa batetik dantzan ari da argi hori **flako** bat. Michel Oronoz

Haragia, fraideek esaten ziguten bezala, **flakoa** baita. Joxerra Garzia

Ikusia naiz neure lankideen irribarre zabala, lanorduz **flakoagoko** eta diruz potzoloagoko bertze lantokietara ihes egitean... Aingeru Epaltza

Ikusteko zagok zer bide egingo luketen askatasuna edo ideologia edo erantzukizuna bezalako hitz ezin gizenagoek hain **flakoak** diruditen kontu eta zereginotan. Anjel Lertxundi

Gero, gune hartan, mihimen **flakoagoak** sakatu zituen eta, handik hara, zarearen biltzeari ekin zion. Itxaro Borda

Eta gero, Europa horren zimenduak berak ez direa doi bat **flakoak** ? Herria

Nunnahi oraiiko egunean tokiko hizkuntza **flakoa** da, laster galtzen da, etsaiaren maltzurkeriak ez du amor emaiten, behin galdu eta berreskuratzeko lana da. Herria

Ezagun da sozialixteke goiti egin dutela eta ez entraalean, komunixtate aldiz arras **flako** daudela beren gain agertu diren eskualdetan. Herria

Hemen ere azkar hasi galtzaleak eta **flako** aire batean segitu. Herria

Ekonomiak baduela halako **flako**-aireño bat, Ipar-Ameriketan jasan den ahuleziaren ondorioz. Herria

Eta Goñi III, aurtan **flakoxago** egonik, hobekitzen ari. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arras flako (3); eta **flako** (4)

flakotasun *iz* ahultasuna.

Ez nintzen nehoiz korronte nagusietan sartu, edo sartu baldin banintzan ur txiripa ahuletan igeri egin nuen, beti minoritarioekin eta hein horretan **flakotasun** eta bazterketaren zama soinean josia zeramatenekin. Itxaro Borda

flakoxka *izond* argaltxo.

Burdinaria baino **flakoxkago** hago. Joxemari Iturralde

flakoxta (*orobat flakosta*) *izond* argaltxo.

Hara hurbildu eta gizon **flakoxta** bat ikusi zuen, beltzarana oso, larrua olio-kolore. Felipe Juaristi

Han behean, bidean, soldadu **flakostak** eskuan hartua zuen bere arma. Alberto Ladron Arana

Baina baita Niko **flakoxta** hori gustatzen zaizula ere. Bernardo Atxaga

Zaldi **flakoxta** hezur huts bat, zaldi piurarik bai baina itxurarik ez zuen bat. Felipe Juaristi

Flakostak ez zion erantzun. Alberto Ladron Arana

Flakostaren eskuak kokotsetik heldu zidan. Alberto Ladron Arana

flamandar (*orobat flamendar eta flamandiar*) **1** *izlag/iz* flandestarra.

Atxikimendu gehixago erakusten dute **flamandiarrek**, irlandesek, ezkoziarrek... Idazle italiarra, **flamendarrak** espainiarren zapalkuntzaren aurka altxatu zireneko historia kontatzen duen liburuaren egilea. Herria

• **2** *iz* Flandesera.

Batzu, bretoin eta alsazieraz; besteak okzitano, **flamandar** eta katalaneraz; frantsesez ere bistan dena, arabiar eta espainolez, korsikeraz edo portugesez berdin... Herria

flamandes *izlag/iz* flandestarra.

Alde batetik baziren doi bat elkartuak liberalak, sozialistak eta berdeak, frantses ala **flamandes** mintzairakoak karguaren giderrak doi batean zauzkatena. Herria

Eta girixtino demokrata **flamandese** ere eneguak izan detzazkete Dutroux afera txarra dela medio. Herria

flamenko¹ *iz* hegazti zangaluzea, oso handia (*Phoenicopterus ruber*).

Hiru egun igaro zitzaizkigun aurreraka eta atzeraka, lur zingiratsua baitzen, eta lainotsua oso, ez inor ez ezer ikusteke, noizean behin zikoinak, kurriloak, **flamenko** hanka-gorriak izan ezik. Felipe Juaristi

Lakuaren gainean **flamenkoak** hegaz. Julen Gabiria

Flamenko saldo bat pausatu zen zaratatsu aintzirako ur ilunetan. Josetxo Azkona

flamenko² **1** *iz* Andaluziako ijitoen musika eta dantza.

Niri adibidez, **flamenkoa** gustatzen zaidak bluesa baino gehiago. Harkaitz Cano

Dantza klasikoa, **flamenkoa**, dantza garaikidea, eta tangoa. Berria - Kultura

Niri zure oin biluziak **flamenkoa** dantzatzen ikustea gustatzen zait. Jasone Osoro

Ez zen gauza izan argitzeko zer egiten zuen neskato batek **flamenkoa** dantzatzen Danimarkako osin batean. Felipe Juaristi

Flamenkoaren palo guztietan barrena eginiko bidaia proposatuko diote ikusleari. Berria - Kultura

Pianista andaluziarrak jazzaren eritmoa eta **flamenkoaren** hizkuntza uztartzen ditu. Berria - Kultura

Musikariak eta **flamenko**-kantariak. Berria - Kultura

Bi ahizpa hauek txalaparta **flamenko** eritmoarekin jotzen dute. Berria - Kultura

Eritmo elektronikoz jantzitako **flamenko** doinuak. Berria - Kultura

2 (izenondo gisa)

Kanta **flamenkoak** abesten. **Urtzi Urrutikoeetxea**
Azokako doinu **flamenkoak** gogotik kendu ezinik. **Urtzi Urrutikoeetxea**
Gitarra **flamenkoa** jotzen duela dioen mutila. **Edorta Jimenez**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

dantza flamenkoa (4); **eta flamenko** (5); **eta flamenkoa** (3); **eta flamenkoaren** (5); **flamenko eta** (3); **flamenkoa da** (3); **flamenkoa dantzaten** (4); **flamenkoa eta** (6); **flamenkoaren eta** (7); **flamenkoaren eta dantza** (3)

flamigero *izond* garduna, flanboianta.

Iruñeko katedral beneragarriaren harresi goi beltzak, leihaje **flamigeroko** ojibak, pinakulu delikatuak, horma-bular sendoak. **Koldo Izagirre**

flamitxe *iz*

Ogi saltzaile mordo bat aurkitu dut segidan: ogi beltzeko opil borobilak, **flamitxeak**, tremesak, euspeko sorginak, eta "uruna" zakutan... Nik dakita? **Txillardegi**

flan *iz* budina.

Bizkotxo bustiak, arbendol tartak, **flanak**, fruta opilak eta bestelako tartak. **Karlos Zabala**

Arrautzarik gabeko **flana** izaten zuten otordurako. **Joseba Urteaga**

Marrubi **flan** bat. **Eider Rodriguez**

Jertse lodiko gizon eskasa hurbildu zitzaigun postreen zerrrenda luzea irakurtzera: **flana** eta arrosesnea, "etxeokak" biak. **Aingeru Epaltza**

Julia, **flana** zuk egin duzu? **Alberto Barandiaren**

Ohetik ikusi zuen emaztea bainugelara sartzen; eta, begiak atetik kendu gabe ere, **flan** bat platerean bezala geratu zen maindire artean emaztea bainugelatik noiz irtingo.

Jose txo Azkona

flanbeatu, flanbea, flanbeatzen du *ad* garreztatu.

Basamortuan likido sukoiaren bat isuria zuela eta paisajea **flanbeatzen** ari zela. **Patxi Zubizarreta**

flandesera *iz* nederlanderak Flandesen hartzen duen izena.

Itaunketa egin zien, eta, **flandeserarik** ulertzen ez zuelako itxura eginez, gatibu bakoitzarentzat agindu zuen: "Frantsesa-xafla!". **Juan Garzia**

Flandeseraren lurraldeen eta walonieraren lurraldeen arteko muga. **Isabel Arrigain**

Eta gero, Garibaik uler ez diezaion, **flandeseraz** eransten du: -Garibai horrek deabruaren laguntza izan du, bestela ez da posible! **Anjel Lertxundi**

flandestar *(39 agerraldi, 4 liburu eta 20 artikulutan; ETCn 696 agerraldi) izlag/iz* Flandeskoa, Flandesi dagokiona; Flandesko herritarra. ik **flandriar**.

Italiar eta **flandestar** eraginkortasun hori. **Iñaki Mendiguren**

Flandestar aitzindariak mila urte lehenago lortua zutena. **Iñaki Mendiguren**

Flandestar ezkertiarak. **Berria - Harian**

Vlaams Blok eskuin muturreko alderdi nazionalista **flandestarrari** «arrazista eta diskriminatzaile» iritzi zion.

Atzerri ministro Karel De Gucht **flandestarra** jarri du. **Berria - Mundua**

Karlos Habsburgokoa **flandestarra** zegoen espainolen buru. **Aingeru Epaltza**

-Flandestarrak dituk. **Edorta Jimenez**

Munduko lau bazterretako jendeei ematen diet ostatu: frantsesei, italiarrei, **flandestarrei**, saboiarrei, bretoiei, alemaniarrei... **Aingeru Epaltza**

Flandestarrek 40 urte daramatzate barrutia bitan zatitzea aldarrikatzen. **Berria - Mundua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

tom boonen flandestarrak (3)

flandriar *(16 agerraldi, 9 liburu eta 3 artikulutan; ETCn 736 agerraldi) izlag/iz* flandestarra.

Ludo Docx **flandriar** apez euskaltzaleak. **Herria**

Inperioko italiar, **flandriar**, alemaniar eta poloniar lurraldeetan. **Iñaki Mendiguren**

Nicolas Forchin, frantsesa, Nicholau **flandriarra**. **Michel Oronoz**

Edmond Vansteenbergh **flandriar** bipil eta argia baitzen orduan Baionako apezpikua. **Piarres Xarriton**

Luze gabe, ordea, beste merkatarri batzuek, piratek batzuetan **-flandriarrak**, holandarrak, ingelesak- hartu zuten lehentasuna eta baliatu zituzten ondoena kolonietako gaien ekoizpena eta banaketa. **Koro Navarro**

Flandriar gazte bat. **Pablo Sastre**

flandriera *iz* flandesera.

Hemen **flandriera** da lehenengo hizkuntza. **Edorta Jimenez**

Ahotsak garbi heltzen zaizkit, ozen ari dira noski, baina ez diet aditzen, **flandriera** baino urrunagoa zait mintzaira hau. **Koldo Izagirre**

flanela *(11 agerraldi 6 liburutan; ETCn 63 agerraldi; orobat franela 10 agerraldi 8 liburutan; ETCn 57 agerraldi) iz* ehun fina, alde batetik apur bat harrotua dena.

Verlaque gizajoa, Gavardek esaten zion bezala, gizon zurbil txikia zen, sarritan ezulka aritzen zena, **flanelaz**, fularrez, bufandaz bildua. **Karlos Zabala**

Flanela deigarrikizo soineko bat. Karlos Zabala

Gizonezko gazte bat, biboteduna, **flanelazko** janzkia soinean. Javi Cillero

Flanelazko ohe-ator zuriaren gainetik txaleko gorri bat zeraman jantzia. Koro Navarro

Ardo-botila on batek bedekinatutako mahaia, eta **franelazko** maindireek bedekinatutako ohea. Pako Aristi

Sorbaldan konkorra egiten zion soineko azpiko **flanela** koipetuak, bizkarra sendatzeko jarriak. Anton Garikano

flash *(ETCn 1.929 agerraldi; orobat flax ETCn 45 agerraldi)* 1 iz argialdi labur eta bizia, argazkigintzan erabiltzen dena.

Leihora atera zenean argazkilariaren **flashek** itsutu zuten. Harkaitz Cano

Ertzain, erizain, argazkilari eta abarren joan-etorriak, jendearen jardunak, sirena-hotsak eta **flash** sarriak... Anjel Lertxundi

Sirena-hotsen, jendearen kalaketa eta **flashen** artetik. Anjel Lertxundi

Flashak sortutako itsumenak. Josu Landa

Esku banatan ipini zizkion kamera eta **flasharen** tramankulua. Josu Landa

Irudia indar itsugarriz iritsi zitzaion arkitektoari, **flash** baten moduan. Patxi Iturritegi

Lanean jarraitu zuen une batez, fotokopiagailuaren estalki laranja behin eta berriro altxatuz eta jaitsez; argi **flashak** apenas nabaritzen ziren. Iban Zaldúa

Argazki tresnaren hiru **flash** ukaldien ximisten klaska. Eneko Bidegain

- Bi neutroi izarren topaketak sortzen ditu gamma izpien **flashak**. Berria - Gaiak

2 argi hori sortzen duen gailua.

Argazki-makina, **flash** eta halakoak lepotik zintzilik. Xabier Mendiguren Elizegi

Kameraren **flashak** argi egiten du berriro. Oskar Arana

Kameren **flash** borobil-zabalak itzaliak. Joxemari Urteaga

• 3 (onomatopeia gisa)

Argazkilariak **flash** ! egiten dio une horretan puntuan. Anjel Lertxundi

4 irud

Izan ere, amodioaren hasieran, normalean, beti izan ohi da **flash** bat, maitemina eragina. Joan Mari Irigoien

Flasha, ezin goragoko sentsazioa, heriotzaren mugetarainoko jolasa, Natura goitarra edo Kimika goitarra bezalako ideien liluramendua eta itsumena. Iñaki Segurola

Niretako **"flash"** bat izan zen. Ramuntxo Etxeberri

Ordura arte sex simbol gisa azaldu zaigun Mikel Iñakeri muxu ematen ikustea **flash** bat izango da. Xabier Mendiguren Elizegi

Auskalo zenbat mila metroko puntarengo puntan oina jarri eta, Natura mendean hartuz, ezin goragoko sentsazioak sentitzea, hots, laineza geografiko bat baizik ez den gailurretako **flasha**. Iñaki Segurola

Ba irratia entzuten badaude ikusiko duzu zer **flash** hartuko duten... Pako Aristi

5 ez flashik eta ez flashondorik

Jakite hura gabe, nola sentitu ezer, ez **flashik** eta ez **flashondorik**, nolatan aluzinatu deus ez dagoen (baina, aluzinatuarentzat, "dena dagoen") bazter edo ezleku alu haietan? Iñaki Segurola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta **flash** (3); **flash bat** (7); **flash baten** (5)

flash-back *(ETCn 449 agerraldi; orobat flashback ETCn 168 agerraldi)* iz narrazio teknika, zineman eta literaturan erabilia, ekintzaren harian denbora iraganeko pasarteak tartekatzean datzana.

Beste **flash** -back bat egin beharko du, Mariaren esaldi hura gogora ekartzeko: "leku guztiak une batez baizik ez ditugu ezagutzen, gero betiko arrotz bihurtzen dira-eta".

Javi Cillero

2004an kokatuta egongo da hasieran, baina **flashback** bidez 1987ra eta 1968ra ere iritsiko gara. Berria - Kultura

Russellek hitzaurre moduan edo diktadorearen ametsa balitz bezala **-flash** back antzeko batean- txertatu nahi zuen sekuentzia multzo hura. Harkaitz Cano

Bego, bada, bere horretan, orain lotsatu egiten banau ere eszena gozo horrek, bertako **flash** -back baten apunte eta guzti: [...]. Anjel Lertxundi

Zeren horrelako tripi txarrek **flashback** itzela izaten baitute. Patxi Iturritegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

flash back (5)

flashatu, flasha(tu), falshatzen *(orobat flasheatu)* du ad flashak jo.

Morrisonen begiak magnesiozko argazki kameraz **flasheatuak** izanen ziren ordu hartan. Harkaitz Cano

Gauza ederrekin gozatzen hasi eta laino guztien gaineko ezereztegiatzen **flashaturik** eta ezin bizizko ezleku arnasgabeetan filpaturik bukatu: horixe da mendizale jonkitu edo mendigoizale puntarengoaren karrera, heriotzaren mugetarainoko jolas zoro batek koroatzen eta tontortzen duena. Iñaki Segurola

flashondo ik flash 5.

flasko *(orobat frasko g.er.)* 1 iz botila txikia eta aho-meharra, forma asko izan ditzakeena.

Likoreak eskumenean zituen, kristal landuzko **flaskoetan**, kontsola baten zuloetan erdi sartuak. Karlos Zabala

Erizainak **flasko** bat luzatu zion xiringa betetzeko. Xabier Olarra

Erreakziogaiak zeuzkaten hogeit bat **flasko**. Juan Garzia

Hiru apaletegitan dituen **flaskoak** eta kaxak aztertzen hasi da. Pello Lizarralde

Salmahaiaren zinkak distira egiten zuen, eta likore **flaskoek** su biziagoak pintzen zituzten ispiulan. Karlos Zabala

Esaterako, hau kartoizko kutxa bat da, barnean nire tinta **flaskoa** duena. Monika Etxebarria

Haragi pila bat ekartzeko agindu genuen (ezkutan, jakina), garai estuagoak zetozenarako **flaskoetan** kontserbatzeko. Josu Zabaleta

Gero haurrendako olio-**flasko** bat hartu eta arrakala blaitu nion. Juan Martin Elexpuru

2 (edukia)

Flasko bat potasio aurkitu nuen. Juan Garzia

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
flasko bat (10); **flasko txiki** (3); **galadrielen flaskoa** (3)

flaskotxo *iz* flasko txikia.

Flaskotxoak, kaxatxoak, tuboak, emakume-erreminta haiek guztiak ikusten nituen neure aurrean. **Joxe Austin Arrieta**

Bainu-gela osoa arakatu nuen goitik behera bizar-xafla baten bila; **flaskotxoak**, hauts-ontzitxoak, ezpain-lapitzak, tuboak, azazkal-laka, ile-gakoak, besterik ez... **Joxe Austin Arrieta**

flauta 1 *iz* haize musika-tresna, hainbat zulo dituen hodi batez eratua. **iktxirula**.

Ogitartekoa hartu eta eguna mendian pasatzea, iluntzean hondartzan **flauta** jotzea, tontakeriak omen dira. **Pako Aristi**

Lur hotzean pausatutako musika partzioak alegia irakurriz, **flauta** edo gitarra jotzen. **Itxaro Borda**

Alabari ostu plastikozko **flautaz** melodia haiek errepikatzen saiatzen zen. **Itxaro Borda**

Eskala aspergarriak egiten **kanaberazko** flautarekin. **Berria - Kultura**

Hiru zuloko **flauta** Euskal Herrikoa bakarrik zela uste nuen, gero jakingo nuen Espainia aldean txirula mota bat baino gehiago dagoela. **Mikel Hernandez Abaitua**

Berdin zaio honi whistle-eak, zurezko **flautak** edo uillean pipes-a (gaita irlandarra) jotzea. **Berria - Kultura**

-Flauta ikasten ari zara oraindik? **Koro Navarro**

Ordu batean **flautako** eskola dut. **Koro Navarro**

Gaur Miramongo egurteetan **flauta** eta harpa kontzertua. **Berria - Kultura**

Uztailaren 19an, ortziralez: **flauta** eta piano kontzertua. **Herria**

Musikari laguntzaile dituztela ere Marie Hirigoyen **flautan**, Maite Daguerre xirulan, Xabi Pery gitarran, [...]. **Herria**

Muriel Dupin harpan eta Marise Graciet **flautan**. **Herria**

2 **flauta-jotzaile/jole** flauta jotzen duena. **ik flautista**.

Flauta jotzaile eta pianistak. **Berria - Kultura**

Gorka Benitez saxo tenor eta **flauta** jotzailearen eta Jose Luis Canal pianistaren laguntzaz. **Berria - Kultura**

Maider Irigoien **flauta** joilearekin etorria. **Herria**

3 **moko flauta** ahokoa mutur batean duen flauta mota.

Moko- **flautaren** soinuak. **Xabier Olarra**

4 **Pan flauta** luzera desberdineko zenbait kanaberarekin eginiko haize musika-tresna.

Aratseko 9 etan, kontzertua, Philippe Emmanuel Haas (**Pan flauta**) eta Silvano Rodi (organoa). **Herria**

5 **zeharkako (orobat zehar) flauta** ahokoa alboan, zuloen ondoan duen flauta mota.

Bost perkusio mota, zeharkako **flauta** eta gitarra joko dute taldeko sei musikariek. **Berria - Kultura**

Boccheriniren ganbera musika grabatu dute, Wilbert Hazelzet **zehar**-flauta jotzailearekin batera. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta flauta (6); **flauta eta** (9); **flauta jotzaile** (3); **flauta jotzailea** (4); **flautak eta** (3)

flautista *iz* flauta-jotzailea.

Pianista batek eta lau **flautistak** osatzen dute Atenea. **Berria - Kultura**

Marta Eslava **flautistak**. **Berria - Harian**

flebitis *iz* odol zainetako pareten hantura.

Antikoagulanteak hartu ezean, arazo larriak izan ditzake: tronbosia, **flebitisa**.. **Berria - Euskal Herria**

Emazte hori aiainaka etortzen zaigu lanera, bizkarretik minez, begitartea zimurdikatu eta soinean behera dena oinaze: ziatika garaiza, **flebitisa** beharbada, non ez den fibroma! **Itxaro Borda**

Arrisku bako barize simpleenetatik hasi eta zainetako tronbosi larri bat izan osteko **flebitisaren** ondorioetaraino. **Berria - Gaik**

fleite 1 *iz* ipar sasoia.

Hor ere bai mutiletan eta ere neskatoetan adinekotarik ttipienetaraino **fleite** onean dabilza. **Herria**

Egunek izari polliteko luzetasuna dute, adineko jendeek, sobera unatu gabe bururatzen dutena ; eta biharamunak arrapatzen ditu **fleite** osoan. **Herria**

Aintzineko igandean Azkaingo zelaian saratarrek **fleite** gaitzan izaki eta joko gaitza egin dute Azkaindarren aurka. **Herria**

2 **fleitean adlag ipar** sasoian.

Gaitzeko **fleitean** nago, akidurak utzi banindu bezala. **Piarres Aintziart**

Parisen halaber, Xabi Errekarte **fleitean** agertu dela Larretxea lagunarekin. **Herria**

Gorputzaren lasaitasun eskasak ez dit izpiritua **fleitean** uzten eta egiazki so egiteko arta pizten. **Piarres Aintziart**

Bide zuzenean emaiten banuzu nahiago nuke bideari berriz lotu, ene burua **fleitean** senditzen dut orain, badakizu, pausa hunek on egin da. **Michel Oronoz**

Hilobitiek atera eta medikuek haren bihotza **fleitean** aurkitu zuten, sasoiari. **Gotzon Garate**

Zorionak pilotari horier ahanzi gabe Cubiat, adin hortan ikusten baita betiko **fleitean**. **Herria**

Gure gazte eta haurñoak oro **fleitean**, eta soinulariak trenpu hoberenean. **Herria**

Oinetako onak behar direla eta gorputza **fleitean**. **Herria**

Irabazleak biziki **fleitean** eta beti aintzinean Ruiz gazteari jo eta jo, gibebeko pareta zokoan atxiki dute, 9 huts egin araziz. **Herria**

3 **fleitean izan ipar**

Deus gutiri ohartzen naiz egun, ez naiz **fleitean**. **Piarres Aintziart**

Beloki anai gaztea, ezkerre arras **fleitean** zen, Azpeitian hau ere. **Herria**

Gaitzeko **fleitean** dugu Bixente Oyhenart herritar pilotari gaztea. **Herria**

Arras **fleitean** zen Lafitte eta berdin Biscouby beti indarrean. **Herria**

Abraham Olano etzen aldiz hain **fleitean** asteleheneko hortan. **Herria**

Pausuko trinketean, ez baitzen sobera **fleitean** ikusia Mayte, parioak burrustan Larrechearen alde ziren hastean. **Herria**

Zeren Panpi Idiart **fleitean** dugu eta jakinen dugu nolako trenpuan den Andre Kurutcharry! **Herria**
Gureak gaitzeko **fleitean** izanez partida guziz ederra atera daukute. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arras **fleitean** (9); biziki **fleitean** (5); ditugu **fleitean** (4); **fleitean aurkitu** (3); **fleitean ditugu** (8); **fleitean dugu** (3); **fleitean eta** (4); **gaitzeko fleitean** (5); **hor ditugu fleitean** (3); **jokatzeko fleitean** (3)

flekillo *iz* kopeta-ilea.

Ez dio **flekilloak** ohi bezala bere bisajeari nerabe itxurarik ematen. **Harkaitz Cano**

la bekainera arte **flekilloa**, jertsearen lepo gainetik aurpegi zuri mehe batek begiratzen zion. **Unai Iturriaga**

flekillodun *izond* kopeta-ilea duena.

Flekillodun aurpegitxo bat. **Pablo Sastre**

fleko *iz* parpaila.

Gona luze nahiz laburrak, barren aldean **fleko** ugari ebakita, gerritik behera janzteko. **Xabier Mendiguren Elizegi**

flekodun *izlag* parpailduna.

Guardasol txuri **flekoduna** ireki zuen Mariek. **Joxemari Urteaga**

flema *iz* antzinako fisiologiaren arabera, izaera gogogabea eragiten duen humorea.

Baldin humoreak lau badira eta haien nahasteko eta konbinatzeko posibilitateak, momentu bakoitzean, infinitu badira, zeren neurriak ere -odoletik zein behazunetik, **flematik** zein behazun beltzetik- infinitu izan daitezkeen. **Joan Mari Irigoien**

flematiko *izond* izaera baretsuegia agertzen duena.

Henri Smith, ingeles handi guztiz **flematiko** bat. **Josu Zabaleta**

Taigherrek espresio **flematiko** hartu zuen. Nazio alemanaren jite **flematikoak**. **Jon Alonso**

Bazuen halako aire misteriotu eta hotz bat, ia **flematiko**. **Harkaitz Cano**

Kabroiak kanpotik bere betiko mozorro ironiko **flematiko** janzten jarraitzen bazuen ere. **Iban Zaldua**

flete *izond/iz*

Bizpahiru, gutxienez, penkatu beharko ditut, inork ez pentsatzeko **flete** hutsa naizela. **Jon Arretxe**

fletxa (*17 agerraldi, 3 liburu eta artikulua 1 ean; ETCn 36 agerraldi*) *iz* gezia.

Arkuak eta **fletxak** prest. **Joan Mari Irigoien**

Nazionalak eta **fletxa** beltz italiarrak ez zituan Bilbon hain erraz sartuko... **Joan Mari Irigoien**

Ez ote du **fletxa** -jaurtikitzailak kolpean jotzen xedea eta helmuga. **Joan Mari Irigoien**

Danilo Di Luca 29 urteko txirridularia Waloniar **fletxa** deitzen den kurtsa irabazi duena. **Herria**

flexio 1 *iz* zango tolestaldia.

Belaunen **flexio** bortitzegien eraginarekin oinazpiek jaurtitzen dituzten lur-tatoak. **Pako Aristi**

Etor daitezela herri txikietak morrosko horiek ehun **flexio** egitera. **Bernardo Atxaga**

Flexioak egitera behartu ninduten etengabe, buruan kolpeak ematen zizkidaten eta poltsa buruan jartzen zidaten. **Berria - Euskal Herria**

Guardia zibilek **flexioak** eginarazi zizkiotela. **Berria - Euskal Herria**

Bukatzeako, abdominalak eta **flexio** batzuz, luzaketak eta kito; hortik etxera **Berria - Kirola**

• 2 (gramatikan) hitz baten paradigmaren formen multzoa.

Flexioaren era desberdinez (aditz joko eta deklinabideaz). gertatzen da multzokatze mota honen tipo ezaugarri batean: **flexio** paradigmatan, alegia. **Isabel Arrigain**

Indoeuropar izen **flexioa**, esaterako, esan dugunaren adibide bat da. **Isabel Arrigain**

Desinentzia ezabatzean, **flexio** enborra edo erradikala lortzen da. **Isabel Arrigain**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta **flexio** (4); **flexio egitera** (3); **flexioak egin** (3); **flexioak eginarazi** (6); **flexioak egiten** (6); **flexioak egitera behartu** (6)

flexiodun *izond* flexioa duena.

Bilakaera fonetikoak hitz bateko bi forma **flexiodunen** arteko ohiko erlazioa hausten du. **Isabel Arrigain**

Desinentziako forma **flexiodunak**. **Isabel Arrigain**

Zero desinentziako hitz **flexioduna**. **Isabel Arrigain**

flexionatu, flexiona, flexionatzen du *ad* gorputz zati batez mintzatuz, tolestu; hitzei buruz, jokatu.

Ondoren, ebakuntza osteko lehen ariketak egin nituen, berriro belauna baliatzen hasi, belauna **flexionatzen** hasi, tartean sendagilearen azterketa pasatu, eta berriro segi

fisioterapeutarekin. [Berria - Kirola](#)

Altxatu egin zara, eta eskuak etzalekuan berme hartuta, belaurak [flexionatu](#) dituzu poliki. [Rafa Egiguren](#)

2 (era burutua izenondo gisa)

Hitz [flexionatua](#), zehaztaperen guztiak berarekin daramatzana, autonomia da esaldian. [Isabel Arrigain](#)

flexo iz arkitekto lanpara.

[Flexo](#) bakar bat eta keak bildutako gela iluna. [Harkaitz Cano](#)

Neurean jarraitu dut, burua [flexo](#) berriaren azpian makurtua, gutun amaiezin bat idazten. [Koldo Izagirre](#)

Eskua gehixeago luzatu eta [flexoa](#) piztu zuen. [Unai Iturriaga](#)

Koadernoan mesanotxearen kaxoitik atera eta [flexoaren](#) argi azpian kokatu nuen. [Bernardo Atxaga](#)

[Flexoa](#) itzali dut. [Koldo Izagirre](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

[flexoa piztu](#) (3)

flipa egin flipatu.

-Hi, tio, hik [flipa](#) egiten al duk? -esan dio bultzatu duenetako batek. [Pako Aristi](#)

· "Neska demonioak!" Mutilek ez zuten halakorik espero, eta [flipa-flipa](#) eginda geratu ziren, lerdea txurrustaka zeriela. [Patxi Iturritegi](#)

flipa-erraz izond erraz flipatzen duena.

Orduan guai bat izan liteke lerdoa, txorixoa eta pailazo merkea; [...]; edo [flipa](#) -errea eta edozer guakeria, hutzalkeria edo umekeria gatzbakorekin izugarri emoxionatzen dena. [Iñaki Segurola](#)

flipagarri izond fliparazten duena.

Hogei pilula [flipagarri](#) omen zeuzkan gameluño baten. Rondako Beltzaranak faena [flipagarria](#) egin omen din. [Aingeru Epaltza](#)

· [Flipagarri](#) egongo nintzateke ni kotxe horren barruan, ezta, Beltza? [Jon Arretxe](#)

flipatu, flipa, flipatzen 1 du ad drogekin haluzinatu.

Gauak eta egunak [flipatuta](#), Edortak beti dauka [flipatzeko](#) zerbait. [Sonia Gonzalez](#)

Katek tabernetako giroa maiteago du etxean [flipatzen](#) geratzea baino. [Sonia Gonzalez](#)

2 irud

Beharbada Jonak [flipatuko](#) zuen gehien; ez zukeen sekula halakorik pentsatuko. [Unai Iturriaga](#)

"Bueno, bueno, Aitor, hik [flipatu](#) egiten duk", Tximuk, "bazirudik edozein unetan hementxe agertuko dela Che Guevara guregatik bizia ematera!". [Pako Aristi](#)

Gauza ederrekin gozatzen hasi eta laino guztien gaineko ezereztegieta flashaturik eta ezin bizizko ezleku arnasmabeetan [flipaturik](#) bukatu. [Iñaki Segurola](#)

Bizkarrean karga eramatea jaberik gabeko esklabo baten gisan, eta pareta itsuak besarkatzea, eta "gauza zailak eginez" [flipatzea](#). [Iñaki Segurola](#)

flipe iz flipatzea.

Ez zen horrenbesterako; apur bat pasauta bai; pasatzen zitzaiena ez zen bakarrik [flipe](#) kontua, zoratuta zegoen baña. [Sonia Gonzalez](#)

flirt 1 iz maite jolasa.

Saint Michel bulebarrean emakume zangoluzue batekin [flirt](#) luzea saiatu eta haren telefonoa nire eskuan apuntatu ostean. [Harkaitz Cano](#)

Marilyn Monroerekin [flirt](#) bat izan zuelako. [Ramon Saizarbitoria](#)

Egia zen izan zituela pare bat [flirt](#) Donostian. [Fernando Morillo](#)

Nire desio bortitzak salbatu ninduen, azken finean; izan ere, oso gaizki egokitzen zenez [flirtaren](#) mugetara, muxurik arruntinari ere beldur izateraino eraman baininduen.

[Joseba Urteaga](#)

2 flirtean adlag

Marilyn Monroerekin [flirt](#) -ean zebilen garaian. [Ramon Saizarbitoria](#)

Iraganaz ari zen hizketan, bere aitarekin zein ongi konpontzen zen, eta zenbat gustatzen zitzaien [flirtean](#) aritzea. [Josu Zabaleta](#)

flirteatu, flirtea, flirteatzen du ad flirtean aritu.

Atsegin nuen neska, baina berarekin [flirteatzerik](#), ezta pentsatu ere. [Joxe Austin Arrieta](#)

Beti dago doinu berriak, gai berriak sortzeko aukera, beste arte mota batzuekin [flirteatzeko](#) aukera dago. [Berria - Kultura](#)

flirteo iz flirteatzea.

Ingeniariei buruzko haren txiste inozoek ez naute amorrarazten, baina bai gure mahaira berarengatik behintzat etorri ez den neska gaztearekin darabilen [flirteoak](#): amorrua haren eskuak ematen niri, haren esku neskaren besoan pausatua, gero sorbaldan, gero berriro besoan, haren esku haragitsua hark. [Joxe Austin Arrieta](#)

flojo izond motela, ahula.

[Flojo](#) samarra aukeran, pattala, kapatxa hutsa. [Patxi Iturritegi](#)

Liztorrak dira [flojoenak](#), antza. [Unai Elorriaga](#)

floka 1 iz sorta.

Mahainak lore **flokez** xarmegarriki apainduak. **Herria**

Pastoraleko arizaleak horren aintzinean bilduko dira "lili-**floka**" baten pausatzeko. **Herria**

Oilategiko atea klaskarazi zuen, oilo kolokak eta oilar nagiak kurukuruka beren habietarik ihes izutuan abiatzen miretsiz, belar **flokak** eta luma arinak altzarazten zituztela. **Itxaro Borda**

Neskato gazt'eder bat / Harpe baten gerizan / Xirio **floka** batek / Dio: Graziaz betea / Garbi zare, o Maria. **Michel Oronoz**

2 lepoan begizta gisa ezarritako xingola.

Han bebarruan zutik, lepoko **flokaren** begiztei azken berdindua ematen ari zela. **Irene Aldasoro**

flokaka *adlag* sortaka.

Bada, han, nunbait, mendixka baten pean, bixika belarra deitzen dena; lore apal bat, arroxa-bizi, **flokaka** sortzen dena. **Herria**

flora iz landaredia.

Lurreko natur baliabideak, barnean harturik airea, ura, lurra, **flora** eta fauna. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Flora eta fauna basatia. **Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde**

Mehatxatutako fauna eta **flora** espezieen merkaturatzearen nazioarteko konbentzioa. **Berria - Gaiak**

Leku horietako **flora** eta fauna baliabideak zaintzeko. **Berria - Gaiak**

Kostaldeko fauna **eta** flora aztertzeaz gainera. **Berria - Euskal Herria**

Brasilgo **floraren** lehen gene-bankua zabaldu zuten atzo Rio de Janeiron. **Berria - Gaiak**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta flora (15); **fauna eta flora** (10); **flora eta** (17); **flora eta fauna** (7); **flora ez** (3); **zen flora** (3)

florentziar *izlag/iz* Florentziakoa, Florentziari dagokiona; Florentziako herritarra.

Itxaropen sendoa zuen **florentziar** maisu baten erbesteko emaitza horiek Alpeez bestaldeko begirale guztien erakargune izateko. **Iñaki Mendiguren**

Maiseatzailea berak ezin badu zigortu, "**florentziar** boxeolariaren" eskuetara emateko. **Askoren artean**

Dantzariak kapela hegal-zabal bat zeraman, estilo **florentziarrekoa**. **Xabier Olarra**

Hilabete errenazentistak izan ziren, **florentziarrak**, baina niri inporta ez, gustura ere ibili nintzen. **Karlos Zabala**

Paolo di Dono zuen benetan izena; baina **florentziarrek** Uccelli esaten zioten. **Juan Garzia**

Beste nonbait bizi zela konbentzitu nahi zuen bere burua, margolanen oihalen atzean, Tintoretoren dux-ekin, Gozzoliren **florentziar** bipilekin. **Monika Etxebarria**

florin iz Herbereetako, Hungariako eta beste zenbait erresumetako diru zaharra.

Holandan **florin** deritzan txanpona dute; **florinak** hogeit hamar balio ditu. Gure birraitona Lukásek, hemezortzi urte zituenetik, egunean urrezko **florin** bateko errenta jasotzen zuelako. **Iñaki Iñurrieta**

2,50 **florineko** billete bat eta bale bat bi liburu erosteko. **Josu Zabaleta**

Libra erdi te 350 **florin** ordaintzen da. **Josu Zabaleta**

Mahatsa, kiloa 5 **florin**. **Josu Zabaleta**

Miepek aurkitu ditu denda batean, 27,50 **florinetan**. **Josu Zabaleta**

Ceccok poltsa bete **florin** irarri berri ikusia zuen salan. **Juan Garzia**

Behar baino balio txikiagoa eman zioten **florinari** diru bakarra ezarri zutenean. **Berria - Harian**

flota iz ontzidia.

Galeoien eta arraun ugariko itsasontzi handien **flota** ikusi zuten, bela beltzak haizeak puzturik. **Agustin Otsoa**

Indietara iritsi orduko, **flota** berriak eginarazi zituen, eta Euleo ibaitik, Tigris eta Eufratestik eta itsasotik nabigatu zuen. **Iñaki Iñurrieta**

Flota handi bat hurbiltzen ari da Anduinen bokalera. **Agustin Otsoa**

Flota itsasoratzeko moduan zegoen. **Agustin Otsoa**

Galeoi-**flota** batean. **Joan Mari Irigoien**

Gabarra-**flota** amaierarik gabeak. **Jose Morales**

AEBetako **flotaren** egoitza nagusia. **Berria - Mundua**

Space-shuttle edo transbordadoreak ordezkatzeko dituen espaziotzi **flota** berria. **Berria - Gaiak**

Venezuelako Arrantza **Flota**. **Koldo Izagirre**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

duen flota (3); **eta flota** (3); **galeoi flota** (3)

flotadore iz flotagailua.

Flotadore lana egiten dutenak baso bete uretan itozteko zorian zaudenean. **Arantxa Iturbe**

flotagailu iz uretan-eta igeri egoteko tresna.

Flotagailu biribil bat, laranja kolore bizikoa, soka zuri batez inguratua. **Josetxo Azkona**

Zagi bat kumys gorde, eta besteak airez puztu zituzten eta arduraz itxi, **flotagailu** gisa erabiltzeko. **Karlos Zabala**

Flotagailu bakarra bururatu zitzaion ozeano beltz hartan ez hondoratzeko: mundu osoaren arreta beregana erakarri behar zuen, zientzialari ospetsuegia -ukiezia- bihurtzeko. **Fernando Morillo**

flotagarri *izond* flotatzen duena, igeri dagoena.

Plataforma **flotagarri** eta mugikorra izango litzateke Ozeano Bareko uretan jarriko luketena. **Beria - Gaiak**

Zer izango itsasontzia eta, nola esango nuke, olgeta-areto **flotagarri** bat edo horrelako zerbait zen, txanpon-makinetan jokatu, pantaila erraldoian telebista ikusi edo dantzan ibiltzeko. **Bernardo Atxaga**

Uharte **flotagarrien** antzera dirdiratzen. **Agustin Otsoa**

Pentsalari guztiak dira amesti; egoera urtsu eta **flotagarrian** dagoen pentsamendua da amets giroa. **Koldo Izagirre**

flotakor *izond* flotatzeko joera duena.

Haren gorputzetik harako izerdi gaziak hainbat indartsuago ugaltzen zituen itsas zelai **flotakorrak**. **Xabier Amuriza**

flotante 1 *iz* flotatzen duena, igeri dagoena.

Hirurogei tonako garabi **flotantea**. **Koldo Izagirre**

Bazihoala ontziola **flotantearen** gibeletik. **Koldo Izagirre**

2 (diruari buruz)

Diru bakarrera igarotzeak, teorian, galdua zuen arintasuna itzul diezaioke diru-politikari, diru bakarrak elkargo mailan truke-tasa **flotanteko** erregimenera itzultzea esan nahi baitu. **Koro Navarro**

flotarazi, flotaraz, flotarazten du *ad* flotatzera behartu.

Zuzia ere bere uhinetan horrelaxe sutzen eta argitzen da, haizeek aurretan **flotarazten** dutenean. **Xabier Amuriza**

flotatu, flota, flotatzen 1 igeri egon. ik igeri 1; igeri 9.

Asto hil bat, adibidez, urak puztutakoa eta nora ezean dabilena **flotatzen**. **Monika Etxebarria**

Han kanpoan uretan **flotatzen** zuten loreak iruditu zitzaizkion hitz haiek. **Anton Garikano**

Madeleine **flotatzen** etorri zen berokia erantzera. **Monika Etxebarria**

Peterrek airean lo egin zezakeen erori barik, bizkarrez etzan eta **flotatuz**. **Julen Gabiria**

Eta spazio senza fine hartan nenbilela iruditu zitzaidan, leku etereo batean **flotatzen** astronauta baten moduan. **Bernardo Atxaga**

Estandarteak **flotatzen** ari ziren airean. **Karlos Zabala**

Hodeiak irudi gris eta urrunak ziren, noraezean **flotatzen** pilotatukoak. tristurak airean **flotatzen** zuen, espaziontziatan grabitate faltagatik edalontzietatik ihes egindako isurkariak bezala. **Agustin Otsoa**

Ezereza nire buruan zegoen ideia bat besterik ez zen, existitzen zen ideia bat, mugagabetasun hartan **flotatzen** ari zena. **Monika Etxebarria**

2 (ekonomian) diru baten prezioa aske aldatu eskaintzaren eta eskariaren legearen arabera.

Abuztuko 15eko Estatu Batuetako erabakiak hartu baino hiru hilabete lehenago, bere diruari **flotatzen** uztea erabaki zuen Bundesbank-ek. **Koro Navarro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

airean **flotatzen** (3); artean **flotatzen** (3); eta **flotatzen** (3); **flotatzen ari** (13); **flotatzen ari ziren** (3); **flotatzen zuen** (7); **flotatzen zuten** (4); **gainean flotatzen** (4); **uretan flotatzen** (3); **zegoen flotatzen** (3)

flotatzaile *izond* flotatzen duena, igeri dagoena.

Gorputz **flotatzaileak**: horra solidoek igerian egoteko behar zituzten baldintzak aztertzeko Arkimedesez idatzi zuen idazlanaren izenburua! **Jon Muñoz**

Naufragio asko eta larriak gertatzen bezala, non itsasotzarrak jarlekuak, zuakerrak, antenak, brankak eta mastak barreiatzen eta arraunak igerian eta bandera **flotatzaileak** itsas bazter guztietara jaurtitzen dituen. **Xabier Amuriza**

Enuntziatua ezin da kontsideratu zenbait enuntziatu **flotatzaileren** metatze-emaizta edo zertzea. **Xabier Arregi**

flotazio 1 *iz* flotatzea, igeri egotea.

Nola egin baitzuen Arkimedesez, noiz eta formulatu baitzuen bere printzipioa, unti eta belauntzien **flotazioaren** harroin dena. **Joan Mari Irigoien**

2 (ekonomian) diru baten prezioa aske aldatzea eskaintzaren eta eskariaren legearen arabera.

Diru-politikak halaberrez egin behar du aukera diruaren **flotazioaren** eta interes-tasak truke-tasen defentsarako erabiltzearen artean. **Koro Navarro**

Flotazio erabateko batek izan ditzakeen eragozpenak gorabehera, truke-tasa guztiz finkoko erregimen batera itzultzeak arrisku handia ekarriko luke. **Koro Navarro**

1970eko hamarraldiaren hasieran, truke-tasak **flotaziozko** erregimenera igaro zirenean. **Koro Navarro**

Herralde jakin batzuetako diruak dibisa merkatuetan libreki edo **flotazio** askean zebiltzan artean. **Iñaki Heras**

3 *flotazio marra/lerro*

Beste bi [zagi] kibitkaren endaitzetan ipini, gurpilen artean, gurtetxearen **flotazio** marrari eusteko. **Karlos Zabala**

Zein dira, kritika horietatik, filosofia moralaren **flotazio**-marrari erasotzen dioten eztabaida nagusiak. **Askoren artean**

Kontua da -erromantizismoaz ari garela, to, auzo oso bat erromantizismoaren **flotazio** lerroaren kontra- Pigallen bizi naizela orain. **Harkaitz Cano**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

diruen **flotazioak** (4); **flotazio marrari** (3)

flotilla *iz* ontzi txikiz osaturiko flota.

Igandean, Atlantikoa Nuklearrik Gabeko **Flotilla** taldeko bi marinel atxilotu zituzten. **Beria - Gaiak**

fluido 1 *izond* jariakorra.

Baina gorputz aldi berean garratz eta **fluidoak** ikusten badituzu, itsas ura bezala, ez da batere harrigarri. Gorputz **fluidoko** likidoek. **Xabier Amuriza**

Odolaren plasmak (hau da, globulurik gabeko osagai **fluidoak**) ez du oso ondo disolbatzen oxigenoa. **Irene Aldasoro**

2 iz jariakina.

Baina gorputzaldi berean garratz eta **fluidoak** ikusten badituzu, itsas ura bezala, ez da batere harrigarri. **Xabier Amuriza**

Fluidoaren atzera-aurrerako mugimenduari esker. **Irene Aldasoro**

Hiesaren birusa lau **fluidoren** bidez kutsatzen da, **fluido** horietan egoten baita birusa kutsatzeko behar besteko kontzentrazioa. **Luis Elberdin**

Gorputzeko **fluidoan** bitartez -odola, semena, baginako jariakinak eta amaren esnea- kutsatzen da. **Luis Elberdin**

Nahiko lubrikazio txukuna eskaintzen dute gorputzeko **fluidoek**. **Irene Aldasoro**

Ingeniaritza kimikoaren eta **fluidoan** mekanikaren aldetik giltzurrunak erakusten duen maisutasuna inbidiagarria da teknologoarentzat, baina imitaezina. **Irene Aldasoro**

EHun-geruza bat da urdail-mukosa, **fluidoazko** kapa labain batek estalia. **Irene Aldasoro**

3 (hitz elkartuetan)

Gaixoaren odola dabil mintzaren alde batean, eta dialisi- **fluidoak** beste aldean. **Irene Aldasoro**

Dialisi- **fluidoan** substantzia horrek duen kontzentrazio maila. **Irene Aldasoro**

Ura, sua, gorputz- **fluidoak** eta beste elementu batzuen sinbologia erabiltzen dituzte ikusleak buru-belarri sartzeko haiek proposatutako ekinza dramatikoan. **Berria - Kultura**

flukuatu, fluktua, flukuatzen da *ad* gorabeherak izan.

Zeren posesio unean bertan ere, maitaleen sugarra zalantzan eta noraeziki **flukuatzen** baita, lehenik eskuz ala begiz gozatu ez dakiela. **Xabier Amuriza**

flukuatzaile *izond* gorabeheratsua.

Eguraldiaren egoera eta aldaketek ezarritako baldintza atmosferikoen multzo **flukuatzailea**. **Pello Zabala**

Zein klima dagokio gure eremu eta eskualde honi? bere baldintza mugikor **flukuatzaile** horien artean dagokena. **Pello Zabala**

flukuatze *iz* gorabeherak izatea.

Honen aldaketaz jarduteko, urte mordoxxa bateko **flukuatze** horren aldaketari erreparatu behar zaio. **Pello Zabala**

flukuazio 1 *iz* gorabehera.

Erradiazio neto garbi hau da [...] klimaren beraren egitura, proportzio eta **flukuazioak** egin eta mantentzen dituen faktore printzipala. **Pello Zabala**

Merkataritzako zikloak eguzkiaren irradiatibitatean izandako **flukuazioen** efektuak izan litezkeela. **Iñaki Mendiguren**

Industri jardueran **flukuazioak** eragiten dituen faktore gisa. **Iñaki Mendiguren**

Gure unibertsorearen jaitza [...] hasierako hutsaren baitako energia- **flukuazio** batzuen ondorioztat hartzen da. **Juan Garzia**

2 (diruari buruz)

Ez dutela tarifa igoerarik eskatu, «zerbitzuaren araberako **flukuazio**- banda bat baizik». **Berria - Ekonomia**

Horrenbestez, gehienez jota %15eko **flukuazioa** izan dezakete Europako Batasuneko diru nagusiarekiko. **Berria - Ekonomia**

Truke-tasen merkatuak dakartzan **flukuaziozko** erantzunak bazter utzirik, ba al dago truke-tasen maila teorikoki definitzerik? **Koro Navarro**

flumetaxona *iz* abereak gizentzeko produktu kimikoa.

Klenbuterola, **flumetaxona**, trenbolona, estradiola eta estanozola atzeman omen dizkiete, besteak beste. **Berria - Euskal Herria**

fluor *iz* halogenoen saileko gas hori berdaxka, pozoitsua (F₂; at. z. 9).

Arrotza (xenoi delakoa) lipar batez bederen **fluor** bizi-bizi, gosekilarekin konbinatzea. **Juan Garzia**

Leihotik N-1 errepidean zehar zihoazten autoen **fluorezko** sega sentituz. **Harkaitz Cano**

Berde **fluor** koloreko tximistak. **Itxaro Borda**

· Hotel merkeetako seinaleak **fluor** koloretan pitz eta hilka ari ziren. **Itxaro Borda**

fluoratu *izond* fluora duena.

Fiteroko urak kloruratu-sodiko sulfatatuak, **fluoratuak**, bromuratuak eta litinikoak dira eta 48,5 graduko tenperaturarekin ateratzen dira lurretik. **Berria - Euskal Herria**

Klorinatoak, fluorinatoak, kloro- **fluoratuak** eta beste zenbait substantzia kimiko xurgatzen ditu Lemna Minor ur dilistak. **Berria - Gaiak**

fluoreszeina *iz* gai koloreztatzailea, laranja-kolorea.

Test berezi batek **-fluoreszeina** -angiografiak- makulako edema kistikoa txiki bat agerrarazi zuen. **Xabier Olarra**

fluoreszente *izond* fluoreszentiak sortua.

Argi **fluoreszente** bat pizten zenean, berehala aldatzen zen gelako gauzen argitasuna. **Xabier Olarra**

Kandela luze bat **fluoreszentea** guardaren eskuan. **Koldo Izagirre**

Angiek erdizka ireki zituen begiak eta zozotuta begiratu zuen orratz **fluoreszenteetara**: 6'55 a.m. **Iñaki Zabaleta**

Iratzargailuaren begirada **fluoreszentearen** mehatxupean. **Aingeru Epaltza**

Izar arrosa **fluoreszentea**. **Berria - Kultura**

Kolore arrosa eta laranja **fluoreszente**ko besaulkiak, 60ko urteetakoak. **Joxan Elozegi**

Errutuladore **fluoreszente** batekin esaldiak azpimarratuko ditu **Lander Garro**

2 iz hodi fluoreszentea.

Sabaiko **fluoreszenteak** itzalita zeuden. **Aingeru Epaltza**

Sukaldeko **fluoreszentea** erre zitzaiguan atzo guri. **Koldo Izagirre**

Gauetan paseatzerara ateratzen zirela korridoreetan zehar, **fluoreszente** hotzen argipean. **Iban Zaldúa**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
argi fluoreszente (3)

fluoreszentzia *iz* gai batzuek, irrada bat jasotzean, argia igortzeko duten tasuna.

Zelula hori teknika kromosomikoen **fluoreszentziarekin** egindako in situ hibridazioa, kasu edo teknika molekularren bidez aztertzen dute gero zientzialariek. **Beria - Gaiak**

fluoreztatu *izond* fluorez hornitua.

Emakumearen hatsean hortz-ore **fluoreztatuaren** kutsua ezagun zen oraino. **Aingeru Epaltza**

fluorhidriko *izond* fluor eta hidrogenoz osatua.

Azido **fluorhidrikoz** eraso. **Juan Garzia**

fluorinato *iz* fluorez konbinaturiko produktu kimikoa.

Klorinatoak, **fluorinatoak**, kloro-fluoratuak eta beste zenbait substantzia kimiko xurgatzen ditu Lemna Minor ur dilistak. **Beria - Gaiak**

fluorudo *iz*

Normalean, urak duen **fluorudo** eta artseniko kopurua oso txikia da eta ez du inolako arazorik eragiten. **Beria - Gaiak**

Fluorudoak hezurretako arazoak eragiten ditu. **Beria - Gaiak**

fluximetro *iz* fluxuaren neurgailua.

Lipar batean, horra aparatua desmuntaturik, termostatoa 800°C-ra graduaturik, edukiontziares presio-gutxitzailea erregulatuz, **fluximetroa** bere lekuan kokaturik. **Juan Garzia**

fluxu 1 *iz* joan-etorria.

Irakurleak, beraz, naturaren **fluxuetan**, honen botere ordenatuetan, barruko izan behar du. **Xabier Amuriza**

Erretinako **fluxuak**, azkenik, berebiziko garrantzia du joera honentzat. **Josu Zabaleta**

Mintzamenaren **fluxuaren** elementuen banaketa, propietateak eta egiturazko konbinazioak. **Itziar Laka**

Nire gogoaren **fluxua** larriagoa zen ordutik ordura. **Joxan Elozegi**

Hiru magnitude horiek, **fluxua**, intentsitatea eta luminantzia, argia emititzen duen objektuari dagozkio. **Josu Zabaleta**

Argi-**fluxua** gauza batek emititzen edo islatzen duen argi-energiaren kopurua da. **Josu Zabaleta**

Egun bizi dugun informazio-**fluxua** benetan ikaragarria da. **Txema Ramirez de la Piscina**

Informazio-**fluxuaren** analisisian **Askoren artean**

2 (diruari buruz)

Trukeen, inbertsioen eta kredituen **fluxuen** bitartez. **Iñaki Heras**

Nazioarteko merkataritza- eta finantza-**fluxuek**. **Koro Navarro**

Ordainketa-balantzeetan ageri diren **fluxuak**. **Koro Navarro**

Inbertsio zuzenak urtebete baino gehiagorako transferentzia-**fluxu** pribatu garbien erdia hartu dute 1990-1996 aldian. **Koro Navarro**

Garapen-bideko herrialdeetatik kanpo hartutako erabakien mende geratzen dira Ipar-Hego kapitalen **fluxuak** gidatzen dituzten parametroak. **Koro Navarro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

argi fluxua (4); finantza fluxuak (4); finantza fluxuek (3); informazio fluxu (4); zuzeneko inbertsioen fluxuen (4)

flysch 1 *iz*

Flysch hitza alemanetik omen dator, Suitzako alemanetik, eta lur labaina edo antzeko zerbait esan nahi omen du. **J.M. Olaizola "Txiliku"**

Angelu eta Biarritz arteko mugan, [...] kobazulo bat dago labarretako **flyshean**, itsaso ertz-ertzean. **Martin Anso**

Flysch turbiditikoia horma nagusiaren azpian, **flysch** turbiditikoia bigarren hormaren azpian, eta **flysch** turbiditikoia bi hormen inguruan. **Eduarne Elizondo**

foagras ik foie.

foball ik football.

fobea *iz*

Erretinan, kristalinoaren ardatzean ia-ia, dagoen sakonunetxo bat, bereziki hartzaile asko dituen, da **fobea**. **Josu Zabaleta**

Konoak **fobearen** inguruan dira batez ere ugari. **Josu Zabaleta**

Frogatuta dago, nolahi ere, pertsonak "araka" dezakeela, begiak mugitu gabe, **fobearen** inguruan 30º-tara dagoen ikusmen-eremu guztia. **Josu Zabaleta**

fobia 1 *iz* neurri gaineke herra.

Bere filiak nabarmentzeko, bere **fobiak** zehazteko. **Jon Alonso**

Bistakoa da hainbat filia eta **fobia** sortzen dituela frantziar bigotedunak. Iñaki Heras

Norarena gertatu ondoren nolabaiteko **fobia** garatu nuen emakumeekiko. Mikel Hernandez Abaitua

Buru ahulena zutenei korapiloa egin zitzairen burmuinean, ideiak dagokien ordenan elkartu ezin eta psikologoarenean bukatu zuten **fobiak** askatzen. Berria - Harian

Kunderaren **fobia** antikomunista zegoen tartean; eta **fobia** diot, jarrera politikotik edo ezinikusi hutsetik harago doan gorroto obsesiboa ageri duelako, ezaugarri patologikoak dituena; dena dela, **fobia** guztiek bezala izango ditu horrek ere bere arazoiak, eta ez naiz ni erregimen estalinistak defenditzen hasiko. Xabier Mendiguren Elizegi

2 neurritz gaineko beldurra.

Baserri giroko neska zintzo ongi hezi bat, obsesioez eta **fobiez** beteak, dukesa bat bezain harro, eta neskametxo bat bezala gorriturik. Koro Navarro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta fobia (3); **eta fobiak** (5); **filiak eta fobiak** (5)

fogeo

1 fageozko izlag bolbora hutsezkoa.

Bederatzi bala eta **fageozko** bakarra. Joxemari Urteaga

foie 1 iz gibel orea.

Hezurgabeturiko zerri-hankak **foiez** beteak jaten ari zen. Jon Alonso

2 foie gras (orobat foagras g.er.) iz gibel orea.

Etxe hartan, belaunez belaun, **foie** gras famatua maneatzan zen. Txillardegi

Isil-isilik ari zen afariaren hasierako zizka-mizkak zerbitzatzan: kroketak, otarraintxoak, urdaiazpikoa, zainzuriak eta **foie**-grasa.Paper puska urdinez egindako azpi baten gainean botata, **foie**-gras ontziak eta kolore aldakorreko atun eta sardina latak ageri ziren. Aitor Arana

So egiten zien haragi bola arruntei, lutzoz egindakoei, **foie**-gras trufatuzkoei. Karlos Zabala

Merkatuan erruz gailentzen ari diren paté eta batez ere **foagras** klase frantses guziak. Patziku Perurena

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

foie gras (4); **foie grasa** (4)

foileto (orobat folleto) iz liburuxka; eskupapera.

Turistentzako **foiletoetako** erretorika pastelero horrekin. Iñaki Iñurrieta

Taula liburu batzuetan ageri zen edo **folleto** gisa. Karlos Zabala

Minbiziari buruzko **foileto** bat. Imanol Zurutuza

Postontzia **foiletoz** eta iragarkiz bete-bete eginda dago. Oskar Arana

foiletoi (orobat folletoi) iz eleberri melodramatikoa, irakurle ez jantzientzat idatzia.

Singerren eleberri gehienak egunkari horietan azaldu ziren aurren-aurren, **foiletoi** gisara. Koro Navarro

Gaua etxean igarotzen zituen eleberriak irakurtzen; **foiletoiak**, zenbait urtez egunkarietan argitaratuak. Josu Zabaleta

Gaur egungo telebistako **foiletoietan** bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Goenkale-ren arrakastaren ondoren beste **foiletoi** batzuk prestatu nahi zituzten, nonbait. Xabier Mendiguren Elizegi

Hego Amerikan grabatutako **foiletoi** merke eta makal horietako bat ari ziren ematen. Juan Luis Zabala

foka 1 iz ugaztun itsas-lehortarra, aurpegia txakurraren antzekoa baina belarririk gabekoa, ilea motza eta gorputz adarrak ageri egiteko egokituak dituena (Fam. Phocidae) ik itsas.

Iparaldeko itsasertza urtean bost hilabetez **fokaz** pil-pil jartzen da. Juan Garzia

Foken Uhartea laua eta hareatsua da: neguan ume egitera etortzen dira bertara **fokak** ik fokakume. Juan Garzia

Orduantxe hasi zirela mundura ganoraz zabaltzen **foka** eta baleen aldeko kanpainak. Hasier Etxeberria

Itsas hegí hauetara itsas urde edo **foken** bila jaisten dira. Aurelia Arkotxa

Era berean, **fokak** ehizatzeo «teknika krudelak» ere gaitzetsi dituzte. Berria - Gaiak

Animalien ongizaterako erakundeak **foka** ehizaren kontra. Berria - Gaiak

Igoeretarako **foka** -larruak erosteko pobreegi baikinen. Juan Garzia

Ur azalean haur bat zebilen gomazko **foka** batekin jolasean harro-harro. Koro Navarro

2 (erkaketetan)

Antartikako pinguinoak bezain inozo, Groenlandiako **fokak** bezain zoriontsu. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

foka eta (3)

fokaki iz foka haragia.

Ez noski erdi txerriki erdi **fokaki** ontzen genituen hestebete haiekin, bere baleontziak baino arrain kirats handiagoa zuten eta. Juan Garzia

fokakume iz fokaren umea.

Bere ondoan, **fokakume** batzuk ageri ziren hilda, euren larru zuria odoletan gorritzatuta. Hasier Etxeberria

fokal 1 izond fokoarena, fokoari dagokiona.

Lauzpabost segundoren buruan niniak distantzia **fokala** kalkulatzeari ekin zion. Unai Iturriaga

Txirotasun eta miseriaren aurrean distantzia **fokala** kalkulatzeko hasten diren argazkilarik horiek egiten duten tankerako erreportaiak egiten ari zen: kakaputa bat. **Unai Iturriaga**

- Esklerosis mesialak eragindako epilepsia **fokala** tenporal sintomatikoa dutenei. **Berria - Gaiak**

2 distantzia fokala.

Filmatzeko zoom-a (**fokala** aldatuz joan daitekeen objektiboak) azaldu zenean. **Josu Zabaleta**

Kamerak, eta argazki-makinak berdin, izugarri bihurtu dezakete perspektiba (oso **fokala** luzeak edo oso laburrak erabiliz, besterik ez bada ere). **Josu Zabaleta**

fokalizatu, fokaliza, focalizatzen du *ad* fokura zuzendu. ik fokatu 3.

Argazkia interpretatzean, edozein entzule izan daiteke begiradaren muina nik baino hobeto **fokalizatuko** duena. **Andoni Egaña**

Izan ere, hainbeste jende batera lehiatzen ikustea «kirol profesionalak daukan ikusmira **fokalizatutik** urrun gelditzen da». **Berria - Kirola**

Berria Interneten **fokalizatu** da, nahita. **Iñigo Aranbarri**

fokatu, foka(tu), fokatzten 1 du *ad* fokua doitu. ik enfokatu.

Atzera berriro betaurrekoak jantzi, eta kristalaz bestaldekoa **fokatzten** duk, eta tartekoa lausotuta geratzen zaik. **Iñaki Iñurieta**

Berak gurrupiltxoak jirarazi zituen, argazkimakina bat **fokatzten** ariko balitz bezala. **Fernando Rey**

Kosta egiten zitzaidan begiak **fokatzea..** **Alberto Ladron Arana**

Haasek mugimenduak eskaintzen zituen aukeren inguruan ikertu zuen beti, eta argazkiak gaizki **fokatzeko** teknika garatu zuen. **Berria - Kultura**

Muskulu txiki batzuek **fokatzten** dute begiko kristalinoa. **Irene Aldasoro**

Begiek ez baitzizkioten artean zehatz-mehatz **fokatzten** gauzak. **Mirentxu Larrañaga**

2 begia, kamera bat, argi foku bat... jomugara zuzendu.

Irudiaren erdigunea zehazki **fokaturik** badago, irudiaren ertzak lausoturik agertzen dira; aberrazio esferikoa esaten zaio teknikoki akats horri. **Irene Aldasoro**

Cesar Telleriak largabistak hartu eta [...] leihoa **fokatu** zuen berriro. **Harkaitz Cano**

Pasealekuko bankuetan zirrika ari ziren bikoteak **fokatzten**. **Iban Zaldúa**

Gauaren erdian aitak iratzarri gintuen, eta, linterna batekin, putzuaren erdian zegoen harri zapal baten gainean zegoen igela **fokatu**. **Iban Zaldúa**

Teleobjetiboarekin saio batzuk egin eta gero, sarrera **fokatu** zuen behin eta berriz. **Migel Angel Mintegi**

3 irud ik focalizatu.

Bere egitekoan zein **fokatuta** zegoen ikusteak biziki ematen zion atentzia Olatzi. **Harkaitz Cano**

4 (era burutua izenondo gisa)

Narraziozko irudietan koadratzea ikuspen subjektibo, **"fokatu"** bat islatzeko baliagarri egiten duen orori. **Josu Zabaleta**

Ez dago garbi arreta hiper-**fokatu** hori -estu bezain zorrotza- autismoko fenomeno primarioa den. **Xabier Olarra**

fokatze 1 iz fokua doitzea.

Kamera modernoek **fokatze** automatikoa izaten dute askotan. **Irene Aldasoro**

2 kamera bat, argi foku bat... jomugara zuzentzea.

Arreta zentrala, ikusmen-eremuko alderdirik garrantzikoan **fokatze** gisako bat. **Josu Zabaleta**

Foku-zehaztasunik ezaren beste kausa bat hau da: **fokatzegaitasun** desberdina duela objektiboak kolore bakoitzerako; aberrazio kromatikoa esaten zaio efektu horri.

Irene Aldasoro

foke iz masprezan bermatzen den itsas oihal trianguluarra.

Jaso berri zuten **foke** bat baldarki higitzen ari zen haizeak bultzaturik. **Lopez de Arana**

foku (112 agerraldi, 37 liburu eta 29 artikulutan; ETCn 2.469 agerraldi; orobat foko 37 agerraldi, 19 liburu eta 8 artikulutan; ETCn 270 agerraldi) 1 iz proiektorea, argi bizia.

Formikazko altzari zuriak eta sabaitik zintzilik zegoen **foku** handi bat. **Harkaitz Cano**

Foku elektrikoan dirdai zurbila. **Jose Morales**

500 watioko **fokuekin**. **Rafa Egiguren**

Argi-**foku** ikaragarrien pean. **Harkaitz Cano**

Argi-**foku** mugikor batek jarraitu zion haren ibai ertzertainoko ibilbideari. **Josu Landa**

Zigarro kea, **foku**-argiak, mozkor-jendea, tzunda-tzunda musika. **Fernando Morillo**

Proiektagailu baten **fokua** piztu zen. **Anjel Lertxundi**

"Horiek dira lekukoak", gaineratu zuen **fokua** piztuta zeuzkan jeeparen aldera begira. **Bernardo Atxaga**

Fokuek argiztaturiko abeslaria. **Oskar Arana**

Fokuen argiek zerrenda luze eta geldia osatzen baitute haren bi aldeetan. **Bernardo Atxaga**

Esku-argiaren **foku** hotzak gelako altzariak azaldu zizkidan. **Alberto Ladron Arana**

Linternaren **fokuaz** papera argiturik. **Josetxo Azkona**

Artean **fokoz** kanpo samar zegoen, baina argi ageri zen absolutzio moduko bat nahi zuela nigandik. **Juan Garzia**

Foku indartsuak jarri berriak zituzten kanpora begira. **Rafa Egiguren**

2 irud

Bakoitzak taxutzen du bere errealitate-eredua, aukera eginez bere esperientziako gorabeheren artean, adierazgarrien deritzenetan jarriz **fokua** eta bazterrean utziz interesik gabeko iruditzen zaizkionak. **Juan Garzia**

Fokoa Euskal Herrian jarri behar dela argi utzi zuen Ibarretxek, eta ez Madrilan. **Berria - Harian**

3 sistema optiko batean zeharko izpiak biltzen diren gunea.

Foku-zehaztasunik ezaren beste kausa bat hau da: fokatzegaitasun desberdina duela objektiboak kolore bakoitzerako; aberrazio kromatikoa esaten zaio efektu horri. **Irene Aldasoro**

Objektiboaren irekierak ezartzen du **foku**-sakonera, oso garrantzizkoa argazkigintzan. **Irene Aldasoro**

Irekiera txikia izanez gero, objektuek **foku** zehatza izango dute, batzuk kameratik hurbil eta beste batzuk urrun egonagatik. **Irene Aldasoro**

Erretratuak egiteko, hobe da irekiera handia erabiltzea, hondoak **fokutik** kanpo gera dadin. **Irene Aldasoro**

Objektibotik hurbilago lortzen du **fokua** argi urdinak, argi gorriak baino. Irene Aldasoro

4 guinea.

Gaixo behartsuei arreta eskaintzea, zergatuei eta **foku** patogenoei buruzko ikerketa. Xabier Arregi

Foku patologikoa detektatzeko. Xabier Arregi

Gaixotasunen maiztasunari buruz, kutsatze-**fokuei** buruz, lanbide-gaixotasunei buruz. Xabier Arregi

Atentzio **fokua** ez zegoen, ez niretzat behintzat, bandera harro erakusten zuten gazteengan. Alberto Barandiaren

Ez da eragiketa sail baten **foku** konstantea, mugiezina, bere buruaren berbera, enuntziatuek, txandaka, diskurtsoaren azalean aditzera emango luketena. Xabier Arregi

5 foku luzera.

Foku luzeko gure argazki makinek Josu Zabaleta

6 foku luzera ik distantzia 6.

Lente lau batek **foku** -luzera luzea du, eta, erdialdean sabelduxeago den leiar batek, berriz, **foku** -luzera laburra. Irene Aldasoro

Argazki-kamera merke baten objektiboa f/16koa izan daiteke; horrek esan nahi du **foku** -luzeraren 1/16 dela objektiboaren irekiera. Irene Aldasoro

Kamera batean, finkoa da objektiboaren **foku** -luzera, eta, fokua infinituan jartzen denean, **foku** -luzerarena bera izan behar du objektiboaren eta filmaren arteko distantziak, irudi garbia lortuko bada. Irene Aldasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta foku (5); **foku bat** (3); **foku luzera** (8); **foku txiki** (3); **fokuen azpian** (16)

fokutzar iz adkor foku handia.

Buchenwalden bertan laugarren eguneko gauean, **fokutzarrekin** argizaturiko plaza itzelean. Urtzi Urrutikoetxea

foliko izond azido klase bat.

Haurdun dauden emakumeei azido **folikoa** emateak, esaterako, arazo ugari saihesten laguntzen du. Berria - Gaiki

folikulu (ETCn 298 agerraldi) iz (anatomian) zakutxo itxurako guruina.

Poliki-poliki, ordea, buruko larruazaleko **folikuluak** itxi egiten dira, eta ilea ez da gehiago hazten. Irene Aldasoro

folio 1 iz gutxi gorabehera 32 cm luze eta 22 cm zabal den paper orria.

bai forman (3); **baten forman** (11); **eta forman** (4); **eta formarekin** (3); **forman agertzen** (3); **forman ere** (5); **forman eta** (11); **inperioaren forman** (5)

baina formaren (3); **barneko sentsuaren formaren** (4); **baten formaren** (3); **bere formaren** (9); **bere formaren arabera** (4); **bere formari** (6); **bere formari dagokionez** (5); **bere formarik** (3); **beren formari** (3); **duen formaren** (5); **eta formaren** (9); **eta formari** (4); **eta formarik** (9); **ez formarik** (4); **formaren aldetik** (20); **formaren arabera** (23); **formaren arteko** (3); **formaren bat** (5); **formaren eta** (12); **formaren ideia** (4); **formaren pean** (3); **formaren pertzepzioa** (3); **formaren pertzepzioaren** (3); **formaren teoria** (3); **formari buruz** (3); **formari buruzko** (5); **formari dagokionez** (19); **formari erreparatu** (4); **formarik eta** (3); **formarik ez** (3); **formarik gabe** (5); **formarik gabea** (6); **formarik gabeko** (15); **sentsuaren formaren** (4)

eta formaz (18); **eta formaz osatua** (4); **formaz aldatu nahi** (3); **formaz aldatzen** (4); **formaz eta** (5); **formaz osatua** (4); **materiaz eta formaz** (7)

animalia formez (3); **diren formen** (3); **du formen** (3); **eta formen** (10); **formei dagokionez** (3); **formek eta** (4); **formek eta koloreek** (3); **formen artean** (3); **formen arteko** (8); **formen bidez** (3); **formen eta** (14); **formen eta jokaeren** (3); **formen teoria** (3)

formagabe *izond* formarik ez duena. ik deforme.

Oso luzeak, **formagabeak** eta koloregabeak ageri zitzaizkion ezpainak. Masailetakoa kolore gorria bekokiraino iristen zitzaion, eta, bekokian, orban gorri margul **formagabe** batzuetan zabalitzen. Irene Aldasoro

Harri tente eta **formagabeek** osaturiko ilara bikoitzari esker. Agustin Otsoa

Psikologikoki, gure pentsamendua, hitzen bidezko adieraztea alde batera utziz gero, masa **formagabe** eta bereizgabea baizik ez da. Isabel Arrigain

formagabetasun *iz* formagabea denaren nolakotasuna.

"Izatearen **formagabetasunerako** bide zuzen-zuzena ematen dizu", esango zion, bere iragan akademikoko mordoiloaren trufa egiten zuelarik Oskar Arana

formagaldu *izond* forma galdu duena.

Bada tristura bat hezea eta errea, betea eta betegarria, bildua eta beltza, lurrari kendua dirudienean, kaotikoa, **formagaldua**, haragi-izpi guztiei gainez eragiten diena, itzal dardartien mendean eroria, ixila, sorra, haizerik egundo ibili ez den basamortuetan jaiotzen dena. Iñaki Segurola

formakera *iz*

Gainera, forma jakinei kolore jakinik ez baitagokie eta edozein koloretan lehenkien **formakera** guztiak egon baitaitezke. Xabier Amuriza

formakuntza *(329 agerraldi -horietatik 263 Herria astekarian-, 8 liburu eta 186 artikulutan; ETCn 2.979 agerraldi –horietatik 692 Herria astekarian-)* 1 *iz* hezibidea; prestakuntza. ik formazio.

Formakuntza eta hezkuntza garatuko diren bi alor garrantzitsu dira. Berria - Kultura

Historiagilea naiz, hori da nire **formakuntza**. Ana Urkiza

Formakuntza klasikoa dute dantzariak baina garaikidea edo modernoa ere dantza dezakete. Berria - Kultura

Aristidek ez du ideologiarik, ez du **formakuntzarik**, ez du programarik, ez du ezertan sinesten... baina hitz jario bikaina du. Berria - Mundua

Kirol-eskaladan aritzen direnek, ez dutela neguko eskaladan aritzeko behar adina **formakuntzarik**. Berria - Euskal Herria

Iduritzen zitzaion gainera erromatar argiari, herritar hoberenen **formakuntzak**, haien zuzentasunak eta zuhurtziak izan behar zutela, oroz gainetik, lehentasuna. Piarres Xarriton

Azken bi urteetan balioen **formakuntzan** eta biolentziaren prebentzioan egindako lanarengatik. Berria - Euskal Herria

Giristinoen **formakuntza** jarraikia. Herria

Kazetarien **formakuntzarako** plangintza. Berria - Euskal Herria

Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu eta **Formakuntzarako** diputatu kargua. Berria - Euskal Herria

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Angelura etorriko diren IUT (baxotik goiti bi urte ofizio ikasketa) eta IUP (baxotik goiti hiru urte) **formakuntza** adarrak. Herria

Enplegu eta **formakuntza** programen jarraipena egitea. Berria - Ekonomia

Unibertsitateko **formakuntza** sareen garapena. Berria - Euskal Herria

Ohana Hazparneko **Formakuntza** etxea. Herria

Ez baita **formakuntza** egitarau ederragorik eta sanoagorik haurren baitan izpiritu eta bihotz berri baten moldatzea baino. Michel Oronoz

Formakuntza ikastaroak segitu ditu. Berria - Euskal Herria

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Programak kultur **formakuntza** proposatuko die irakasle euskaldunei. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

balliatuz berezikiago formakuntza (5); **berezikiago formakuntza horietan** (5); **bi urteko formakuntza** (4); **buruzko formakuntza** (3); **den formakuntza** (3); **dira formakuntza** (3); **du formakuntza** (4); **dute formakuntza** (4); **enplegu eta formakuntza** (4); **eta formakuntza** (13); **eta informatikan formakuntza** (3); **euskarazko formakuntza** (3); **euskarazko formakuntza bat** (3); **formakuntza bat** (16); **formakuntza batzu** (5); **formakuntza berezi** (3); **formakuntza berezi bat** (3); **formakuntza berri** (5); **formakuntza berri bat** (3); **formakuntza edo** (5); **formakuntza edo eta** (3); **formakuntza egun** (3); **formakuntza egun bat** (3); **formakuntza eta** (6); **formakuntza hau** (4); **formakuntza hori** (18); **formakuntza horietan** (7); **formakuntza horrek** (3); **formakuntza jarraiki** (3); **formakuntza jarraikia** (8); **formakuntza jarraikian** (4); **formakuntza sail** (4); **formakuntza segitu** (4); **informatikan formakuntza** (3); **informatikan formakuntza edo** (3); **langileen formakuntza** (4); **urteko formakuntza** (4)

ditu eta formakuntzak (6); **eta formakuntzak segurtatu** (6); **formakuntzak segurtatu** (6); **formakuntzan eta** (4)

formal¹ izond formari dagokiona. ik forma 4; forma 9.

Aurrera gehien egin duen sistema politikoa demokrazia **formala** izan da. **Askoren artean**

Pinturaren barruan gertatutako "iraultza" **formalak**. **Josu Zabaleta**

Izadiaren batasun **formalaren** iturburu. **Ibon Uribarri**

Ikaste naturala (jabekuntza) eta **formala** (ikaskuntza). **Lourdes Oñederra**

Erabileraren alde **formalari** begira. **Ibon Uribarri**

Silogismoaren teoria aristoteliko **formala**. **Askoren artean**

Logika orokorrak adimenaren eta arrazoimenaren zeregin **formal** guztiak bere osagaietan xehetzen ditu. **Ibon Uribarri**

Proposizioen egitura **formala**. **Xabier Arregi**

Analogia **formalen** joko edo antzekotasun semantikoen bidez. **Xabier Arregi**

Chomsky bere garaiko hizkuntzalari eta matematikariek erabiltzen zituzten eredu **formalak** aztertu zituen. **Itziar Laka**

Osagai-egitura sistemaren ezaugarri **formalak**. **Itziar Laka**

Osagai egituraren azterketaren bertsio **formala**. **Itziar Laka**

Gramatikaren azterketa **formalean** aurkitzen ditugun elementu eta egiturek funtzio semantiko jakinekin duten lotura harrigarria. **Itziar Laka**

Zaila da, baina, sailkapenerako irizpide **formal** bat aurkitzea, arbitrarioa eta *ad hoc* ez dena. **Itziar Laka**

Berritasun **formalak** eman dio liburuari ospea. **Berria - Kultura**

hit multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baldintza formal (7); **baldintza formal eta** (3); **eta formal** (5); **ezaugarri formal** (3); **formal bat** (21); **formal bat egingo** (3); **formal batean** (7); **formal baten** (6); **formal eta** (25); **formal hori** (4); **formal soila** (3); **guztiz formal** (3); **hizkuntza formal** (3); **irizpide formal** (3); **logika formal** (3); **printzipio formal** (3); **sistema formal** (12); **sistema formal bat** (7)

baldintza formala (10); **baldintza formala den** (3); **batasun formala** (3); **bilera formala** (3); **demokrazia formala** (3); **erabaki formala** (4); **erabaki formala hartu** (3); **eskaera formala** (4); **eskaintza formala** (3); **eskaintza formala egin** (3); **eta formala** (5); **ez formala** (4); **formala baino** (6); **formala besterik** (4); **formala besterik ez** (4); **formala da** (10); **formala den** (5); **formala egin** (9); **formala eta** (10); **formala hartu** (4); **formala hartu gabe** (3); **formala izan** (3); **formala izango** (3); **formala osatzen** (3); **hizkuntza formala** (4); **izate formala** (5); **logika formala** (3)

baldintza formalak (6); **baldintza formalekin** (5); **baldintza formalen** (4); **baldintza formalen menpean** (3); **baldintza formalez** (3); **denboraren baldintza formalen** (3); **esperientziaren baldintza formalekin** (3); **ez formalean** (5); **ez formaletan** (3); **ezaugarri formalak** (6); **ezaugarri formalei** (3); **ezaugarri formalen** (4); **formalak ere** (3); **formalak jainkoa** (3); **formalak jainkoa onartzen** (3); **formalaren eta** (3); **formalen arabera** (4); **formalen menpean** (3); **formalik ez** (9); **formalik gabe** (4); **formalik jaso** (3); **ideien izate formalak** (3); **izate formalak** (3); **izate formalak jainkoa** (3)

formal² 1 izond zintzoa, zentzuzkoa.

Horregatik dira hango haurrak hain **formalak**. **Josu Zabaleta**

Ganera, seguru nago zure alabea oso neska **formala** dana eta karrera ondo atarako dauana. **Jon Arretxe**

Arront neska **formala**, moñoña eta txintxoia bera. **Patziku Perurena**

Gizon **formala** ematen zinan baina ezin nindunan hola, besterik gabe, fiatu. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Urriak 5a kristau **formal** eta natural batek oso gogoan gorde behar duen data da. **Pello Zabala**

2 (adizlagun gisa)

Formal egin behar dira lanak. **Pello Zabala**

Axierrek bere txanda heldu arte **formal** itxaron zuen, agindutako lekutik mugitu barik. **Sonia Gonzalez**

Pentsa ezan bestela, lapur batekin **formal** eta serio hasi banintz. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Formal ibili eta kasu egin maisuei. **Joseba Sarrionandia**

Irribarretsu egin zieten harrera guztiei; batzuei sutuago eta besteiei **formalago**. **Berria - Euskal Herria**

• 3 izond arauak edo ohiturak eskatzen dituen forma baldintzak betetzen dituen.

Klase altuko jendea gonbidapen **formalik** gabe joan zitekeen lagunen etxeetara bisitan. **Julen Gabiria**

Izan ere, ordurako hizkuntza periferikoak kontuan hartzea eskakizun **formal** derrigorrezkoa zenez, Euskal Idazleen Elkarteari egin zioten gonbita. **Ramon Saizarbitoria**

Barkamen eske **formalik** ez badago. **Berria - Euskal Herria**

Ez ikur, ez ezpata, ez armarririk hilibian, ez errito noblerik, ez zeremonia **formalik**. **Juan Garzia**

Txarrena zen neskalagun **formalik** ez izateaz gain, ez zutela batere ligatzen. **Jon Arretxe**

Etika **formal** huts bat. **Joxe Azurmendi**

Euskara **formala**, jaso eta jantzia euskaldun guzti-guztien eskura ipintzea. **Koldo Zuazo**

Eskola **formalak**, berriz, egunean ordubate-edo baino ez ziren, eta ez egunero ere. **Joxerra Garzia**

Karabineroen aurrean salaketa **formala** egin arren, ez zuen noski inork sekula argituko misterioa. **Juan Garzia**

Eledunaren hitzetan, «oso hotzak eta **formalak**» izan dira Euskararen Udal Kontseiluaren bilerak. **Berria - Euskal Herria**

Litekeena dela, horregatik, guk gehiago erabiltzea ahozko tradizio **formala**: ipuinak, koplak eta bertsoak. **Bernardo Atxaga**

Azkeneko eragilea hezkuntza ez-**formala** da: hedabideak eta, bereziki, telebista eta Internet. **Berria - Euskal Herria**

4 (adizlagun gisa)

Gizon bat -ilun eta **formal** jantzitakoa- inguratu zitzaigun. **Ramon Saizarbitoria**

5 irud

Jose Egiak eta Elias Elortzak besoak gurutzatu zituzten, garai batean behintzat, umeek, **formal** egoteko esaten zitzaizenean, gurutzatzen zituzten bezala. **Ramon Saizarbitoria**

Normaletik dabilen abuztuak, esan duguna: euri asko ez, eta **formal** samar egiten duena ekaitz erasan oparo eta labor horiena. **Pello Zabala**

Bien artean ez da harrizkeoa ekaitz **formalak** sortzea. **Pello Zabala**

1614an, harri erauntsi **formala**, Valentzian. **Pello Zabala**

6 formal-formal

Elkarren ondoan **formal-formal** eseri eta arkatza atera zuen Marcosek; papera eta borragoma Romak. **Unai Elorriaga**

formaldaki iz forma aldaera.

Hit "jo" hitzaren horrelako deskribapen batek automatikoki azalduko luke *hit "jo"* hitzaren erabilera, *Bill was hit by John* edo *hitting Bill was wrong* bezalako **formaldakietan**, **formaldakiak** euren jatorriko muin-perpauen arabera "ulertzen" direla erakutsiko bagenu, nahikoa argitasun eta orokortasunez. **Itziar Laka**

formaldatu, formaldak, formaldatzen du ad formaz aldatu, eraldatu.

Perpau horietatik sortzen den itxurapena **"formaldatzen"** duten eragiketekin. **Itziar Laka**

formaldatzaile *izond* formaldatzen duena.

Egituraren eta 'erregela **formaldatzailearen**' nozioak elkarri estu loturik daude. Itziar Laka

Erregela **formaldatzaileek** izugarri soilten dute gramatika. Itziar Laka

Hizkuntz egituraren eredu **formaldatzailea**. Itziar Laka

Gramatikaren atal **formaldatzailea** eraturik dago. Itziar Laka

Analisi **formaldatzailea** egokiro formulaturik dagoenean. Itziar Laka

Azterketa **formaldatzaileak** garrantzi handiko abantaila kontzeptualak eskaintzen ditu gramatika sortzerakoan. Itziar Laka

Hurbilketa **formaldatzailearen** abantaila. Itziar Laka

Maila **formaldatzailean**, esaldia are abstraktukiago itxuratzen da. Itziar Laka

Ikuspuntu **formaldatzaile** batetik. Itziar Laka

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

atal formaldatzailea (4); **azterketa formaldatzaile** (3); **azterketa formaldatzaileak** (4); **egitura formaldatzailea** (4); **erregela formaldatzaileak** (3); **erregela formaldatzailean** (3); **maila formaldatzailean** (3)

formaldatze *iz* formaz aldatzea, eraldatzea.

Formaldatzeen teoria arretaz formulatzen dugunean. Itziar Laka

Formaldatze batek perpaus-egituraren arauak emandako hurrenkera baten itxurapena hartzen du abiapuntutzat, eta bere horretan uzten du, **formaldatzeak** berak dakarren aldaketa izan ezik. Itziar Laka

Izenda ditzagun erregelok **"formaldatze** gramatikalak". Itziar Laka

"Formaldatze nominalizatzaile" baten bitartez. Itziar Laka

Ez dugu eztabaidatu **formaldatzeek** doinuan duten eragina. Itziar Laka

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beharrezko formaldatzeak (4); **duen formaldatze** (4); **duen formaldatzea** (3); **eta formaldatze** (5); **eta formaldatzeak** (3); **eta tso formaldatzeak** (3); **formaldatze bat** (5); **formaldatze baten** (6); **formaldatze baten bitartez** (4); **formaldatze batzuk** (3); **formaldatze gramatikalak** (3); **formaldatze hau** (4); **formaldatze honek** (5); **formaldatze mailan** (4); **formaldatzea eratzen** (4); **formaldatzea eratzen dugu** (4); **formaldatzea ezartzen** (4); **formaldatzea ezartzen badiogu** (3); **nahitaezko formaldatzeak** (4); **pasiboaren formaldatzea** (7); **tez formaldatzeak** (5); **tgald formaldatzea** (3); **tgald formaldatzeak** (4); **tso formaldatzeak** (4); **tw formaldatzea** (6); **formaldatzearen bitartez** (3); **formaldatzeen arteko** (3); **formaldatzeen bitartez** (5); **pasiboaren formaldatzearen** (3); **tban formaldatzearen** (4); **tgald formaldatzearen** (7)

formaldehido *iz* (*kimikan*) metanoletik eratorririko aldehidoa (HCHO), gas antiseptikoa, uretan urtzen dena. ik**formol**.

Parafinarekin egiten diren kandelak erretzean ustez minbizi sortzaile diren estirenoa eta naftalenoa aieratzen dira, **formaldehidoarekin** batera. Berria - Gaiak

Erakundeak eginiko probetan garbigarriok minbizia eragiten duen **formaldehido** gasa isurtzen dutela ikusi dute. Berria - Gaiak

formaldu, formal(du), formalitzen 1 du/du *ad* forma jakin bat eman edo hartu. cf**formalizatu**.

Telefono dei batek itzel **formaldu** ditzake gauzak. Sonia Gonzalez

Pikeren proposamena **formal** daitekeela. Itziar Laka

Gurago zuen kasualitatez aurkitu, noizbait, nonbait, aldeaz aurretik pentsatu eta erabaki gabe, ez al zen **formalduko** euren artekoa. Sonia Gonzalez

2 formal edo zintzo bihurtu.

Dagoen tokian egonda, egun tikiak artean ere hazten doazela, eguraldia ezin **formalduz**, hilabeterik laburrena eta txarrenaren famarekin, euri eta bisusetik aiseago ekartzeko duela... Pello Zabala

formalidate *iz* formula edo zintzoa denaren nolakotasuna. cf**formalitate**.

Korrektzio, txintxotasuna eta **formalidatea** zeruko benedikazioak dira. Patziku Perurena

formalismo 1 *iz* alderdi formalei edo formalizatuei erabateko garrantzia ematen dion jardunbidea edo doktrina.

Adibidez, zuzentasuna neurtzeko proposatzen diren neurriei ezin euts dakieke **formalismoa** berrikusi gabe. Itziar Laka

Israelen ondorengoek beren ondare espirituala fariseuen **formalismo**, saduzearren materialismo, herodetarren oportunismo eta zeloteen fanatismoarekin nahastua zutelarik.

Iñaki Mendiguren

2 arauak edo ohiturak eskatzen dituen forma baldintza. ik**formalitate**.

Haren egoeran dauden askoren akatsa izaten da ikasleei erabateko konfiantza eskaintzea, lagun gisa hartzea, hierarkien **formalismoak** gainditu nahi izatea. Xabier Mendiguren Elizegi

Formalismoen eta zurrunkeriaren gaitzespen sakona. Xabier Mendiguren Elizegi

la garai hauekako ohitura, errito edo **formalismo** zentzugabe eta esanahigabe diruditen gehienek antzinako praktika zentzuzkoren bat dutenez sorburu [...]. Xabier Olarra

Ehizara joaten hintzen, baina gizarteko **formalismo** bati amore ematen dionak bezala, besterik ez. Xabier Olarra

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

formalismo hutsa (4)

formalista *izond* Formalismoaren aldekoa dena.

Arkitektoa **formalista** zen eta gogoko zuen simetria. Jose Morales

Aurrez aurre nuen espainol ordezkaritzan Racla deitu aholkularia, arunt puntalakurloa, **formalista**, bihurria eta jukutrilaria. Michel Oronoz

Uste dut ez genukeela horrela ekin behar gure komunitateko kide den norbaiten aurka, horren era hotz eta **formalistaz**. Oskar Arana

Izan ere, ez dago gauza amorragarriagorik, **formalista** amorratua baino. Joxerra Garzia

formalitate *iz* arauak edo ohiturak eskatzen duen forma-baldintza. ik**formalismo 2**.

Ordena publikoko gaiak en bakoitzeko gauzak dira, eta gauza txikiak izan ohi dira; beraz, ia ez dira behar **formalitateak**. Itziar Laka

Baina erromatarren artean, testamentuak zuzenbide publikoari zegozkionez, beste ekintzek baino **formalitate** handiagoak zituzten. Itziar Laka

Justiziaren **formalitateak** beharrezkoak zaizkio askatasunari. Itziar Laka

Izan ere, **formalitate** burokratikoak burdina baino hertsatzaileagoak gerta zitezkeen. Itziar Laka

Notarioarengana jo zuen Napumoceno da Silva Araujo jaunaren testamentu itxia irekitzeko ekitaldian **formalitatea** betetzeko. Bego Montorio

Formalitate bat besterik ez duk. Anton Garikano

Formalitateez arduratu ondoren, L.B.ek eta J.B.ek geltokira lagundu zidaten. Joseba Urteaga

Notarioarengana joan zen, osabaren testamentua irekitzeko **formaliterako**. Pablo Sastre

formalizaketa iz formalizatzea.

Azterketa errekurrentziala da eta bera bakarrik zientzia osatu baten barruan gauza daiteke eta behin bere **formalizaketa** atalasea iraganda. Xabier Arregi

formalizatu, formaliza, formalizatzen 1 du ad era formalean ezarri, egitura formalen bidez eman. cformaldu.

"•" sinboloarekin hizkuntza naturaleko "edo" disjuntzioa **formalizatu** nahi izan da. Askoren artean

Mugakizunak, gehienetan, **formaliza** daitezke; haien kontua dena, beraz, probabilitate handiz aurreikus daiteke. Juan Garzia

Funtzio-sinboloak matematikako funtzioak **formalizatzeko** erabiliko dira. Askoren artean

Ideologiari buruzko galdera zientziari egin ahal bazaio, hau jakitean kokatzen den neurrian izango da, [...] enuntziatu jakin batzuk sistematizatzen dituen neurrian, bere kontzeptuetatik eta estrategietatik batzuk **formalizatzen** dituen neurrian. Xabier Arregi

Matematiken lehen positibotasunak eratu beharra zuen dagoeneko **formalizatutako** jardute diskurtsiboa. Xabier Arregi

Gutxi **formalizatutako** diskurtso-mulzoak. Xabier Arregi

2 (era burutua izenlagun gisa)

Teoria **formalizatu** batek automatikoki konpon ditzake jatorrian azaldu behar zituenak baino arazo gehiago. Itziar Laka

Hizkuntz egituraren teoria orokor **formalizatua** eraiki eta teoria horrek oinarrian daukana ikertzeko. Itziar Laka

Ez dit ardura lpuin Orokorren zaleek [...] ahozkotasuna kaleko hizketa arruntarekin parekatzeak, haren adierazpen erritmiko eta **formalizatuak** aintzat hartu gabe. Bernardo Atxaga

formalizatzaile izond formalizatzen duena.

Metodo baten berezitasuna sorrarazten ahalegindu naiz, izango ez dena ez **formalizatzailea**, ez interpretatzailea. Xabier Arregi

formalizatze iz era formalean ezartzea, egitura formalen bidez ematea.

Nola eskuratu ahal izan dituen zientifikotasun-arauak, eta, agian, nola heldu ahal izan den **formalizatze**-atalaseraino. Xabier Arregi

formalizazio iz formalizatzea, egitura formalen bidez ematea..

Laburki, **formalizazioak**, izan ere, gorago aipatu dugun lan baikor eta ezkor hori egin dezakeela ikusten dugu. Itziar Laka

Zein da **formalizazioaren** maila legitimoa? Xabier Arregi

Bera da zientzia bakarra behingoa iragan duena positibotasun atalasea, epistemologizazioarena, zientifikotasunarena eta **formalizazioarena**. Xabier Arregi

formalkeria iz forma-gehiegikeria.

Ez, *Nous irons à Valparaiso* honetan ez dago **formalkeriarik**; aitzitik, zerbait gordin, zerbait berde, zerbait ia basati antzematen dugu bertan, eta hala iruditzen zaigu, bizitzak ezin duela formaren muga hertsietan etsi, 24 lerro horietatik ateratzeko lehian ari dela. Bernardo Atxaga

formalki adlag formari dagokionez, formaren aldetik.

Formalki, kontatzeko erari dagokionez, zatika osatua dago filma. Berria - Kultura

Hauxe dugu konponbiderik errazena **formalki**, eta intuizioaren aldetik ere zuzena ematen du. Itziar Laka

Jainkoaren izaera mugagabetik **formalki** datorren guztia. Piarres Xarriton

Estatuok atzo sinatu zuten **formalki** erakundearekiko bat-egitea. Berria - Mundua

Gizakia zorionduko duen Jainkoarekiko harremana haren endelguaren bidez gertatuko da **formalki**. Askoren artean

Formula egiazkoa bada l interpretazioan, l formularen erudia dela esango dugu ere; **formalki** l •= A idatziko dugu. Askoren artean

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta **formalki** (4); **formalki ez** (3); **zuten formalki** (3)

formaltasun 1 iz formalitatea.

Honako morrosko hau ez zuen sekula ikusi, eta identifikazioaren **formaltasuna** bete beharrean aurkitu zen oraingoan, gogoz kontra bada ere. Aritz Gorrotxategi

Formaltasun handiz, eskua eman zigun guztioi. Bernardo Atxaga

Erniek arnasa sakon hartu eta esan zion, **formaltasun** handiz: [...]. Itziar Laka

2 formalismoa.

Legeak hartzekodunak **formaltasun** baten mende jarri besterik ez zuen egin. Itziar Laka

formaltxo izond formal samarra.

Izan ere, txikarrik ere egin gabeko institutu eta unibertsitateko ikasle **formaltxo** eta grisa izan nintzen. Iban Zaldua

Izan ere, **formaltxo**, santujale eta ikastun fama ondo irabazia neukan. Iban Zaldua

formante

iz hots konplexu bat osatzen duten frekuentzietako bakoitza; bereziki, bi nagusiak.

Osagai indartsuenak biltzen dituzten maiztasun multzo horiek dira hotsaren **formanteak**. Lourdes Oñederra

Lehen bi **formanteak** erabili ohi dira bokal nolakotasunak elkarren artean bereizteko, deskribatzeko edo sailkatzeko. Lourdes Oñederra

Hizketa-hotsen **formanteak** ahots-bidearen erresonantzi guneen araberrako maiztasunetan kokatzen dira. Lourdes Oñederra

[i] baten lehen **formantea** 324,94 Hz-etan gertatzen da eta bigarrena, 2288,88 Hz-etan; [u] batenak 360,41 eta 762,5 Hzetan, hurrenez hurren. Lourdes Oñederra

formarazi

formaraz, formarazten du *ad* formatzera behartu. ik **formatu**¹ 3.

Eta Goiatzen zeuden karlista tropak **formarazi** zituen. Txillardegi

Eta berehalatik **formarazi** zituen batailoiok Luzaideko errepideaz bi aldeetan. Txillardegi

formateatu

formatea, formateatzen **1** (informatikan) disko bati edo beste euskarri magnetiko bati formatua eman.

Batzuetan, oroitzapen guztiak ezabatzea nahiko nuke, disko gogorra **formateatzen** denean bezalaxe Juan Kruz Igerabide

2 irud

Maitemintzea sexu-grina **formateatzea** besterik ez da. Karlos Zabala

formato

ik **formatu**².

formatu

¹, forma(tu), formatzen **1** du *ad* eratu.

Tapoiaren gainean hogeita mila metro kubiko urreko aintzira bat **formatu** zen. Juan Garzia

Zeren hegaberak bi multzotan banatuta baitzetozen, eta zeren multzo batek E bat **formatzen** baitzuen, eta besteak O bat. Joan Mari Irigoien

Hor azaltzen da berriro laino mehar ttattar bat, bertan **formatzen** eta gorputzen doana. Pello Zabala

Horiek dute haren gogoia **formatu**. Xipri Arbelbide

2 soldaduez mintzatuz, ilarak eratu.

Garbitu, gosalduta **formatzera**! Koldo Izagirre

Helzten diot besotik zakar, eta pelotoiari fusilamendurako **formatzeko** agintzen diot. Koldo Izagirre

Ordurako, preso guztiak barrakoi atarrietan **formatuta** zeuden. Bernardo Atxaga

• 3 da/du *ad* hezibidea hartu edo eman.

Gaur egun baditugu milaka lagun EHU edo beste unibertsitate batzuetan **formatu** direnak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Eta Pierre-Philippe, apendiz gaztea, putiko beltzaran fierra, ederki **formatzen** ari zena. Daniel Landart

Eliteak **formatzea** zuen helburu nagusia. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Gazteak **formatzeko** eta haiengan ofizio horien irudia hobetzeko beharra aipatu zuen. Berria - Ekonomia

Langile horiek **formatu** eta igorri behar ziren Paranako beneditarren etxera. Xipri Arbelbide

Terrorismo eskola berezietan **formatuak**. Herría

4 (era burutua izenondo gisa)

Historian zehar inoiz baino jende gazte **formatuagoa** dugula. Pello Salaburu

Pasarte batean, kasurako, rabinoak bera baino gehiago den beste rabino **formatuago** batengana eramatea erabakitzen du, katuaren dialektikari aurre egiten asmatuko duelakoan. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bat formatu (3); **bat formatzen** (4); **eta formatzen** (3); **formatzen ari** (3); **formatzen eta** (4)

formatu

² (*orobat formato*) **1** iz argazkien, margolanen eta kidekoen luze-zabalak.

Bi parametrok definitzen dute **formatua**: irudiaren tamaina absolutuak eta haren neurri nagusien tamaina erlatiboak. Josu Zabaleta

Aspaldi honetan **formatu** handiko argazkiekin dabil lanean. Harkaitz Cano

Lehenbailehen jakin behar dugu zein izango den erabiliko dugun **formatua**: kartela, iragarkia prentsan (orrialde erdikoala ala bazter batean azalduko den modulu pareta?), pegatina bat... Txema Ramirez de la Piscina

Bat-bateko argazki ugari ere egin ditu, 35 milimetroko **formatuan** eta mota guztietako giro, lagun eta egoeretan. Berria - Kultura

A4 **formatuko** orri pila handi izugarri bat luzatu zidan. Joxan Elozegi

Fitxen **formatoa** neurtu, beraz. Askoren artean

2 tamaina.

Formato txiki eta ertaineko estruktura egin ditu, alanbre, aluminio eta pinturarekin. Berria - Kultura

Formatu txikiko obra ezezagunak bildu ditu 'Divertimento' erakusketak Txillida-Leku museoan. Berria - Kultura

Gaur estreinatuko du Bilbon 'Kaputen kanta' **formatu** txikiko musikala. Berria - Kultura

Izan ere, **formatu** askotako antzezlanak izango dira ikusgai. Berria - Kultura

3 filmez mintzatuz, zabalera.

Formatua: 35 mm, koloreetan. Berria - Harian

1932. eta 1935. urteen artean 16 **milimetroko** formatuan eta minutu erditik 30 minutura arteko iraupeneko bobinetan, gizakiaren eta animalien jokabidea ikertu eta filmatu zuen Laburuk. Berria - Kultura

4 liburuez mintzatuz, forma.

Apal bakoitzak **formato** berdineko hogeita hamabi liburu dauzka. Juan Garzia

Zortziko **formatoan** inprimaturiko ale bat zen. Juan Garzia

5 (informatikan)

Maikak kopiatu-kolatu zituen eta "word" **formatuan** pasarazi-eta, bere disketan grabatu. Ramuntxo Etxeberri

Jende askok Word **formatua** erabiltzen du artxiboak bidaltzeko. Berria - Gaiak

6 edukiei buruz, aurkezpen era.

"Bertso-paperak" berriz, deituko nieke paper- **formatoan** eskuratzeko modukoak direnei. Andoni Egaña
Aurreko urteetan, Kultura Sailak liburu **formatuan** argitaratu zuen gida, baina aurrerantzean euskarri elektronikoa izango du, eta eguneratzen joango dira. Berria - Kultura
Epe jakin batean liburu- **formatoan** sartu beharreko materiala sortu behar genuelako. Askoren artean
Hiru euskal nobelatan oinarritutako beste horrenbeste TV movie ekoizteko asmoa du, **formatu** digitalean. Berria - Harian
Bi **formatu** ditu: idatzizkoa eta elektronikoa. Txema Ramirez de la Piscina
Donostiako Orfeoia lau opera eskainiko ditu DVD **formatuan** bere egoitzan. Berria - Kultura
Bere katalogoa mp3 **formatuan** erosteko aukera ireki du Metak zigiluak. Berria - Kultura
Diskoa osorik jaitsez gero, azala eta kontrazala PDF **formatuan** eskura ditzake erosleak. Berria - Kultura
Formatu horizontaleko margo akrilikoak dira. Berria - Kultura
Formatua: digitala, koloreetan. Berria - Harian
Bertso-saio **formatu** berri batzuk sortu eta esperimentatu dituzte. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ere **formatu** (3); **eta formatu** (8); **formatu akustikoan** (3); **formatu batean** (4); **formatu berri** (3); **formatu digitalean** (3); **formatu ertaineko** (3); **formatu eta** (8); **formatu handiko** (26); **formatu handikoak** (4); **formatu txikiko** (24); **formatu txikikoak** (4); **formatua da** (3)
formato handiko (3); **formato txikiko** (5); **ohiko formatoa** (3)

formatzaile 1 iz hezitzailea; prestatzailea.

AFMR ikastetxeko **formatzaileak**. Herria
Parropiako artzain, gitoen omonier, gazteen elgarretaratzailer, morala erakasle, fededunen **formatzaile..** Herria
Bost **formatzaile** badauzkate eta Michel Garat samaztar apezkar du apezgaitegia kudeatzen. Herria

2 (hitz elkartuetan)

Guy Sonnois ikerlari **formatzaileak** esplikatu dauku zergatik bere ustez hainbeste ikaslek adin batetik goiti galtzen duten eskolako gustia. Herria
Elkarteak animatzaile- **formatzaile** bat bilatzen du, denbora osoz lan egiteko. Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

animatzaile formatzaile bat (6); **elkarteak animatzaile formatzaile** (6); **formatzaile bat bilatzen** (6)

formazale izond formen zalea dena.

Gauza jakina da erromatarrek oso **formazaleak** zirela; eta esan dugu lehenago errepublikaren espiritua legearen letrari jarraitzea zela. Iñaki Iñurrieta

formazio (237 agerraldi, 36 liburu eta 124 artikulutan; ETCn 4904 agerraldi) 1 iz hezibidea; prestakuntza. ik formakuntza.

Formazio matematikoa dutenentzat. Askoren artean
Formazio teorikoa irentsi aurretik. Itxaro Borda
Ikasleek hemen ikus ditzakete beren **formazioan** dauden gabeziak eta, bide batez, gabezia horiek zuzentzeko neurriak zein izan daitezkeen. Askoren artean
Formazioko hilabete batzuk pasa ondoren berak atera zituen nota onenak. Mikel Hernandez Abaitua
Gipuzkoako Ganberak **formaziorako** diru partidak handitu ditu. Berria - Ekonomia
Hark, horretarako behar ziren eskolak eginak zituen Hazparnen: B.T.A. diploma, eta bestalde bere nahitara 120 oren **formazio**, ardiez arduratzeko. Daniel Landart

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Definitu den **formazio**-sistemak egonkorra dirau. Xabier Arregi
Liburua, bere osotasunean, **formazio**-garaien edota ikerkuntzari ekiteko prest dauden ikasleei zuzenduta dago. Askoren artean
Edozein literaturzalek **formazio** prozesuan ikasten duen lehen ikasgaia. Iñigo Aranbarri
Arrazoiak eman nion **formazio**-lanaren garrantzia goraiatzeko uanean. Inazio Mujika Iraola

3 (geologian) arkaitz edo mea egitura.

Gidari zihoala, morrenak, estratifikazioak eta bestelako **formazioak** seinalatzen zizkidan. Xabier Olarra
Landare guztiak, txori guztiak, **formazio** geologiko guztiak ezagutzen zituen Templek. Xabier Olarra

4 tropei buruz, ilarak.

Kapitainak **formazioan** jarrarazi zituen soldadu guztiak. Fernando Rey
Erromatarren **formazio** militarretan. Iñaki Mendiguren
Soldaduak **formazioan** antolatu ziren eguzkipean. Joseba Sarrionandia
Formazioan ibili ziren hiriko kale zabal eta luzeetan barrena. Joseba Sarrionandia
Alborengoaren eztula erreketean **formazioaren** isiltasunean. Joseba Sarrionandia
Loxetako zumardi hura baillitza sei Heinkel 51en helburua, eskuineko hegooa altxatu [...] eta bonbaketarien lantza **formazioa** utzi zuten. Ramon Saizarbitoria

5 osaera.

Gelaxok ia hasieratik eutsi dio **formazio** honi: soinua, saxofoia eta jazbana edo bateria. Pako Aristi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta formazio (9); **eta formazioa** (5); **eta formazioari** (4); **formazio diskurtsibo** (6); **formazioa eta** (5)

formika iz erretxina artifizial batez gaineztaturiko gai geruzatua.

Formika arrakalatu haren gainean. Josu Zabaleta
Gurasoen etxeko sukaldeko **formikazko** mahaia. Iban Zaldúa
Aleetako batzuk askatu egin ziren eta mahaiaren **formikazko** gainera erori ziren punpaka. Oskar Arana
Gela modernoa zen, **formikazko** panel zuri asko zituen. Ramon Saizarbitoria
Baina leihotik kanpoko hostoak dirdirka ari ziren oraindik, eta leihatiletan eta **formikazko** gainean osatzen zituzten irudiei begiratu nien. Koro Navarro

formol iz formaldehidozko ur soluzioa, desinfektatzaile gisa erabiltzen dena.

Formol usain pixka bat zeriela erabaki nuen. [Joxean Agirre](#)

Formola injektatzea bihotzean biki judu nahiz ijitoei, begi heterokromatikoak ateratzeko. [Juan Garzia](#)

Hiri honen bihotza aurki baneza, **formoletan** ipiniko dut ontziren batean, hilik bada ere irauz dezan. [Joxerra Garzia](#)

Bai, zer batzuk **formolean** sartuta. [Jon Arretxe](#)

formosatar *izlag/iz* taiwandarra.

Formosatarrek infernu moduko batean sinesten dute. [Iñaki Iñurrieta](#)

formula 1 *iz* (zerbait) adierazteko edo egiteko forma finkatua.

Bihotzeko gonbit bat baino gehiago, izan zitekeen **formula** hutsa, denok erabili ohi dugun "badakizu non duzun zure etxea". "Hasta mañana" batez despeditu zen, **formula** hori erabiltzeko ohitura zuelako ziur asko. [Ramon Saizarbitoria](#)

Zin egiteko **formulak** dioen bezala. [Ester Antxustegi](#)

Kortesiazo **formula** hutsak erabiliz. [Hasier Etxeberria](#)

Bizitzak beti apurtzen ditu **formulak**. [Josu Zabaleta](#)

Egoera batzuetan, **formulak** erabiltzea hobea zen, zintzoagoa. [Bernardo Atxaga](#)

Formula estereotipatueta finkaturik. [Josu Zabaleta](#)

Formula erretoriko batez bete du bertsolariak bertsosarena azkeneko puntua. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Arrakastaren **formula**. [Txema Ramirez de la Piscina](#)

Hurrengo edizioan, txapelketaren **formulara** itzuli zen. [Iñigo Aranbarri](#)

Formula asko daude egoerari aurre egin ahal izateko. [Berria - Euskal Herria](#)

Gehiengo bikoitzaren **formulari** uko egin gabe. [Berria - Mundua](#)

Enpresa handiak krisitik irteteko **formula** bila ari dira, eta euskal disketxeek ere «poliki-poliki hortik jo beharko dugu. [Berria - Kultura](#)

Formula ona da egin zen injustizia salatzen eta egoera horri behar bezala aurre egiteko. [Berria - Harian](#)

Erdibideko **formula** da. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Formulak egungo bertsolaritzan. **Formula** bidezko jardunbidean oinarritzen da ahozko testuen produkzioa. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Zein da momentu honetan literaturaz gozatzeko **formula**? [Ana Urkiza](#)

2 sinbolo bidezko adierazpidea.

Orain gai gara logikaren **formulak** zein diren zehazteko. [Askoren artean](#)

A eta B **formulak** badira, orduan (A • B) **formula** da. [Askoren artean](#)

Bestalde s' = <1,1,1,...> segidak ez du aurreko **formula** asetzen, 1 ez delako 1 baino txikiagoa. n mailako ekuazio bat edo errefrakzio-legearen **formula** algebrakoak enuntziatuz jo daitezke. [Askoren artean](#)

Formula matematikoen bidez. [Berria - Gaiak](#)

Fisikako **formulaz** beteta zegoen. [Fernando Morillo](#)

3 kimikan eta, zerbaiten osagaien adierazpen laburra.

Amonio kloruroa sartzen bazen **formulan**, zerbaitetarako balio zuen seinale. [Juan Garzia](#)

Begien aurrean daukat pozoiaren **formula**. [Iban Zaldua](#)

4 lehiaketa automobilaketa kategoria.

1 **formulako** pilotuen antzera. [Karlos Zabala](#)

1 **Formulako** txapelketa bateko irteeran baleude bezala. [Paddy Rekalde](#)

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bertsolaritzaren **formula**-izaerak inolaz ere ez du analisirako gaitasuna oztapatzen. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Inolako oztoporik gabe onartuko dugu bertso mota hauen **formula**-izaera. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

Egungo bertsolariak ez du **formula**-errepertorio itxi bat erabiltzen. [J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua](#)

5 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Protesta horiek ilegalak eta ez-legitimoak dira, presio **formula** onartezina. [Txema Ramirez de la Piscina](#)

Otoitz- **formula** guztiak. [Joan Mari Lekuona](#)

Beste bi meza- **formula** prestatu dizkigu. [Pello Zabala](#)

Tsarrak bere eskuz emandako sinadura ezagutu zuen, sakramentu **formularen** ondotik. [Karlos Zabala](#)

Bedeinkazio- **formula**. [Elizen arteko biblia](#)

Haren aurrean, bada, zin- **formula** luzea esan behar izaten genuen. [Matías Múgica](#)

Mezenas **formulak** eta beste batzuk ere aztertu behar dira. [Berria - Kultura](#)

Halako esakuneak, beraz, ez dira axiomak [...] baizik eta zenbaki- **formulak** deitu behar zaie. [Ibon Uribarri](#)

Newtonek emandako datu, kalkulu- **formula** eta neurririk gehienek. [Jenaro Garate](#)

Azti- **formula** bat, arriskuaren eta beldurraren uxagarri. [Aingeru Epaltza](#)

Bizikidetzat **formula** berriak aztertzen eta borroka alde batera uzteko. [Berria - Harian](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

a formula (13); a formula asetzen (4); aldiz formula (3); baina formula (5); beste formula (6); da formula (11); dago formula (3); definitu gabeko formula (3); den formula (9); du formula (6); duen formula (4); duten formula (6); edo formula (5); edozein formula (3); egiteko formula (7); erabilitako formula (3); ere formula (4); eta formula (16); ez dago formula (3)

formula asetzen (8); formula atomikoak (4); formula aurkitu (3); formula auto (7); formula auto batekin (5); formula bada (3); formula bat (26); formula batean (6); formula batek (3); formula batekin (6); formula baten (5); formula baten bidez (3); formula bera (11); formula berarekin (3); formula berri (6); formula berri bat (4); formula berria (4); formula berriak (8); formula da (9); formula denboraldia (3); formula edo (5); formula egiazkoa (3); formula egoki (3); formula erabili (4); formula erabiltzea (3); formula ere (3); formula eta (8); formula ez (9); formula ferrariak (3); formula gisa (3); formula guztiak (7); formula hau (10); formula hau erabili (3); formula honek (3); formula honekin (3); formula honen (3); formula hori (13); formula horiek (9); formula horrek (5); formula hura (5); formula hutsa (3); formula idatzi (3); formula magikorik (6); formula matematiko (4); formula michael (4); formula multzo (3); formula ona (5); formula ona da (3); formula osoa (3); formula renaultek (3); formula talde (5); formula txapelketako (3); formula txapelketan (5)

gabeko formula (3); gabeko formula batekin (3); honako formula (4); honela formula (3); lehen aldiz formula (3); markulforen formula (4); parekotasun formula (4); plko formula (5); zen formula (7); zuen formula (10)

bere formulak (4); duten formulak (7); emateko formulak (5); emateko formulak landu (3); eta b formulak (3); eta formulak (3); formulak adostu (3); formulak bilatu (3); formulak bilatzea (3); formulak dira (3); formulak eta (9); formulak landu (3); formulak landu eta (3); hizkuntzako formulak (3); hori emateko formulak (3); plko formulak (4); talesen formulak (3)

formulako gidari (4); formulako munduko (6); formularen aritzeko (4); formularen bat (8); formularen bidez (3); formularen bitartez (3)

formulaketa iz formulazioa.

Antzekotasun fonemikoa, *take+iragana* forma *took* formara itzultzen duen erregela morfonologikoaren egiazko **formulaketan** azal daiteke. **Itziar Laka**

Halako **formulaketa** oinarri-esakunearen asmoaren aurkakoa da. **Ibon Uribarri**

Hala balitz, bere **formulaketak** jakintzaren eta kulturaren plazaratzea eta elkarbanaketa libre bultzatu beharko litzuzke. **Berria - Gaiak**

formulario 1 iz formulak dauzkan liburua,

Luma batez zirriborrotzen ari zen zenbakiz betetako **formulario** erraldoi bat. **Josu Landa**

2 bete behar diren lauki zuriak dituen inprimakia

Formulario bat betetzen ari zen bezero bat ere hila gelditu zen tiro erauntsian. **Gotzon Garate**

Hiru **formulario** izango dira, zeure identifikazio datuekin bete beharko dituzunak. **Joseba Sarrionandia**

formulatu, formula(tu), formulatzen 1 du ad ahoz edo idatziz era zehatzean adierazi.

Gauza jakina da, orobat, Kantek bosgarren galdera ez zuela **formulatu**. **Askoren artean**

Irudi estereoskopikoaren printzipioa Wheatstonek **formulatu** zuen 1838an estereoskopioa asmatu zuenean. **Josu Zabaleta**

Zelako babesa eman diezaiekete esperimentu zientifikoek **formulaturiko** hipotesiei? **Askoren artean**

Oinarri objektibo hori Inperatibo Kategorikoaren bitartez **formulatuko** du Kantek. **Askoren artean**

Helburuak besteak kontuan hartu gabe **formulatzen** ditu politikariak. **Berria - Euskal Herria**

Berdintsu **formula** litekeela biziaren edo bizimoduaren ezina beste era honetara ere: "gazteak baleza, zaharrak baleki". **Iñaki Seguro**

Hain esplizituki eta biribiki **formulatu**. **Xabier Amuriza**

Maurice Pirenne-k [...] **formulatu** zuen hipotesi hau. **Josu Zabaleta**

Argudio nagusia **formulatzerakoan**. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Argudioak, egokiro antolatutako eta **formulatuak**, gogoan edukitzea. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

2 formula bidez adierazi.

Optika era axiomatikoan **formulatzeko**. **Askoren artean**

Ekuazio perfektua honela **formulatzen** zen: estetika gehi etika, berdin politika. **Iñaki Iñurrieta**

Analisi formaldatzailea egokiro **formulaturik** dagoenean, osagai-egituraren araberako deskribapena baino ahaltsuagoa dela ikusten dugu. **Itziar Laka**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta formulatu (3); formulatu behar (7); formulatu behar da (3); formulatu eta (3); formulatu gabe (3); formulatu zuen (8); formulatzen da (3); formulatzen dugunean (3); formulatzen zen (3); nola formulatu (5)

formulatze iz ahoz edo idatziz era zehatzean adieraztea.

Hizkuntzalaritzan **formulatze** zehatzak bilatzea ez du bakarrik logikaren edertasunarekiko zaletasunak edo hizkuntz analisiko metodo ezagunak garbitzeko nahiak eragiten.

Itziar Laka

Formulatze instantzia hauetatik at. **Xabier Arregi**

formulazio 1 iz formulatzea.

Erlatibitatearen teoriaren eta mekanika kuantikoaren **formulazioak**. **Askoren artean**

Eboluzioaren teoriak askotariko **formulazioak** izan baditzake ere. **Askoren artean**

Arazoa, ohiko **formulazioan**, hauxe zen: lege zientifikoa enuntziatu unibertsalaz izateaz gain [...] zerbait gehiago bada, zertan datza "zerbait" hori? **Askoren artean**

"Inork ez du entzun" **formulazioa** aurkitzen bada eleberri baten lehen lerroan. **Xabier Arregi**

Adostasunaren bidean besteak onartu ezin zuen **formulaziorik** ez planteatzea izan da gure irizpidea. **Berria - Euskal Herria**

Formulazio baten densitate poetikoa baliabide poetikoen presentziaren muntarekin pareka daiteke. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

2 (izenondoekin)

Argudioen **formulazio** egokia. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

*Elocutio*a, argudioen eta edukien **formulazio** poetikoa. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Formulazio matematikoak errealitateaz ari direnean, ez dira egiazkoak; egiazkoak direnean, ez dira errealitateaz ari. **Iñaki Seguro**

Nemoteknia hertsiki lotua dago **formulazio** gogoangarriekin. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Modelo matematikoen **formulazio** abstraktuak. **Pello Salaburu**

Antzinateko hiru problemen **formulazio** zehatza adieraz diezazuket. **Jon Muñoz**

Notopoulos eta Ongen **formulazio** kanonikoen arabera. **J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua**

Maimonek kapitulu batean **formulazio** enigmatiko bat eta handik urruneko beste batean erantzuna idatziko balu bezala gertatzen da, erantzun horrekin han urrunean planteaturiko enigma dezifratzen duela esan gabe. **Xabier Kintana**

Formulazio hain simple horietan aldatu dena ez da hitzen zentzua izan. **Xabier Arregi**

[Jardun erretoriko] erretorika eskolako jardun antzu bihurtu zenean, *elocutio*ak, **formulazio** dotore-apainen arteak neurritz gorako garapena izan zuen aurreko biak (*inventio* eta *dispositio*) oso-osorik janean. **Txema Ramirez de la Piscina**

3 formula.

Homeroren hori ez zait iruditzen batere **formulazio** kaskarra [...] fikzioa eta errealitatea, uztartzeko. **Anjel Lertxundi**

4 (hitz elkartuetan)

Formulazio -testuinguruei buruzko ikerketa. **Xabier Arregi**

Enuntziatu bat badela **formulazio** -ekintza bat antzeman eta bakar daitekeen alde guztietan "speech act" delakoaren antzerako zerbait. **Xabier Arregi**

Formulazio -testuinguruei buruzko ikerketa. **Xabier Arregi**

Uztartutako arloa **formulazio** -multzo batek osatzen du. **Xabier Arregi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

beste formulazio (3); formulazio bat (5); formulazio baten (8); formulazio berri (4); formulazio hori (3); formulazio horiek (3); gai korapilatsuren formulazio (3); korapilatsuren formulazio (3)

fornikatu, fornika, fornika, fornika du ad fornigzko bekatua egin.

Etxe galdu hartan **fornikatzen** harrapatu gintuztelako. **Joan Mari Irigoien**

Beila egiten badugu, besteak lo egiten du, **fornikatzen** badugu, bestea kastua da, ebasten badugu, bestea eskuzabala da. **Juan Garzia**

fornikatzaile iz fornikatzen duena.

Bi partenerrek, besarkada lizunean munstro laranjakoloreok sortu ziren bi **fornikatzaileak**, kromatoa eta erretxina ziren. **Juan Garzia**

fornikazio iz haragizko bekatua.

Anaia maitea, sexua eta **fornikazioa** ez ditzazula zuk deblauki non-nahi sar: bakoitzak bere lekua badu. **Itxaro Borda**

Loreen **fornikazioak** ideia likitsak sor baillitzake alabaren gogoan. **Pablo Sastre**

fornitu, forni, fornitzen (ETCn 88 agerraldi; orobat furnitu ETCn 30 agerraldi) du ad ipar hornitu.

Nagusiak berehala baietz segurki, dirua **fornituko** zuela. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Urtegi horrek edateko ura **fornitzen** diote nunbait han hogoi bat mila jenderi. **Herria**

Lagundua zutela Saddam Hussein armamendu aitzinatua **fornituz**. **Herria**

Irakiarrek petrolioa **forni** eta sartaldekoek janaria emateko. **Herria**

Egia da berenez arras garbia den indargaia **fornitzen** daukutela. **Herria**

Multxo horiek armaz **fornituak** zituzten Amerikanoek Taliban delakoen gudukatzeke. **Herria**

Manifestatzailek galdegiten zuten gobernuak sala zezan nola diruz **fornituko** zituen xahar arranda horiek. **Herria**

Büchenwald-ek langilez **fornitu** beharrak zituen kanpalekuko fabrikak, bai eta inguru haietako lan tokiak. **Marzel Etxehandi**

Horri buruz ere familia baktokak lau ageri **fornitu** behar ditu adibidez : bizilekuarena, 2003ko zergena, familiako libreta, eta kirolaren egiteko gaitasuna. **Herria**

fornitzaile (orobat fornitzale eta furnitzaile) iz ipar hornitzailea.

Euskaldunak Hego Korearen **fornitzaile** haundiak dira, Seul-en altzeiru-hodiak harat salduz. **Herria**

Arats hortako janari **fornitzaileak**, apairu guziak urrik eman dituzten Ibarrungo Bonnet eta Elbarrungo Pyrenees Atlantiques ostatuak. **Herria**

Petrola **fornitzaile** diren hiru etxe handik. **Herria**

1991-ko gerlaren ondotik ttipitu dela Irakiaren militar indarra, arma **fornitzaile** zituen lantegi frango behar izan baititu suntsitu. **Herria**

Ikusiko, Chirac jaunaren bisitaren ondotik, ea frantses diru **fornitzaileak** Errusiari buruz itzuliko direnez. **Herria**

Hau zen beraz Baionako apezten arno **fornitzailea**. **Xipri Arbelbide**

foro 1 iz Erroma zaharreko plaza nagusia.

Hiritarren egokiera eta erabilera komunerako lekuak [...] tenplu sakratuak, **foroa** eta gainerako leku publikoak. **Santiago Iruretagoiena**

Altxortegia, presondegia eta kuria edo senatu-etxea **foroari** itsatsita egin behar dira. **Santiago Iruretagoiena**

Eta hala, portuaren barreneko aldean **foroa** eraiki zuen. **Santiago Iruretagoiena**

Gure arbasoengandik jaso baitugu **foroan** gladiatoreen arteko ikuskizunak eskaintzeko ohitura. **Santiago Iruretagoiena**

Rodaskoak inguratu eta han bertan hil zituen, **foroan**. **Santiago Iruretagoiena**

Venusen tenplua Zesarren **Foroan**. **Santiago Iruretagoiena**

artikuluen fotokopiak (3); **baten fotokopia** (4); **eta fotokopia** (3); **eta fotokopiak** (6); **fotokopia bat** (11); **fotokopia batzuk** (5); **fotokopia egin** (3); **fotokopiak egin** (4); **fotokopiak egiten** (5); **fotokopiak eta** (5); **pasaportearen fotokopia** (4)

fotokopiagailu *iz* fotokopiak egiteko makina.

Bulegoko **fotokopiagailuaren** tonerra aldatzean. **Patxi Zubizarreta**

Fotokopiagailuaren irensgailuaren ahoan jarri nuen paper pila. **Joxan Elosegi**

Fotokopiagailuaren estalki laranja behin eta berriro altxatuz eta jaitsiz. **Iban Zaldua**

Fotokopiagailura itzuli nintzen. **Joxan Elosegi**

Begira, eskaner hori **fotokopiagailu** moduko bat da. **Antton Olano**

fotokopialeku *iz* fotokopiak egiteko lekua.

Afferrenak, berriz, txuletak egiten edo **fotokopialekuan** utzi dudan amu-azterketa buruz ikasten. **Jon Arretxe**

fotokopiatu, fotokopia(tu), fotokopiatzen du *ad* fotokopia egin.

Testua **fotokopiatzera** eraman beharko dut. **Iban Zaldua**

Leitu berria nuen Quim Monzóren ipuin bat **fotokopiatu** nuen. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Golf klubeko araudia **fotokopiatzea**. **Joxan Elosegi**

Posible ote zen fitxa horri begiratzea eta ontsalaz **fotokopiatzea**? **Ramuntxo Etxeberri**

Horrela, hortxe dira **fotokopiaturik** aldizkariaren bost ale osorik. **Edorta Jimenez**

Liburuak **fotokopiatzearen** aurkako kanpaina. **Berria - Kultura**

Horregatik bakarrik nahi nuke 2.000 ale salduko dituen liburu honetan jarri ditudan hitz hauek milioika aldiz **fotokopiatuak** izatea. **Pako Aristi**

fotokopiatzaile *iz* forokopiatzen duen pertsona.

Zer uste dute gizajo horiek, ez dakidala **fotokopiatzaile** kabroi horrek kopia bat gordetzen duela eurei pasatzeko? **Jon Arretxe**

fotolito *iz* euskarri garden batean egiten den klixer fotografikoa, fotograbatuan eta offsetean erabiltzen dena.

Ohar zaitze urgentea dela, fotokonposaketakoak **fotolitoak** egiteko zain daudela eta inprimategikoak ere berdin. **Iñaki Zabaleta**

Fotolitoak nola erabiltzen diren azaltzeko. **Berria - Kultura**

fotomatoi (*orobat fotomaton eta photomaton*) iz argazkiak ateratzeko kabina, automatikoki eta minutu gutxitan argazkia atera eta positiboaren kopiak egiten dituena.

Hemen, ba, **fotomatonean**. [Pablo Sastre](#)

Egun batean, bere argazki bat, **fotomatoian** egina, ekarri zidan, eta paretan itsatsi nuen nik. [Joxan Elozegi](#)

Ni argazkiak ateratzera joan nintzen **fotomatonera**. [Jesus Mari Mendizabal](#)

Photomatona eskuan hartu nuen eta abereki makilatu neskatila moskota munaka horailari Pierrak zer atzematzen zion eskatu nion neure buruari. [Itxaro Borda](#)

fotometria iz optikaren alorra, argiaren intentsitatearen azkerketaz eta neurketaz aritzen dena.

Fotometria argi kopuruak neurtzen dituen teknika da. [Josu Zabaleta](#)

Orkideei buruz hitz egiten ari zen bikote sofistikatu bat bere ondoan: **fotometriaz** loratzen dira orkideak. [Harkaitz Cano](#)

fotomontaia ik **fotomuntaia**.

fotomuntaia (*ETCn 35 agerraldi; orobat fotomontaia ETCn 2 agerraldi*) iz zenbait argazki konbinatuz lortzen den fotografia-lana.

Fotomuntaiak ere badu tarterik Manterolaren obran. [Berria - Kultura](#)

Nikolas Lekuonaren marrazki eta **fotomuntaiak**. [Berria - Kultura](#)

Karikatura batzuk, **fotomontaia** bat, Kataluniako *Avui* egunkariak argitaratutako Marokoko disidente errepublikano izandako baten elkarriketa erreproduzitzea dira bere aurka erabilitako akusazioak. [Berria - Mundua](#)

fotopiko *izond*

Ikuspen **fotopikoa**: ikusmen mota hau, ohikoena, egun argiz normalki argitutzat hartu ohi ditugun gauzen ikuspenari dagokiona da. Ikuspen **fotopikoan** konoak baliatzen dira batez ere; konoak, baina, [...] koloreen pertzepzioa eragiten dutenak dira, eta, hala, ikuspen **fotopikoa** kromatikoa da. [Josu Zabaleta](#)

Zona fotopikoa. [Josu Zabaleta](#)

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

ikuspen fotopikoa (3)

fotoselektibo *izond*

Prostataren lurrunketa **fotoselektiboa** erabiltzen hasiko dira laster Gipuzkoako Poliklinikan. [Berria - Gaiak](#)

Prostataren lurrunketa **fotoselektiboak** asko laburtzen du ospitaleko egonaldia. [Berria - Gaiak](#)

fotosentibera *izond* argiarekiko sentibera dena.

Gai **fotosentiberak**. [Josu Zabaleta](#)

Paper **fotosentibera**. [Josu Zabaleta](#)

Gainazal **fotosentibera** bat argitan jartzen bada. [Josu Zabaleta](#)

Material **fotosentiberaren** bidez, artistak argia du lanabes. [Berria - Kultura](#)

fotosintesi 1 iz argiaren energiaren bidez gai elkartu bat eratzea; bereziki landareetako klorofilak egiten duena.

Banuen amets-asmoa karbono-atomo baten saga idazteko, jendei ulertarazteko **fotosintesi** klorofilikoaren poesia bikain bezain -kimikarientzat izan ezik- gordea. [Juan Garzia](#)

Fotosintesia ez dela soilik karbonoa bizidun egiten den bide bakarra, baizik eta, orobat, eguzkiaren energia kimikoki baliagarri bilakatzeko gai den bakarra. [Juan Garzia](#)

Ongarri horiek jaso eta **fotosintesiaren** bidez materia organiko bihurtzen dira. [Berria - Gaiak](#)

Irudiz **fotosintesirik** gabe irauten duen hosto lehorra naiz. [Itxaro Borda](#)

2 (hitz elkartuetan)

Erresalbu-gordailuok harrikatz eta petrolio hobietan dautza: horiek ere, baina, aru urrunetan buruturiko **fotosintesi** ekintzen ondorengo dira. [Juan Garzia](#)

fototeka iz argazkiak biltzeko eta kudeatzeko lekua.

Argazki berriez gain, Kutzaren **Fototekakoak** ikus daitezke. [Berria - Kultura](#)

fotovoltaiko (*orobat fotovoltaiko*) *izond* argi energia elektrizitate energia bihurtzeko gai dena.

Horrek bultzatu zituen bere garaian plaka **fotovoltaikoak** eta haize errota jartzera argindarra sortzeko. [Berria - Euskal Herria](#)

Energia **fotovoltaikoa** eta biomasa ere garatzen ari da egun. [Berria - Ekonomia](#)

Indoortromen, material eta estalgarri **fotovoltaiko** berriak aztertzen ari dira, kutsadura zer neurritan deskonponatzat duten jakiteko. [Berria - Gaiak](#)

Porlan **fotovoltaikoa** erabili dute etxebizitzaren estalgarrietan. [Berria - Gaiak](#)

fox iz fox-trota.

Fox, bals, pasodobleak... [Koldo Izagirre](#)

Pasodobleak, tangoak, **foxak..** [Iñigo Aranbarri](#)

fox-terrier iz

Herrian **fox**-terrier batekin promenatzen eta denokin hitz egiten astebete eman zuen kapitain bilo-horiak eramanda. **Koldo Izagirre**
Aldamenean dudan auto alemanean dagoen neskatxa ilehoriari begiratzen diot, eta bere txakurtxoari, **fox** terrier bat. **Mikel Hernandez Abaitua**

fox-trot iz

Piano aurrean eserita egiten omen zituen bere inprobisazioak: mambo, chotis, **foxtrot** eta pasadobleak. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Ipurmasailez jautzi txoak eginez **fox**-trot bati ekin zion egun hartan Luigik. *Somebody loves me, Baby Divine, You're in Kentucky Juss Shu 'as You're Born...* **fox**-trot-en nota minberatuak herrenka ateratzen ziren ateetatik. **Josu Landa**
Dave Stampe-ren "Prends garde... Tchou-Thin-Tchou" hasiko da kantatzen maltzurki, **Fox**-trot erritmora edo Francis Salabert-ek One-Step geldira bihurtua. **Josu Zabaleta**

frack ik frak.

fragata 1 iz

Hiru mastadun eta berrogei kanoiko **fragata** bat zen, txopako gazteluaren ederragatik itsasalde guztietan ezaguna. **Felipe Juaristi**
Altxatu zenean, **fragata** frantses bat ikusi zuten aurrean, tiroka hurbiltzen ari. **Felipe Juaristi**
Belak zabaldu ditu **fragatak**. **Felipe Juaristi**
Ez zuten deus jan hogeita hamasei orduan, *le Canada* **fragatako** sotoan pilatu zituzten arte. **Karlos Zabala**
Uko egin zioten Granadako gobernadoreak eskaini zien babesari, **fragata** ongi armatu baten laguntzari. **Felipe Juaristi**
Orduz gerotik bizitza **fragata** alderrai bat baino ez baita. **Karlos Linazasoro**

2 (hitz elkartuetan)

Joanes de Iraurgi, **fragata** kapitaina, adiskide baitzuen aspaldidanik. **Felipe Juaristi**
- Han dira frantses bandera daramaten gerra-**fragata** dotoreak. **Felipe Juaristi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

fragata bat (5); **fragata militarren** (3)

fragmentario izond

Oroitzea ez da ezin konta ahal aztarna finkatu, bizigabe eta **fragmentario** akuilatzea. **Xabier Olarra**

fragmentazio iz

«Produktzio egituraren **fragmentazioak**» langile klasean ekarri duen banaketa. **Berria - Ekonomia**
Ikusgarria da oso Ameriketako Estatu Batuetan sortu den **fragmentazio** soziala. **Iñaki Heras**

fragmento iz

Poema zahar anonimo horiek ditu nere gogoak bere guzizko, atsegin zahar ilun baten **fragmento** galduak iduri. **Patziku Perurena**
Pentsamendu bat, hala ere, astean zehar jira eta buelta ibili zaidana: nire testuak **fragmentoak** dira, passages, zatiak. **Fragmentoa** du maite, pindarrak eta kondentsazioak eta aurrerantzean bide horretatik joko duela aitortu du. **Anjel Lertxundi**

frai iz

Frai Antonio de Guevarak bere kroniketan egin ohi zuen moduan. **Joan Mari Irigoien**
Guk **Frai** Joxe deitzen diogu, apaizgaia omen dalako. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Catalina zeritzan hogeita bost urteko emazteki bat, liberala eta ederra, batik bat **frai** Antonio zeritzan fraide muturluze batentzat. **Joan Mari Irigoien**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

die frai (3); **die frai joxek** (3); **du frai** (3); **du frai joxek** (3); **eta frai** (5); **frai dominicok** (6); **frai joxek** (11); **frai luis** (4); **zuen frai** (4)

fraide (610 agerraldi, 90 liburua eta 56 artikulutan; ETCn 3.868 agerraldi) 1 iz

Aurpegia ez nion ikusi, bekokia **fraideen** ohiko txano haietako batean estalirik etorri baitzen. **Edorta Jimenez**
Herriko erretorea bata, itsasondoarra baina Lazkaon **fraide** zegoena bigarrena. **Xabier Mendiguren Elizegi**
Han **fraide** zegoen baten lehengusuak. **Jon Maia**
Bederatzi orenetan **fraideak** meza nagusian ziren. **Marzel Etxehandi**
Gobernuak **fraide** guziak Frantziatik kanpo ezarri zituen. **Marzel Etxehandi**
Fraideen komunitatearen oniritziak eta abegi onak. **Jon Alonso**
Gero Belokeko **fraideetarat** joan zen eta komentuko bizia jastatu. **Herría**

2 (izenondoekin)

Frai Antonio zeritzan **fraide** muturluze batentzat. **Joan Mari Irigoien**
Gero domingotar **fraide** ezaguna bilakaturik, Erasmoren ikasle berritzaile, Trentoko teologo eta Ingalaterrako fede katolikoaren berpizle, 1559ko abuztuan, Toledoko artzapezpiku zelarik, Espainiako Inkisizioak heretikotzat jo zuen eta preso sartu. **Piarres Xarriton**
Fraide frantziskotar bati. **Joan Mari Irigoien**
Fraide beneditarren me **Josu Landa**
Fraide Predikatzailleek (Domingotarrek), beren aldetik, Domingo santuaren bizkar jarri dute Elizari eusteko eginbehar hau. **Askoren artean**
Felix Zubiaga idazle eta **fraide** pasionistak. **Berria - Kultura**

Baita **fraide** arrunten artean ere. Askoren artean

Fraide zuzendari nagusiak Baionako zuzendariari. Xipri Arbelbide

Presoekin batera etorritako **fraide** zaindaria lekuz aldatu zituzten. Jokin Urain

Fraide atezainak amaren berria eman zidanean. Joan Mari Irigoien

Ehunka eta ehunka **fraide** eta moja misiolarik. Iñigo Aranbarri

Anaia hura bere **fraide** lagunarekin ahuspez jarri zen otoitzean. Askoren artean

Gandiagaren obra guztia bildu eta edizio kritikoa osatzeko asmoa dute haren **fraide** lagunek. Berria - Kultura

- Maisu Petri Soto haren konfesore **fraide** kartsu bezain jakintsuak. Piarres Xarriton

3 (izenlagunekin)

Baina harengana iritsi aurretik, frantziskotar **fraide** baten ezaguera egin behar izan zuen Ruche jaunak. Jon Muñoz

Erdi Aroko zisterreko **fraide** batentzat. Pello Salaburu

Jeronimotarren komentuko **fraide** batzuk ere etorriak ziren. Felipe Juaristi

4 (ikastetxeetakoa)

Mutila ikastolara eraman behar genuela, ez **fraideetara**. Joan Mari Irigoien

Danba!, kristoren zaplaztekoa eman zion **fraideak** (anaia Pedro, anaia Jazinto, anaia Jabier), gure barregurak derrepente eten zituen. Xabier Mendiguren Elizegi

Aurpegia ez nion ikusi, bekokia **fraideen** ohiko txano haietako batean estalirik etorri baitzen. Edorta Jimenez

Hobe hortaz **fraideetan**, betiko lege zaharrean. Xabier Mendiguren Elizegi

Fraideenetan sortu zitzaidan jendeari izengoitia paratzeko ohitura. Aingeru Epaltza

Fraideeneko azken urtean eta unibertsitateko lehenbizikoetan. Aingeru Epaltza

Seme-alabak gustura eramango omen zituzkeen **fraideetara**. Joxerra Garzia

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Fraide -bizitzaren aurkakoa. Iñaki Mendiguren

Iragan denboretan **fraide** komentua izan zen. Fernando Rey

Hamasei urterekin etorri zen herrira **fraide** komentua utzita. Jon Maia

6 *fraide etxe* ik *fraidetxe*.

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

apez edo fraide (3); **arantzazuko fraideek** (5); **bi fraide** (8); **edo fraide** (4); **edo fraideak** (3); **eta fraide** (14); **eta fraideak** (12); **eta fraideei** (3); **eta fraideek** (4); **eta fraideen** (7); **fraide bat** (7); **fraide batek** (7); **fraide baten** (4); **fraide bati** (3); **fraide eta** (12); **fraide etxe** (4); **fraide frantziskotar** (3); **fraide gazte** (5); **fraide gazte batek** (3); **fraide gaztea** (3); **fraide lagun** (4); **fraide lagun batekin** (3); **fraideak anaia** (4); **fraideak anaia pedro** (4); **fraideak eta** (4); **fraideak ez** (5); **fraideen historia** (4); **fraideeneko azken** (4); **haren fraide** (4); **ordenako fraide** (3); **zen fraidea** (5); **zigun fraideak** (3); **zuen fraide** (4); **zuen fraideak** (5)

fraidegai iz fraide izateko prestatzen ari den pertsona.

Garai batean, zenbat ikasle eta **fraidegai** hemen bertan...!? Xabier Mendiguren Elizegi

Adi-adi ginduzkan **fraidegaiok** oso hurbiletik ezagutzen gintuen. Anjel Lertxundi

-Fraidegai berriak zarete? Itxaro Borda

Fraidegaien harrera ministroari (zehaztasun gehiagorik gabe) dagokio. Askoren artean

fraidegaitegi iz fraidegaien etxea.

Bizpahiru horiek **fraidegaitegian** egin zituzten, La Salle-enean, batxilerraren azken urteak. Joxerra Garzia

fraidekide iz ordena bereko fraidea.

Poesia utzia zeukala aitortu zion honek, **fraidekideek** poesia marikoen gauza dela esan ziotelako. Pako Aristi

fraidekume iz *adkor* fraidea.

Fraidekume moderno zibilizatuaren eskolaren karga bizkar gainean. Aingeru Epaltza

fraidetegi iz monasterioa.

Eta balinba harrizko eraikinek beno haboro balio dñan erreforma bat bultzatū zñan: beneditarrena [...] Cluny-ko **fraidetegian** hasi zena. Herria

Hor eta hñllan den Leire-ko **fraidetegian** eskolatñren da lehenik. Herria

Hots **fraidetegietan** eta horien üngürñan arrapizten hasiko dira, eta gero azkartñko, Eliza eta jentartea. Herria

fraidetu, fraide(tu), fraidetzen da *ad* fraide egin.

Hogoi urtetan **fraidetu** zen. Herria

fraidetxe (*orobat fraide etxe*) iz monasterioa; komentua.

1943an Belokeko buruzagiei eskatu zitzaien, Espainiarako bidean **fraidetxea** etapa bat izan zadien erresistentziako jendeentzat. Marzel Etxehandi

Belokeko **fraidetxean** zendu da Aita Frantzua Chotro Donibane Lohizuneko beneditanoa. Herria

Arantzazuko **fraidetxea**, Donostia eta Loiolako apezgaitegi eta saildutegiez. Herria

Karmelotarren **fraide** etxea ere presondegi bihurtua baitute. Jokin Urain

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

belokeko fraidetxean (3)

fraidetxo iz adkor fraidea.

Fraidetxoak arratoi-zakur bat eraman ohi zuen gelara. **Joxerra Garzia**

fraidetza iz fraidearen bizibidea.

Fraidetza ere erotu zelako utzi behar izan zuela, pentsatzen zuen jendeak. **Bernardo Atxaga**

fraile (279 agerraldi, 21 liburu eta 57 artikulutan; ETCn 1.460 agerraldi) iz 1 fraidea.

Arropak **frailea** egiten duen bezala, funtzioak izatea moldatzen du. **Piarres Aintziart**

Julian Alustiza Arantzazuko **fraileak**. **Pello Zabala**

Aita Alphonse Arreguy, Germieta Garakotzeko semea, Beloken **fraile** zena. **Herria**

Zaharrerria nagusitu da hemengo **fraileetan**; akitu dira. **Hasier Etxeberria**

Meza entzutera joateko ohitura zuen Jexuxek, **fraileetara**, urteak betetzen zituen bakoitzean. **Xabier Etxabe**

Komentu hortako **fraileak** etziren orduan nornahi. **Herria**

2 (izenondoekin)

Anaidi bat, ehun bat **fraile** protestant daukana. **Herria**

Aita Luis Arostegi, **fraile** euskaldun argi eta gartsua. **Herria**

Aralar bidean zetozen **fraile** erromes batzuk. **Patziku Perurena**

Guk euskaldunok **fraile** eskaleak deituko genituzke. **Gotzon Garate**

izond Kandido Izagirre **fraile** hitz-biltzaile finak. **Iñaki Segurola**

3 (izenlagunekin)

Frantsiskotar **fraileak**. **Herria**

4 (ikastetxeetakoa)

Aitak eskolara igorri zuen, **frailetarat**, hamalau urtetan sartu zen San Bernateko **frailetan**. **Herria**

Nik uste euskararen "mikroba" atxemana zuen Hazpamen, orduko **frailetan** zen Elizanburu, Juduen eta errepublikaren kontrako errabiatua. **Herria**

5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Anitz bidean hiltzen ere ziren, hortakotz mendez mende, **fraile** elkarte zenbaitek ospitaleak eta elizak eraiki zituzten, han hemenka bide luze horien bazterrean. **Michel Oronoz**

Halere gatazkak ukaiten ditu hiriarekin eta **fraile** ordena batzuekin. **Michel Oronoz**

Apezgaiak gutitu dira, Serora eta **Fraile** etxeak hustu ondotik [...]. **Herria**

Fraile jauntzitan bezituriak eta beren harmak gordez. **Herria**

1903an, Errepublikak lege tzar bat bozkatzeko du, honen arabera behar baitira eskolak hetsi eta **fraile**-serorak kanporatu. **Michel Oronoz**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arantzazuko fraileak (4); **bi fraile** (3); **eta fraile** (10); **eta fraileak** (4); **fraile batzu** (3); **fraile eta** (8); **fraile eta seroren** (3); **fraileak eta** (3)

frailetegi iz komentua.

Azken 50 urteak iragan ditu Arantzazuko **frailetegi**, eta han ehortzia izan da joandean ostegunean. **Herria**

frailetu, fraile(tu), frailetzen da ad fraidetu.

Hazpamen bizpahiru urte egon ondoan, erabaki zuen ez zela **frailetuko** eta utzi zuen. **Herria**

frailetxe iz fraidetxea.

Erobiko Salbatore parropan bizi diren adin ederrekoek izanen dute martxoaren 25 ean elgarretaratze bat Belokeko **frailetxean**. **Herria**

frak (ETCn 82 agerraldi; orobat frack ETCn 20 agerraldi) 1 iz zeremoniazko jantzia, eskuarki gizonezkoek erabilia, aurrean gerriraino heltzen dena eta atzealdean bi luzakin dituen.

Musikariak **frak**-arekin edo soinekoarekin atera dira agertokira. **Berria - Kultura**

Janzen duten **frak** beltza erantzi gabe. **Berria - Kultura**

Kotoizko galtza zuriak zeramatzen, oso estuak eta laburrak, eta **frak** moda-usteko bat. **Jose Morales**

Txilar koloreko **frak** izpilduna eta otso-larruzko longaina. **Jose Morales**

Frack hark ezin hobeki ematen zidan. **Matías Múgica**

Frak zahar eta lizundu bat zeraman soinean. **Iñaki Mendiguren**

Erregeak **frak** urdina eta gerrontze zuria zituen soinean. **Xabier Olarra**

Galtzak eta **fraka** gelan utzi, eta behera jaitsi zen. **Jose Morales**

Frak estu eta labur batez jantzitako lekaioak. **Jose Morales**

2 irud

Mika gogaikarria, **frak**-isats eta guzti. **Itziar Otegi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

koloreko frak (5); **txilar koloreko frak** (3)

fraka ik prak.

frakasatu, frakasa, frakasatzen du *ad* porrot egin.

Estatu-kolpe bat entseatu zuten Errepublikaren aurka, **frakasatu** zuten. Koldo Izagirre

Eta bik edo hiruk oraindik arrakasta lor bazezaketen ere, jada guztiek **frakasatu** zuten. Harkaitz Cano

2 (era burutua izenondo gisa)

Arrazionalismoaren ahalegin **frakasatua**. Mikel Hernandez Abaitua

Horretan ere maitale **frakasatuaren** sinboloa hartzen dizu zubiak. Patziku Perurena

Frakasatuz betetako itsasontzi bat ginen: erreka jotakoak, Ingalaterra guztiko desoinordetuak. Harkaitz Cano

Frakasatu batzuk iruditzen zitzaizkidan: beren bokazioa sakrifikatzen zuten eguneroko ogiaren aldarean. Anjel Lertxundi

Horrexegatik alde egiten du hemendik Madril aldera hainbeste **frakasatu** usainekok. Patxi Iturritegi

Hura filosofoa zen, neu idazlea: biak zein biak, gizon nahiz intelektual gisa, **frakasatu** dohakabe batzuk. Karlos Linazasoro

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

frakasatu zuten (3)

frakaso *iz* porrota.

Ministro letradunen eta Hugolino kardinalaren presioak frantziskotar idealaren **frakaso** eta Frantziskoren porrota ekarri zituela. Askoren artean

Eta nire azken urteotako **frakaso** sentimentalen zerrendatxo aipatzen du. Joxean Agirre

Cesarrek beti uste izan zuen Alain bere **frakaso** edo irristadaren baten zain zegoela. Harkaitz Cano

Gerraoste eternelako ilunpean besamotzak, herrenak eta itsuak topatuko ditugu, sartu eta irten dabiltzan **frakasoaren** heroiak, ahulak eta etsiak, bitxiak eta bizizaleak.

Berria - Kultura

Hura zen hura, **frakaso**! Daniel Landart

frakzio *iz* zatikia.

Segundo **frakzio** batez. Matías Múgica

Erloujak eta segundoen **frakzioak** asmatu aurretik. Harkaitz Cano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

frakzio batez (3); **segundo frakzio** (3); **segundo frakzio batez** (3)

framazon *iz* masoia.

Komunisten, judioen eta **framazonen** kontra oldartzen baitziren. Itxaro Borda

Framazonen ikur eta sinboloak Paris eta Erromako katakunbetan aurkitu izan dira. Xabier Olarra

"Grand Orient de France", **framazonen** goi-jaunak. Herria

Beste batzuetan aise lerratzen dena piko eta ximiko, bereziki biziki partida zituen "gorri" heien kontra, gehiago oraino "gorri-beltzak" zituela begietan, erran nahi baita hargin-beltz edo **framazonak..** Herria

franbuesa *iz* masusta-gorria. ik mugurdi.

Franbuesak eta marrubiak artatzen eta saltzen ditut. Berria - Kultura

Franbuesa-tarta pusketa eta txokolatzeko. Bernardo Atxaga

Bandexa bete **franbuesa**-tartaleta oparitu zidan. Bernardo Atxaga

Beren ohetxoetan harrapatuak aurkitzen zituen, txoriak gereizi eta **franbuesen** artean bezala. Anton Garikano

Aza eta **franbuesa** sorten artetik. Anton Garikano

franela ik flanela.

frango ik franko¹.

frankezia (*orobat frankeza*) *iz* frankotasuna, tolesgabetasuna.

Solasaldi batean, **frankeza**, aldez aurretik iragartzen bada, nabarmen gelditzen da zuri; eta ez bada aldez aurretik iragartzen, bihurrikeria dirudi. Patziku Perurena

Bederatzi egunen buruan, Mary Annen aurpegiari **frankeziaz** begiratzeko gai sentitzen nintzen, eta berari begira egon nintzen denbora guztian. Bernardo Atxaga

frankia *iz* oparotasuna, eskuzabaltasuna.

Zeuen limosnekin eta zeuen **frankiarekin** eta eskuzabaltasunarekin. Joan Mari Irigoien

Gizalegezkoa zela zure **frankiari** eta zure liberaltasunari esker onez ihardestea. Joan Mari Irigoien

frankismo *iz* Franco jeneralak Espainian ezarritako gobernu era (1938-1975), diktaduran oinarritua.

Gerrak eta **frankismoak** ondo findutako belarriak genituen, entzun behar genuena non-noiz-nola entzun ahal izateko. Anjel Lertxundi

Frankismoko sindikatu bertikalak. Xabier Mendiguren Elizegi

Frankismoaren lehen urteetan. Mikel Hernandez Abaitua

Frankismoaren garai beltzetan bezala. Herria

Frankismoaren amaierako eta ondorengo urteetan. Iñaki Segurola

Frankismoaren garaiako batzar haietako batera. Juan Kruz Igerabide

Frankismoaren kontrako borrokan. Berria - Euskal Herria

Frankismoaren biktimei onespren eta aitortza politiko, ekonomiko eta soziala ematea. Berria - Euskal Herria

Frankismoa azkenetan zela sumatuta. Berria - Euskal Herria

Alderdi Popularra Espainiako Gobernura iristean batera (1996), maila askotan, **frankismorik** gordinenera bueltatu gara Euskal Herrian. Txema Ramirez de la Piscina

Harrokeria naziaren biktimak izan ziren batzuk; **frankismoarenak**, gulguetakoak, kastrismoarenak, Pinochetenak; hango eta hemengo faxismoarenak, hango eta hemengo moral iraultzailearenak. Anjel Lertxundi

Urte geldo eta motelak izan ziren **frankismopekoak**. Xabier Mendiguren Elizegi

2 (hitz elkartuetan)

Agusti Solerrek «daukagun **frankismo** egoera» salatu zuen. Berria - Euskal Herria

Frankismo garaia dirudi. Berria - Kirola

Oraindik **frankismo** garaian geunden. Berria - Euskal Herria

Guk bizi genuen **frankismo** garaiko giro itxi integristak. Anjel Lertxundi

Frankismo osteko lehenengo urteetaraino. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

da frankismoaren (3); **dute frankismoaren** (3); **eta frankismo** (5); **eta frankismo garaiko** (4); **eta frankismoa** (3); **eta frankismoak** (3); **eta frankismoaren** (11); **frankismo garaia** (4); **frankismo garaian** (29); **frankismo garaiko** (22); **frankismo osteko** (3); **frankismoaren aurkako** (3); **frankismoaren azken** (11); **frankismoaren azken urteetan** (5); **frankismoaren biktimak** (5); **frankismoaren biktimei** (5); **frankismoaren biktimen** (3); **frankismoaren garai** (7); **frankismoaren garaian** (11); **frankismoaren garaiko** (9); **frankismoaren kontra** (12); **frankismoaren kontra aritu** (4); **frankismoaren kontra borrokatu** (3); **frankismoaren ondoko** (4); **frankismoari buruzko** (3); **frankismoari ihes** (3); **frankismoko biktimei** (7); **frankismoko biktimei kalte** (6); **zen frankismoaren** (3); **ziren frankismoaren** (3)

frankista 1 *izond* Franco jeneralari edo frankismoari dagokiona; Francoren edo frankismoaren aldekoa. ikfrankozale.

Aitona Carlos nola sartu zen armada **frankistan** bere emaztearen askapena lortzeko. Mikel Hernandez Abaitua

Polizia **frankistak** dituen dosierretatik atera dira [datuak]. Edorta Jimenez

Espainia **frankistatik** ihes egindako bere guraso errefuxiatuek. Joseba Urteaga

Erregimen **frankistaren** aurkako borrokan. Juan Kruz Igerabide

Nafarroako Diputazio **frankistak** dirua ematen zigun euskaraz genekienoi. Pello Salaburu

Lehenbailehen ezabatu nahi zituzten beren iragan **frankistaren** arrasto guztiak. Juan Kruz Igerabide

Zentsura **frankistak** debekatua zuen liburu hori argitaratzea. Imanol Zurutuza

Himno **frankista** ez kantatzea eta agur faxistari uko egitea. Mikel Hernandez Abaitua

Idazle **frankisten** liburu asko. Mikel Hernandez Abaitua

Burgoseko egunkari **frankistak**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hark asmatu zituela sinbolo **frankistarik** ezagunenak. Bernardo Atxaga

Katolizismo dogmatiko **frankista** itogarriaren aurka. Joxe Azurmendi

Apez eta kristau ez-**frankisten** eskandalagarri. Koldo Izagirre

2 (izen gisa)

Don Migelek konbentzitu zuen **frankistek** irabaziko zutela gerra hura. Xabier Mendiguren Elizegi

Frankisten tropak ziren bertaratutak. Xabier Etxabe

Handik astebetetera, irailaren 13an, Donostia geratu zen **frankisten** eskuetan. Xabier Mendiguren Elizegi

Emilio Mola **frankisten** generala. Berria - Euskal Herria

Loratu samartuta egon behar horrelakoak oihukatzeke, izan ere, **frankisten** presondegi batean. Koldo Izagirre

Gure diputazioak **frankistez** beteak zeuden. Pello Salaburu

Frankisten aldekoek jarritako bonba. Xabier Etxabe

Sudurra kakoa, belarriak irtenak, bibotetxoa **frankisten** modukoa. Jon Muñoz

Bere larrua edo bere fabrika salbatzeko pasako zen Zapero **frankistetara**. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

alderdi frankista (3); **armada frankistan** (3); **erregimen frankistaren** (5); **frankista eta** (3); **polizia frankistak** (3); **zituzten frankistek** (3); **zuten frankistek** (3)

frankizia 1 *iz* enpresa baten produktuak, beste jabe baten dendan, baldintza ekonomiko jakin batzuen azpian merkaturatzen diren salmenta-sistema.

Frankizia bitartez abian jarri nuen moda-dendak nabarmen egin du porrot. Interes sinboliko hutsa duten maileguak, oso epe luzeak eta **frankizia** -aldi luzea izaten dutenak. Josetxo Azkona

Bazkide eta hitzarmen formulen aukeraketa enpresaren nazioarteko estrategian ardatz bilakatu da (**frankiziak** eta lizentziak, azpikontratazioak, joint-venture direlakoak, eta abar). Iñaki Heras

Frankiziek 10.000 lanpostu betetzen dituzte EAEn, eta 670 milioi euroko fakturazioa dute. Berria - Ekonomia

Guggenheim **frankiziak** bultzatu dituen ekimenetan. Berria - Kultura

2 irud

Miguel Sanzen alderdia «PPren **frankizia**» gisa jokatzen ari dela. Berria - Euskal Herria

frankiziatu *izond* frankiziaduna.

Iaz 155 saltoki berri zabaldu zituen Eroski Taldeak; horietatik zortzi hipermerkatuak izan ziren, 28 Eroski center supermerkatuak, 26 Eroski cityak, 16 autozerbitzu

frankiziatuak. Berria - Ekonomia

Barkosek «Nafarroan PPren **frankiziatuak** diren UPNkoek» azken urteotan jorratutako «elkarbizitzarako politikarik eza» izan zuen hizpide. Berria - Euskal Herria

franko¹ (*orobat frango eta pranko g.er.*) 1 zenbatz asko. (dagokion izenaren eskuinetara)

Ukuilu eta ezkaratze, mandio eta ganbara, armiarma-sare **franko** bazen bazterretan garai batean. Pello Zabala

Kexu **franko** bildu izan du gure marxoak, baserritarra erabat ezkurkurtzeraino. **Pello Zabala**

Gizon prestu **franko** hantxe bizi ziren eroso asko. **Xabier Olarra**

Iragan aste hortan, greba **frango** izan da eskuin eta ezker. **Herria**

Bstaberrietako aitzindari, soinulari edo apez nahiz apezpiku batzuk, gure beste herritar iheslari, gudari ala desertur **frango** ere nazkatu eta nardatu zituzten. **Piarres Xarriton**

Ekitaldi **frango** izan da bost egun horietan. **Herria**

Baziren hainbat pintura eder non animalien historia **frango** agertzen baitziren. **Aurelia Arkotxa**

2 (dagokion izen sintagma mugaturik dagoela)

Ekarriko zuen kexa eta enplastoa **franko**: Urtarrila bero, zinkurinak gero. **Pello Zabala**

Gas kutsatua **franko**, auskalo zenbat, tximinetatik gora. **Pello Zabala**

Bozak gogoan, bada apailua **frango**, jadanik duela zombait aste erraiten ginuen bezala. **Herria**

Xede ona **frango** badute ja aipaturik. **Herria**

3 ipar (dagokion izenaren ezkerretara)

Eskola berri hortan bada **frango** leku. **Herria**

Tolosaldeko **frango** jende bildu dira zortzi egunez. **Herria**

Han bizi dira **frango jende** arrotz, ez bakarrik frantsesak. **Herria**

4 adlag ugari, asko.

Astronomiari buruz **franko** idatzi zuen. **Xabier Olarra**

5 oso.

Antzinako jainko bat, izen desberdinen pean **franko** adoratua. **Xabier Olarra**

Hautetsiak **frango** hasarre ditugu hor gaindi. **Herria**

Eskuin, bere etxe xuriek, herri bat, **frango** ttarroa: Arre. **Piarres Aintziart**

6 frankotan askotan

Tekno klubetara joaten ginen **frankotan**, musikaz eta gainerako ekaiez horditzera. **Itxaro Borda**

Hori **frankotan** gertatzen zen gazteluko lau murru laburren artean. **Aingeru Epaltza**

Gero ere, Parisen egon naizeno, **frangotan** iragan naiz leku beretik. **Janbattitt Dirassar**

Ni neroni **frankotan** jana naiz baba beltza etxean. **Patziku Perurena**

Hitz egin ere, esango nuke etxe **frankotan** ez dugula askorik egin, ez behintzat izan duen eraginaren neurrian. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Bataila intergalaktiko **frankotan** parte hartu duela ematen dik. **Aingeru Epaltza**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

adibide franko (3); **arazo franko** (14); **arazo franko sortzen** (3); **arrazoi franko** (10); **astia franko** (4); **aukera franko** (4); **baino franko** (3); **beste franko** (4); **borroka franko** (3); **buruhauste franko** (11); **buruhauste franko eman** (3); **denbora franko** (10); **edo franko** (3); **ekitaldi franko** (4); **eraso franko** (5); **ere franko** (8); **esanik franko** (3); **eta franko** (15); **eztabaida franko** (9); **eztabaida franko izan** (3)

franko agertzen (3); **franko aipatu** (4); **franko aldatu** (4); **franko atera** (3); **franko aurkitu** (3); **franko bada** (3); **franko bat** (7); **franko bildu** (4); **franko bota** (3); **franko dago** (5); **franko dagoela** (4); **franko daude** (3); **franko ditu** (3); **franko dituzte** (3); **franko egin** (26); **franko egin dituzte** (3); **franko egina** (3); **franko egiten** (6); **franko egon** (3); **franko ekarri** (3); **franko eman** (6); **franko emango** (3); **franko ematen** (4); **franko eragin** (6); **franko ere** (10); **franko eta** (19); **franko eta liberal** (6); **franko hil** (3); **franko ibili** (4); **franko idatzi** (4); **franko idatzi zuen** (3); **franko ikusi** (4); **franko izan** (28); **franko izan da** (3); **franko izan dira** (3); **franko izan ditu** (4); **franko izan ziren** (3); **franko izango** (6); **franko izaten** (7); **franko joan** (4); **franko luzaz** (3); **franko ongi** (5); **franko sortu** (7); **franko sortzen** (6); **franko utzi** (4); **franko zegoen** (3)

gai franko (3); **gauza franko** (10); **hitzordu franko** (3); **izerdi franko** (5); **izerdi franko bota** (3); **jende franko** (13); **jendea franko** (6); **komeria franko** (3); **lan franko** (7); **lana franko** (3); **liburu franko** (4); **milioi franko** (3); **salaketa franko** (3); **urte franko** (8); **urte franko joan** (3); **zen franko** (3); **zer esanik franko** (3)

ere bai frankotan (3); **eta frankotan** (6); **frankotan aditua** (4); **frankotan egin** (3); **frankotan eta** (3); **frankotan parte** (3); **jende frankok** (4)

franko² iz libera, Frantziako diru zaharra.

Urteko bost milioi libera inguru, markoak berrogeita hamar **franko** eginez gero. **Iñaki Iñurrieta**

Bazkaria, prezio finkoa: 8 **franko**. **Monika Etxebarria**

Mila eta berrehun **franko** hilean, ez da dirutza. **Monika Etxebarria**

3,5 Euro = 22,95 **Franko** = 584 Pts. **Herria**

5000 euro inguru ekarri dituztela sartze eta besteek, heldu baita 32.500 **franko**, hots hiru milioi eta erdi, diru zahar. **Herria**

· Suitzako 8,5 milioi **franko** dagozkio Kroaziari Eurokopan parte hartzeagatik. **Berría - Kirola**

Franko suitzarra eta koroa norvegiarra. **Berría - Ekonomia**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

milioi franko (3)

franko³ 1 izond/iz Erdi Aroan Frantzian kokatu zen germaniar herrikoa.

Klovis **Frankoak**, adibidez, [...] Konstantinoplan urruti zegoen Anastasio enperadoreagandik prokontsul-titulua eta kontsul-intsigniak eskuratu zituen. **Iñaki Mendiguren**

Saladinoren ahaleginek [...] gurutzatu **frankoak** kanporatu zituzten Siriatik. **Iñaki Mendiguren**

Jopu **frankoa** edo jaregin **frankoa** hiltzeagatik ordaintzen zenaz. **Iñaki Iñurrieta**

Frankoak germaniarrengandik zetozen. **Iñaki Iñurrieta**

Gizon libreak, **franko**, erromatar nahiz galiarrak. **Iñaki Iñurrieta**

Lege beraren arabera, erromatar batek **franko** bat kateatzen bazuen, hogeita hamar sos zor zituen; baina **franko** batek erromatarra kateatuz gero, hamabost besterik ez. **Iñaki Iñurrieta**

Herri haiek **-frankoak** ez bezala- Germanian geratu zirelako. **Iñaki Iñurrieta**

Badirudi Nikolas santuaganako sineskera, Santiobideko merkatu eta hiri guneeetan kokatu ziren **frankoek** sartu zutela gure artera. **Patziku Perurena**

Rhin aldeko **frankoen** tribuak. **Iñaki Iñurrieta**

Frankoen monarkia sortua zen jadanik. **Iñaki Iñurrieta**

Aita Santuak **frankoen** beharra zuen Ionbardiarren eta greziarren kontra. **Iñaki Iñurrieta**

Frankoen mendeko lurraldean, lege salikoa zegoen **frankoentzat**, eta Teodosiar kodea erromatarrentzat. **Iñaki Iñurrieta**

2 (hitz elkartuetan)

Oposizio **franko**-alemanaren eskemarekin jarraitzea, XIX. mendean jarraitzea da. **Joxe Azurmendi**

Aostan eta Piamonteko Alpeetan, italieraz gainera, frantsesa eta **franko**-okzitaniera hitz egiten dira. **Anjel Lertxundi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

franko⁴ 1 izond eskuzabala.

Zerbitzuen pagatzeko orduan, **franko** eta liberala nauk... Joan Mari Irigoien

Frankoago eta eskuzabalago zen. Joan Mari Irigoien

2 eragozpenik ez duena.

Gizarte-arautegi murrizgarririk batere gabe nazioarteko zuzeneko inbertsioei sarbidea ematen zieten eremu **frankoak**. Koro Navarro

Moilan, hozkailu biltegi berriak, zubi-garabiak, arku-garabiak, ro-ro arrapal haiek, gordailutegi **frankoak**. Urtzi Urrutikoeetxea

Pisu **franko** bat eduki genuen han 92an. Koldo Izagirre

3 portu franko zergak pagatzetik libre dagoena.

Ekonomiazko merkataritza egiten duten estatuetan, **portu franko** bat ezar daiteke. Iñaki Iñurrieta

Trieste izaki Austriarren inperioak hegoaldean zuen ia itsas ate nagusia, inperioaren babes guztia zeukan portuak - **portu frankoa** izan zen 1719tik aurrera, hemendik hurbil dagoen Rijeka-ko portuarekin batera-, estimuzko garai loriatsu haien xarma dute hiriak eta hiriko eraikuntzek. Anjel Lertxundi

Hamaseigarren mendean, Caracasko Konpainiak [...] Pasaian zeuzkan bere **portu frankoa** eta bere biltegiak. Koldo Izagirre

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

franko eta liberal (6); **portu frankoa** (4)

frankofonia iz frankofonoen edo lurralde frankofonoen multzoa.

Uagadugun (Burkina Faso) bihar eta etzi egingo den **Frankofoniaren** 10. bilera nagusian.

Kanadako **Frankofonia** ministro Denis Coderre.

frankofono iz frantsesez mintzo dena.

Alferrik jardungo dute Aostako **frankofonoek** Italiako futbol taldea animatzen Frantziaren kontra. Anjel Lertxundi

"Ca vous arrive souvent de vous tromper de chemin", galdegiten dit irriparez **frankofonoak**. Piarres Aintziart

frankoki adlag garbi, tolesturarik gabe.

Mehatxuz nentorkion eta geldirik geratu zen, menturaz, **frankoki** eta argiki solastatzea hobetsiz enekin. Itxaro Borda

frankotasun iz tolesgabetasuna.

Goxoki baina ahoan bilorik gabe, gauza asko esplikatu zidan eta zinez estimatu nuen haren **frankotasuna**. **Frankotasun** ederra! Daniel Landart

frankotiradore (4 agerraldi, 4 liburutan; ETCn 23 agerraldi) iz frankotiratzailea.

Frankotiradoreak paraxutistak hil zituen. Iñaki Arranz

Matxinatu faxisten aldeko **frankotiradorea** ez ezik, Bolinen harikoa ere ba omen zen Fernando. Lutxo Egia

Durruti lasai antzean ibiltzen zen, baina ia tirokatu zuen behin **frankotiradore** batek. Harkaitz Cano

frankotiratzaile (36 agerraldi, 9 liburu eta 16 artikulutan, ETCn 511 agerraldi) 1 iz bakarturik aritzen den gudari edo tiratzailea. ik frankotiradore.

Armadak eraikin askotan **frankotiratzaileak** jarri ditu eta mugitzen den edozeri egiten diote tiro. Berria - Mundua

Inguruko teilatuetan kokaturiko **frankotiratzailek** lau polizia inguru zauritu zituzten tiroz. Berria - Mundua

Frankotiratzaileek bala gaizto bat nahikoa zuten gidaria seko uzteko, urrundik utzi ere. beti bezala, **frankotiratzaile** ezkutukoek, tiro zuzen bakar batez, lepo-hezurra txikitu zieten, eta bertan seko utzi. Karlos Linazasoro

Frankotiratzailea zen eta askotan behar baino arrisku handiagoak hartzen zituen. Koldo Izagirre

Eta aise egingo zuen bere lana Sarajevoko **frankotiratzaileak** ere, mira teleskopikoan ez baitira ageri kilometro bat harago -azokaren atarian, autoaren bolantean- erortzera doan pertsonaren ezaugarriak. Bernardo Atxaga

Poetak ere badu **frankotiratzailearekin** antzik. Pako Aristi

2 irud

Dena dela, berriro ere sakea izan zen Nagoeren arma nagusia, lau t'erdiko **frankotiratzaile** hoberenak 8 tanto egin eta piloteoa nahierara menperatu baitzuen lehen pilotakadarekin. Berria - Kirola

Lehen euskal film modernoa egin zenetik horrenbeste urtera, oraindik ere **frankotiratzaileak** behar dira, euskarazko zinema egingo bada. Berria - Kultura

«Soldatapeko idazleak» arbuaitzen ditu, «beka-sari jokoak» gaitzetsi, eta, poeta bainoago, «frankotiratzailetzat» du bere burua, «odola borborka ipini eta larruazala ikara batean jarri nahi dizun **frankotiratzailea**», poetaren hitzetan esanda. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

frankotiratzaile batek (6)

frankozale izond Franco jeneralaren aldekoa dena. ik frankista.

Argazkia *El Correo Español* **frankozalean** argitaratua da. Edorta Jimenez

Egunkari **frankozaleak**. Edorta Jimenez

frantses (5293 agerraldi, 218 liburu eta 1651 artikulutan; ETCn 43.231 agerraldi; orobat frantzes ETCn 121 agerraldi) 1 izlag

Frantziako Frantziari dagokiona. ik **frantziar**.

Errepublikaren Konstituzioak ez baitu aipatzen **Frantses** Populu bakarra baizik. **Piarres Xarriton**

Frantses nazioaren partaler izatea eta horrela, ororen maila berean, **frantses** herritartasunaren abantailez gozatzea. **Piarres Xarriton**

Vichy-ko **frantses** gobernuaren peko. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Euskara eta euskaldunak gutxien zituen **frantses** administrazio horrek. **Itxaro Borda**

Frantses estatuaren errepresio politikaren esku makila bat. **Itxaro Borda**

Frantses botere inperialista eta kolonialistari. **Itxaro Borda**

Akats bat zuen bilduma hark: bitariko kodea osatzen zuen, jurisprudentzia **frantsesa** erromatar legearekin nahastuta baitzegoen. **Iñaki Iñurrieta**

Kapitain alemanaren ondoan **frantses** armadako bi lotinaren ere ba omen zituan. **Itxaro Borda**

Saint-Exupéryk ongi ezagutzen duen **frantses** gizartea. **Josu Zabaleta**

Merkatua irabazi diote Gipuzkoarrek Alstom **frantses** enpresari. **Herria**

Frantses iraultza geroztik. **Itxaro Borda**

Frantses Institutuan izan nintzen, frantziar Estatuko eta Haitiko idazleekin mahai inguruan. **Edorta Jimenez**

Frantses telebixtako kazetari batek. **Herria**

Frantses lege-nagusiko bigarren artikulua. **Herria**

Oihal ederrez eta **frantses** modari jarraikiz josiak zituen jantziak. **Elena Touyrou**

Chirac **frantses** presidentak. **Hasier Etxeberria**

Michele Alliot-Marie **Frantses** Defentsa ministroa. **Berria - Euskal Herria**

Philippe Poels Sony-ren **frantses** estatuko zuzendariak. **Herria**

Gure **frantses** pentsalari, kazetari, irakasle, apezpiku, diputatu xuri ala gorrien gogoak ez dira hainbat aldatu. **Piarres Xarriton**

Victor Hugo **frantses** olerkari famatua. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Frantses zinema zuzendaria eta antzezlea. **Bernardo Atxaga**

Zeren **frantses** soldaduek ez baitute inoiz ikusi **frantses** hegazkinik. **Josu Zabaleta**

Frantses poliziaren buruzagiak. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Frantses hizkuntza da Frantziako Errepublikaren hizkuntza. **Piarres Xarriton**

Frantses ortografian. **Isabel Arrigain**

Gaur, **frantses** gramatika eta historia. **Josu Zabaleta**

Baionako karrikak, **frantses** banderak airean. **Itxaro Borda**

Aljeriak **frantses** behar zuela zioten, han ororen gaineratik beka premiazkoa zelako. **Itxaro Borda**

2 (izenondo gisa)

I. mundu gerlaren ondotik, Nazio Handia garaile atera zelarik, bazirudien 1789ko apez abertzale **frantsesek** irabazi zutela partida, 130 urteren buruan. **Piarres Xarriton**

Bazekiten preso bat zela, mediku **frantses** bat, guardiako. **Marzel Etxehandi**

Nik pasaporte espainola neukan, Peiok aldez **frantsesa**. **Ramuntxo Etxeberri**

Gerraontzi **frantsesak** zebiltzala-eta bazterretan. **Felipe Juaristi**

Ama **frantsesa** zuen, paristarra, 68ko maiatzeko mugimenduan ibilia. **Juan Kruz Igerabide**

• 3 iz frantses herritarra. ik **frantziar 2**.

1794ko urtarrilean Barrère adiskideak salatu zuen bazirela Frantziako lau eskualdetan seihun mila **frantses** bederen, nazioaren hizkuntza tutik ez zekitenak. **Piarres Xarriton**

Frantses katoliko zintzoek ongi ikasiko genuen amen erraten itsutuki Filipe Pétain gidari "zuhurrari". **Piarres Xarriton**

Jakin ezak, mutil, ez baldin baduk **frantses** izan nahi, ez haizela nehoiz apeztukol! **Piarres Xarriton**

Euskaldun gira beraz eta, orozbat **frantses**. **Piarres Xarriton**

Orduan zen **frantses** bilakatu. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Bestela ezer ez gara; hoberenean, euskaraz mintzo garen **frantses** edo espainol soilak baino. **Itxaro Borda**

16.000 **frantses** bizi dira Boli Kostan, bereziki Abidjan hiri nausian. **Herria**

Frantsesen heren bat jadanik joana zen kamionetan. **Marzel Etxehandi**

Denak hilak dira, 148 lagun, horietan 133 **frantses**. **Askoren artean**

Frantsesa nintzela erran nion. **Marzel Etxehandi**

Naziotasunez **frantsesak** garela, ofizialki, guztiok. **Piarres Xarriton**

· COU egiteko, Eskolapioetako ikasleez gain, lehen aipatu dugun Inmaculada ikastetxeko neskek etortzen ziren, **Frantsesetakoak**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

4 Frantziako hizkuntza.

Txikia eta makala delako euskara, eta handiak eta indartsuak, berriz, **frantsesa** eta gaztelania. **Koldo Zuazo**

Frantziako Estatu osoan **frantsesa** sendotzea zen Legearen helburua. **Koldo Zuazo**

Frantsesa erabiltzea babestu eta bultzatu zuen Legeak. **Koldo Zuazo**

Baina haietarik nehorik ez zuen **frantsesa** ulertzen. **Elena Touyrou**

Asko estimatzen niola esan nion, eta berdin zitzaidala, **frantsesa** banekiela zerbait. **Bernardo Atxaga**

Badut herritar bat, Pilsen-eko deputatua, gizon gisakoa, **frantsesean** trebatu nahi lukeena. **Marzel Etxehandi**

Euskaraz, **frantsesez** edo bi hizkuntzetan. **Berria - Kultura**

Andreak **frantsesez** hitz egiteko premia sentitzen omen du batzuetan. **Bernardo Atxaga**

Mintzaldi horietarik gehienak **frantsesez** egin ziren. **Marzel Etxehandi**

Hor aldez senar-emazte bikote bat, **frantsesez** ari. **Piarres Aintziart**

Frantsesez oso ongi mintzo da. **Koldo Izagirre**

Bihotzez osoro frantsesa, biziki ongi egiten du **frantsesez**. **Koldo Izagirre**

Hik **frantsesez** ondo dakik. **Txillardegi**

Badaki italieraz, badaki **frantsesez**, baina italierak eta **frantsesak** ez dute onik aterako hemendik, Afrikarik ilunenetik. **Oskar Arana**

Frantsesez bizi gara egunorokoan. **Berria - Kultura**

Leibniz alemanak, esaterako, **frantsesez** idazten zuela. **Askoren artean**

Monsieur Nestor, **frantseseko** irakaslea. **Bernardo Atxaga**

Frantseseko klaseak antolatuta zituen Genevièvek eta horregatik joaten naiz. **Bernardo Atxaga**

Hiri arrotza, **frantsesezko** hitzak. **Xabier Olarra**

Frantsesezko liburuxkak jendartean urrikid heda dituzten herrigizonei gomendatzea. **Piarres Xarriton**

Frantsesezko pluralaren balioa ez dator gutziti bat sanskritoan duen balioarekin. **Isabel Arrigain**

Berak idatzitako lana **frantsesera** itzuli eta European barna zabaldu ahal izan dezan. **Hasier Etxeberria**

ik frantseseratu.

Frantsesetik itzultzeko. Xabier Montoia

Frantsesetik datorren hitz honek, *beheko haizea* [...] esan nahi du berez. Patziku Perurena

Ganbaran **frantses** ikasten ari ginela. Josu Zabaleta

5 (izenondoekin)

Lehenik, elizetan, elizkizun guztiak **frantses** hutsez emaita. Piarres Xarriton

Frantses hutsean erakatsiak diren gaietan. Herria

[...] ihardetsi zion guardia buruak **frantses** garbian. Joan Mari Irigoien

Frantses eder, leun eta txukun batean. Itxaro Borda

Arestiren *Nire aitaren etxea* irakurri nien eta bai azalpen batzuk egin ere, **frantses** kaskarrean. Edorta Jimenez

Bere **frantses** mordoiloan hurrengo galdera egin baino lehen. Alberto Ladron Arana

Ez baldin bazuten beren katiximetan eta predikuetan **frantses** soila erabiltzen, herri hizkuntza baztertuz. Piarres Xarriton

Frantses sukratu hura bera zuen. Marzel Etxehandi

Frantses modernoko monoptongazioak. Isabel Arrigain

6 (izenlagun gisa edo hitz elkartuen lehen osagai gisa)

Arra-iloen **frantses** ariketak. Itxaro Borda

Frantses prosaren lege metriko fuintsezkoenen azterketa bat. Juan Garzia

Gero erabaki du HERRIAren zuzendaritzak ez zuela **frantses** artikulua beharrik, HERRIA euskaldun astekaria zela eta, beraz, artikulua guztiak euskaraz idatziak izanen zirela.

Herria

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Euskara-**frantses** elebitasuna. Herria

8 *frantses porru* zainzuria.

Alkandora apurtu zion **frantses-porruaren** alboko beste ikusle bat muturra txikitzen ari zitzaiola ordurako. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

aleman eta frantses (5); **baina frantses** (8); **bainan frantses** (6); **bat frantses** (6); **bere frantses** (6); **beste frantses** (5); **bezala frantses** (5); **bi frantses** (26); **chirac frantses** (16); **chirac frantses presidentak** (13); **da frantses** (27); **de villepin frantses** (7); **dela frantses** (6); **den frantses** (10); **denak frantses** (5); **diote frantses** (5); **dira frantses** (15); **direla frantses** (5); **diren frantses** (9); **ditu frantses** (5); **du frantses** (16); **dute frantses** (10); **edo frantses** (11); **ere frantses** (9); **espainol eta frantses** (5); **eta frantses** (94); **ez frantses** (5); **f chirac frantses** (5)

frantses armada (5); **frantses armadak** (6); **frantses bandera** (10); **frantses bat** (43); **frantses batek** (21); **frantses batekin** (9); **frantses baten** (6); **frantses bati** (6); **frantses batzuk** (7); **frantses bi** (5); **frantses dardan** (6); **frantses edo** (25); **frantses edo espainol** (9); **frantses erakasle** (6); **frantses erara** (6); **frantses eskolak** (6); **frantses estatu** (7); **frantses estatua** (6); **frantses estatuak** (16); **frantses estatuan** (26); **frantses estatuaren** (17); **frantses estatuko** (15); **frantses eta** (71); **frantses eta espainiar** (8); **frantses eta espainol** (10); **frantses eta ingeles** (5); **frantses euskaldun** (9)

frantses garbian (10); **frantses gobernu** (6); **frantses gobernu** (11); **frantses gobernuak** (43); **frantses gobernuak ez** (5); **frantses gobernuaren** (10); **frantses gobernuari** (5); **frantses gobernuko** (6); **frantses hil** (6); **frantses hiritartasuna** (10); **frantses hizkuntza** (7); **frantses hori** (5); **frantses horiek** (5); **frantses hutsean** (7); **frantses hutsez** (6); **frantses idazle** (15); **frantses ikastetxeko** (7); **frantses itsas** (7); **frantses kasetariak** (5); **frantses kultura** (5); **frantses lege** (11); **frantses literatura** (5); **frantses minixtroak** (7); **frantses mintzaira** (7); **frantses polizia** (6); **frantses poliziak** (11); **frantses presidentak** (18); **frantses telebixta** (7); **frantses telebixtako** (8); **frantses telebixtan** (12)

hori frantses (5); **idazle frantses** (5); **mauleko san frantses** (9); **mediku frantses** (5); **nire frantses** (5); **san frantses** (78); **san frantses ikastetxeko** (7); **san frantses xabier** (16); **villepin frantses** (9); **zen frantses** (13); **ziren frantses** (6); **zuen frantses** (13); **zuten frantses** (6)

baina frantsesa (5); **bat frantsesa** (5); **da frantsesa** (6); **edo frantsesa** (20); **ere frantsesa** (9); **errepublikaren hizkuntza frantsesa** (5); **eta frantsesa** (55); **eta frantsesa menperatzea** (6); **euskara eta frantsesa** (17); **euskara frantsesa** (15); **frantsesa baino** (5); **frantsesa baizik** (5); **frantsesa da** (25); **frantsesa dela** (14); **frantsesa dela errepublikaren** (5); **frantsesa edo** (11); **frantsesa ere** (11); **frantsesa eta** (67); **frantsesa eta espainola** (9); **frantsesa euskara** (5); **frantsesa ez** (12); **frantsesa ikasi** (8); **frantsesa ikasteko** (8); **frantsesa ikasten** (5); **frantsesa izan** (8); **frantsesa menperatzea** (6); **frantsesa zela** (9); **frantsesa zen** (5); **gaztelania edo frantsesa** (6); **gaztelania eta frantsesa** (7); **hizkuntza frantsesa** (7); **ingelese eta frantsesa** (6); **zela frantsesa** (5); **zen frantsesa** (7)

baina frantsesak (5); **dira frantsesak** (9); **ere frantsesak** (5); **eta frantsesak** (28); **eta frantsesaren** (28); **eta frantsesaren jakitea** (5); **euskara eta frantsesaren** (8); **euskararen ofizialtasuna frantsesaren** (12); **frantsesak bere** (5); **frantsesak dira** (10); **frantsesak ere** (10); **frantsesak eta** (28); **frantsesak etorri** (5); **frantsesak ez** (14); **frantsesak ez du** (5); **frantsesak ziren** (8); **frantsesaren aldean** (18); **frantsesaren eta** (16); **frantsesaren ezagutza** (9); **frantsesaren ezagutza on** (8); **frantsesaren jakitea** (5); **frantsesaren ondoan** (6); **idazle frantsesak** (7); **iraultza frantsesak** (6); **iraultza frantsesaren** (7); **kazetari frantsesak** (11); **ofizialtasuna frantsesaren** (12); **ofizialtasuna frantsesaren aldean** (12); **ziren frantsesak** (7)

dute frantsesek (20); **estatu frantseseko** (5); **eta frantsesek** (19); **eta frantsesen** (16); **eta frantsesera** (11); **eta frantsesetik** (6); **frantsesek esaten** (5); **frantsesek eta** (11); **frantsesek irabazi** (5); **frantseseko irakaslea** (7); **frantseseko klaseak** (5); **frantsesen alde** (6); **frantsesen artean** (12); **frantsesen beila** (5); **frantsesen eta** (6); **frantsesen kontra** (5); **frantsesera itzuli** (9); **san frantsesen** (22); **san frantsesen beila** (5); **soldadu frantsesen** (7)

arte frantsesez (5); **bai frantsesez** (5); **baina frantsesez** (9); **baita frantsesez** (5); **bat frantsesez** (8); **batek frantsesez** (7); **bestea frantsesez** (5); **da frantsesez** (17); **dena frantsesez** (7); **dira frantsesez** (8); **du frantsesez** (8); **edo frantsesez** (37); **ere frantsesez** (11); **eta frantsesez** (123); **euskaraz edo frantsesez** (7); **euskaraz eta frantsesez** (39); **ez frantsesez** (8)

frantsesez ari (6); **frantsesez bai** (6); **frantsesez edo** (20); **frantsesez egin** (14); **frantsesez egiten** (13); **frantsesez ere** (23); **frantsesez erraiten** (7); **frantsesez esan** (8); **frantsesez eta** (83); **frantsesez eta espainolez** (5); **frantsesez eta euskaraz** (11); **frantsesez eta gaztelaniaz** (11); **frantsesez eta ingelesez** (11); **frantsesez ez** (13); **frantsesez hitz** (24); **frantsesez hitz egiten** (13); **frantsesez idatzi** (12); **frantsesez idatzia** (11); **frantsesez idatziak** (5); **frantsesez idatzita** (6); **frantsesez idatzitako** (14); **frantsesez idazten** (9); **frantsesez idazten duen** (5); **frantsesez mintzatu** (7); **frantsesez mintzatzen** (6); **frantsesez mintzo** (12)

eta frantsesezko (20); **frantsesezko itzulpena** (5); **gaztelaniaz edo frantsesez** (11); **gaztelaniaz eta frantsesez** (8); **gehienak frantsesez** (5); **gero frantsesez** (6); **guztiak frantsesez** (5); **ingelesez edo frantsesez** (6); **ingelesez eta frantsesez** (6); **mintzaldia frantsesez** (5); **zuen frantsesez** (12)

frantsesdun *izlag/iz* frantsesez mintzatzen dena.

Hemendik hamar bat egun barne, **frantsesdun** maisu bat izendatua izanen da Britainiako herri bakoitzean, halaber Alsazian, Korsikan... eta Pirineoko mutur hortan.

Herria

Euskal Herriatik ateratako gurasoak dituzten seme-alabak; **Frantsesdunak**, Euskaldunekin ezkonduak; beste **Frantsesdunak**, Euskal Herrian familiarik ez dutenak.

Herria

Gero, **frantsesdunen** munduan, ez baduzu Pariseko batek bezala hitz egiten, erraiten da ez zirela frantsesa. Herria

frantsesera *iz* frantsesa, Frantziako hizkuntza nagusia. ik **frantses 4**.

Etorkin berriek **frantsesera** jakin beharko dute agiriak lortzeko. Berria - Euskal Herria

frantseseratu, frantsesera(tu), frantseseratzen du *ad* frantsesera itzuli.

Euskaraz idatzi eta gero **frantseseratu** zituen Itxaro Bordak berak. Berria - Kultura

Toti Martinez de Lezearen arrakasta handiko eleberri bat zuen **frantseseratu**: "Les enfants d'Ogaiz". Herria

Ahal dudan bezala itzuli diot izenburua Thierryri, ez baitakit **frantseseratzean** aldatuko ote zuten. Iban Zaldúa

frantseskeria (*orobat frantzeskera*) *iz* frantsesetiko erderakada. ik **frantxeskeria**.

Aipuak topaketari on eginen ziolakoan, izenaz oroitzera saiatu nintzen **-frantseskeriaren** bat noski-. Aingeru Epaltza

Euskalkiaren izena, hainbat berrikeria, hainbat bitxikeria, eta, batez ere, hainbat **frantseskeria** sartu dira. **Koldo Zuazo**
Frantseskeria baten peko gaude hor, ohartu gabe **frantzesez** "je" bezala ahoskatzen dela "ge". **Herria**

frantseski *iz* frantses dialektoa.

Dialekto ikuspuntutik, Frantsesa euskara bezain hizkuntza aberatsa izan zen duela aspaldi, baina orain kasik **frantseski** guziak hilak dira. **Herria**

frantseste *iz* frantses bihurtzea.

Lauzpabost gauza badira alabaina, XIX. mende hartan berean gertatuak, euskaldunen **frantsesteari** kontrajartzeko gisan, euskal kontzientziaren adierazgarri daukagunak.
Piarres Xarriton

frantsestu, frantses(tu), frantsesten 1 du *ad* frantses bihurtu.

Eta emeki emeki, Behenafarroa arrunt **frantsestuko** da, azkenik Erreboluzione garaian. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
Horri begira lanean hasi nintzelarik ohartu nintzen zenbatetaraino pentsamendua **frantsestua** nuen. **Berria - Kultura**
Transformer les paysans en français, hots, "gure arbaso baserritarren **frantsestea**" eta Nazio Handiaren menpeko zerbitzari isil eta umil egitea. **Piarres Xarriton**
Deitura **frantsestu** genien. **Daniel Landart**
Batto Marokanoa, bestea ere Marokanoa motaz baina paperez **frantsestua**. **Herria**
Gisa berean, frantses batekin esposatzen den estranjer bat ez da paperez orai arte bezen errexki **frantsestuko**. **Herria**
Urteak joan urteak etorri, nabarmen ari zen **frantsesten** kultura, eta ama-hizkuntzan hitz egiteaz ere lotsatu egiten ziren sarritan. **Rafa Egiguren**
XIX. mendean berriz, Frantziako Iraultzaren eta Inperioaren ondotik, **"frantsesten"** hasi nahi zelarik nolazpait Espainia, estatu-nazioaren lehen konstituzioa asmatu zuten Cadizeko gorteetan, 1810ean. **Piarres Xarriton**

2 frantseseratu.

Quai Rouge argitaletxean, Itxaro Borda-ren "100% basque" liburua, **frantsestua**. **Herria**

3 (era burutua izenondo gisa)

Are urrunago Iparraldeko euskaldun **frantsestua**. **Piarres Xarriton**
Louis parropiako apez nagusia, euskaldun **frantsestua**.. **Herria**
Poloniar **frantsestu** bat, Guillaume Apollinaire Kostrowizki, askoren iritziz poesia modernoaren aita. **Iñigo Aranbarri**
Liberala baitzen, **frantsestu** antiklerikalaren fama zuena. **Anjel Lertxundi**
Jean de Parisen trageria-k euskara «oso **frantsestua**» duela. **Berria - Kultura**

frantxeskeria *iz* *adkor* frantseskeria.

Bai, horiek, zinez **frantxeskeriak**. **Herria**

frantximant *(orobat frantximant eta frantzimant g.er.) iz* *pei* frantsesa; frantsesez mintzatzen dena.

Gure gaztean, apez-ikastetxe heietan, Euskara mintzo ez zutenak deitzen genituen **Frantximantak** eta **frantximantek** deitzen gintuzten gu "Les Bachkourras". **Herria**
Eta **frantximant** horien artean, euskaldun saldotto bat, Iparralde huntarik, Paul Sarcou beilarien apeza buru. **Herria**
Frantximantak dituzte maiz beren inguruko laguntzaileak. **Herria**
Frantximantek eta euskaldun epelek ez dezaten duda izpirik ukan euskara hemen bere etxean dela. **Herria**
Gure ustez, Mendiondo da errealki izen euskalduna; Lekornek aldiz badu halako **frantximant** aire bat, ongi litekeena behar bezala argitzea. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**
Frantzimant giroan sartzea zen, bai hirixkan, bai autobüsetan, **frantzimantak** beitera bilgüneetan gora mintzo direnak. **Herria**

frantximantu, frantximant, frantximantzen *(corpusean frantximantu soilik) da ad* frantximant bihurtu.

Berrogei urteak bete arteraino, euskaraz idaztera ezin menturatuz egona zela, arrunt **frantximantua** zeukalakit bere burua, oharkabean bere izate guzia euskalduna zuela.
Piarres Aintziart

frantzes ik frantses.

frantziar *(1302 agerraldi, 57 liburu eta 806 artikulutan; ETCn 16.508 agerraldi) 1 izlag* Frantziakoa, Frantziari dagokiona. ik frantses.

Frantziar idazle batek. **Iñaki Mendiguren**
Andre Wogensky **frantziar** arkitektoa zendu da. **Berria - Kultura**
Frantziar eraberritzailen lanaren arrakasta. **Iñaki Mendiguren**
Frantziar Iraultzaren lege emaitza. **Andres Urrutia**
Napoleonek **frantziar** legearen kodetze egin berria sartu zuen bere inperioko italiar, flandriar, alemaniar eta poloniar lurraldeetan. **Iñaki Mendiguren**
Marokoko espainiar eta **frantziar** eskualdeen arteko muga. **Iñaki Mendiguren**
Frantziar sukaldaritzari buruzko liburua. **Joxemari Urteaga**
Emakumeak **frantziar** erara jantzita ateratzen dira noski. **Felipe Juaristi**
Napoleonen garaiko **frantziar** gobernuak. **Iñaki Mendiguren**
Frantziar Inperioko afrikar lurraldeak. **Iñaki Mendiguren**
Euskal Herriaren zatia hain da txikia **Frantziar** Errepublikaren barruan. **Edorta Jimenez**
Euskara, **frantziar** estatuko euskal herrietan hizkuntza ofiziala ez dela gogorazi nien. **Edorta Jimenez**
Jendeen gogo-bihotzentzat ez zen on jakitea **frantziar** gudarostea galtzaile zela. **Elena Touyrou**
Erabateko **frantziar** hiritartasuna lortu zezaketen. **Iñaki Mendiguren**

2 (izenondo gisa)

Joan Roma katoluniarra eta Stefan Peterhansel **frantziarrak** jarraitzen dute lider sailkapen nagusian.

Lenin Robespierre errusiarra eta Robespierre Cromwell **frantziarra** bihurtu dituzten historialari horiek bezala.

Monika Etxebarria

Soldadu **frantziarrek** tiro egin dute berriro protesta egileen aurka, Abidjanen.

Berria - Mundua

Sozialista **frantziar** bat.

Lopez de Arana

Afrika iparraldean argitaratutako egunkari **frantziarra** zen.

Bernardo Atxaga

• 3 iz frantses herritarra. ik frantses 2.

Aurrerantzean, **frantziar** guztien zuzenbide erkidea zen zaindu beharrekoa.

Andres Urrutia

Frantziar askoren bizitza irudikatzen duena.

Berria - Harian

Frantziar malapartatu horiek ustelduta daude.

Lopez de Arana

Lehena, erdi-**frantziar** erdi-suitzar, eskualdun andere batekin ezkondua, Biarritzen bizi zena.

Marzel Etxehandi

Frantziar osoa zela utzi zuen agerian.

Hasier Etxeberria

Geneviève, Martin eta Teresaren ama, **frantziarra** zen sortzez.

Bernardo Atxaga

Badira izan, espainiarrak, **frantziarrak...** musulmanak direnak etorrikin izan gabe.

Berria - Mundua

Frantziarrek amerikarrei egindako oparia da Askatasunaren Estatua.

Harkaitz Cano

Frantziarren Kode Zibila (Code Civil des Françaises) zuen izena.

Andres Urrutia

4 frantziar-kanadar

Decaens eta Bega jokalariaik dira arriskutsuenak erasoan, batez ere, Sebastien Decaens **frantziar-kanadarra**.

Berria - Kirola

hitx multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bi frantziar (3); **du frantziar** (3); **espainiar eta frantziar** (8); **eta frantziar** (17); **frantziar bahitu** (6); **frantziar bahitu zituzten** (3); **frantziar bat** (7); **frantziar estatuko** (7); **frantziar eta** (16); **frantziar eta espainiar** (4); **frantziar herritartasuna** (4); **frantziar hiritartasuna** (3); **frantziar idazle** (6); **gure frantziar** (3); **kazetari frantziar** (4); **lau frantziar** (3); **lau frantziar bahitu** (3); **soldadu frantziar** (3)

aktore frantziarra (7); **aktore frantziarra hil** (4); **alpinista frantziarra** (3); **amelie mauresmo frantziarra** (7); **arnaud labbe frantziarra** (3); **atzelari frantziarra** (4); **atzelari frantziarra fitxatu** (3); **brechet atzelari frantziarra** (3); **despres frantziarra** (3); **frantziarra atzo** (7); **frantziarra atzo hil** (4); **frantziarra citroen** (3); **frantziarra da** (16); **frantziarra ere** (6); **frantziarra ere ez** (3); **frantziarra ere ez** (3); **frantziarra fitxatu** (5); **frantziarra hartu** (3); **frantziarra hil** (8); **frantziarra hil da** (6); **frantziarra igandean** (3); **frantziarra izan** (10); **frantziarra izan da** (3); **frantziarra izan zen** (5); **frantziarra munduko** (3); **frantziarra nagusitu** (4); **frantziarra nagusitu zen** (3); **frantziarra zen** (4); **frantziarra zendu** (4); **frantziarra zendu da** (4); **gidari frantziarra** (7); **gidari frantziarra da** (3); **jokalari frantziarra** (4); **khalid zoubaa frantziarra** (3); **labbe frantziarra** (3); **loeb frantziarra** (8); **loeb frantziarra citroen** (3); **loeb frantziarra da** (3); **mary pierce frantziarra** (3); **mauresmo frantziarra** (7); **peterhansel frantziarra** (3); **pierce frantziarra** (3); **polinesia frantziarra** (11); **saha frantziarra** (3); **sebastien loeb frantziarra** (6); **talde frantziarra** (3); **txirindulari frantziarra** (3); **zoubaa frantziarra** (3); **zuzendari frantziarra** (5)

amelie mauresmo frantziarrak (6); **artista frantziarrak** (4); **aurrelari frantziarrak** (3); **baina frantziarrak** (3); **cyril despres frantziarrak** (3); **despres frantziarrak** (3); **du frantziarrak** (5); **enpresa frantziarrak** (4); **entrenatzaile frantziarrak** (14); **erdilari frantziarrak** (4); **espainiarrak eta frantziarrak** (4); **eta frantziarrak** (11); **eta frantziarrak ez** (3); **frantziarrak aitortu** (3); **frantziarrak aitzinetik** (3); **frantziarrak askatzeko** (4); **frantziarrak atzo** (5); **frantziarrak beste** (3); **frantziarrak citroen** (5); **frantziarrak dira** (3); **frantziarrak ere** (4); **frantziarrak eta** (13); **frantziarrak ez** (15); **frantziarrak ez du** (5); **frantziarrak irabazi** (17); **frantziarrak irabazi du** (5); **frantziarrak irabazi zuen** (12); **frantziarrak lehen** (3); **frantziarrak ondo** (4); **gidari frantziarrak** (4); **idazle frantziarrak** (8); **jokalari frantziarrak** (3); **kazetari frantziarrak** (9); **kazetari frantziarrak askatzeko** (3); **konpainia frantziarrak** (6); **lau frantziarrak** (3); **loeb frantziarrak** (11); **loeb frantziarrak citroen** (5); **mauresmo frantziarrak** (6); **ministro frantziarrak** (4); **musikari frantziarrak** (3); **peterhansel frantziarrak** (6); **polizia frantziarrak** (4); **sebastien loeb frantziarrak** (10); **stefan peterhansel frantziarrak** (3); **talde frantziarrak** (4); **thomas voeckler frantziarrak** (3); **voeckler frantziarrak** (3); **ziren frantziarrak** (8); **ziren frantziarrak aitzinetik** (3); **zuen entrenatzaile frantziarrak** (3); **zuen frantziarrak** (9)

agintari frantziarrek (4); **artista frantziararren** (3); **bi kazetari frantziarren** (6); **da frantziarren** (3); **dute frantziarrek** (5); **estatu frantziararren** (4); **eta frantziararren** (4); **eta frantziarrek** (6); **eta frantziarren** (5); **frantziararren aurretik** (3); **frantziararren eta** (3); **frantziararren kontra** (3); **frantziarari citroen** (3); **frantziarrek eta** (9); **frantziarrek ez** (6); **frantziarrek ez dute** (3); **frantziarren artean** (6); **frantziarren arteko** (7); **frantziarren arteko lehia** (3); **frantziarren aurretik** (3); **frantziarren defentsa** (4); **frantziarren eta** (7); **idazle frantziararren** (4); **kazetari frantziarren** (9); **loeb frantziarari** (4); **loeb frantziarari citroen** (3); **militar frantziarrek** (3); **pentsalari frantziararren** (3); **polinesia frantziarreen** (4); **polinesia frantziarreko** (7); **polinesia frantziarreko presidente** (3); **sebastien loeb frantziarari** (4); **soldadu frantziarrei** (3); **soldadu frantziarrek** (6); **soldadu frantziarren** (7); **zegoen frantziarren** (3); **zen frantziarren** (3); **zuen frantziarren** (4); **zuten frantziarrek** (6); **zuzendari frantziararren** (3)

frantziaratu, frantziara(tu), frantziaratzen da/du *ad* Frantziara joan; Frantziara eraman.

Kantaria, 39 urte, preso dago Lituanian, bainan egun batez **Frantziaratuko** da.

Herria

Frantziaratuak izan badira ere, lau lagun hauek ez dira, haatik, aske geratu eta, bai ordea, «terrorismoaren aurka» diharduten justizia zerbitzu berezien esku ezarriak izan.

Berria - Mundua

Akusazioaren arabera, 3.000tik 5.000 euro arte jasotzen zituen bere orkestrako kide zirela esanaz **Frantziaratzen** zuen kongoar bakoitzagatik.

Berria - Kultura

Lehen ministroak kritika zorrotzak entzun ditu, atzerrian dauden kapitalei **Frantziaratzeko** erraztasunak eskaintzeagatik.

Berria - Ekonomia

frantziaratze iz Frantziara joatea, Frantziara eramatea.

Kongotik ehunka herritarren **Frantziaratzea** bideratu izanagatik atxilotu zuten.

frantzimant ik frantximant.

frantziskanista iz frantziskanismoan aditua.

Hau dio **frantziskanista** ezagun batek titulu bitxi samarra duen idazki honetaz: [...].

Askoren artean

frantziskano *(orobat frantxikano)* iz frantziskotarra.

Donapaleuko **Frantziskanoetako** liburutegian da hitzordua.

Berria - Kultura

Donapaleuko **Frantxikanoen** etxeak ateak hetsiko ditu.

Herria

Joxe Arregi **frantziskanoa**.

Herria

Donapaleuko **Frantxikanoetan** aratsaldeko 2.15etarik 5ak arte.

Herria

Galtzerdi pare bat, **frantxikano** oinetakoak, eta buruan jockey iduri kasketa bat.

Marzel Etxehandi

frantziskotar 1 *izlag* San Frantziskoren ordenakoa.

Frantziskotar kronikari ospetsuenak Gianoko Jordan, Ecclestongo Tomas eta Salimbene dira.

Askoren artean

Lehen bost **frantziskotar** martiriak, Marokon hilak.

Askoren artean

Julian Alustiza aita **frantziskotarrak**.

Joxerra Garzia

Ettxera abiatu zen bere **frantziskotar** jantziekin.

Gotzón Garate

Frantziskotar bizitzaren irakurketa moralizatzaileari jarraiki. Arantzazuko **Frantziskotar** Probintziak eragina.

Askoren artean

Frantziskotar komentu guztiek Askoren artean

2 iz San Frantziskoren ordenako kidea.

Frantziskotar bat bidali digute, eta pertsona zintzoa eta irekia dela erakutsi du. Berria - Harian

Lehen **frantziskotarren** garaiko ingurune historiko kulturaleran. Askoren artean

Donapaleuko **frantziskotarren** etxean. Berria - Kultura

Donapaleuko **Frantziskotarretako** liburutegian. Berria - Kultura

Hori da, behintzat, **frantziskotarren** web guneak jartzen zuena. Xabier Etxabe

Frantziskotarrean izan zela uste dut. Joxerra Garzia

Bada santu euskaldun bat, Martin izenekoa, **frantziskotar** sartu, misioetara joan eta Nagasakin hil zutena. Xabier Mendiguren Elizegi

Eskerrak **frantziskotar** peto bat edozerekin moldatzen den. Jon Alonso

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arantzazuko frantziskotarrek (3); **bat frantziskotar** (3); **da frantziskotar** (5); **donapaleuko frantziskotarren** (4); **eta frantziskotar** (16); **eta frantziskotarren** (4); **fraide frantziskotar** (3); **frantziskotar analartearen** (4); **frantziskotar arazoa** (6); **frantziskotar bat** (4); **frantziskotar bokazioaren** (4); **frantziskotar iturrien** (3); **frantziskotar iturrietan** (4); **frantziskotar mugimendua** (4); **frantziskotar mugimenduaren** (4); **frantziskotarren etxean** (3); **frantziskotarren komentu** (3); **hasierako frantziskotar** (3); **lehen frantziskotar** (5); **zarauzko frantziskotarren** (3)

frantziskotartasun iz frantziskotar izaera.

Pobretasuna jo izan da **frantziskotartasunaren** ezaugarri nagusizat. Askoren artean

Horretan datza benetako "frantziskotar arazoa", Frantziskoren eta **frantziskotartasunaren** betiko gurutzea. Askoren artean

Junipero lehen orduko **frantziskotartasuneko** pertsonaia miragarrienetakoa da. Askoren artean

Frantziskotartasunaren benetako historia. Askoren artean

Frantziskotartasunaren "beste ikuspegia" Askoren artean

frase iz perpausa.

Paper-buruan data ipini du eta, estreinako **frasea** idatzi du: "Gau osoan elurra egin du". Pablo Sastre

Frase etenak. Pablo Sastre

fraseatu, frasea, fraseatzen du ad musika-pasarte bat bere egitura eta adierazkortasuna azpimarratuz interpretatu.

Contrapuntoa **fraseatzean** maisu-maistrak ziren, afinatze zehatzarekin. Berria - Kultura

fraseatze iz musika-pasarte bat bere egitura eta adierazkortasuna azpimarratuz interpretatzea. ikesaldikapen.

Mendean zituen penak edo amodioa adierazteko erregistro guztiak pianissimo-tik forte-ra igarotzeko, **fraseatze** txukuna, igorpen aratzarekin, tauletan bikain emakume zaurituaren rolean. Berria - Kultura

Arago, jazzean, komeni da metrika, doinu eta **fraseatze** berriekin esperimendatzea. Berria - Kultura

Dinamiketan maisu pianissimotik fortissimo-ra crescendo-en bitartez, **fraseatze** lanetan txukun. Berria - Kultura

fraseo iz fraseatzea.

Horietan ahoskera erraza hizkuntza desberdinetan eta **fraseoa** nagusitu ziren, arnasketaren erabilpen zehatzarekin. Berria - Kultura

Adagio-an **fraseoa**, soketan bereziki, oso ondo zaindua egon zen. Berria - Kultura

fraseologia iz joskeren eta esapideen multzoa.

Bestetik, testu zati horiek joskera eta **fraseologiarako** jarraibideak ere ematen dizkigute. Berria - Harian

Horregatik, agian, zapatismoak baztertu du, adibidez, zenbait iraultza sozialistek erabili duten **fraseologia** fosildua. Txema Ramirez de la Piscina

fratrizida izond/iz senidea hiltzen duena.

Mende batean zehar erreakzioa eta atzerakuntza ekonomikoa haragitzen zuten indar **fratriziden** aurka borrokatu ondoren. 'Gertaera historiko nabaria da', adierazi nuen, 'Romulo, berregatik deitzen direlarik erromatarrak horrela, **fratrizida** eta emagalduta baten semea zela'. Iban Zaldúa

fraude (ETCn 91 agerraldi) iz iruzurra.

Esate baterako: lapurreta egitea, iruzurra egitea (lapurretarik gabe agian), **fraudea** edo gezurra. Pako Aristi

freaky 1 iz pertsona dottore ustekoa.

Metroko pasadizoak horrelako hiri batek soilik erdi ditzakeen **freaky** eta kutrez ereinda daude, eta alkandora gona zapata media arrosak dituen emakumeak dirudi guztiaren epizentroa, arrosa koloreko bufanda egiten ari den irribarre arrosadun emakumea. Eider Rodriguez

San Frantziskoko **freaky** batek esango zuen bezala, "jaitsi gabe jarraitzen zuten denek, batez ere nekazariak". Bernardo Atxaga

Aurtengo **freaky**-ak hauetxek izan ziren, dudarik gabe. Berria - Kultura

2 Freaky Friday ostiraletako merkealdi berezia.

Urtarrilaren 30 ean, 31n, otsailaren 1 ean eta 3 an aratseko 9 etan **Freaky** Friday. Herria

freatiko izond uraz mintzatuz, lurpean geruza irazgaitz batean gainean batzen dena; ur horiei dagokiena.

Biamoko Artix herritik Lapurdiraino hedatzen den geruza **freatikoa** ustiatzeko xedea. Berria - Euskal Herria

freelance *izond* bere gisa lan egiten duena.

Nottingham Journal egunkarian kazetari aritu ostean, 1885ean Londresera abiatu zen, poltsikoak hutsik, idazle **freelance** legez. **Julen Gabiria**

fregatu, frega, fregatzen 1 du *ad* garbitu, xaboiarekin igurtzi.

Hortxe dago Joxepi, mantala jantzita, ontziak **fregatuz** zigarroa beti bezala ezpainetan. **Xabier Mendiguren Elizegi**

2 lanbasa pasatu

Yolo taberna **fregatzen** ari da maitekiro, aulkiak mahai gainetara jasoz lekua egin ondoren. **Pako Aristi**

Presio-eltzea erori zaidak eguerdian, **fregatzen** hasi naizenean. **Iñaki Iñurrieta**

Astiro eta nekez, erratza eta pertza hartuta, **fregatzen**, marruskatzen, hondamena eta ustela geldiarazi zuten. **Anton Garikano**

3 (era burutua izenondo gisa)

Sukaldeko mahai **fregatu** bat. **Anton Garikano**

4 (era burutua izen gisa)

Utzi **fregatu** eta garbiketa eta txorakeria horiek eta aber, inork ekarri al du ezer pentsatuta manifesturako? **Iñaki Iñurrieta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

fregatzen hasi (3)

fregear 1 *izlag* G. Frege matematikari eta logikariari dagokiona.

Zentzuaren eta erreferentziaren arteko **fregear** bereizketa gogora ekarriz, honela koka genitzake kontzeptuak: [...]. **Askoren artean**

2 (izenondo gisa)

"Pentsamendu" **fregear** hori elementu ez-psikologiko bat litzateke, eta ez hitzunen interpretazio edota ulermen subjektibo bat. **Askoren artean**

fregona *iz* lanbasa.

Fregona pasa dut behin eta bitan. **Harkaitz Cano**

Berehala erreparatu zion zerbaiti: lurrean egunkari orriak zeuden zabaldua, baten batek **fregona** pasatu zuen seinale. **Iñaki Iñurrieta**

frekuentzia (*58 agerraldi, 5 liburu eta 25 artikulutan; ETCn 1.530 agerraldi; cf maiztasun ETCn 9.053 agerraldi*) 1 *iz* maiztasuna.

Aldaketa ebolutiboa geneen **frekuentzien** aldaketa da. **Askoren artean**

Arriskuak kontrolagarria eta auresangarria den etorkizuna adierazten du: arriskuen gertaera **frekuentzia** (probabilitatea) determinagarria da. **Berria - Gaiak**

2 (uhinena)

Musikologian bitartea bi notaren arteko bereizkuntza da, beren **frekuentzien** arteko tartearen arabera neur daitekeena. **Josu Zabaleta**

Izpiok oso energia handikoak dira (uhin luzera milimetroaren mila milioigarrena da, eta **frekuentzia** 100.000.000.000.000.000 hertzekoa!), eta indar nuklearraren eta elektromagnetikoaren arteko interakzioaren bidez sortzen dira. **Berria - Gaiak**

Cuvier baleen sonar sistema oso sentikorra da, eta erdi mailako **frekuentzia** erabiltzen du. **Berria - Gaiak**

Mende berri hau hasi da jarritz iragan urtarilaren 29an lehen errepikagailua 90,5 MHz **frekuentzian** Azkaine eta Donibane Lohizuneko aldean. **Herria**

Frekuentzia handiagoetan, gehienbat gardena da gure gorputza X-izpienat. **Berria - Gaiak**

Ontziek **frekuentzia** bera eta altuagoa erabiltzen dute. **Berria - Gaiak**

Oraingo zientzia bai, baina **frekuentzia** propiorik ez du irriti horrek. Irrati bat **frekuentziaz** kanpo sintonizatuta dagoenean bezala. **Harkaitz Cano**

Antifrankistek dialean bilatzen zuten beste **frekuentzia** bat Radio Paris zen. uhinen **frekuentzia**, ordea, aldatu egiten da planetaren latitudearen eta errotazio giduraren arabera. **Berria - Kultura**

Sarekada hurbilaren iragarpena poliziaren **frekuentzian** kaptatu zuela azalduz, Txokok Boz abisatu zuen. **Itxaro Borda**

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ahizpak bagina bezala da, eta gure gogoak uhin **frekuentzia** berean dabilta. **Oskar Arana**

Ezohikotasunak, azken buruan, gertaera baten jazoera- **frekuentzia** txikiari egiten dio erreferentzia, besterik ez. **Berria - Gaiak**

Arriskuen gertaera **frekuentzia** (probabilitatea) determinagarria da. **Berria - Gaiak**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

fm frekuentzia (3); **mugaz gaindiko frekuentziak** (3)

frenakada *iz* bat-batean frenatzea.

Taxiak **frenakada** bat eman eta aurreraxeago geratu zen. **Iñaki Zabaleta**

frenatu, frena, frenatzen (*30 agerraldi, 19 liburu eta 2 artikulutan; ETCn 210 agerraldi*) 1 du *ad* galgatu, balaztatu.

Frenatu eta puntu geldian utzi du 2CVa. **Pako Aristi**

Mutilak abiadura guztian sartu ziren Delizia-ko zubian, baina, handik ehun metroa ere ez zirela, kolpetik **frenatu** zuen Rosako batek, bota zuen luze bizikleta errepidean, jostailu bat balitz bezala, Momentu batez, **frenatzekotan** egon nintzen, harriturik. **Josu Zabaleta**

2 irud

Kanpotik huts eta barrutik beterik aurkitu zenetik, Frantzisko ez zuen ezerk eta inork **frenatuko**. Horrek esan nahi du zerbaitetan hasteko zure gogo eta nahi hori pixka bat **frenatuta** daukazula! **Pello Zabala**

Espainiako historia irizpide uniformista eta unitarioz lehenestea hezkuntzaren alorrean, D eredia **frenatzea**, eta abar. **Berria - Euskal Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

frenazo *iz* frenakada, bat-batean frenatzea.

Autoaren **frenazoa**. **Pako Aristi**

frenesi *(ETCn 79 agerraldi)* iz eraldia.

Bigarren fase batean, finantzen eskutik **frenesi** edo eraldia dator 2000. urtean eztanda egin zuen burbuila teknologikoa bezalakoa. **Berria - Ekonomia**

frenetiko *izond* eromenezkoa.

Elkarte bat sortu zen horrenbestez, eta sasoi **frenetiko** bat hasi niretzat. **Juan Garzia**

Edertasun pasarte ugariak erakitzen ditu erritmo **frenetikoetan** eta koloretasunean oinarrituta. **Berria - Kultura**

frenetikoki *adlag* eromenezko eran.

Dantza eginez **frenetikoki**. **Juan Garzia**

freno *(20 agerraldi, 12 liburu eta 5 artikulutan; ETCn 335 agerraldi; orobat frenu 3 agerraldi, 1 liburu eta 1 artikulutan; ETCn 22 agerraldi)* 1 iz balazta. ik galga.

Blue Ridge Parkway-n, Asheville ondoan, autoa bidetik atera eta, **frenoai** eragin arren, irrista-irristaka. **Gotzon Garate**

Frenoa kolpetik sakatu, eta bolantea eskuinerantz jiratu du gogor. **Patxi Iturritegi**

Eskuko **frenoa** kendu nuen. **Koro Navarro**

Frenoaren palanka altxatu eta atzera bota nuen besoa. **Koro Navarro**

Frenoan zarata ez zen entzuten jadanik. **Iñaki Zabaleta**

Txarartilaren **frenoa** jaitsi eta haria biltzen hasi nintzen. **Koro Navarro**

2 irud

Jabea da orain, ez du **frenorik**, badirudi galdutako denbora irabazi nahi duela. **Pablo Sastre**

Dantzak alde horretatik abantaila bat ukan dezake, hizkuntzaren **frenoa** ez baitu, ez? **Berria - Kultura**

Euskal Y-arentzat PSOE gobernura iristea «nolabaiteko **frenua**» izan da. **Berria - Euskal Herria**

frenologia *iz* teoria medikoa, gizabanako baten gaitasunak eta senak bere burmuineko protuberantziak aztertuz ezagutu daitezkeela dioena.

Frenologiaren arabera, buruaren kanpoaldeko kozkorrek ukituz jakin daiteke zer ezaugarri dituen pertsonak. **Irene Aldasoro**

Alkimiairen historia kimikarena baino gehiago, arimadun espirituen edo **frenologiaren** historia fisiologiarena baino gehiago. **Xabier Arregi**

Frenologia | burezurraren eite eta konkorei buruzko jakintza: izaera eta adimenaren ahalmena hor aurki zitezkeela uste zen. **Xabier Olarra**

frenologo *iz* frenologian aditua.

Frenologoek, mende hasieran, gogameneko edo jokabideko ahalmen baten "egoitza" ikusi zuten garunaren gainazalaren zati bakoitzean. **Xabier Olarra**

Bazen gizon bat oso aspaldi / Ispanhanen bizi zena, / **frenologoek** haren burua / mirakulutzat zutena. **Xabier Olarra**

frenozale *(corpusean frenuzale soilik)* iz Frenozaina.

Eta hantxe joan duk trena hankaz gora, ibairaino hamaika puskatan, bertan behera bai makinistak eta bai bi **frenuzale** laguntzailek bizia galdu zutelarik. **Txillardeggi**

frente ik **fronte**.

frenu ik **freno**.

frenulu *iz* glandea eta hura estaltzen duen azala lotzen dituen mintzezko toles mehea.

Gizonarengan, arazoa zakileko glandea estaltzen duen azalarengatik izaten da; fimosiak edo **frenuluak** eragin dezake arazoa. **Luis Elberdin**

Beste batzuetan, berriz, glandeko azala normal dago eta ondo jaisten da, baina larruazala eta glandea lotzen dituen **frenuluak** tiratu egiten du. **Luis Elberdin**

Frenulua laburregia baldin badu, tira egingo dio. **Luis Elberdin**

Zenbaitetan, harreman sexuala izatean, teinkadaren ondorioz, **frenulua** urratu eta odola egiten da. **Luis Elberdin**

Zakila ferekatzea, maitasunez musukatzea, nola iratzartzen den ikustea, behin eta berriz pasioz miakatzea, ahoan sartzea, mokoia eta **frenulua** mihiarekin laztantzea, hori ere plazer handia da bi maitaleentzat. **Luis Elberdin**

frera *iz* fraidea.

Escola girixtino guzietako irakasleri, **frera** eta seroreri manatu deraukote haurrak beren herriko mintzaiari jarraikaraz detzazten Erdarari bezala. **Xipri Arbelbide**

fresa¹ *iz* altzairuzko lanabes txiki horzduna, kono edo zilindro formakoa, biraka lan egiten duena, metalean edo zurean

eginiko zuloak zabaltzeko, gainaldeak erabiltzeko eta kideko lanetarako dena.

Atzo bai; bidiazko **fresa** bat izorratu nian. **Pablo Sastre**

fresa² iz ipar gastua.

Haren sort-etxea herriak erosi du 350.000 eurotan, notari **fresak** bestalde. **Herria**

Etzegintzako jendeek galdeginiak, hautetsiek onartu dute inkestak egitea eta auzapezak egiten du gaineratekoa, **fresak** galdegileen gain izan direlarik. **Herria**

4.000 euro kosta du (gehi Unibertsitateko **fresak**). **Herria**

fresadora iz fresagailua.

Luziori kasu eginez, poliki-poliki, pixka bat hara eta, **fresadora** gainera pieza jaisten hasi zen. **Pablo Sastre**

fresagailu iz fresatzeko makina.

Estimua zioten bai ugazabak bai lankideek haren lanari, iaioa baitzen **fresagailuarekin**, premian zegoen edonori eskua eskaintzen, estuasunetan arima erakusten zekiena. **Anjel Lertxundi**

Fresagailuak, bihurkinak, paletak eta burdinagak, besteak beste. **Berria - Ekonomia**

fresatu, fresa(tu), fresatzen du ad fresaren bidez zulatu edo landu.

Azterriko ekoi-zelen tornu eta **fresatzeko** makinak saltzen ditu Aristik. **Berria - Ekonomia**

freskaberritu, freskaberritu(tu), freskaberritzen du ad freskatu. ik freskatu 3.

Lortu nuen sartzea, gairitu nituen frogak, eta lehenengo eta behin aloxanaren egitura eta osaketari buruzko neure oroitza **freskaberritzera** lehiatu nintzen. **Juan Garzia**

freskadura iz freskura.

Gaueko **freskaduraren** beha iragaiten duzue minutu bakoitza. **Xabier Montoia**

freskagarri 1 izond freskatzen duena.

Temperaturak goraka, natura borborka, goizalba **freskagarriak**, egunargia luzatzen... **Pello Zabala**

Gero dutxa **freskagarri** bat hartuko zuen. **Berria - Kultura**

Ate berdeko txintzarriak isilarazi zuen patioko iturriaren hots **freskagarria**. **Joxemari Urteaga**

Pentsatu zuen ez logekeela batera gaizki gin-tonic **freskagarri** bat hartzea. **Joxemari Iturralde**

Satan, edari **freskagarri** ospetsu baten zale bitxi bezain amorratua. **Bernardo Atxaga**

2 irud

Eta ibilaldietan zehar, oroitza **freskagarrien** harrapaketa aritu naiz. **Patxi Zubizarreta**

Udako sargoriari aurre egiteko, barrea bezalako **freskagarririk** ez, nonbait. **Berria - Kultura**

• 3 iz freskatzen duen edaria.

Musika jarri zuen eta **freskagarria** prestatzeari ekin zion. **Joxemari Iturralde**

Limoizko **freskagarria** xurrupa laburretan edaten. **Patxi Iturritegi**

Bazekien hozkailua **freskagarri** beteta neukala. **Javi Cillero**

Ea nork galdu zuen **freskagarri** -banatzailearen faktura. **Joseba Urteaga**

Saltzaileak **freskagarri** -postuen marmolezko salmahaiak garbitzen ari ziren. **Lopez de Arana**

Auzia aspaldikoa da, 1999an hasi baitziren Bruselako agintariak **freskagarri** konpainia ikertzen. **Berria - Ekonomia**

Kalabaza **freskagarri** eta Honeydukeseko gozoki-poltsez. **Iñaki Mendiguren**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta freskagarri (4); **eta freskagarriak** (4); **freskagarri bat** (13); **freskagarri bat hartuko** (3); **freskagarri eta** (3); **freskagarriak edaten** (4); **freskagarriak eta** (3)

freskagarritasun iz freskagarria denaren nolakotasuna.

Ahotsari eta melodiari garrantzi handia ematen diogu, eta horregatik esaten dugu rock alternatiboa jotzen dugula, baina poparen **freskagarritasuna** alde batera utzi gabe.

Berria - Kultura

freskaldi 1 iz freskatzea; (zerbait) freskatzen den aldi bakoitza.

Bainugelak, aurpegiari **freskaldi** bat eman nion. **Daniel Landart**

Arratsaldez itsasoko brisarak dakarren **freskaldi** ipar-kutsukoa profitatuz. **Pello Zabala**

Hemen **freskaldi** bat hartzen du eta pozez edaten jaunkozko edaria. **Joan Mari Lekuona**

2 irud

Bariatun, herriko kontseilua bildu da eta erabaki du kanpoko aldetik **freskaldi** bat emanen zaiotela elizaren murreri, histen hasiak direla bereziki ez-kila-dorrearen hegiz-hegi.

Herria

Aurtengo udazkenean merkatuari berari emanen diote **freskaldi** bat ona, baduela beharra tinduak histen ari baitzaizkio. **Herria**

Larraldeneko portuak hartuko du laster **freskaldi** bat, duen geriza azkartuz, ahultzen hasia dela. **Herria**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

freskaldi bat (14); **freskaldi bat eman** (4)

freskarazi, freskaraz, freskarazten du ad freskatzera behartu.

Sukaldeko lanak eta betiko gogoeta horiek utzirik, Sophie eta Gérard-engana joaiten da Kattalin, ideiak **freskarazteko** asmoz. **Eneko Bidegain**

freskatu (ETCn 1.291 agerraldi), freska, freskatzen 1 du ad fresko jarri; bero gehiegia ibitu.

Erdialdean, botilak **freskatzeko** eta garbitzeko askaren zuloa nabarmentzen zen. **Karlos Zabala**

Hamabost metro koadro inguruko gela bat zen, ohea eta **freskatzeko** konketa besterik ez zituena. **Harkaitz Cano**

Txorrota ireki zuen aurpegia **freskatzearren**. **Joxemari Iturralde**

Eztarria **freskatzeko** asmotan limonada edan ninan nik. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Jantoki zikinean, hezueriak jotako haizegailu batek giroa **freskatzeko** itxurak egiten zituen. **Aingeru Epaltza**

Leiho zabalduaren ondoan esertzera joan naiz, bekokia eta pentsamendua iluntasuneko haize barean **freskatu** ahal izateko. **Josu Zabaleta**

Gelara igo, eta aurpegia **freskatze** hutsa bera ere mesederako izango dun. **Anjel Lertxundi**

Gero, bere burua **freskatzeari** ekin zion. **Karlos Zabala**

2 (eguraldia)

Kanpoaldean ederki **freskatu** zuen, hala erakusten zuten autoetako kristalek. **Joxemari Urteaga**

Ilunabarraren ostean bakarrik **freskatzen** zuen apur bat, eguzkia sartutakoan. **Joxe Austin Arrieta**

Ez zuen **freskatzen**. **Inazio Mujika Iraola**

Gainera, **freskatu** egin du eta txupa bat hartu beharko nuke. **Sonia Gonzalez**

Freskatu egin dik, edo ni neu hoztu nauk. **Agustin Otsoa**

Freskatu ahala, jendea jertsea janzen... **Berria - Kultura**

Bai, **freskatzen** ari zen airea. **Anton Garikano**

3 irud (oroitzapenak eta) ik freskaberritu.

Konturatu naiz azkenean Tosiro bezala neukala eta, esan ohi den bezala, "memoria **freskatu** dut" berari buruz idatzitakoa irakurri. **Bernardo Atxaga**

Aferaz ahantzi nintzen, eta sex-shoparen lehiaketa irabazi nuelako albisteak ez zidan oroimena **freskatu**. **Aingeru Epaltza**

4 ipar irud eraberritu.

Diote ere alderdiaren buruzagitza gaztetu eta **freskatu** dutela. **Herria**

Erran behar da hamalau urte huntan ari zirela Jesuiten eliza nagusi horren **freskatzen** eta edertzen. **Herria**

"Gure Irratiak" Baiona erdi erdian egoitza bat alokatu eta 80 000 euro gastatu zituen 1997-an, lekuaren **freskatzeko** lehen lehenik, eta irratigintzaren beharretara egokitzeko.

Herria

5 (era burutua izen gisa)

Bizikiletak gora eraman ugazabaren isilean, **freskatu** bat hartu, eta pizza zati bat jatera joan gintunan. **Javi Cillero**

Freskatu bat hartu eta gertatutakoa ahaztu nahi nuen. **Bernardo Atxaga**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aurpegia freskatu (5); eta freskatu (4); freskatu bat (3); freskatu bat hartu (3); freskatu du (5); freskatu egin (10); freskatu egin zen (3); freskatu egin zuen (3); freskatu egiten (4); freskatu eta (5); freskatu ondoan (3); freskatu zuen (3); freskatze aldera (4)

freskatze 1 iz fresko jartzea; bero gehiegia ibitzea.

Merezue duzue, bai, **freskatze** pixka bat. **Piarres Aintziart**

Haizearen norabide aldaketa bortitzen bat edo **freskatze** nabarmenen bat zela medio. **Pako Aristi**

2 ipar irud ik freskatu 4.

Hunen berritze lanak egin dira iragan martxoaz geroz: erretaularen antolatzea, aldarearen eta Ama Birjinaren irudiaren **freskatze**, eta bertze. **Herria**

freskera iz aireak ematen dion altzairua, elikagaiak fresko atxikitze erabiltzen dena. iktrangadera.

Argindarrak eta komunik gabeko etxeak, zalgurdiak, **freskerak**, edota harraskak izatetik, XX. mendearen erdi aldera, berriz, hozkailuak, autoak, telebista, ontzi eta arropagarbigailuak, eta abar izatera, aldaketa handia gertatu baitzen. **Iñaki Heras**

Hamar egunez bizirik edukitzen zian arraina: ahoan aguardientearekin ogi zatitxo bat jarri eta **freskeran** edukitzen zian belarrarekin ondo estalita... **Pablo Sastre**

[DKW motozikletaren] deposito gorririna karelaren gainean zaldizka zegoen, eta motorra, **freskera** baten barruan, gure lurrun-jarioek janik herdoiltzen ari zen. **Juan Garzia**

fresko¹ (orobat fresku g.er.) 1 izond apur bat hotza.

Haize **freskoa** zebilen eta astinaldi horrek on egin zidan. **Joxemari Iturralde**

Arratseko eta goizeko giro **freskoa**. **Pello Zabala**

Goizalde **freskoa**, eta bazterrek oraino lanbroan lokartuak. **Piarres Aintziart**

Bideari narraio, gogoratuz, bero baita orain, Eugiko urtegiaren ur **freskoa**. **Piarres Aintziart**

Edateko ardo gorri **freskoa** eskatu dugu. **Joxemari Iturralde**

Garagardo **fresko** on bat goxatu dut. **Piarres Aintziart**

Eta nahiz eta **fresko** samar zegoen, erabaki zuen puska batean paseatuz jarraituko zuela. **Joxemari Iturralde**

Ez aire lurrindua, aire **fresko** garbi eta gaztea baizik. **Agustin Otsoa**

Azulejoen azal urdin **freskoa** nire azalaren aurka. **Eider Rodriguez**

Balusezko manta bat bezala, batean **fresko**, bestean epel. **Michel Oronoz**

Sarrerako atari **freskoan** hanka jarri orduko. **Iñaki Mendiguren**

Itoko gara bero honekin, gurina ere urtu egiten da, etxe osoan ez dago leku **fresko** bat. **Josu Zabaleta**

2 egin edo lortu berria; galdu edo pasatu ez dena; izoztua edo gazitua izan ez dena.

Berek etxean egin duten eta eskaini didaten ogi **fresko** epela jaten. **Piarres Aintziart**

Ardi gasna, behi esne **freskoa**. **Herria**

Xoko batean, gasna **freskoz** nahiz zaharrez hornitu mahai bat bazen. **Elena Touyarou**

Oiloak zaituen arautza **freskoak** izateko. Joseba Urteaga

Ezpainak busti-bustiak zeuzkan, marrubi-ale **freskoak** baino goxoagoak. Aitor Arana

Egositako zainzuri **fresko** batekin ausartuko nintzatekeongoa den esatera, latakotan ez. Berria - Euskal Herria

Eguraldia iluna eta euritsua izan zen, eta lore **fresko** asko jarri orduko zimeldu ziren. Berria - Euskal Herria

Udaberriko belar **freskoaren** usain gozoa. Koro Navarro

Haragi **freskoa** gordirik irents zezakeen. Itxaro Borda

Hil-eta, zerrikia **freskoan** eta kontserbutan saltzen dute. Herria

Lukainka arruntak, hestebete **freskoak**, gibel eta erbi pateak, galantinak. Karlos Zabala

Arrain **freskoa** erostera. Karlos Zabala

Atun **freskoa**, zinez hauta, Hondarribitik ekarria. Herria

Hazkurri **freskoak** eta konjelatuak garraiatzen ditu. Herria

Txerri-odol **freskoz** igurtzi baliote bezala [aurpegitxo]. Juan Garzia

Burke jaunak gorpu **fresko** eta garbi bat igotzen zuen Knox doktoarearen etxera. Juan Garzia

Usain ona, izerdi **fresko**, haragi bizi eta sexu beroaren usaina zerion. Joxan Elozegi

Malko **freskoak** kliskatuz hurbildu zitzaion Denver. Anton Garikano

Nazio berri baten eta natura gazte baten erdian usteltzen den antzinako zibilizazio bat; zaharra da berri, lizuna **fresko**. Koldo Izagirre

Gasnak **fresko** atxikitzeke. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

3 irud

Hezeak zeuden, eta itsas belarren usain **freskoa** zerien. Karlos Zabala

Fruituek, haien inguruan, udaberri usain **freskoa** zuten. Karlos Zabala

Zuhaixken azpiko lur bustiaren lur **freskoa**. Lopez de Arana

Arrain postuen hezetan **fresko** eta ur lasterren artean pasean ibiltzen. Karlos Zabala

Eta marrubiei ere lur **fresko** zerien, gaztetan lurrun bat. Karlos Zabala

Perikitoaren kolore guztiak hedatzen dituzte fatxadek: horirik biziena, berderik **freskoena**, gorrikerik minena. Koldo Izagirre

Idoiaren irekitasunak pixka bat herabatu egiten ninduen [...] baina gero eta gehiago gustatzen zitzaidan ni tratatzeko modu **fresko** hura. Juan Kruz Igerabide

Ausartasun **freskoaren** atzean ezkutatu zuen erreparadorekin. Josu Zabaleta

Lanbide onak eskaintzen zizkien gazte haiei, diru **freskoa** gurasoei... J.M. Olaizola "Txiliku"

Bisnes Création holandesa holdina baita horko akziodun nagusia, kapital **freskoekin** etorri berri da. Herria

Lasaiak afaldu naiz ostatuan, ohar zenbait salatuz paperari eta oroitzenak **fresko** direno finkatuz, akidurak eta afariaren goxoak izpiritua malindu aitzin. Piarres Aintziart

Gorputzean oinazeak izanagatik, burua **fresko** du oraindik. Berria - Harian

Kalean da, baina **fresko** ditu kartzelan bizi izandakoak. Berria - Harian

Idea **freskoak** ekarri zituen bulego eta egoitza zahar horietara. Iban Zaldua

Euskara **fresko** eta naturala erabiltzea. Berria - Kultura

4 egin berria delako oraindik lehortu ez dena.

Aitak porlan **freskoa** bota berri zegoen espaloi zati bat seinatu zuen. Harkaitz Cano

Argitasuna -espikatu zidan- oihalarri pigmentu zuri bat emanez lortzen da, eta gainean margotuz, oraindik azpia **fresko** dagoen bitartean. Ramon Saizarbitoria

Koloreak, izan ere, zarpeatu **freskoaren** gainean kontuz ematen direnean ez dira moteltzen. Santiago Iruretagoiena

5 arropaz-eta mintzatuz, berorik ematen ez duena.

Taniak arropa garbia eta **freskoa** zeukan jantzita. Jon Muñoz

Hanketako mina dut, ez daukat arropa **freskorik**, ezin ditut ontziak garbitu bero honekin. Josu Zabaleta

Luzera moztuko banu... belauaren gainetik ez al litzateke **freskoagoa**, arinagoa geratuko? Jasone Osoro

Ez duzu brusa hau baino **freskoagorik** aurkituko -esan zion Norak. Anjel Lertxundi

6 irud gaztetan zantzuak atxikitzen dituen.

Emakume ederra zen, gainera, hantxe, ohe ertzean eserita [...] hain garbia eta **freskoa**, barruko arropa liluragarri jantzita. Karlos Zabala

Polita da emakumea, bizitzak gutxi zigortu duen aurpegi **freskoa** du. Anjel Lertxundi

Ahoa txiki-txikia du, hortzak bikainak, eta den-dena hain **freskoa**! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Atzera haur izan nahi nuela irudi zuen, garbi eta **fresko**, berriro ere etorkizun eta posibilitatez bete. Patxi Zubizarreta

Berrogeita hamar urte izanen zituen: hogeita hamarretan bezain gazte eta **fresko** zegoen. Monika Etxebarria

Haren masaila **freskoa** nirearen kontra. Josu Zabaleta

Hamazazpigarrenean, tamalez, Maribelen titi **fresko** adio esan behar. Xabier Mendiguren Elizegi

Zortzi ordu eta hiru ordu laurden emango ditu lotan eta bihar **fresko** esnatuko da lanera joateko. Eider Rodriguez

7 akidurak edo salatzen ez duena.

Oste **freskoak** zetozen presaka putzutik gora. Koro Navarro

Gero Patrikek gaina hartu dio, botez, jokoz gorputza azkar eta **fresko** erakutsiz. Herria

Etenaldian, taldeak indarra hartu du berriz, eta orain **fresko** gaude, bigarren itzuliari aurre egiteko gogoz, lehiak jokatzeko irrikan. Abadiño eta Muxikako karreretan asko saiatu gabe ibili nintzen, ez nuen askorik nekaterik nahi, **fresko**, gogoz heldu nahi nuen hona. Berria - Kirola

Frantziaren kontrako partidaren gauza bera gertatu zen, greziarrak askoz **freskoago** iritsi zirela 90 minutuen bukaerara. Berria - Kirola

Atzo maglia arrosa zeraman txirindulariarena izan zen denetan pedal kolpe **freskoena**, arinena, biziena, eroena. Berria - Kirola

Energia handia, mugimendu **freskoak**. Berria - Kultura

8 (erkaketetan)

Gero larrosa bezain **fresko** itzuliko zara etxera. Koldo Biguri

Lisak lasaitu egin zuen, arrosa bat bezain **freskoa** zegoela esanez. Karlos Zabala

Esan zuen: "Gau on denoi", eta letxuga baino **freskoago** sartu zen bere gelan. Lopez de Arana

Denek aza bezain **fresko** ziruditen. Herria

Irribarre egiten zien denei esne jetzi berria bezain **fresku**. Karlos Zabala

Bere gorputz bainatu berria **fresko** zegoen bioleta baten gisa berean, zetazko jantziaren azpian, zetazko azpiko arropen azpian. Lopez de Arana

Apirileko egunsentia bezain **fresko** zegoen ene oroimena. Koldo Izagirre

9 fresko egin

Fresko egin zuen, estalpean jardun arren. Berria - Kirola

Monikak bere beso biluziak igurtziz jarraitzen omen zituen nire hitzak, **fresko** egiten baitzuen gau hartan. Joxean Agirre

Araiako pilotalekuan **fresko** egin zuen, eta aizkoran aritzeke aproposa. Berria - Kirola

Goizean **fresko** samar egin zuen. Berria - Euskal Herria

10 fresko-fresko

Eta pitxar bat ur, **fresko-freskoa**. Txillardegi

Haren jiran, arrain **fresko-freskoak** usain ederra zuen. Karlos Zabala

Lengoradu pare bat, barbarinak, lupinak, denak **fresko-freskoak**. Karlos Zabala

Gérard noizbait sukaldean sartzen da, **fresko freskoa**, dutxaturik eta begiak irekirik. Eneko Bidegain

Eman dezagun ni negoziario buru-belarri sartzen naizela, Vilerren informazio **fresko-freskoa** entzunda. Lopez de Arana

Abentura gogoangarriak dituzu hemen, **fresko-fresko** esanak. Markos Zapiain

17 lehiaketa egun bakarrik egin ditut, **fresko-fresko** iritsiko naiz Vueltara. Berria - Kirola

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aire fresko (8); **aroa fresko** (3); **aroa fresko eta** (3); **arrain fresko** (4); **baina fresko** (4); **bat ur fresko** (3); **beti fresko** (4); **bezain fresko** (10); **bezain fresko eta** (3); **bolada fresko** (4); **burua fresko** (4); **denbora fresko** (4); **eta fresko** (30); **eta fresko fresko** (3); **fresko ageriko** (3); **fresko ageriko da** (3); **fresko aire** (5); **fresko aire batekin** (3); **fresko bat** (16); **fresko batean** (4); **fresko batek** (5); **fresko baten** (4); **fresko bolada** (3); **fresko dago** (3); **fresko du** (3); **fresko edo** (3); **fresko egiten** (3); **fresko egongo** (3); **fresko egotea** (3); **fresko eta** (70); **fresko eta ilun** (3); **fresko fresko** (20); **fresko freskoa** (9); **fresko hartan** (3); **fresko hura** (6); **fresko iritsiko** (5); **fresko iritsiko naiz** (3); **fresko mantentzen** (4); **fresko pixka** (3); **fresko pixka bat** (3); **fresko samar** (6); **fresko samarra** (4); **fresko zegoen** (6); **garagardo fresko** (4); **garbi eta fresko** (3); **gau fresko** (3); **gela fresko** (3); **giottoren fresko** (4); **haize bolada fresko** (4); **haize fresko** (11); **haize fresko bolada** (3); **haragi fresko** (5); **haragi fresko eta** (4); **ur fresko** (10)

aire freskoa (25); **arrain freskoa** (10); **bezain freskoa** (3); **diru freskoa** (3); **eta freskoa** (20); **fresko freskoa** (9); **freskoa baino** (6); **freskoa bezala** (3); **freskoa da** (6); **freskoa ekarri** (8); **freskoa eman** (3); **freskoa erakutsi** (3); **freskoa erakutsi zuen** (3); **freskoa eta** (20); **freskoa hartu** (3); **freskoa izan** (5); **freskoa pintatzen** (3); **freskoa sartu** (3); **freskoa zen** (3); **gela freskoa** (3); **guztiz freskoa** (3); **haize freskoa** (33); **haize freskoa ekarri** (4); **haragi freskoa** (3); **kaperako freskoa** (5); **kaperako freskoa pintatzen** (3); **kolpe freskoa** (6); **kolpe freskoa erakutsi** (3); **oraindik freskoa** (3); **ur freskoa** (22); **usain freskoa** (4)

aire freskoak (6); **aire freskoan** (3); **aire freskoaren** (4); **aire freskoz** (3); **arrautza freskoak** (5); **elikagai freskoak** (4); **eta freskoagoa** (5); **eta freskoak** (7); **eta freskoarekin** (3); **eta freskootako** (3); **fresko freskoak** (5); **freskoagoa zen** (3); **freskoak eta** (10); **freskoaren gainean** (3); **freskoaren usaina** (5); **haize freskoak** (6); **haize freskoaren** (3); **kolpe freskoagoa** (3); **kolpe freskoarekin** (3); **ur freskoaren** (4); **ur freskotik** (3)

fresko² 1 iz parea hezearen gainean eginiko margolana.

Michelangeloren **freskoak**, ordea, Kaperak Sixtinaren horma oso bat hartzen du. Josu Zabaleta

Ponpeiako **freskoetan** azaltzen ziren ume jolas berberak. Bernardo Atxaga

XIV. mendeko **freskoak** aurkitu dituzte Sienako ospitale batean. Berria - Kultura

Etxe zatar batean zaudela uste duzunean, eskultura batek, **fresko** batek, apaingarri hutsal eta dotore batek ohartarazten dizu jauregi batean zaudela. Koldo Izagirre

Florentzian eta Italian lehen mailako anitz artista izan duk, eta ulertzen diat, haien koadro eta **freskoetarik** ikasteko asmotan, hango eta hemengo elizetarat, basiliketarat eta bertzelako edifizioetarat joan nahi izaita. Pedro Huizi hasi berria zen kaperako **freskoa** pintatzen. Joan Mari Irigoien

Eta iritsi zen **freskoa** estaltzen zuten zapiak kentzeko ordua. Joan Mari Irigoien

2 irud

New Yorken gertatzen diren eleberrri eta ipuinak, bertan bizi diren judu "asimilatu" edo asimilazio bidean dauden **freskoa** dira maiz. Koro Navarro

Itsasondoko meategiei buruzko eleberrri naturalista bat egin nahi zuela, Zolaren antzera-edo, herriaren bilakaera erakutsiko zuen **fresko** historiko bat, klase borrokan zentratua. Xabier Mendiguren Elizegi

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

giottoren fresko (4); **kaperako freskoa** (5); **kaperako freskoa pintatzen** (3)

freskotasan (188 agerraldi, 56 liburu eta 108 artikulutan; ETCn 1.996 agerraldi) iz freskoa denaren nolakotasuna. ik freskura.

Goizaren **freskotasuna** sentitu zuen aurpegian. Jon Alonso

Gelak goizeko **freskotasunean** haizeberritzeko. Koldo Izagirre

Hostaila sarriaren azpian **freskotasan** gozo eta lurruntsua ezkutatzen zen. Xabier Olarra

Joia andrea, 40 urteak jada beteak baina gazteen **freskotasuna** gordetzen zuena. Bego Montorio

Memento batzuetan, goizetan bereziki, gorputzean gaztetasan bat bezala senditen da: akidurek, eritasunek eta adinak ustez galarazia zuten **freskotasuna**. Piarres Aintziart

Luzaroan egon naiz han, **freskotasunean** isil eta isiltasunean fresko, nire arimak agian toki sakratuan errazago topatuko ninduelakoan. Patxi Zubizarreta

Eta gauza da bere ezpainen **freskotasuna** sentitu nuela. Ramon Saizarbitoria

Dotorea zen jotzen, garbia, teknikoa ere bai nahi bada, baina **freskotasunik** galdu gabea horratik. Iñigo Aranbarri

Berotu egiten du neguan, eta udan **freskotasuna** ematen. Anjel Lertxundi

Begi zabalik egon zen zenbait segundoz, pentsamendu bat izoztu, trabatu zitzaion [...] matrailaldea eta ezpain hegia lurraren kontra zeuden, "Zergatik niri? Zer egiten dut nik hemen, arrotzen artean, nire herritik galdua?", porlanaren **freskotasuna** gozagarrria zitzaion. Iñaki Zabaleta

Berrirakurtzeak testuari **freskotasuna** kentzen dio apika, baina adieran sakontzeko aukera ematen du... Ana Urkiza

Hitz baten **freskotasan** hutsaz baliatuz. Xabier Arregi

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Uda partean, **freskotasan** sentsazioa izateko, jeans-ak garbitu, eta bustirik janzen ditut. Patxi Zubizarreta

Dena ere **freskotasan** giro batean joan da, gero sano eta aberats baten menturan. Herria

Zelan urtzen diren argi eta **freskotasan** zati nabari ezinak Bilboren bihotzean. Sonia Gonzalez

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

baina freskotasuna (3); **eta freskotasan** (4); **eta freskotasuna** (11); **eta freskotasanari** (3); **freskotasuna eman** (7); **freskotasuna eman zion** (3); **freskotasuna ematen** (3); **freskotasuna eta** (15); **freskotasuna falta** (3); **freskotasuna sentitu** (4)

freskura (135 agerraldi, 58 liburu eta 19 artikulutan; ETCn 684 agerraldi) iz freskotasuna.

Tarteka, begiak ixten zituen, goizeko **freskura** aurpegian zehar nola isurtzen zitzaion hobeto sentitzeko. Karlos Zabala

Marjolinek, kaleko **freskurak** bizkorturik, begiak ireki zituen zabal-zabal. Karlos Zabala

Atalondora sartu zen, **freskurara**, eta ehiza-zainari makila eta kapela eman zizkion hitzik esan gabe. Xabier Olarra

Airearen **freskurak** eta euriaren zurrumurru lehiatuak iratzarri ninduten. Juan Garzia

Zapiaren **freskura** kopeta eta masailetan sentitu duenean. Jokin Muñoz

Zaharrenen dohaina eta gazteenen **freskura**. Berria - Kultura

Andre hura izan zen, behinola, bere aldaka zabal eta bere **freskura** apartarengatik, Normandiar eder izengoitia merezi izan zuena. Karlos Zabala

Funtsean, maitasuna besterik ez baita: **freskura** bat nekearen ondoren, betetasun kiskalgarri bat bizitzaren hutsune hotzaren erdian. Pako Aristi

Aberri zaharraren **freskura** behar dute. Koro Navarro

Mundu berriaren **freskurak** iratzarrazten gintuen, bai eta goizeko ihintzak, horiek baitziren lantzeko esperantzaren eta nahiaren, gutziaren haziak. **Herria**
Lehen bost kilometroak, goizeko **freskuran,** errepide monotonoan eginik ere, aise eta lasai daramatzat. **Piarres Aintziart**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
 eta freskura (4); **freskura bat** (3); **freskura eta** (5); **goizeko freskuran** (5)

freudiano *(3 agerraldi, 2 liburu eta artikulu 1ean; ETCn 10 agerraldi) izond* freudiarra.

Historioaren oinarria den maitasun harreman **freudiano** hori. **Berria - Kultura**
Klase baldintza ideologikoen edo errepresio **freudianoen** baldintzen pean. **Joxe Azurmendi**
Ikuspegi psikoanalitiko **freudiano** -lacanistak. **Josu Zabaleta**

freudiar *(14 agerraldi, 4 liburu eta artikulu 1ean; ETCn 68 agerraldi) izond* S. Freudi dagokiona. ik **freudiano**.

Psikologo eta psikoanalista **freudiarren** gozamenarako. **Julen Gabiria**
Bere erabakiaren estresak mendean harturik egoaren banaketa **freudiar** bat jasan ote zuen, eta hipermnesiko historiko moduko bat bihurtu harrezkeroztik? **Xabier Olarra**
Aita **freudiarraren** zeregina ere horixe zen: ezin da plazeraren printzipioa erabat aske utzi. **Joseba Zulaika**

freudzale *izond* S. Freuden teorien aldekoa.

Ez zuen psikologia **freudzalea** azaltzen zuen nobelarik irakurtzen, amarekin maiteminduta zegoelako. **Javi Cillero**
Adiskide **freudzale** batek esan dionez. **Javi Cillero**

frexko *izond* adkor freskoa.

Etorriko da, lasai, goizgiro **frexko** baten ostean, aspaldiko eguzki hura. **Pello Zabala**
Hark betetzen ditu ibai eta errekek, hark abiarazten erreka **frexkoak** . **Pello Zabala**
Kontxako itsaso **frexkoaren** brixara gozagarria. **Pello Zabala**
Lora-puntta biribilak lehertzen doazenean, sastraka-mutturak goizeko ihintzen buxti **frexko** ezkoetan. **Pello Zabala**
Haragia han zuten, **frexko frexkoa** . **Eneko Bidegain**
Eta garia, garizori bidean zihoan bitartean, han arituko zen zumail-zumail, **frexko** eta berde, zumatzen zumatzen. **Pello Zabala**

fribolitate *iz* friboloa denaren nolakotasuna.

Friboliterako joera iraingarria. **Berria - Mundua**
Nonbait ene **fribolitatea** ez zitzaion gustatu Roberti eta zer nahi erranka hasi zitzaidan, euskara, Balkanetako egoera latza, islamista integristen atentatuak, Kortsikako gertakariak eta Jolo uharterko bahituak nahasiz. **Itxaro Borda**
Esperientzia hori ezagutu gabe **fribolitatea** irudituko zitzaidala halako gai bati buruz idaztea. **Agurtzane Juanena**
Holokaustoaren eta XX. mendeko biktima gutziekiko **fribolitate** bat da moralki, tragedia hori dena fikzioen historia batean banalizatuz. **Joxe Azurmendi**
Borroka-kantak eta **"fribolitateak"** horrela nahasteak. **Joxean Sagazitabal**
 Fribolitate erromantikotik urrun, hizkuntzaren erabilpen soziala bultzatu behar da. **Joseba Zulaika**

fribolizazio *iz* fribolizatzea.

Zain anarkiko horrek badituela bere gaitzak eta makurrak ere, hala nola estetizismoaren arriskua, **fribolizaziorako** joera, antolamendurako hozkia, eta ekintzarako antzutasuna. **Xabier Mendiguren Elizegi**

fribolo 1 *izond* pertsoneri buruz, sakontasun edo seriotasun gutxikoa.

Urte batzuk lehenago Donostian ezagutu nuen Louise hark ezer gutxi zeukan ikustekorik nire alboan ijirijika zegoen emakume **fribolo** harekin. **Hasier Etxeberria**

2 gauzez mintzatuz, hutsala, arina, mamigabea. -

Friboloa da nire gorrotoa -esan nuen, hantxe bertan hiltzeko gogoz, Bevanen hortzei begira. **Koro Navarro**
Liburuak etxeak kezetasunetik babesteko oso sistema egokia zirela esan nuen txantxetan, baina esan orduko damutu nintzen mihi-kolpe **fribolo** hartaz. **Harkaitz Cano**
Keinu jostalari- **fribolo** honekin. **Karlos Linazasoro**

3 ikuskariez eta kidekoez mintzatuz, arina eta sentsuala.

Dantza sakratu dionisiakoa da hori noski, ez dantza **friboloa** . **Joxe Azurmendi**

frigiar *izlag/iz* Frigiakoa, Frigiari dagokiona; Frigiako herritarra.

Adarrek hots erlatsez mehatxu dagite eta flauta hutsak **frigiar** erritmoz xaxatzen ditu gogoak. **Xabier Amuriza**
 Frigiar andanen artean. **Xabier Amuriza**
Tindarideren ederrak inoiz ez zuen Alexander **frigiararen** paparra maitasun sutsuz beteko. **Xabier Amuriza**
 Frigiarrek, aldiz, leku ordeketan eta zuhaitzik gabeko parajeetan bizi direnez, ez dute egurrik izaten. **Santiago Iruretagoiena**

frigido *izond* sexu plazerrarekiko hotza.

Emakumea **frigidoa** bada, gizonaren errua da. **Berria - Harian**
Ez dago emakume **frigidorik,** baizik eta gizon traketsak. **Luis Elberdin**
Horregatik guztiagatik frantziar eta europar asko **frigidoak** dira egun. **Berria - Harian**
Masajeen bitartean isilik egon nahi ez zuen horietakoa zen, **frigido** esango genukeen horietakoa, alegia. **Joxan Elosegi**
Asperkeria **frigidoa** zein eldarnio paranoidea. **Xabier Mendiguren Elizegi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

emakume frigidorik (5)

frigidotasun iz frigidoa denaren nolakotasuna.

Halaber, sintoma bat aurkitu du berarengan: **frigidotasuna**. **Luis Elberdin**

Frigidotasuna leporatuta abandonatuko duten beldurrez. **Luis Elberdin**

frigo iz frigorifikoa.

Komuna bezala, sukaldea eta **frigoa** Alexandra eta Philekin konpartitu beharko genituzke. **Harkaitz Cano**

Orain arte nork bere ohe zaharra ala **frigoa**, zikin unti bazterretan uzten zuen. **Herria**

Bizitzan lehenbizikoz igo da aszensore batean, apartamentu batean sartu da, **frigo** batetik ateratako janaria jan du... **Pablo Sastre**

frigorifikoko 1 iz hozkailua.

Ez jaitsi: **frigorifikoa** badago ogi puxka bat. **Pablo Sastre**

"Zure baimenarekin" esan du, eta nik baimena zertarako zen ulertu aurretik ireki du **frigorifikoa** garagardo lata bat hartzeko. **Harkaitz Cano**

Erantzungailuko bere ahotsaren eta hark **frigorifikoa** uzten zizkion post-it-en bidezkoa zen haien ezagutza guztia. **Harkaitz Cano**

Pasabidean, hotz-ikarak ukan zituen Mikelek: aire girotua **frigorifikoa** zen. **Ramuntxo Etxeberri**

• 2 izond artifizialki hotza zortzen duena.

Kamara **frigorifikoa** zilarrezatu eta aseptikoak han eta hemen, haragi fresko eta hilberria ezkutatu. **Harkaitz Cano**

frijiki iz frijituriko jakia.

Gogoz asko hartuko zuen eltze erdizka bat; zahagiek, hurren, gogoa piztu zioten; eta, azkenik, zartaginetako **frijikiak**. **Patxi Ezkiaga**

Zartagitako **frijikiak**: txurroak, seguruenik. **Patxi Ezkiaga**

frijitu (ETCn 2.177 agerraldi; orobat prejitu ETCn 21 agerraldi, eta frejitu 7 agerraldi), friji, frijitzen 1 du ad dirakien olio edo koipetan (janari bat) egosi.

Biok jaikitzen ginen arrautzak **frijitzeko**. **Joseba Sarrionandia**

Arrautze batzuk **frijitu** nizkion eta kafe pixka bat berotu nuen. **Fernando Rey**

Oliotan ondo **frijitu** lehendabizi. **Hasier Etxeberria**

Patatak zuritu eta zatitu, tipularekin **frijitu**, arrautzak irabiatu, [...]. **Sonia Gonzalez**

Alberjiniak, irin-arrautzetan bildu eta binaka **frijituak**. **Juan Kruz Igerabide**

Irinetan **frijitutako** perkak. **Anton Garikano**

Legatz xerra batzuk oliotan **frijituak**. **Koldo Izagirre**

Hirugiharra **frijitutako** oliotan. **Pablo Sastre**

Frijitzearen soinua orkestra sinfoniko baten melodia bezain goxoki iragaiten zen beharrietatik. **Eneko Bidegain**

2 (era burutua izenondo gisa)

Bi sosen patata **frijituak** eta eskutada bat errefau. **Karlos Zabala**

Aspaldi zuen jana bere patata **frijituzko** zorroa. **Josu Zabaleta**

Arroz zuriaren gainean arrautza **frijitu** bana jartzen genuen platerean. **Joseba Sarrionandia**

Mahai gainean zeukan tomate **frijitu** potea. **Unai Iturriaga**

Jantokian jarraituko zuten arrautzak maionesarekin eta muskuilu **frijituak** jaten, koipetan ezpainak. **Bernardo Atxaga**

Zerri puska **frijituak** eskatu zituen. **Jon Muñoz**

Plater baten erdian tomatetan jarritako gibel zati **frijitu** bat. **Hasier Etxeberria**

Arto **frijitua** tipula berrieekin eta gurinarekin. **Anton Garikano**

Jaten ziren goxoki bakarrak, mahaian betiere, zera **frijitu** batzuk ziren, "smarren" izenekoak. **Fernando Rey**

Etxekoandreak olio **frijituaren** usaina zuen. **Anjel Lertxundi**

3 (era burutua izen gisa)

Saget andereñoak, aldiz, **frijitu** hotz sorta bat usaindu zuen. **Karlos Zabala**

Frijitu hotzak saskiaren barrura amildu ziren. **Karlos Zabala**

Frijituak egiten saiatua nintzen, kotoi hidrofiloa labe elektriko baten xaflaren kontra zapalduz edukiz. **Juan Garzia**

Frijitu usaina dago, eta leihoa ireki duzu. **Lander Garro**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arrautza frijitu (7); **arrautza frijituak** (19); **arrautzak frijitzen** (3); **eta patata frijituak** (7); **frijitu bat** (3); **frijitu eta** (7); **frijitu pare bat** (3); **frijituak eta** (8); **frijituak jateko** (3); **frijituak jaten** (6); **frijituaren usain** (3); **frijitzen ari** (5); **frijitzen hasi zen** (3); **olio frijituaren** (6); **olio frijituaren usaina** (4); **patata frijitu** (14); **patata frijitu eta** (3); **patata frijitu poltsa** (3); **patata frijituak** (26); **patata frijituak eta** (5); **patata frijituakin** (4); **patata frijituaren** (3); **txibierro frijituak** (5)

frijitura iz gauza frijitua.

Egoketen lurrinak eta usain sinesgaitzenak sortzen ziren han, harik eta kirats bat bakarra, nabarmena, deskriba ezina eta trinkoa osatzen zen arte: erietxe, izerdi, **frijitura**, aza, zopa galduen usain mindu melenga bat. **Anjel Lertxundi**

frijitzaile iz frijitzen duen pertsona.

Grande-Truanderie kaleko **frijitzaile** batek bi sosen patata frijituak saldu zizkion zorrean. **Karlos Zabala**

Lapurreta horiek guztiak gorabehera, zorren kontuak izugarri handitzen ari ziren Grande-Truanderie kaleko **frijitzailearenean**. **Karlos Zabala**

frijitze *iz* dirakien olio edo koipetan (janari bat) egostea.

Ramos Calvok ez zuen **frijitze** konturik famatu. Berria - Euskal Herria

frijol (*orobat frijole*) *iz* babarruna, indaba.

Arroz zuria, **frijol** beltzak, haragi xehatuak eta zerri puska frijituak eskatu zituen. Jon Muñoz

Urteetan **frijoleen** dietara ohitutako nire urdailak benetan zeukan asentatu beharra. Xabier Mendiguren Elizegi

Txokolatea ekarri zietenean txokolatea hurrupatzen, besterik ez zitzaien entzun, eta artopilak mauka-mauka jaten **frijoleak** inguratu zizkietenean. Juan Garzia

frikari *izond/iz* kontsonantez mintzatuz, igurzkarria.

Nola bete daitekeen hainbeste folio hegoaldeko goi nafarreraren kontsonante **frikariei** buruz! Jokin Muñoz

Igurzkari edo **frikariak**. Lourdes Oñederra

Areago, noraino iristen da ahosuntasuna? zeren s bezalako **frikari** batzuek silaba osa baitezakete, *pst*-en adibidez. Isabel Arrigain

Herskari edo **frikari** +likiko multzo baten aurrean. Isabel Arrigain

Ez da **frikari** sabaikari bigunarekin nahasi behar. Isabel Arrigain

frikeatu, frikea, frikeatzen du *ad*

Mexiko ezagutzen ez baduzue, **frikeatu** egingo duzue. Patxi Zubizarreta

Frikeatu nahi baduzu, igo gora. Patxi Zubizarreta

frikun *izond* barrabasa, bihurria. ik kokin.

Ez naiz litxar bat, ezta **frikun** bat ere, eta ikuskizunen zalea nauzue. Egia da ere Sarko-ri egin zaion galdea zorrotza zela eta frango **frikuna**. Juan Garzia

Bere morroiei eta laborariei baldres, frikun, **mandil**, malmutz deitzen zien, Kixoteren gisako hitz horiek erabiltzeagatik besterik gabe. Josu Zabaleta

frikunkeria *iz* barrabaskerian bihurrikaria. ik kokinkeria.

Nire haur denboran sumendi bat bezain sutua nintzelako eta **frikunkeria** asko egiten nuelako. **Frikunkeria** galanta da bekadun prety baten atzetik teenager baten pare ibiltzea. Patxi Zubizarreta

frikzio *iz* igurztea, igurtzia; marruskadura.

Horretarako konbustioa [...] eta **frikzio** gutxitzea lantzen dira. Berria - Kirola

frisatu *izond* kizkurtua.

Eman nuen denbora alabaina, bilo **frisatu** berriez harro zegoen emaztea. Itxaro Borda

Frank Zapparen kalpar **frisatua**. Aingeru Epaltza

frisiar *izlag/iz* Frisiakoa, Frisiari dagokiona; Frisiako herritarra.

Frisiarrak Karlos Martelek eta Pepinek menderatu zituztenez, haien legea ez da printze horiek baino lehenagokoa. Iñaki Iñurrieta

Frisiarren legeak sos erdia besterik ez dio ematen kalte-ordainetan makilakadak jaso dituenari. Iñaki Iñurrieta

Zaldiz borrokatzeko frankoen antzea **frisiarren** itsasketa-antzea bezain ongi ikasia baitzuten. Iñaki Mendiguren

frisiera *iz* Frisiako hizkuntza.

Hiztun asko duen hizkuntza da **frisiera**, baina euskarak baino babes instituzional txikiagoa du. **Frisiera**, nederlandera eta ingelesa **Frisian**. Berria - Euskal Herria

friso 1 *iz* paretan goialdean edo behealdean ezartzen den zerrenda apaingarria.

Pentsakor gelditu da, hormako **friso** lorehunak osatutako hodeiertzari begira. Eider Rodriguez

2 eraikuntza klasikoetan, arkitrabearen eta erlaitzaren arteko zerrenda, eskuarki zizelkatua.

Pergamoko aldarearen **frisoak** 2.200 urte ditu. Berria - Kultura

Arkitrabearen gainean doan **frisoak** ere arkitrabeak berak baino laurden bat txikiagoa izan behar du. Santiago Iruretagoiena

Arkitrabeak, **frisoak** eta erlaitzak kolomen proportzioen arabera egingo dira. Santiago Iruretagoiena

Beste batzuetan, ordena joniarrari jarraituz, **frisoak** erliebeekin apainduta azal ditzake, dentikulu eta erlaitzekin konbinatuta. Santiago Iruretagoiena

frits ik fits.

friulano *iz* friulera.

Hiru hizkuntza hitz egiten dira eremu horretan; italiara, esloveniera eta **friulanoa**. Berria - Euskal Herria

-Jo eta bertan garbitu, heu! -egin zion garrasi **friulanoz** Jacuk. Josu Zabaleta

friulera (orobat friulera) iz Triulero hizkuntza. ik friulano.

Taldearen ezaugarriak nabarmenena, bertako kide diren idazle triestetarren sormen-hizkuntzen ugaritasuna: italiara, serbokroaziera, alemana, gaztelera, **friulera**, esloveniera, ingelesa, frantsesa eta orain gogoan ez dudana bederatzigarren bat. **Anjel Lertxundi**

Ikasle garaietan hasi zen idazten, lehendabizi **friulieraz**. **Josu Zabaleta**

Obra hau hogoi hizkuntzetan aurki daitaie beraz gaur, eta gerorat, errumaniarrez, hindiz eta Italiako **friulieraz** ere plazaratua beharra omen da. **Herria**

froga (2593 agerraldi, 216 liburu eta 758 artikulutan; ETCn 27.932 agerraldi) 1 iz zerbait egia dela finkatzeko edo egiaztatzeko balio duen zera. ik **demostrazio**.

Zeren, ikusten duzunez, neure hutsegite guztiak erratan baitzizkit, horra biziki maite nauelako **froga**. **Jon Muñoz**

Hauxe da esaten didaten hori gezurra delako **froga**. **Koldo Izagirre**

Baina hori da, hain zuzen, dena ezustean gertatu delako **froga**. **Isabel Arrigain**

Gorde ezazu papertxo hau, etorkizunean historiak eduki dezan krimen honen **froga**. **Koldo Izagirre**

Bi dekretu-sailak [...] Elizak Estatuan duen eraginaren **froga** dira. **Iñaki Mendiguren**

Badakit sentikorra dela; bikaina du bihotza eta haren amodioaren mila **froga** ditut. **Jon Muñoz**

Nire nagusigoaren bertze **froga** bat da. **Jon Muñoz**

Hura dugu **froga** ederra, euskaldun guztiak ez daudela oraindik ustelduta. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Zer **froga** ditun hori esateko? **Patxi Iturrigitegi**

Oraindik ez duzue **froga** bakar bat ere, oraindik ez dakizue erruduna ala errugabea den. **Juan Martin Elexpuru**

Zientzia **frogaz froga** erdiesten eta eskuratzen den ohitura da. **Joan Mari Irigoien**

Gizakiek **froga** egitea baino ez zen falta eta, mendeetako zientzia-tradizioari jarraiki. **Iban Zaldua**

Athleticek aurkeztutako **froga** guztiak atzera bota ditu epaileak. **Berria - Kirola**

2 (testuinguru teknikoetan)

Froga saiatu aurretik. **Ibon Uribarri**

Ea nondik hartu nahi diren **froga** eraikitzeke erabili nahi diren oinarri-esakuneak. **Ibon Uribarri**

Teorema baten **froga** formulen segida finitu bat baino ez da. **Askoren artean**

Krimenaren **froga** ezabatzearen. **Koldo Izagirre**

Alegatzea ez da frogatzea: izate eta aiurri bateraezintasuna ez da **froga** zehatz eta legezko baten objektua izan. **Andres Urrutia**

Frogak euren artean independenteak direnean, aztarnak bere baitatik at frogatzen direnean, alegia, zenbat eta **froga** gehiago ekarri, orduan eta handiagoa da gertaeraren probabilitatea, **froga** bat faltsua izateak ez dakarrelako besteak ere izatea. **Juan Martin Elexpuru**

Esan behar da, erruztatu batek **froga** akasduen baten aurkako garbitasun egokirik ematen ez duenean, **froga** hau akasgabe bihurtzen dela. **Juan Martin Elexpuru**

Badira semantikagabeak diren bikoteen **froga** bezalako eragiketazko azterbide nahiko zuzenak bereizkuntza fonemikoa erabakitzeko. **Itziar Laka**

2 (testuinguru teknikoetan, izenondoekin edo izenlagunekin)

Froga egiaztatueta oinarriturik. **Juan Garzia**

Merkatari hugonote hau gurplean hil zuten bere semea erailtzearan akusaziopean, inolako **froga** sinesgarririk gabe. **Juan Martin Elexpuru**

Zientzia ez da objektiboa eta sinesmenetan oinarritzen da, ez **froga** enpirikoetan. **Pello Salaburu**

Froga positiboa eskatzen zuen, **froga** negatiboa aski zelarik. **Iñaki Iñurrieta**

Froga apodiktikoari soilik dei dakioko demostrazioa, **froga** hau intuitiboa den heinean. **Ibon Uribarri**

Lehen **froga** fisiko-teologikoa da, bigarren, kosmologikoa, hirugarrena, **froga** ontologikoa da. **Ibon Uribarri**

Beren errealtatearen **froga** gogobetegarria. **Ibon Uribarri**

Dokumentuzko **froga** ugari. **Iñaki Mendiguren**

Ezin **ukatuzko** froga. **Piarres Xarriton**

Lekukoaren bitarteko **froga**. **Andres Urrutia**

Baina idatziz jarritako ahozko **froga** batek ahozko **froga** izaten dirau. **Iñaki Iñurrieta**

Borroka bidezko **froga** eta burdina goriaren eta ur irakinaren **froga** erabiltzen ziren gorabeheretan, hain zetozen bat legeak ohiturekin, non legeak ez baitzuten bidegabe askorik egin, nahiz berez bidegabeak izan. **Iñaki Iñurrieta**

3 (hitz elkarteetan lehen osagai gisa)

Ondoren ikusiko dut ea osagarri enpirikoak zer egin dezakeen bere **froga**-indarra areagotzearen. **Ibon Uribarri**

Badira, beste askoren artean, dozenaka analisi, zein bere **froga**-baliokoak, halako edo bestelako margolana proportzio geometriko sinplez egina dela frogatu nahikoak.

Josu Zabaleta

Zenbat eta froga gehiago ekarri, orduan eta txikiagoa da gertaeraren probabilitatea, **froga**-aurrekariak falta diren kasuetan, ondorenkariak ere faltako direlako. **Juan Martin Elexpuru**

Hala ere, azken ohar hau gure teoria estetikoaren azalpen gisa baino ez da hartu behar, ez **froga**-oinarri gisa. **Ibon Uribarri**

Jainkoaren izatearen hiru **froga**-era. **Ibon Uribarri**

Ez dago **froga**-izpirik ere Blackek dioena egia dela esateko, zuen hitza izan ezik. **Iñaki Mendiguren**

· zond Ez zen sekulan maitasun **froga** emaile trebea izan. **Elena Touyarou**

4 (hitz elkarteetan bigarren osagai gisa)

Gainditu, gainditu genuen heldutasun **froga** hori, baina gure heldutasuna irudikeria hutsa baino ez zen artean. **Joxerra Garzia**

Erruduntasun **froga** garbiak egon arren. **Juan Martin Elexpuru**

5 proba.

Ba ote zeukan Jaunak modurik **froga** gogorragoan jartzeko, era biziagoan erasotzeko eta estutzeko? **Joan Mari Lekuona**

Froga eta ebakuntza askoren ondoren, oso eritasun bitxia zuela komunikatu zioten medikuek. **Iban Zaldua**

Gainditu baituk errege Favilak ere ezin gainditu izan zuen **froga**! **Joan Mari Irigoien**

Taldekide-txartela behar zen, eta txartela lortzeko **froga** bat edo beste gainditu beharra. **Joxerra Garzia**

Eta horregatik diot, lehenengo hilabetean **froga** epe bat izango duzula. **Unai Iturriaga**

Batetik, sarrera frogak egin behar dituzte, eta **froga** horiek unibertsitate publikoek antolatzen dituzte. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

6 froga-harri (orobat frogarri) (zerbaiten) egiazkotasuna frogatzeko balio duen gauza.

Froga harriak urrea ezagutarazten duen bezala, halaber, adierazpenak adimena. **Askoren artean**

Non **froga**-harria erlijioen historian zibilizazioen kolapsoek eta desintegrazioek jokaturiko papera izan baitzen. **Iñaki Mendiguren**

Hau oinarrian datzanean baino ez dugu izango sail honetako lan zahar eta berrien eduki filosofikoa balioztatzeko **frogarri** segurua. **Ibon Uribarri**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

apatutako froga (4); aldeko froga (4); aski froga (4); aurkako froga (12); aurkeztutako froga (6); azken froga (10); baina froga (5); baino froga (4); bat froga (7); baten froga (10); benetakako froga (7); bere froga (6); bertze froga (5); beste froga (15); beste froga bat (10); bidezko froga (10); borroka bidezko froga (6); buruzko froga (4);

da froga (16); da horren froga (8); dago froga (6); dela froga (6); delako froga (8); den froga (10); dira froga (5); direlako froga (5); diren froga (6); ditu froga (4); dituen froga (4); du froga (12); duen froga (12); dute froga (6); duten froga (5); duzue froga (4); edo froga (6); entzumen froga (4); ere froga (7); esateko froga (5); eta froga (53); eta froga gisa (4); eta froga horiek (4); eta horren froga (14); existenziaren froga (4); ez da froga (4); ez dago froga (4); ezain froga (4); ezin froga (5) froga argi (6); froga argia (7); froga argirik (4); froga aski (6); froga asko (8); froga bakar (6); froga bakar bat (4); froga bakarra (19); froga bakarrak (6); froga bat (61); froga bat da (5); froga bat dela (4); froga baten (7); froga batzuk (7); froga behar (4); froga berriak (5); froga bezala (10); froga da (34); froga daiteke (21); froga daitekeen (9); froga dela (8); froga dezake (4); froga dezaten (4); froga dira (9); froga direla (4); froga egin (12); froga egitea (4); froga egiteko (4); froga eman (4); froga era (7); froga ere (7); froga eta (22); froga ez (14); froga ezazu (6); froga ezin (4); froga fisiko (10); froga gainditu (8); froga garbia (8); froga garbiak (5); froga garbirik (4); froga gehiago (16); froga gisa (72); froga gisa erabili (4); froga gutxi (5); froga guztiak (12); froga haiek (5); froga hau (11); froga honek (7); froga hori (22); froga horiek (26); froga horien (8); froga horrek (5); froga ieza dazu (4); froga izan (7); froga izango (10); froga moduan (12); froga mota (4); froga nabarmena (4); froga nagusia (4); froga nahi (4); froga nahikorik (15); froga nahikorik ez (10); froga negatiboak (9); froga oinarri (10); froga oinarria (7); froga oinarrien (7); froga ontologikoa (6); froga sendorik (6); froga sinesgarriak (5); froga zehatzik (4) guztiaren froga (4); hainbat froga (16); haren froga (5); hartzaeren froga (4); heldutasun froga (4); hemen froga (6); hona hemen froga (4); honen froga (6); hori froga (7); horien froga (4); horren froga argia (4); horren froga da (12); horren froga gisa (6); horretarako froga (4); idatzizko froga (4); izatearen froga (9); jainkoaren izatearen froga (4); kontrako froga (11); lehen froga (6); nahiko froga (5); nahikoa froga (10); nola froga (7); onartzen froga (5); soilik froga (4); zein froga (6); zelako froga (6); zen froga (8); zer froga (4); zuelako froga (4); zuen froga (9) adn frogak (5); aurkako frogak (6); aurkeztutako frogak (6); baten frogak (4); bere frogak (5); dira frogak (4); ditu frogak (4); duten frogak (7); eta frogak (33); frogak aurkezteko (8); frogak aurkeztu (7); frogak aurkitu (6); frogak behar (7); frogak biltzen (4); frogak dituela (4); frogak egin (17); frogak egiten (14); frogak egiten ari (6); frogak eman (4); frogak ere (13); frogak eskatu (5); frogak eta (12); frogak ez (12); frogak ezkatuta (5); frogak manipulatu (4); horren frogak (7); kontrako frogak (5); lehen frogak (4) frogaren arabera (4); frogaren bat (7); frogaren bidez (6); frogaren bitartez (4) aurkako frogarik (6); batere frogarik (5); beste frogarik (11); bestelako frogarik (5); dago frogarik (7); deus frogarik (10); deus frogarik gabe (4); dituen frogarik (6); duen frogarik (5); esateko frogarik (4); eta frogarik (6); ez dago frogarik (7); frogarik aurkeztu (9); frogarik aurkitu (5); frogarik behar (10); frogarik behar ez (4); frogarik eman (7); frogarik eta (6); frogarik ez (70); frogarik ez dagoela (11); frogarik ez duela (5); frogarik ez zegoela (7); frogarik ez zegoela (5); frogarik gabe (57); frogarik gabeko (7); frogarik hobereena (4); horren frogarik (16); horren frogarik ez (4); inolako frogarik (24); inolako frogarik gabe (10); inongo frogarik (15); inongo frogarik gabe (6); izanaren frogarik (4); kontrako frogarik (4); moduko frogarik (4) frogatzat hartu (6); frogatzat jo (5); horren frogatzat (10)

frogabide ^(31 agerraldi, 14 liburutan; ETCn 579 agerraldi) iz (zerbait) frogatzeko bidea; froga.

Baina aurreko **frogabide** historiko hori [...] gerragintza atomikoak izandako garapenaren eta honen eragin psikologikoaren argitan aztertu behar da. **Iñaki Mendiguren** Ez noski pentsatzen dudalako aita maite ez zenuenik, baizik eta, jakinik denboratik sortua dela maitasuna, ikusia naizelako, **frogabide** askoren argitan, nola duen denborak haren su eta garra motelitzen. **Juan Garzia**

Liburutegiaren katalogo doia, milaka eta milaka katalogo gezurrezkoak, katalogo horien faltsutasunaren **frogabidea**, benetako katalogoaren faltsutasunaren **frogabidea**, Basilidesen ebanjelio gnostikoa, [...]. **Juan Garzia**

Bere ustearen **frogabide** gisa aurkezten du, konfiantzaz, gertaera hau: isatsa duten animaliek ez dutela arimarik. **Xabier Olarra**

Bere kastiitatea **frogabidean** jartzearren, emakume burges bati erregutu zion bere alaba gogatzeko beraren ondoan biluzgorriak ohera zedin. **Juan Garzia**

Iduritzen zait hori ez dela sentimenduzko egia bat baizik, eta ez **frogabidezkoa**; eta egia hori orobat, bihotza hunkituz behar dela sinetsarazi eta ez arrazoiak baliatuz. **Jon Muñoz**

frogaezin *izond* ezin frogatuzkoa.

Frogaezinak diren axiometatik. **Xabier Arregi**

Beraz, arimaren iraunkortasunak, barneko sentsuaren objektu soila den aldetik, frogarik gabe dirau, eta **frogaezina** ere bada, nahiz eta bere iraunkortasuna bizitzan berez argia izan. **Ibon Uribarri**

Zeure burua engainatzen ez baduzu frogatuak ez diren gaietan **frogaezina** frogatua duzula sinetsiz. **Xabier Kintana**

frogagaitz *izond* ia frogaezina.

Berak ezagutzen duen kausalitateetik berak ezagutzen ez dituen argiketa oinarri ilun eta **frogagaitzetara** igaro nahiko balu. **Ibon Uribarri**

frogagarri *(orobat probagarri g.er.) 1 izond* froga daitekeena.

Arlo teoriko modernoan, gustukoa duguna ez dela sistema **frogagarriak** asmatzea, baizik eta aukerak irekitzen dituzten diziplinak asmatzea. **Xabier Arregi**

Delituen eta zigorren eskala unibertsal bat balego, tirania -eta askatasun-mailak neurtzeko modu **frogagarri** eta komun bat izango genuke. **Juan Martín Elexpuru**

Baina definizio "formal" hau interesgarriagoa, **frogagarriagoa** da inondik ere. **Josu Zabaleta**

Esakune apodiktiko guztiak (**frogagarriak** zein zuzenki ziurrak direnak) dogmetan eta matematan sailkatzen ditut. **Ibon Uribarri**

Delituen eta zigorren eskala unibertsal bat balego, tirania-eta askatasun-mailak neurtzeko modu **frogagarri** eta komun bat izango genuke. **Juan Martín Elexpuru**

Alderdi politikoen jarduerak eta jarrerak egiaztatzeko osagai **frogagarri** egokiak. **Berria - Euskal Herria**

• 2 (-en atzizkiaren eskuinean izen gisa)

Hona hemen adibide bat, esandakoaren **frogagarri**. Arrakasta ordea ez da beti izaten merezimenduaren **frogagarri**. **Jon Muñoz**

Kristina aipatu ere ez Ttipik, nire susmoen **frogagarri**. **Aingeru Epaltza**

Uste horren usteltasunaren **frogagarri**, hona, beste askoren artean, Damaso Inzak Nafarroan jasotako bi esaera [...]. **Iñaki Segurola**

Horra Merteuil andreakin duen jokabidea nire hitzen **frogagarri**. **Jon Muñoz**

Baiespenaren inolako **frogagarriak** azaldu gabe. **Joxe Azurmendi**

3 iz frogatzen duen gauza.

Nietzsche filologo trebea zen, halere arlo honetako bere etimologiek ez dute jeneralean gehiegi balio: hitzak maiz bortxatu egin ditu, bere tesien **probagarri** bila. **Joxe Azurmendi**

frogagarritasun iz frogagarria denaren nolakotasuna.

"Diziplina" baderitzegu euren antolaera eredu zientifikoetatik mailegatu dituzten enuntziatu-multzoei, koherentziarako, **frogagarritasunerako** joera dutenei [...]. **Xabier Arregi**

frogagiri iz sinestamendua.

Hona gure **frogagiriak**, kantzelaritzaz ingelesak eta frantsesak emanak. **Karlos Zabala**

Frogagiria idatzi eta sinatu nuen, eta bera joan zenean libreta jaso nuen. **Xabier Olarra**

Bozketa **frogagiriak** emaitzen aktekin alderatuko dituzte. **Berria - Mundua**

frogaketa (7 agerraldi, 5 liburu eta artikulu 1ean; ETCn 62 agerraldi) iz froga.

Testu-liburuko **frogaketa** matematikoak oker zeudela. Bernardo Atxaga

Hizkuntzalaritza estatikoan, zientzia gehienetan bezala, ez dago **frogaketa** bat egiterik, datuak egiunez sinplifikatzen ez badira. Isabel Arrigain

frogakizun iz froga.

Jainkoa tentaldi beldurgarriekin baitator, **frogakizun** izugarri, neurritz kanpoko eta pentsaezinekin, jasaten dituenak bakarrik ezagutzen dituen eta ezagut ditzakeen **frogakizunekin**. Joan Mari Lekuona

frogaldi iz zenbait epaiketatako fasea.

Javi Ericce prozedura judizialaren berri eman zuen, errekurtsioa gaur egun **frogaldi** denboraldian dagoela azalduz. Berria - Euskal Herria

frogantza (10 agerraldi, 7 liburutan; ETCn 62 agerraldi) iz froga.

Berezko ideien doktrina filosofiaren federik miresgarrienetako bat da, bera ere berezko ideia baita, eta horrenbestez kontrako **frogantzarik** onartzen ez duena. Xabier Olarra

Adio, bizkonde; nire aharrak, nire maltzurkeriak eta nire liskarrak gorabehera, betiere anitz zaitut maite, eta nire maitasunaren **frogantza** zuri egiteko ari naiz prestatzen. Jon Muñoz

Zureak badu erremediorik, eta berehala emanen dizut horren **frogantza**. Joan Mari Irigoien

frogapen (13 agerraldi, 3 liburutan; ETCn 289 agerraldi) iz froga.

Ager ditzagun gure **frogapenaren** etapa guztiak, eta bil ditzagun Sarreran ezarritako hatspenak: [...]. Isabel Arrigain

Ez dute balantzea egiten ordutik aurrera frogatu ahal izan denari buruz, behin betiko eskuratutako ezagupenaren estatusa hartu duenari buruz, frogarik gabe eta nahikoa **frogapenik** gabe onartu denari buruz. Xabier Arregi

Frogapen batean dagoeneko onartutako proposizioak. Xabier Arregi

Frogapen baten arkitektura. Xabier Arregi

frogarazi, frogaraz, frogarazten du ad frogatzera behartu.

Denborak aurrera egin ahala, ordea, Norberaren Kondaira gauzatzea ezinezkoa dela **frogarazten** ahalegintzen da halako indar misteriotsu bat. Xabier Aranburu

Indian ez ezik, mundu guztian itzal handia diote Gandhiri, indarkeriarik gabe goi helburuak irits daitezkeela **frogarazi** zuelako. Gotzon Garate

Lehenik haren ideiak banaka har itzazu, / kontrakoa berarixe **frogaraz** izeaiozu, / bere ideiak hankapetik kenduko baititzkizu. Xabier Olarra

frogarri ik froga 6.

frogatu (ETCn 30.651 agerraldi; orobat **frogatu g.er.**, **borogatu g.er.** eta **porogatu ETCn 29 agerraldi**), froga(tu), frogatzen 1 du ad froga bidez (zerbait) egiatzat edo ziurtzat agerrarazi edo ezagutarazi; (zerbait beste zerbaiten) froga gertatu. ik **demonstratu**.

Euskaraz zertxobait idatzi duenak badaki, probatua eta **frogatua** baitu, zer esan nahi duen hizkuntza besoz eta zangoz katigatua egoteak. Patxi Altuna

Erraz froga daitekeenez. Iñaki Iñurrieta

Eta halaxe da, zoritxarrez, baina nola **froga** daiteke hori? Koro Navarro

-Badakit hori, baina ezin dugu **frogatu** -erantzun zion Woodek garratz. Iñaki Mendiguren

Besterik **frogatu** arte, behinik behin. Anjel Lertxundi

Ustelkeria **frogatua** izan zelarik, bere kargua behar izan zuen utzi, eskandalua izigarria bihurtu baitzen. Ramuntxo Etxeberri

Diotena **frogatu** egin behar dute. Berria - Kirola

Azken buruan, nahi nion neure amodioa **frogatu**, ez ordea berea ase. Jon Muñoz

Zer maitasun dizudan, ongi dizut milatan **frogatua** jadanik; hala, bada, maitasuna nolako, halako dut beldurra orain nik. Juan Garzia

Nire baieztapena **frogatzeko** emango ditudan arrazoiak aztertzea dagokizula uste dut. Imanol Unzurrunzaga

Mota guztietako analisisiek **frogatzen** zutenez, ni nintzen haurraren aita. Joan Mari Irigoien

Egia hilezkorrak **frogatzen** du arimaren hilezkortasuna. Imanol Unzurrunzaga

Frogatzen zailak diren delituak. Juan Martin Elexpuru

Ematen du legeen eta epaileen interesa ez dela egia aurkitzea, delitua **frogatzea** baizik. Juan Martin Elexpuru

Alegatzea ez da **frogatzea**: izate eta aiurri bateraezintasuna ez da froga zehatz eta legeko baten objektua izan. Andres Urrutia

Ni erraiten ari natzaizuena matematikoki **frogatua** dago, eta nik ere **froga** diezazueket. Joan Mari Irigoien

Diodana zientifikoki **frogatua** dago. Joxerra Garzia

Hau geroago arrazoi ugari **frogatuko** dizut. Xabier Amuriza

Indukziozko arrazoinamendua justifikatuta dagoela baieztatzeko, hura aprioriko argudio baten bitartez **frogatu** beharko genuke. Askoren artean

Logikari horien arabera, kontzeptu matematiko oro oinarritzko kontzeptu logikoen bidez defini daiteke eta, beraz, posible litzateke teorema matematiko oro axioma logikoetatik **frogatzea**. Askoren artean

Gauza maitatuaren existentzia ezartzen duten gauzen irudiek (19. Proposizioan **frogatu** dugun bezala) laguntzen dute Izpiritua gauza hura bera irudikatze ahaleginean.

Piarres Xarriton

2 (esaldi konpletibo batez)

Eta mila bider eta mila moldez **frogatuko** dizut zu zarela, zu izanzen zarela betiko, nire bihotzeko egiazko erregina. Jon Muñoz

Seme nahiz aita gisa [...] porrota oraindik erabatekoa ez zela **frogatua** nion neure buruari. Aingeru Epaltza

Erantzunak deus ez aitortzeko erabaki irmoa hartua zuela **frogatzen** zuen. Karlos Zabala

Estaltzen zuten belarrek **frogatzen** zuten ez zela ohizko pasabidea. Elena Touyarou

Adibide batzuek **frogatuko** digute hala gertatzen dela. Isabel Arrigain

Denek dituztela sakelari euskara dakitela **frogatzen** duten agiriak. Pello Salaburu

Esperimentu askok **frogatu** dute esate baterako, ehundura gradientean baldintzetan baktarioragin gutxiagoa duela perspektibak baino. Josu Zabaleta

Mutante horiek, azkenik, **frogatzen** dute posible dela drosofilaren baitan enbrioaren garapena oinarritzen duen sistema genetikoa aztertzea. Juan Garzia

Argi **frogatu** zen ez zela izan, pentsatu zen bezala, axolagabekeriarik batere. Koro Navarro

Tomas Morok bere *Utopian* **frogatzen** du onuragarria dela emakumeak lizunkeriara emanak izatea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez litzateke zaila **frogatzen** ia edozer izan daitekeela edozeren metafora. Juan Garzia

Ez dago **frogatua** gure aho aparatua hitz egiteko egina dagoela, gure hankak ibiltzeko sortuak dauden bezalaxe. Isabel Arrigain

Halere, garbi **froga** daiteke benetan horrela izan behar duela, espazioa kanpoko sentsuen agerpenen forma huts gisa onartzen baldin bada. Ibon Uribarri

Azken gerraren bezperetan, biokimikoek **frogatu** zuten biziaren egiturak eta funtzioak bat direla formen aukera zabalaren gainetik. Juan Garzia

Hala, Wilbrandek eta Verreyk garunean kolorearen gune berezi bat proposatu ondoren, handik laurogeita hamar urtera, gune hori bazela **frogatu** zuen Zekik. Xabier Olarra

3 egiaztatu.

Bidea hutsik dagoela **frogatu** ondoren. Pello Lizarralde

Nire mugimendu bakarra, Potzokol arratsalde hasieran emandako paperak jakako poltsikoan zirauela **frogatzeko** izan zen. Aingeru Epaltza

Oraindik katabutarako ez nengoela **frogaturik**, manera prestuak bazter uzteko prest zirudien ene andreak. Aingeru Epaltza

Kartazalekoak atera dituen dozenaren bat esku programa eta bi argazki daudela **frogatu** du Maixabelek. Pello Lizarralde

Eskuak pasatzen ditut begietatik, **frogatzeko** ni neu naizela, esna nagoela, eta begiak neureak direla. Anjel Lertxundi

Eman zidan telefona egiaztakoa dela **frogatu** ahal izan dut, behintzat. Jon Arretxe

4 probatu.

Lehendabiziko aldian kostatzen da bakarrik; baina modu hori **frogatu** duen emakumeak ez du besterik nahi. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Pilak ongi ote zebiltzan **frogatu** ere nuen. Aingeru Epaltza

Thompson taxuko metrailadorea **frogatzen** ari dira, karelaren gainetik itsasora tiro eginez. Edorta Jimenez

5 (era burutua izen gisa)

Baina gauza **frogatua** da hala ere. Josu Zabaleta

Hitzontzikeriaren aurkako erremedio **frogatua**. Xabier Olarra

Zoritxarez, Euskaltzaindian ez daude barnean gauden zenbaitek [...] ditugun baino anitez ere meritu **frogatuagoak** dituztenak. Pello Salaburu

Baina argumentu indartsuagoak behar ditut hori pentsatzeaz gain horrek funts **frogatua** ere baduela onartzeko. Pello Salaburu

Epaia «gertaera **frogatuetan**» oinarritu zen eta auzibidea «berme guztiekin» egin zen. Berria - Euskal Herria

Neologismo bat edo beste erabiltzen badu ere, hitz eta erranmolde zuzen eta **frogatuak** aski zaizkio espresibitate handia lortzeko. Janbattitt Dirassar

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

Fuelik gabe gaudek, ala? Koldo Izagirre

Fuela ateratzeko anezka poltsak erabiliiko dituzte. Berria - Gaiak

Bizkaiko hondartzetako garbitzaileek **fuelak** zikindutako 390 kilo hondakin bildu zituzten atzo. Berria - Euskal Herria

Fuelaren bonban ez dakit zer konpondu behar duelako. Josu Landa

Uda eta negu erabiltzen zituen Bamba plaiarak **fuelean** zikintzeko beldurrik gabe. Koldo Izagirre

Hildako samalda bat ageri zen gero bazterretan, lupiak **fueletan** bezala. Koldo Izagirre

Fuel biltegien ondoko etxeakoandrea leiho guztiak zabaltzen ari zen. Koldo Izagirre

Baina okerragoa zen **fuel** depositoak bere hartan uztea, putzura isurita su eman gabe. Koldo Izagirre

2 fuel-oil fuel-olioa.

3.400 tona **fuel-oil** atera dituzte jadanik 'Prestige' ontzitik. **Fuel** -oil depositua tirokatuz.

Fuel -oilezko berogailu bat. Juan Kruz Igerabide

3 fuel-olio petroliotik eratorririko erregai likidoa.

Malaysiako ontziak isuritako erregaia **fuel** olio da. Berria - Gaiak

'Exxon Valdez' ontziak 40.000 tona **fuel-olio** isuri zituen Alaskako kostaldean. Hondoratu zen uanean 70.000 tona inguru **fuel-olio** zeramatzan. Berria - Gaiak

Itsas hondoan dagoen **fuel-olioak** muskuiluak eta txirlak pozoitu ditu. Berria - Gaiak

Depositoa **fuelolioz** betetzeko. Harkaitz Cano

Fuel-olioz lohitutako hondakinak dira horiek. Berria - Euskal Herria

Zenbait hondartzatan **fuel-olio** arrastoak ikus daitezke oraindik. Berria - Gaiak

Fuel-olio isuriaren erantzulea aurkitzeko. Berria - Gaiak

Fuel-olio orbanak agertu dira Landetan.

Fuel-olioa jaso arren hondakin toxikoak ez dira deuseztatuko. Berria - Gaiak

Zentral termiko berriak ikatzekoak edo **fuel**-oliokoak baino hobeak dira ingurumenarentzat. Berria - Euskal Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

edo fuel (3); **eta fuel** (4); **fuel oil** (3); **fuel olio** (11); **fuel olioa** (11); **fuel orbanak** (3); **fuela ateratzeko** (5); **fuela ateratzen** (3); **gelditzen den fuela** (5); **zen fuel** (4)

fuera 1 interj kanpora.

Eta **fuera** hemendik, oraintxe berean! Elena Touyarou

Esan dinat: **fuera**. Pablo Sastre

Fuera ilunbeak!, **fuera** negu luzean bildu hats zahar guziak. Herria

Borrokak eta halakoak ahaztu, **fuera**. Alberto Barandiaren

Zoro baten moduan **"fuera, fuera"** oihuka. Ramon Saizarbitoria

2 eta fuera eta kito.

Altxa, bi masaileko eman eta **fuera**. Pako Aristi

Istant bat duk; errepidea behin gurutzatu eta **fuera**! -jaulki dio buru gainean astintzen duen makilak aurreko mendia seinalatzen duen bitartean. Pello Lizarralde

3 fuera-futre modu txarrean.

Azterketa bat huts eginik, hemezortzi urtetan eskolak **fuera**-futre utzi zituen. Daniel Landart

Hobe nuen naski, denak **fuera**-futre utzirik, etxeko ohean sartzea. Daniel Landart

fueratu, fuera(tu), fueratzen du ad fuera bidali.

Oroitaz dezagun Napoleon-ek Espainiako errege izendatu zuela eta españoiek **fueratu** zituztela frantses soldaduak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Behar direla denak **fueratu**, bai arabeak bai beltzak bai eta ere alferrak. Herria

fuerte¹ 1 izond bortitza, azkarra; indartsua.

Hain bioleta usain **fuertea** zerion non iruditu zitzaidan zeluloidezko bioletak biziberritu zirela maiolikazko lorontzian. Matías Múgica

Eta gau batez txirrin-hots **fuerte** batek gu iratzarri eta hagitz izuturik jaiki ginen. Fernando Rey

Kolpe **fuerte** bat jo nion begian. Joseba Sarrionandia

Ziapezko bainu bat eta te **fuertea** prestatu zizkidan. Koro Navarro

Aitonak garagardo **fuertea** edan zuen, eta nik limonada. Koro Navarro
Masustardoa bera ere **fuerte** samarra da. Pello Zabala
Pattar **fuertearen** usaina. Alberto Barandiaren
Anisaren antzekoa da, **fuertexeagoa** akaso. Harkaitz Cano
Medikaziorik **fuerteena** jarri diote. Xabier Etxabe
Oso beltzarana zen, txikia, **fuerte** samarra. Iban Zaldua

2 (adizlagun gisa)

Mahai azpitik eskua estutu nion Lakatos jaunari, **fuerte** eta bihotzez. Matías Múgica
Izekok besoak eta hankak **fuerte** igurtzi behar izan zizkion. Alberto Barandiaren
Eta bihotza hasi zitzaidan **fuerte** taupaka pozez. Matías Múgica
Eguzkiak **fuerte** jotzen zuen hoteleko hallean. Matías Múgica
Bi gizonak **fuerte** kantatzen hasi baitziren. Pablo Sastre
Ezagutu nuen neska bat euskaltegian eta oso **fuerte** maitemindu nintzen. Javi Cillero
Haizea **fuerte** zebilela. Unai Elorriaga
Ez **fuerteegi** zapaldu, esan zuen Mikaelak, igual behera joango haiz eta. Pablo Sastre
Amezketako pilotaren egoeraz galdetuta: "Amezketak aspaldiko urteetan egon den **fuerteena** dago". Berria - Kirola

3 fuerte-fuerte

Hortzak **fuerte-fuerte** estutu nituen. Jesus Mari Mendizabal

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

fuerte bat (3); **fuerte estutu** (3); **fuerte samarra** (4); **fuertea zen** (3); **oso fuertea** (5)

fuerte² iz gotorlekua.

Aitak Konbentzio Gerraren garaiko **fuerte** bat zela aipatu zuen. Iban Zaldua
Sartu gara **fuerte** barrura eta gosaltzera goaz. Pako Aristi
Far Westeko **fuerte** batean bezala. Bernardo Atxaga
Texas aldeko ibai baten izena ere bazen, Fort Concho **fuerteari** izena ematen ziona bidenabar. Harkaitz Cano

fuga iz Kontrapuntuaren erregelaren arabera eratutako musika-forma aski landua.

Hainbat ahots, doinu bati jarraitu ondoren, kanon edo **fuga** batean elkar zitezkeela, eta, are gehiago, bera ere gai zen **fuga** simple bat taxutzeko. Xabier Olarra
Gatza Laukoteak Beethovenen **Fuga** Handia jo zuen. Felipe Juaristi
Candendok Bachen Preludioa eta **Fuga** Do minorrean BWV 546 eskaini zuen. Berria - Kultura

fughetta iz Fuga txikia, garapen bakunekoa.

Bachen **fughetta** lirain labur bat jo zuen lehendabizi, ariketa moduan ia. Anjel Lertxundi

fuksia 1 iz lorategi landarea, arrosa-koloreko lore biziak dituena.

Belaze pixka bat, amañi-liliak loretan, dorre pare bat lorez eginak, agian **fuksiak** edo pentsamenduak edo krabelinak Anton Garikano

• 2 izond/iz arrosa-kolore bizia.

Matisse-ren paperezko lauki koloreetakoak, berdea, urdina, **fuksia**, beltza, oihalean itsatsiak. Ramon Saizarbitoria
Uhin-luzerak kolorea definitzen du (urdina, gorria, laranja, zianoa, **fuksia**, horia...). Josu Zabaleta
Diegoren estatua argiztatu dituzte egunotan **fuksiaz!;** horrekin batera, **fuksia** beti nagusi izanik, zenbait denda ere argiztatu dituzte. Berria - Euskal Herria

fular 1 iz lepoko zapi luzarana, apaingarri erabiltzen dena.

Rita Hayworthen estilo **fular** bat ere bai lepo inguruan kiribilduta. Harkaitz Cano
Gogoan dut behin nola agertu zen, lepoan zetazko **fularra** zuela, muku betetako gelaren aurrean. Joxerra Garzia
Lepoko **fularra** erantzi, aulkiaren bizkarrekoan utzi, [...]. Pablo Sastre
Nik ez nion ikusten **fular** lorehunaren mutur bat besterik. Juan Kruz Igerabide

2 (burua estaltzeko erabilia)

Txadorra barik buruko **fular** hutsa janzen duten emakume gazteak. Jon Arretxe
Fular batez estaltzen du ilea, gure herrian emakumeek ohi duten gisan. Eskarne Mujika
Neskak aurpegia makillatuta eta buruaren erdia ozta-ozta estaltzen dieten **fularrak** jantzita. Jon Arretxe
Zer pentsatu behar dugu guk, alaba **fularrarekin** ateratzera obligatzen duten gurasoez? Joxe Azurmendi

fulardun izond fularra daramana.

Bestean andre **fulardun** bat, berdin antzera jokatuz. Jon Arretxe
Bizardunak eta **fulardunak** bitxikeria dira alderdi honetan. Jon Arretxe

fumarola iz sumendi gune bateko arrakala, gasak edo lurrinak jariatzen dituena.

Axelek **fumarolak** ikertu behar dituela esan dizunean, lagunduko diozula esan diozu. Joseba Sarrionandia

fumata iz Sixtina kaperako tximinia batetik ateratzen den kea, aita santuaren hautaketan bozketaren emaitza adierazten duena.

Era berean, Eliza katolikoko burua hautatu dutela adierazteko **fumata** bianca Sixtoren Kaperatik ke zuria ateratza eta kanpaiak erabiliko dira. **Berria - Harian**
Habemus legea, **fumata** ortzadarra. **Berria - Harian**

fumatu, fuma, fumatzen du *ad* erre.

Non zegok mutikoen **fumatzeko** zoko gordea? **Jesus Mari Mendizabal**

Beste bi talde lurrean erdi etzanda **fumatzen**, marihuana edo. **Bernardo Atxaga**

fumatzaile *iz* erretzailea.

[Apaizak] jale, edale eta **fumatzaile** amorratuak. **Patziku Perurena**

fumigatu, fumiga, fumigatzen du *ad* kearen edo lurrunaren bidez desinfektatu.

Etxea **fumigatzera** omen dator. **Harkaitz Cano**

Diruaz gain, otia **fumigatu** ahal izateko hegazkin bat eta 640.000 litro pestizida ere eskatu zituen Nekazaritza Ministerioak. **Berria - Gaiak**

Astebetetz jardun dute, esate baterako, Sokotoko lur sailak **fumigatzen**. **Berria - Gaiak**

Mauritanian, 6.029 hektarea **fumigatu** zituztela esan zuen. **Berria - Gaiak**

Hiriko agintariek eltxoak **fumigatzeko** kanpaina bat abiatu dute aste honetan. **Berria - Gaiak**

Ez darama ezer soinean, ezpada maskaratxo zuri bat musuan eta **fumigatzeko** tresnak eskuetan. **Javi Cillero**

fumigatzaile *iz* Fumigatzen duen pertsona.

Gure sagutxoaz oroitutako naiz eta pasatzeko esan diot, Tomek espreski **fumigatzaileei** ez sartzen uzteko esan zigun arren. **Harkaitz Cano**

Fumigatzaile frigorifikora joan da zuzenean. **Harkaitz Cano**

fumigazio *iz* fumigatzea.

Monsanto multinazionala, Kolonbian airez egiten dituzten **fumigazioak** egiteko produktu kimikoak sortzen dituen enpresa, alegia. **Edurne Elizondo**

funanbulista 1 *iz* soka ibiltzailea.

Biluzik zetorren, takoirik gabe, beraz, baina **funanbulistak** bezala ibiltzen jarraitzen zuela iruditu zitzaidan. **Joxean Agirre**

2 *irud*

Funanbulista da [bertsolaria], ia beti ia erorian. **Andoni Egaña**

Funanbulista galanta da Alan Greenspan. **Berria - Ekonomia**

funanbulo *iz* soka ibiltzailea.

Positibistak orain, filosofoak lehenago erlijioaz bezala, filosofoez burlatzen dira berak; alegia, oraino giza eskubide "naturaletan", Itun sozialean, etab., sinesten duten "des métaphysiciens attardés" **funanbuloez**. **Joxe Azurmendi**

funda *iz* zorroa. ik zorro 2.

Gitarra-joleak kontu handiz eta altxorrik preziatuena balitz bezala gorde zuen **funda** beltzean bere gitarra zahar eta merkea -gitarra beltza, noski-. **Sonia Gonzalez**

fund *izond* funtsezkoa.

Hori izan daiteke misiolari eta konbertitzaileen txit gustukoa; baina gizarte multikultural bati, bestearen hautu **fundamentalen** errespetuan bakarrik eutsi dakioko. **Joxe Azurmendi**

fundamentalismo *iz* erlijio baten testuen edo doktrina baten arauen interpretazio eta aplikazio hertsia eta zorrotzaren aldeko jokaera.

Izan ere, horixe da **fundamentalismoa**: historia une batean gelditu zela uste izatea, eta une hori etorkizun guztirako eredu bakar bihurtzea. **Bernardo Atxaga**

Era guztietako **fundamentalismoek**. **Anjel Lertxundi**

Erlijioaren aitzakiaz, **fundamentalismora** lerratzen diren nazionalismoak. **Piarres Xarriton**

Erlijioek filosofiari leku egiten dioten neurrian, hainbat eta hobeto aterako dira **fundamentalismoaren** arriskutik. **Askoren artean**

Filosofia dateke **fundamentalismoaren** aurkaririk handiena, eta hori oso egoki dator kio erlijioari. **Askoren artean**

Arabiar **fundamentalismoa**. **Berria - Kultura**

Islama erlijio bat da eta **fundamentalismo** islamikotik bereizi egin behar da. **Berria - Harian**

Seguruenik historian izan den **fundamentalismorik** gogorrena izan da merkatu autoerregulatuari buruzko miresmena. **Iñaki Heras**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
eta fundamentalismoa (4)

fundamentalista 1 *izond* fundamentalismoari dagokiona

Euskaldunen joera **fundamentalistari** kritika egiterakoan. **Bernardo Atxaga**

Eskakizun **fundamentalistetatik** urruntzea esan nahi zuen. **Berria - Mundua**

Espiritu erlatibista edo posmoralistaren eta espiritu **fundamentalista**, absolutistaren arteko norgehiagoka. **Joxe Azurmendi**

2 *izond/iz* fundamentalismoaren aldekoa.

Emakumeak talde **fundamentalisten** presioa jasan behar du. **Berria - Mundua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
fundamentalistak dira (4); **joera fundamentalistak** (4); **talde fundamentalisten** (3); **tesi fundamentalista** (3)

fundamentatu, fundamenta, fundamentatzen du *ad* funtsatu.

Baina Jainkoa (Absolutua) hilda, "betidanik" gure bizitza **fundamentatzen** zuten balio denak apurtu dira. **Joxe Azurmendi**

fundamentazio *iz* funtsatzea.

Balioen ezinbesteko erlatibismoa, haien arrazoi edo **fundamentazioaren** aldetik azal daiteke. **Joxe Azurmendi**

fundamentista *izond* oinarriei dagokiena.

Ba al dago argudio induktiboen justifikazio **fundamentista** logikorik? **Askoren artean**

fundamentu 1 *iz* funtsa, oinarria.

Erregela horien oinarria, **fundamentua**, esperientzia da. **Askoren artean**

Baina horiek, seguru asko, nik orain egiten ditudan asmazio **fundamenturik** gabeak besterik ez dira. **Anjel Lertxundi**

Gizarte demokratiko pluralistetan Jainkoaren arrazoa gehienez errespetatu egiten da, hitzez hitz behintzat ez da gizarte antolaketa **fundamentutzat** hartzen ahal. **Joxe Azurmendi**

2 (orobat *pulamendu g.er. eta pulamentu*) ganora.

Uitzitik Lekunberri bitarteko hargin horiek baino **fundamentu** hobexagorik ekartzen ez badute, ez dakit noizko bukatuko duten. **Patziku Perurena**

Zer **fundamentu** dute autobus hauek? hamar minutu baino gehiago daramat hemen eta ez dator bat ere. **Iñaki Zabaleta**

Hori **fundamentua**, edadeko bi emakume elurretan jostatzen! **Koro Navarro**

Hau da **fundamentua**, mutil handi batzuen? **Monika Etxebarria**

Gure ume txarrok, euli baten **fundamenturik** ez baitute! **Patziku Perurena**

Fundamenturik gabe eta gehiegi saiatu gabe estudiatzen genuen. **Fernando Rey**

Fundamentuz jokatu behar zela, harreman egonkor bat behar zutela. **Antton Olano**

Ez zela hain **fundamentuzko** hitza pentsatu nuen. **Bernardo Atxaga**

Zelebrea da korreoz ia inoiz **fundamentuzko** ezer jaso ez eta hala ere beti gutunen peskizan egotea. **Anton Garikano**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
fundamentuzko ezer (7)

fundatu, funda, fundatzen du *ad* sortu; eraiki.

Israel Ben Eliezer mistikoak **fundatu** zuen, geroago Baal Shem Tov deituko zenak. **Koro Navarro**

Germaniarrek beren erresumak **fundatu** zituztenean. **Iñaki Iñurrieta**

Alpujarretako herrixka bateko landetxe batean komunitate bat **fundatuz**. **Joan Mari Irigoien**

Vienako Zirkulua Moritz Schlick-ek **fundatu** zuen. **Askoren artean**

McCartneyk **fundatutako** institutuan. **Berria - Kultura**

Kristo o. III. mendean Manesek **fundatutako** sekta dugu manikeismoa. **Imanol Unzurrunzaga**

Egunkaria **fundatu** zuen notarioaren erretratuak horma oso bat hartzen zuen ia. **Anjel Lertxundi**

Eta orduan bururatu zitzaion guztien salbamenerako Hirugarren Ordena **fundatzea**. **Askoren artean**

Eta etika modernoa **fundatu** zuen, bestetik. **Berria - Kultura**

Ispahan antzinako Pertiaki hiri bat zen, turkiarrek hamaikagarren mendean **fundatua**. **Xabier Olarra**

"Metropoli", antzinakoen hizkuntzan, **kolonia** fundatu duen estatua da. **Iñaki Iñurrieta**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)
bat fundatu (6); **fundatu eta** (3); **fundatu zuen** (11)

fundatzaile 1 *izond* fundatzen duena.

Kide **fundatzaileek** borondatezko zina egin zuten. **Joan Mari Irigoien**

Ekonomia politiko klasikoaren guraso **fundatzaileek**. **Koro Navarro**

Jordi Pujol, aurreko presidentea, presidente **fundatzailea** izatera pasatuko da. **Berria - Mundua**

Santu **fundatzaileen** zerrenda. **Xabier Arregi**

Orduan izendatuko dituzte ofizialki udalen, bezeroen, langileen eta entitate **fundatzaileen** 100 ordezkariak. **Berria - Ekonomia**

Historia jarraitua, bera da subjektuaren funtzio **fundatzailearen** ezinbesteko korrelatua. **Xabier Arregi**

Ez dut, halaber, ekintza **fundatzaile** batera edo kontzientzia eratzaile batera murriztu nahi izan arrazionaltasunaren ostertz orokorra. **Xabier Arregi**

Horrela askatua geratzen da subjektibotasun **fundatzailearen** korapiloa. **Xabier Arregi**

Lagunen eta etsaien arteko eten **fundatzailea** horixe zen. **Joseba Zulaika**

• 2 *iz* fundatzen duen pertsona.

Hortik aurrera Sabino Arana (1865-1903) euskal nazionalismoaren **fundatzailetzat** hartua izan da. **Askoren artean**

Digital Equipment Corporation izeneko elkartearen **fundatzaile** eta presidentea. **Pello Salaburu**

Sari banaketa Nobelen **fundatzaile** Alfred Nobel hil zen egunean egiten da urtero, haren omenez. **Berria - Gaiak**

Anaia txikien Ordenaren **fundatzaile** eta gidari. **Askoren artean**

Gure erlijioaren **Fundatzailea**. **Xabier Olarra**

Itxarongelaren aurretik igarotzean, burua jaso eta **fundatzailearen** koadroari begiratzen dio. **Anjel Lertxundi**

3 (hitz elkartuetan)

ETAren **fundatzaile**-taldea (Txillardegi, Del Valle, Madariaga etab.). **Iban Zaldúa**
- Ordena-**fundatzaileen** artean, ez da sortu Frantziako baino bikainagorik. **Askoren artean**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

fundatzaile eta (4); **fundatzaile izan** (3)

fundazio 1 iz fundatzea.

Erromako **fundazioaren** 277. urtean. **Iñaki Iñurrieta**
Urbiango herriaren **fundazioaren** hirurehugarren urteurrena zenez. **Joan Mari Irigoien**
Ordenaren **fundazioko** lehen garaian. **Askoren artean**
Eta hala, bere beste lagun batzuk bidali zituen Bolognara, eta hauek **fundazio** asko egin zituzten hainbat tokitan. **Askoren artean**

2.ongintza, kultura, erlijioa... helburutzat duen erakundea.

Euskal kontuez arduratzen den **fundazio** batek salaketa egin ondoren. **Pello Salaburu**
Fundazio bitartekariaren bidez. **Ibon Urbarri**
Fundazio erlijiosoen eskola bateko irakaslea izana zen. 1974an **fundazio** bat sortu genuen. **Patxi Zubizarreta**
Agian, **fundazioak** ere eratu beharke ditugu, unibertsitate izan gabe unibertsitatearen kontrolpean dauden erakundeak, unibertsitateak zuzenean egin ez dezakeena zeharka, **fundazioaren** bidez, egin ahal izateko. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**
Kobazuloaren errepika kudeatuko duen **Fundazioa** eratuko dute aurki. **Berria - Kultura**
Koadroa ez zetorren **fundazioaren** funts estatubatuarretatik. **Iban Zaldúa**
Fundazioaren egoitzan soilik kontsulta daitezke. **Berria - Kultura**
Fundazioko arduradun Luigi Coscarellik adierazi duenez. **Berria - Kultura**
Sabino Arana **Fundazioak** argitaratutako liburuxka batean. **Ramon Saizarbitoria**
Antso Jakituna **Fundazioaren** funts digitalizatua. **Berria - Kultura**
Euskalgintza Elkarlanean **Fundazioaren** eta Euskal Kultur Erakundearen laguntzarekin. **Ramuntxo Etxeberri**
Uraren Kultura Berria **Fundazioko** bultzatzaile eta Fisikan katedradun Pedro Arrojo. **Eduñe Elizondo**
Oteiza **fundazioko** patronatukide oteizazaleek arazoak berretsi dituzte Nafarroako Parlamentuan Unibertsitate **fundazio** baten lanari esker. **Joxan Elosegi**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

abbadia fundazioa (3); **arana fundazioa** (4); **ekain fundazioa** (5); **elkarlanean fundazioa** (3); **euskadiko filmategia fundazioa** (3); **euskalgintza elkarlanean fundazioa** (3); **filmategia fundazioa** (3); **fundazio bat** (11); **fundazio bat sortu** (3); **fundazio bat sortzea** (3); **fundazio batek** (4); **fundazio baten** (3); **fundazio erlijiosoen** (4); **fundazio eta** (3); **fundazio horrek** (5); **fundazio horren** (3); **fundazioa aurkeztu** (3); **fundazioa da** (4); **fundazioa dira** (3); **fundazioa eta** (11); **fundazioa eta euskal** (3); **fundazioa sortu** (7); **fundazioa sortu du** (3); **fundazioa sortzeko** (5); **joxemi zumalabe fundazioa** (8); **kutxa fundazioa** (7); **oteiza fundazioa** (3); **sabino arana fundazioa** (4); **zumalabe fundazioa** (12)
alai fundazioak (3); **antso jakituna fundazioak** (6); **arana fundazioak** (20); **arangiz fundazioak** (14); **asmoz fundazioak** (5); **baketik fundazioak** (4); **bbk fundazioak** (24); **bbk fundazioak bilbon** (6); **bbva fundazioak** (5); **biktimen fundazioak** (4); **bizkaia kutxa fundazioak** (3); **dipc fundazioak** (3); **ditu bbk fundazioak** (11); **du bbk fundazioak** (4); **du fundazioak** (4); **du nobel fundazioak** (3); **duen fundazioak** (3); **ekain fundazioak** (3); **elai alai fundazioak** (3); **elhuyar fundazioak** (8); **elika fundazioak** (3); **elkar fundazioak** (4); **elkarlanean fundazioak** (8); **eta bbk fundazioak** (6); **eta fundazioak** (3); **euskadi fundazioak** (5); **euskalgintza elkarlanean fundazioak** (8); **euskokultur fundazioak** (5); **euskokultur fundazioak eta** (5); **falcon fundazioak** (16); **falcon fundazioak antolatutako** (3)
fundazioak antolatu (4); **fundazioak antolatu du** (3); **fundazioak antolatutako** (5); **fundazioak antolatuta** (9); **fundazioak antolatutako** (18); **fundazioak atzo** (3); **fundazioak azken** (4); **fundazioak bilbon** (9); **fundazioak bilbon irune** (4); **fundazioak egin** (4); **fundazioak egindako** (3); **fundazioak ere** (3); **fundazioak erredakzioa** (3); **fundazioak eta** (20); **fundazioak eta foro** (4); **fundazioak eta kultura** (3); **fundazioak ez** (3); **fundazioak gonbidatuta** (5); **fundazioak liburu** (3); **fundazioak sortu** (3); **fundazioak urtero** (4)
ez falcon fundazioak (16); **gazte lanbidean fundazioak** (4); **glaukomaren fundazioak** (3); **hegoa fundazioak** (3); **ipar hegoa fundazioak** (3); **jakituna fundazioak** (6); **joxemi zumalabe fundazioak** (7); **kalitatea fundazioak** (3); **katedrala fundazioak** (4); **kursaal fundazioak** (3); **kutxa fundazioak** (9); **lanbidean fundazioak** (4); **maria katedrala fundazioak** (4); **museoa fundazioak** (3); **nobel fundazioak** (5); **ordoñ oteiza fundazioak** (3); **robles arangiz fundazioak** (14); **sabino arana fundazioak** (20); **terrorismoaren biktimen fundazioak** (4); **zumalabe fundazioak** (4)
arangiz fundazioaren (6); **balentziaga fundazioaren** (4); **bbk fundazioaren** (8); **berria fundazioaren** (3); **dute elhuyar fundazioaren** (3); **elhuyar fundazioaren** (10); **elhuyar fundazioaren basque** (8); **eta fundazioaren** (6); **euskadi fundazioaren** (4); **euskadi fundazioaren** (3); **ez falcon fundazioaren** (3); **falcon fundazioaren** (3); **fundazioaren eta** (3); **fundazioaren lanean** (3); **fundazioarekin elkarlanean** (4); **fundazioaren arbera** (4); **fundazioaren aretoan** (5); **fundazioaren aurkako** (4); **fundazioaren basque** (8); **fundazioaren basque research** (8); **fundazioaren egoitzan** (5); **fundazioaren eskutik** (5); **fundazioaren eta** (6); **fundazioaren izenean** (3); **fundazioaren lan** (3); **fundazioaren patronatuak** (5); **fundazioaren patronatuko** (4); **joxemi zumalabe fundazioaren** (9); **kultura berria fundazioaren** (3); **kutxa fundazioaren** (5); **kutxa fundazioaren aretoan** (3); **ordoñ oteiza fundazioaren** (3); **robles arangiz fundazioaren** (6); **surfrider fundazioaren** (3); **vital kutxa fundazioaren** (4); **zumalabe fundazioaren** (12)
arangiz fundazioko (3); **atzo fundazioko** (3); **azti fundazioko** (4); **barandiaran fundazioko** (3); **berria fundazioko** (3); **duen fundazioko** (3); **eta fundazioko** (5); **euskokultur fundazioko** (3); **ez falcon fundazioko** (7); **falcon fundazioko** (7); **falcon fundazioko zuzendariak** (5); **fundazioko arduradunak** (3); **fundazioko kide** (13); **fundazioko kide eta** (3); **fundazioko kidea** (8); **fundazioko kidea da** (3); **fundazioko kideak** (7); **fundazioko kideei** (3); **fundazioko kideek** (5); **fundazioko lehendakari** (4); **fundazioko lehendakaria** (6); **fundazioko lehendakariak** (5); **fundazioko patronatuak** (7); **fundazioko patronatuak aho** (4); **fundazioko patronatukide** (4); **fundazioko patronatukide presidente** (4); **fundazioko presidentea** (5); **fundazioko presidentek** (8); **fundazioko zuzendari** (7); **fundazioko zuzendari enrique** (3); **fundazioko zuzendaria** (5); **fundazioko zuzendariak** (11); **joxemi zumalabe fundazioko** (21); **kultura berria fundazioko** (3); **metropoli fundazioko** (3); **ordoñ oteiza fundazioko** (6); **oteiza fundazioko patronatukide** (4); **robles arangiz fundazioko** (3); **zuen atzo fundazioko** (3); **zumalabe fundazioko** (21); **zumalabe fundazioko kide** (6); **zumalabe fundazioko kidea** (3)

fundazional izond sortzeari dagokiona.

Zoriontsua ez dago giza eskizofrenia **fundazionaletik** libre (aitzitik, eskizofreniazko kasu beteginena da), eta josturirik gabeko hauskura batean bizi da. **Iñaki Segurola**
Deklaratzeak eta aitorzeak ere diru beltz izenokoa zuritu egiten dute, diruari bere zikin, gaitz edo bekatu **fundazionala** ritual edo izapide merke batekin barka dakiokela erakutsi nahiz bezala. **Iñaki Segurola**

Fundazionala izan zen ipuin hura Josebarentzat, eta dozenaka aldiz irakurri zuen bere nerabezaroan, baita ondoren ere. **Iban Zaldúa**
Gernikako bonbardaketa, besteak beste, indar nagusitasunaren erakustaldi aparta dugu, **fundazionala** esan genezake. **Berria - Kultura**

fundazionismo iz

Kanpoko hori kontuan serio hartuko balu koherentistak, orduan **fundazionismora** hurbilduko litzateke. **Askoren artean**

fundazionista izond fundazionismoan oinarritua.

Epistemologia kartesiarra **fundazionista** da: ezagutzeko, justifikaziorik behar ez duten oinarriko osagaiak eduki behar ditugu. **Askoren artean**
Garaiko epistemologia alemaniarrak Descartes-en, Locke-ren, Hume-ren edota Kant-en ohiko epistemologia **fundazionistari** jarraitzen zion. **Askoren artean**
Tesi **fundazionista** horri eginiko kritikak bi motakoak dira. **Askoren artean**

fundiketa iz berritzea, hondatzea.

Aurreko abuztuko liskarrean [...] gertatutako erreketak, hondamendiak eta **fundiketak**. Txillardegi

funditu, fundi, funditzen 1 da/du ad desegin, hondatu.

Etxe bat suak **funditua**. Herria

Teliatuak garbitu, tinduak erreberitu, hesiak konpondu, behar ziren obrak egin dira zikinduak, haustiak edo **fundituak** zirenen xuxentzeko. Herria

Etzetako zureriak **funditzen** dituen termita. Herria

Zokoako portuan, gauaz, muntadura batzu **fundituak** izan dira eta beste batzu ebatsiak. Herria

Herioaren eriteko tresneria moderno batekin munduko lehen gerlak, 14-18 arteko gerlak, zauritu, **funditu**, ezeztatu zuen berriz Europa. Michel Oronoz

Mezatik lekora ez aritu pilotan, expartin berriak **fundituko** baitituzue. Herria

Autobidean, zola lerrakor izanez, zorbait oren barne hamar bat errekontru, auto asko **fundituak**, baina jendetan halere ez erraiteko makurrik... Herria

Bi urtez harriak xehatu zituen kanpoak: ogi, arto, baratze, mahasti, denak **fundituak** izan ziren, zer desmasiak! Michel Oronoz

Azken ehun urtetan itsasoa **funditu** dela mundu hau sortuz geroz aintzineko mende guzietan baino gehiago. Herria

Jazinto "**fundit** nadila hala ez bada!" Pablo Sastre

2 (nola adizlagunekin)

Ziburun baziren orduan 660 etxe eta horietarik 473 suntsituak izan ziren edo azkarki **fundituak**. Herria

Hango ondartzak azkarki **fundituak** dira. Herria

Hiru bizitegi azkarki **fundituak**, bestalde ere makur asko. Herria

Oporretako parabisu arraro frango itsuski **fundituak**, etxe guziak lehertuak, arrantzaletan portu asko arrunt suntsituak. Herria

Ingurumena sobera **funditua** izaiteak. Herria

3 urtu; erre.

Urrearen gogortasun bigundua berotan **funditzen** da eta brontze hotza garrak bentzuturik urtzen. Xabier Amuriza

Ontziolan **fundituriko** burdina puska gotorrean. Koldo Izagirre

Putakume bakoitzak bala bat merezi badu, hasiko al gara hemendik Moskurako trenbideak **funditzen** balak egiteko. Harkaitz Cano

Garuna **funditzeaz** zuen komisarioak. Harkaitz Cano

Bonbila bat **funditu** edo itogin bat sortzen denean. Harkaitz Cano

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

asko **fundituak** (3); azkarki **funditu** (6); azkarki **funditua** (9); azkarki **funditua izan** (7); azkarki **fundituak** (9); bat **funditu** (3); batzu **fundituak** (4); dira **fundituak** (3); ere **fundituak** (3); **funditu ditu** (3); **funditu dituzte** (3); **funditu du** (7); **funditua eta** (3); **funditua izan** (10); **funditua izan da** (8); **funditua izan** (11); eta **funditua izan dira** (7); **funditzen ahal** (4); **funditzen ari** (7); itsuski **funditu** (4); itsuski **fundituak** (4); moskurako **trenbideak funditzen** (3); **trenbideak funditzen** (3)

funditzaile izond hondatzailea.

Ez nion, ordea, galderan aurrera egiteko aukerarik eman, nire begirada **funditzailea** bere gain sentitu baitzuen. Inazio Mujika Iraola

funditze iz desegitea, hondatzea.

Ingurumenaren **funditzeak** osagarriari ekartzen dituen desmasiak salatzen dituzte bai eta **funditze** horren jatorrian diren pozoinkerki ekoizte eta erabiltzeak, hauek ekartzen dituzten eritasunak deitoratuz. Herria

Suak egin **funditze** itsusiez bestalde, kondatzen dituzte hiruehun hilez goiti. Herria

Jende hiltze eta bahitze, bazter **funditze** eta beste. Herria

Eta zer erran, bestetako ohointza, moltsa faltatze, txarkeria eta **funditzeaz**. Herria

fundizio 1 iz urtzea.

Urrearen **fundizioa** nola egin gizakumeak ikasi zuen uena. Pako Aristi

2 galdategia.

Azkoitian, Zubillaga **fundizioaren** lehen harria ezarri zen urtean. Iñigo Aranbarri

Atxuriko trenean Boluetara, **fundiziora**. Urtzi Urrutikoeetxea

Fundizio batean egiten zuen lan, Lasarten. Joan Mari Irigoien

Bi langileei **fundizioan** urtzen ari ziren galda gainera erori zitzairen eta horrek erredura larriak eragin zizkien gorputzean. Berria - Ekonomia

Ontzioletako, portuko, **fundizioetako** langile ohiak. Urtzi Urrutikoeetxea

3 galdaketa.

Aipagarria da ere Fagor Ederlan Brasileira filialak Brasilgo General Motors eta Volkswagenerako garatutako **fundizio** eta mekanizazio proiektu berriak. Berria - Ekonomia

Lantegian **fundizioko** labeak edo digitalizaziorako eskaner aurreratuenak erabiltzen dituzte. Berria - Kultura

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

fundizioan urtzen ari (3)

funebre izond hileta-.

Zalgurdi bat zetorrela ikusi baitzuen, hura gerarazi, eta eramateko eskatu zuen; gero, ordea, gidariarekin solasean, apurka-apurka konturatuz joan zen kotxe **funebre** bat zela. Juan Garzia

2 goibela.

Neguko egun labur eta **funebreak** zetozen. Joseba Sarrionandia

Ozengailuetarik eman zen elizkizuna, portu osoan eta inguruetako mendi guztietan entzuten ahal zen organoa eta erretorearen ahots **funebrea**. Koldo Izagirre

funeral iz hileta.

Pentsatzen jarrita, **funerala** baino hobea litzateke nire omenez inauteri bat egingo balute. Harkaitz Cano

funeraria *iz* ehorztetxea.

Egingo nuke begirada apaldu duela aitortu didanean **funeraria** batean lan egiten duela. **Patxi Zubizarreta**

Aldai, **funerariakoa**. **Pablo Sastre**

Ze **funeraria** mota da hau, bordel? **Harkaitz Cano**

Galizian ezagutzen dut gizon bat bere **funerariako** auto luzearekin txikiteoan ibiltzen dena. **Pako Aristi**

funerario *izond* ehortze-.

Inork ez zien berak besteko beldurrik hala bitzta errealean nola liburuetan heriotz ondoko ohoreei edo omenaldi **funerarioei**. **Berria - Kultura**

funerarium *iz ipar* beilategi etxea.

Gehienak **funerariumean** baina batzuk etxean. **Daniel Landart**

Hiritarrentzat egina dun **funerarium** deabru hori. **Daniel Landart**

Bi erabaki hartuak zituen: ez zuela autopsiaren egiteko baimenik emanen [...]; bestea, bisitak **funerariumean** eginen zirela eta proposatu zioten gela "Salon Mozart" deitzen zela. **Daniel Landart**

Funerariumeko zerbitzuen arabera. **Daniel Landart**

funikular *iz* kable edo kate batek tiraturik, bereziki malda handietan, higitzen den ibilgailua.

Umeek **funikularrean** ibili nahi zuten. **Koldo Izagirre**

La Arboledara igotzen zen **funikularrean** geltokiraino. **Josu Landa**

Funikularra goiko geltokira arinegi heldu zela iruditu zitzaion. **Josu Landa**

Lanuzte horiek Bizkaiko eta Gipuzkoako trenen eta autobusen, Bilboko tranbiaren eta Larreinetako **funikularrean** zerbitzuei eragingo diete. **Berria - Ekonomia**

Errugabetu dituzte 155 pertsona hil ziren **funikularreko** buruak. **Berria - Mundua**

Artxandako **funikularreko** arkupeak. **Javi Cillero**

funk 1 *iz* Ameriketako Estatu Batuetan soul musikatik sorturiko musika estiloa.

Soularen eta **funkaren** tradizioetik abiatuta. **Berria - Kultura**

Esan nezake house musika egiten dudala, baina baita, dub-a, disco musika, Detroit techno-a eta **funka** egiten dudala ere. **Berria - Kultura**

Scott Heronek jazz, soula eta afrikar kutsuko **funka** uztartu zituen 70eko hamarkadan. **Berria - Kultura**

Funk sutsu eta kutsagarria egiteko asmoz. **Berria - Kultura**

2 (hitz elkartuetan)

Funk eta soul estiloak. **Berria - Kultura**

Rick James **funk** abeslaria zendu da. **Berria - Kultura**

Funk musikako izar handia izan zena. **Berria - Kultura**

Pausuko Xaia ostatuan reaggae **funk** kontzertua. **Herria**

funky *iz* funka.

The Mar-keys eta halako taldeen moduan: **funky** asko, soul eta boogaloo pixka bat. **Berria - Kultura**

"**Funky**" iruditzen zitzaizun. **Patxi Iturritegi**

Horra hor perkusio afrikarrak, **funky** moduko metalak, jazz pasarte beroak eta jarrera politiko argia. **Berria - Kultura**

funsgabe (*orobat funts gabe*) 1 *izond* funtsik ez duena; hutsala.

Halaz guztiz, hobenduna delako susmo **funsgabeak** ez dio bakerik ematen. **Xabier Montoia**

Galdera inozo eta **funsgabea**. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Ezpainetan bere betiko irribarre **funsgabea** zeukala. **Anton Garikano**

Jeloskortasun **funsgabe** eta irrigarri batek bultzatuta. **Ander Irizar**

Ene funsgabekeria **funsgabeena**. **Joan Mari Irigoien**

Eta jakin ezak, bitartean, ezen protestantei buruz erraiten diren gauzak [...] **funsgabeak** direla eta gezur handiak. **Joan Mari Irigoien**

Guztiz **funsgabea** zen, baina, beldur hori. **Jose Morales**

Baina Itziarren uste horiek **funts** gabeak dira. **Gotzon Garate**

Baina **funsgabeak** gertatu ziren goganbehar haiek guztiak. **Jose Morales**

Zuk ez dakizu zeinen hutsala eta **funsgabea** iruditzen zaidan zu ezagutu aurreko guztia. **Lopez de Arana**

2 *funsgabeko izlag*

Funsgabeko esamesak, jendea gehiago nahasteko baizik balio ez zutenak. **Joxemari Iturralde**

Funts gabeko barre ozena, aho bete barre, zerebro hustuaren barre okada... **Unai Iturriaga**

Bizitza geza eta **funts** gabeko honetatik. **Sonia Gonzalez**

Iraganari beha paratzen naiz eta mila gertaki oroit ditzaket, irrigarriak edo **funsgabekoak**. **Joan Mari Irigoien**

"Profezia giza errakuntzaren erarik **funsgabekoena**" izan arren. **Iñaki Mendiguren**

funsgabekeria (*orobat funts gabekeria*) *iz* funsgabetasun gaitzesgarria; funtsik ez duen gauza gaitzesgarria.

Funsgabekeria horiek ikertzeko ordaintzen dietela pentsatzea ere! **Alberto Ladron Arana**

Urtero milioika reichmark xahutzen dituzte **funsgabekeria** horietan? **Alberto Ladron Arana**

Ene **funsgabekeriarik** funsgabeena. **Joan Mari Irigoien**

Bierra bat aski nuen "berotzen" hasteko eta **funsgabekerietan** arras galtzeko. **Itxaro Borda**

funsgabetasun *iz funtsik eza, funsgabea denaren nolakotasuna.*

Baina izaki beharrezko bakar batek ere ezin dezake azaldu existentzia: kontingentzia ez da gezurrezko itxura bat, desagerrarazi daitekeen irudi bat; absolutua da, beraz **funsgabetasun** perfektoa. **Monika Etxebarria**

funsgabezia *iz funtsik eza.*

Halabeharra bezala daukagu **funsgabezia** gure gainean. **Josu Zabaleta**

Gizonen inertzia, **funsgabeziaren** eragile ez baina haren ondorio izaten da, ia beti. **Josu Zabaleta**

funski *adlag ipar benetan, sakonki; funtsean.*

Hor gauzak **funski** aldatuko dituzte. **Herria**

Aurten elementu berri batek **funski** aldatzen du gaia, bi zerrenda badirela. **Herria**

Departamenduak laborari gazteen laguntzaren **funski** emendatzeko erabakia hartu du. **Herria**

Antxoa kuota **funski** apaltzen badio Europak Espainiari. **Herria**

Sail horretako zerbitzuen **funski** ezagutzearen beharra aipatu dute. **Herria**

Aireportu hori berritua izana da **funski**, milioi bat bidaiari gostuan hartzeko gisan. **Herria**

Azken aste hauetan euskal presoen egoera **funski** okertzen ari dela. **Herria**

Plazer haundiarekin ikusten dugu gazteak **funski** herriko ohoreaz direla axolatzen bai pilota mailean bai elizkizunen ospeaz. **Herria**

Hemengo ekipa joanden urtekoa da **funski**. **Herria**

funts *(ETCn 18.274 agerraldi) 1 iz oinarria, muina, mamia.*

Gauzen **funtsari** adi egon zaitez. Azalekoa nahiago izaten da **funtsa** baino, bidea helmuga baino, kanpoko barrukoa baino. **Itxaro Borda**

Gainera, nire ustez, **funtsa** ez da istorioa, idazkera baizik. **Berria - Kultura**

Hemen gauzak nola diren, nola behar luketen edo nola nahi genukeen izatea, denak orobatsu dira, eta **funts** berbera daukate, hots, batere ez. **Iñaki Seguro**

Giza harremanak dira istorio hauen **funts** eta motorra. **Berria - Kultura**

Salaketaren **funtsa**, kolokan. **Berria - Euskal Herria**

Arazaoren **funtsa** zein zen argitzeko. **Xabier Olarra**

Gaztetasunaren **funtsa** omen den ezinegona. **Xabier Montoia**

Departamenduentzat, **funts** gehiagoko aldakuntzak noiz jinen diren eta nolakoak izanen diren, hori dakiena ixilik dago ...! **Herria**

Esanahiak bere testuinguruan aurkitu behar du **funtsa**. **Askoren artean**

Bere filosofia-sistemaren **funtsa**. **Askoren artean**

Ongiaren eta gaizkiaren **funtsaren** berri emateko. **Askoren artean**

Ez nuen Charlyren erantzunaren **funtsaz** gogoetarik egiteko astirik izan. **Aingeru Epaltza**

Ez dakizu **funtsa** duen zer bait ala tentelkeriarik handiena bota duzun. **Iñaki Iñurrieta**

[Kontakizunak] soilak dira, adar apaingarriak gabeak, **funtsari** estuki atxikiak. **Jose Antonio Mujika**

2 (izenondoekin)

Zehaztu nahi izan ditut nire ustez **funts** okerra duten iritzi batzuk. **Pello Salaburu**

Hipotesi horiek, ordea, ez zuten **funts** handirik. **Iñaki Iñurrieta**

Halaber, bestalde, esaldien doinuaren **funts** fisikoa ahoskordek sortutako uhinaren oinarriko maiztasuna da. **Lourdes Oñederra**

Haren oldozpenak positiboagoak ziren, ez hain lausoak, eta, neurri batean behintzat, **funts** handikoak. **Jose Morales**

Asmazioak, hasieran, ez du kokoloen txantxa batek baino **funts** handiago. **Anjel Lertxundi**

Izan ere, azken batean horixe besterik ez baita pentsamendu bakarraren **funts** ideologikoa: merkatu pentsamoldea. **Iñaki Heras**

3 (pertsonei buruz)

Baratzean kantuz dagoen xori erripittatik ere baduke naski nik baino **funts** gehiago! **Janbattitt Dirassar**

Funts ahuleko gizon belaxka horietakoa zen. **Jose Morales**

Orain lotsatu egiten nau nire bizitzako urte horiek hain **funts** gutxiko gizon bati eskaini izanak. **Anjel Lertxundi**

Bertute eta **funts** handiko gizona, beti nor nahiri zerbitzu egiterat ekarria. **Herria**

Egia ala gezurra ez dakigu, baina dakiguna da bizpahiru behi hil dituztenak (egiazko jabe edo ez) **funts** gutiko jendea dela. **Herria**

Bere begi hunkigarriekin tinko begiratzen zidan, begirada pisu nekatu batez, nire giza **funtsa** atzemateko erantzten ninduela. **Monika Etxebarria**

4 p/helburu jakin baterako bereizten den dirua; dirua.

Beraz, **funts** eta jabetzak besterentzen badira, Estatua beste **funts** bat sortzera behartuta egongo da beste jabetza batzuk izateko. **Iñaki Iñurrieta**

Funts publikoak bidegabe erabilitzea leporatuta.

Funts ekonomikoek bakarrik ezinbestean segurtatuko ez duten kalitatezko unibertsitatea. **Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu**

Funts bermatuei dagozkien komisioak jaisteko eskaera. **Berria - Ekonomia**

Ikasle-langileen garraioa eta bizilekua hobetzeko **funts** batean sartzeko. **Berria - Ekonomia**

Mailegatzeko gai diren **funtsen** merkatuetan interes tasen areagotzea sortzen baita. **Iñaki Heras**

Funts mailegagarrien merkatuan. **Koro Navarro**

Peter Hansen UNWRAko zuzendariak azaldu zuen herenegun, Genevan, 193 milioi dolarreko **funts** bat osatzea premiazkoa dela aurtengo beharrei soilik erantzuteko. **Berria - Mundua**

Araba izango da **funts** honen onuradun bakarra, bildutako zergak ez direlako haren ekarpen koefizientearen %99a iritsi. **Berria - Ekonomia**

Kaleratzeen arazoa konpontzeko eta beharginen soldatak bermatzeko **funtsa** martxan jartzeko. **Berria - Ekonomia**

5 (erakunde ofizialen izenean)

Europako Batzordeak atzo erabaki zuen Hiesaren, Tuberkulosiaren eta Malariaren aurkako **Funts** Globalari egiten dizkion ekarpenak gehitzea. **Berria - Gaiak**

WWF Naturarentzako Mundu **Funtsak** arbola hilak ez erretiratzeko eskatu du. **Berria - Gaiak**

Konferentzia horretan sortu zen Nazioarteko Diru **Funtsa**. **Iñaki Heras**

Garapenerako Europar **Funtsa**. **Koro Navarro**

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Estatubatuar bankuek eraturako **funts** -hornidurak. **Koro Navarro**

Komande izenekoa Venezian agertu zen XI. mendean, eta bidaiari bakar baterako elkarretarazten zituen **funts** -hornitzaileak eta merkataria. **Koro Navarro**

Hiru **funts**-errenten izaera naturala. **Xabier Arregi**
Munduko banku zentral gutzien erreserbak baino askoz handiagoa da merkatuek egunero mugitzen duten **funts** zifra. **Iñaki Heras**

7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Inbertsio **funts**, pentsio **funts** eta aseguru-etxe handiek mugitzen duten dirutza. **Iñaki Heras**

Auzo aberatsetako eskolek finantzazio **funts** handiak izaten dituzte. **Iñaki Heras**

Izan ere Kohesio **Funtsak** oso txikiak izanik, herrialde bakoitzaren sarrera publikoak bertan gastatuko baitira. **Iñaki Heras**

Etorkinek bidalitako diru- **funtsak** . **Koro Navarro**

Sindikatu horren arabera, gizarte **funtsaren** izaera erabat publikoa izango da. **Berria - Ekonomia**

Gordailuen berme- **funtsa** finantzatzeko. **Koro Navarro**

Ez da aski interesa txikiagotzea, txikiagotzearen onurak amortizazio- **funtsa** osatu behar du urtero kapitalaren parte bat ordaintzeko. **Iñaki Iñurrieta**

5 lur ondasuna.

Etxeak eta **funtsak** bazituen Luzaiden eta Auritzen. **Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren**

Mikel eta Panpili bi kusiek Ttotteren guraso eri eta ahulak hertsatzen zituzten, etxaldea salbu, **funtsak** bederen alokatzeagatik. **Itxaro Borda**

Aberastasunak **funtsak** edo mugikariak izaten dira; herrialde bakoitzeko lurrak bertako biztanleenak izan ohi dira. **Iñaki Iñurrieta**

Erremenbramendua deituriko herriko **funts** eta etxaldeen berrantolaketa. **Itxaro Borda**

Laborantzako **funts** trukatzeko alorrean kolpatu jendeak eta deus erran gabe mehatxuen aurrean ttait et mutua egoten zirenak. **Itxaro Borda**

Hiruer bihotzetik: aize hon eta osagarri zūen **funts** berrietan! **Herria**

Funtsean lasto biltzen ari dira urrunago laborari bakan batzuk. **Piarres Aintziart**

6 p/erakunde baten liburu, agiri, artelan... multzoa.

Liburutegiaren **funts** baliosenak. **Iñaki Iñurrieta**

Koadroa ez zetorren fundazioaren **funts** estatubatuarretatik. **Iban Zaldúa**

Euskal **funts** bibliografikoaren lehenengo 2.800 izenburu kontsulta daitezke Interneten bidez. **Berria - Kultura**

Funts pikturakoak ikusi ahal izango dira han, gaika antolatutik. **Berria - Harian**

George Schurhammerren **funts** ikonografikoa berreskuratzeko, kopiatzeko eta Xabierrek ekartzeko. **Berria - Kultura**

Han **funts** etnografiko, historiko eta arkeologikoko erakutsiko dira. **Berria - Harian**

Antso Jakituna Fundazioaren **funts** digitalizatua. **Berria - Kultura**

Irailean Eki-behe aretoan **funts** propioekin eginiko beste erakusketa bat paratuko dute. **Berria - Kultura**

Arabako Arte Eder museoaren **funtsak** ikusgai Biasterin. **Berria - Kultura**

Mediatekaren artxibo **funtsa** . **Berria - Kultura**

Haietariko hainbatek bazituzten zirriborratuak gene- **funts** erkidea hobetzeko planak. **Juan Garzia**

7 *funtsean*¹ egiatan, azken batean, labur bilduz.

Funtsean, deus guti dakit arteaz. **Piarres Aintziart**

Funtsean, Colette ere esposlagun bikaina zitekeen. **Daniel Landart**

Funtsean, kirolak, orokorki, ez zitzaizkion laket. **Daniel Landart**

Funtsean, ganbera bat, franko handia, egitura angeluzuzenekoa eta leihorik gabea, ate bana zuena mugatzen bere bi alde estuenetan. **Aingeru Epaltza**

Funtsean, Kanten galdera honako hau da: zer da gizakia? **Askoren artean**

Funtsean Aita Riquet-ek laster konprentitu zuen delako beneditanoek bezala egin behar zuela. **Marzel Etxehandi**

Eta **funtsean** ez diat sos beharrik. **Itxaro Borda**

Baina **funtsean**, familia baten maitasuna eta geriza gutiziatzen zituen. **Elena Touyarou**

Ez zen **funtsean** lehen aldia. **Daniel Landart**

Beharrik, **funtsean**, gure gogo-bihotz barneraino direla heltzen zalantza horiek! **Piarres Xarriton**

Ez zen lana **funtsean**: zer bait gehiago zen. **Itxaro Borda**

Gogo-bihotzak, eta **funtsean** barne guztia nahasi zizkidaten... **Daniel Landart**

Ikur linguistikoko, **funtsean** psikikoak izan arren, ez dira abstrakzioak. **Isabel Arrigain**

Gisa batez aise hobe **funtsean** ez baitzinen enekin... **Janbattitt Dirassar**

Lurrean bizitzeaz nazkatua nintzen, adiskiderik ez **funtsean**, gauak hobira eramaten ninduen eta bihamuneari ekia ikusiko nuen ez nekien. **Itxaro Borda**

Nehor ez zen ohartu **funtsean**, besteek ere gauza bera egiten zuten. **Marzel Etxehandi**

Larousse hiztegiarekin batera esateko, plajioa orain horietan "beste norbaiten obra **funtsean** kopiatzen duen hark" egiten du, **funtsean** horrek zehazki zer adierazten duen oso ondo ez badakigu ere. **Bernardo Atxaga**

Oztopo materialek **funtsean** ez naute ene bizian sakonki trabatu. **Piarres Aintziart**

I. jaunaren ikusmen-kortex primarioa **funtsean** ukitu gabe zegoen. **Xabier Olarra**

Errealitatearen kontzeptua bera da, **funtsean**, ideologikoa. **Josu Zabaleta**

Xuxen erraiteko, ez jakin Parisen zenetz ere **funtsean**... **Janbattitt Dirassar**

Berek ere historiarik ez baitute, **funtsean** . **Aurelia Arkotxa**

Ustela zen **funtsean** . **Itxaro Borda**

Bestalde, Jean-Louis Biscayek goraki segurtatu du animazione, zozketa eta abisu guzien presentaketa, usaian bezala **funtsean** ! **Herria**

p egiazkoa dela esatea *p* esatea da **funtsean** . **Askoren artean**

Izenak izen, gertakizun mota beraz ari gara **funtsean** . **Lourdes Oñederra**

7 *funtsean*² (osagaiekin)

Eta azken **funtsean**, argazki hark bultzatu ninduen deblauki mintzatzera: [...]. **Daniel Landart**

Argi baita, funtsaren **funtsean**, hara anbiguotasunaren oinarria, indarkeria txarra dela denentzat baina geunden egoera larrian premiazkoa, autodefentsa molde bat. **Itxaro Borda**

Funts- **funtsean**, merezia nuen: horra zer gertatzen zaien profanoei, tenpluaren ateen aurrean jostatzen geratzen direnei, tenplura sartu ordez. **Juan Garzia**

8 *funtsez* benetan, ganoraz.

Eta aspaldi huntan, jaunen **furfuria** hori ezin jasanez zabilan. Herria

Egun hautan ospatu du **furfuriarik** gabe joan den urtean egin zuen estatu kolpearen lehen urte muga. Herria

Olentzeroren erakusketa batek apainduko du Baionako Eguberri garaiko **furfuria**. Herria

Ez baditu jakitatearen **furfuriak** negurtzen eta manatzen zentzu doi batek. Herria

Hauen protesta zen Japoniaren lehenagoko **furfurien** kontrakoa, banderak errez enbaxadore aitzinean, eta ere heien produktuak enpoilduz saltegietan. Herria

Euskaldun bat izan zen, agian mende oso batez Gipuzkoan izan zen katolikotasunaren aurkaririk gogorrena, bere **furfuria** sektarioan, Ostiral Santuko egunean [...]

promiskuitatezko parranda publikoak antolatzen ere iritsi zena. Askoren artean

Nor ere menturatzaren baita, dena espantu eta **furfuria**, ustez eta gauaz denak libro dituela, hori nekez da Gauekoren aztaparretarik eskapatzen eta sano sana etxera

itzultzten. Michel Oronoz

2 furfurian adlag oldarrean.

"Eta hara zer egiten duten ezkerreko horiek, zergak itsuski emendatzen", horra zer dioten, eta nolako **furfurian**, eskuinaldekoek! Herria

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bere furfuria (6); **eta furfuria** (4); **furfuria eta** (3); **furfuriak hartua** (3)

furfuriatsu izond furfuriaz betea.

Lance Armstrong amerikanoaren zazpigarren garaipen hotz eta **furfuriatsuak** nun du grazia? Ibilera **furfuriatsu** bera, gorputz segail bera, behako otzan bera. Herria

Kantauri zakarraren antzeko beste itsaso bat zuela bere baitan, hori besterik ez baitzuen sentitzen: hura bezain sumina eta hura bezain **furfuriatsua**. Joan Mari Irigoien

furgoi iz tamaina ertaineko automobil itxia, bereziki poliziak erabiltzen duena.

Bi **furgoi** agertu ziren bertan, zein baino zein guardia zibilez beteago. Pedro Alberdi

Polizia **furgoi** batek Abenidaren kale-ahoa zeharkatu zuen. Pedro Alberdi

Ertzaintzaren bi **furgoi** heldu dira, baina ez da istilurik egon. Iban Zaldúa

Suhiltzaile-kamioi bat, mahuka-bagoi bat eta eskailera-**furgoi** bat zalapartaka igaro ziren haren aurretik. Lopez de Arana

2 (trenetan) bagoia, bereziki salgaiak daramatzana.

Trenaren azken bagoia **furgoi** ireki bat zen, hartatik emakume galtzerdi beltz batzuk zeuden zintzilik kulunkan. Fernando Rey

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bi furgoi (5); **eskailera furgoi** (4); **eskailera furgoi bat** (4); **furgoi bat** (7); **polizia furgoi** (5)

furgona (27 agerraldi, 8 liburu eta 1 artikulutan; ETCn 45 agerraldi) iz furgoneta.

Beheko errekan **furgona** bat dago iraulia, txoferra eta zaindaria hilak daude. Koldo Izagirre

Nor ikusi dudan kontatu diot Mikeli, 22.000 euro balio dituen **furgona** batean. Pako Aristi

Ertzainek lan erraza izan dute, eta **furgonan** okupak daramatzatelarik langileen iragarkia ikusi dute: [...]. Pako Aristi

Hogei bat metrora DYako **furgona** bat zegoela errepideaz bestaldean, uretara doazen eskailera zaharren ondoan, Ertzaintzaren beste **furgona** pare batekin...

Paddy Rekalde

Zipaioen bi **furgona** daude jadanik zarratuta dagoen eskolaren parean. **Sonia Gonzalez**
Badaukazu lana, pisua, **furgona..** **Jon Arretxe**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

furgona bat (3)

furgoneta (*590 agerraldi, 58 liburutan, 183 artikulua; ETCn 5.606 agerraldi*) *iz arg* atzealdean atea duen ibilgailua, salgaiak garraiatzeko erabiltzen dena.

Fardelak denon artean ekipaje tokira igo, eta **furgonetara** sartu ginen. **Patxi Zubizarreta**

Txapli ahots ekipoa **furgonetan** sartzen ari zen. **Unai Iturriaga**

Nahi baduzu, **furgonetatik** jaisten lagunduko dizut. **Patxi Zubizarreta**

Agentziaren **furgoneta** bere burua baino hoeki zaindu behar duela. **Patxi Zubizarreta**

Banaketarako **furgoneta** handi bat zekarten. **Joxemari Iturralde**

Poliziaren **furgoneta** dagoen lekura iristen dira. **Antton Olano**

Ertzaintzaren hiru **furgonetan** zaintzapean egin zuten ibilbidea manifestariak. **Berria - Euskal Herria**

Erosi berria zuen bigarren eskuko **furgonetarekin**. **Juan Kruz Igerabide**

Alcala de Henares hirian atzemandako **furgonetan** eginiko lehenbiziko miaketetan aurkitu zituzten bonbetarako detonagailuak. **Berria - Mundua**

Gaur ere **furgonetako** kristalari itsatsia egon naiz. **Patxi Zubizarreta**

Volkswagen **furgoneta** zahar bat dago aparkatuta etxerako sarbidean. **Oskar Arana**

Furgonetako ekipaje tokira igoa, hor, zerupean. **Patxi Zubizarreta**

Sartu denak **furgonetaren** atzeko aldean, txintik atera gabe. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Gaurko bidaialdi guztiak **furgonetaren** atzealdean eseririk egin dituzte. **Patxi Zubizarreta**

Dolmus baten sartu naiz, Turkian ohikoak diren **furgoneta** kolektibo horietariko baten. **Jon Arretxe**

San Frantziskotik Renora joateko, **furgoneta** alokatu zuten hurrengo goizean. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

bat furgoneta (3); **batek eta furgoneta** (5); **bati furgoneta** (3); **bi furgoneta** (9); **da furgoneta** (3); **du furgoneta** (6); **ertzaintzaren furgoneta** (6); **ertzaintzaren hiru furgoneta** (4); **eta furgoneta** (18); **eta furgoneta batek** (7)

furgoneta agertu (4); **furgoneta agertu ziren** (3); **furgoneta aurkitu** (3); **furgoneta bana** (4); **furgoneta barnean** (3); **furgoneta barruan** (4); **furgoneta bat** (33); **furgoneta batean** (19); **furgoneta batek** (36); **furgoneta batek elkar** (5); **furgoneta batek eta** (10); **furgoneta batek harrapatuta** (3); **furgoneta baten** (10); **furgoneta batera** (4); **furgoneta ere** (3); **furgoneta erre** (4); **furgoneta eta** (7); **furgoneta gelditu** (4); **furgoneta handi** (6); **furgoneta zahar** (4); **furgoneta zahar bat** (3)

hainbat furgoneta (3); **hiru furgoneta** (8); **lau furgoneta** (3); **poliziaren furgoneta** (4); **zegoen furgoneta** (6); **zen furgoneta** (7); **zuen furgoneta** (3); **zuten furgoneta** (3)

bi furgonetak (4); **ere furgonetan** (3); **eta furgonetan** (4); **eta furgonetara** (4); **eta furgonetaren** (4); **eta furgonetatik** (3); **furgonetako gidaria** (4); **furgonetan sartu** (6); **furgonetara sartu** (4); **furgonetaren atzealdean** (4); **furgonetaren berri** (3); **furgonetaren leihora** (3); **furgonetaren leihora itsatsirik** (3); **furgonetatik atera** (3); **furgonetatik jaisten** (4); **furgonetatik jaitsi** (4); **furgonetan zaintzapean** (3)

furgonetakada *iz* furgoneta baten edukia.

Noiz edo noiz **furgonetakada** bat pago-egur eramaten dugu eta benetako aizkora egiteko aukera izaten dugu. **Berria - Kirola**

furia 1 *iz* haserre bizia.

Mutila pixkanaka madalena-itxura hartuz zihoan: lehenxeagoko **furia** ahazturik, begiak lausotu egin zitzaizkion erabat, malkoak ere bazetozkiola aise antzeman zitekeen.

Xabier Mendiguren Elizegi

Denak ikusi baitira hor, batzuen **furia**, besteen defentsa, oro entseatzu eta beti pilota bizi eta azkenean Sorhuetek sare. **Herria**

6etan ados, 13tan ere bai, biak suhar baina hain desbardinak: gazte baten **furia** makearrak, zaharraren karkula eta odol hotza baigorriarrak. **Herria**

Grina falta zuten, **furia**. **Karlos Zabala**

Pasea zen barealdia, eta **furia** bete-betean zegoen Strömgo zurrunbiloa! **Koro Navarro**

Iraultzaren **furia** baretuko zenean. **Elena Touyarou**

2 furian haserre bizian.

Azken hau **furian** hasia, 6-0 baina Xalak laster berdindu du eta dudatu ere, edo dudarazi berekilakoak. **Herria**

Lehenik, 22-5 airatu da **furian** garaztarra. **Herria**

Hau Alberiten zen, Titinek 16 tanto eginez izigarriko **furian**. **Herria**

3 furi-furian ik puri-purian.

Mende honen aurrenetan oraindik **furi furian** zegoen. **Patziku Perurena**

furios *izond* amorratua, sumindua.

Dena den, zer eskuzarta zaparradak izan dituzten lau pilotariak tanto luze ta **furios** batzu bururatzean, eta ondarrean! **Herria**

furnego (*orobat furneo*) *iz* sukalde sua.

Karro bakotxean egurrezko **furnego** batekin egiten dituzte jatekoak. **Herria**

Deitzi eta tarrapatata sukaldera garraiatu esnea **furneoaren** plaka beroaren gainean pausatzen zen. **Itxaro Borda**

Furnegoa bagenuen, baina sugairik ez. **Marzel Etxehandi**

furnitu ik hornitu.

furnitzale ik hornitzaile.

furrun-furrin *adlag*

Ta laminek egin bide zakoten: "Barda iruten hien firrin firrin (leun leuna) eta egun aldiz **furrun furrin** (nola nahika). Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

furrundaka *adlag* burrunbaka.

Bezeroari besoa hanpatzen hasi zaiola iruditu zait, zornez beteriko zauri handi bat ikusi dut, euliak ikusi ditut, euli urdin gizenak lezioaren hondoan baionetaz josien artean **furrundaka**. Koldo Izagirre

furrundari *izond* burrunbaria.

Bada Silari eta Alburno-ko basoen inguruan, lizarrak ostutsu diran tokian, eltxo egalari bat erromatarrek *asilus* esaten diotena greziarrek berriz *aestros* (listorra) latza, **furrundari** garratza, oianetatik artalde osoak ikaraz uxatzen dituen (...). Patziku Perurena

furrust

1 *furrust eta murrust*

Furrust eta **murrust**, oinen gainean bermatu nintzen nolabait. Jesus Mari Mendizabal

furtibo *iz* isileko arrantzale edo ehiztaria.

Esan digutenez, **furtiboa** zen, eta amurruak harrapatzen ibiltzen zen gauez. Bernardo Atxaga

furtiboki *adlag* isilpean, gordean.

Eta amaren silueta ikusi nuen leihoan, salako argia amatatuta zegoen, **furtiboki** begira egongo balitz bezala. Mikel Hernandez Abaitua

furtxeta *iz* sardexka.

Azietetako unti handi bat eman ziguten, kullera eta **furtxeta**. Marzel Etxehandi

furunkulo *iz* erlakiztena.

Vuelta baino lehenago arazoak izan zituen, ipurdian atera zitzaizkion **furunkuloengatik**. Berria - Kirola

fuselaje *iz* hegazkinaren gorputzaren egitura, hegoak itsasten zaizkiona.

Horrela desagertu ziren, hegala ez ezik, Reicharen hegazkineko **fuselajeko** xafla eta pieza guztiak ere. Fernando Rey

Hegazkinaren **fuselajeraino** ailegatu nintzenean. Fernando Rey

A380 hegazkinaren **fuselajeko** pieza handiak egingo ditu Arabako enpresak. Berria - Ekonomia

Ni bakarrik neure Polikarpov I-16 zahararekin basera, motorra uzkerka eta hiru Heinkel-ek metrailatutako **fuselaje** erdia zulaturik. Koldo Izagirre

fusible *iz* korronte elektrikoa handiegia denean urtzen den eta hortaz korrontea eteten duen hari zatia.

Fusibleak aldatu nituen. Jesus Mari Mendizabal

Fusiblea erre nuen. Jesus Mari Mendizabal

Erretako **fusiblea**. Jesus Mari Mendizabal

Fusibleak eten egin ziren, eta ilunpean murgildu zituen Ruche jauna eta Ravignandarrak. Jon Muñoz

Fusibleak atera, eta bakea. Pako Aristi

fusil 1 *iz* oinezko gudariak erabili ohi duten su arma kanoi-bakarra, balak jaurtikitzen dituen.

Fusilak hondatuta dagoz. Koldo Izagirre

Kalaxnikov **fusilekin** armaturiko 20 bat lagunek. Berria - Mundua

Bere **fusila** etengabe desarratzen zuen. Txillardegi

Bi jendarre ilara alboetan, **fusilak** kargaturik. Karlos Zabala

Zulo ertzean jarri zuan, **fusilak** guri apuntatzen. Josu Zabaleta

Fusilarekin hegazkinei tiroka ikusten nuen. Juan Kruz Igerabide

Fusila bizkarrean hartu zuen berrero. Juan Kruz Igerabide

Fusila sorbaldan hartuta. Juan Kruz Igerabide

Fusila soinean gurutzatuta. Josu Zabaleta

Fusilak besaburura eta lurrera behin eta berriz aldatuz aginte-oihu zakarren arabera. Txillardegi

Haien **fusilen** kanoi puntak ikusten ziren. Joseba Sarrionandia

Fusilaren kanoi hotza sentitu nuen. Fernando Rey

Hatz lodia **fusilaren** katuan, bere buruari tiro egiteko asko behar ez zuela! Josu Zabaleta

Fusilaren gatua sakatzean. Joseba Sarrionandia

Oskarren hortzen kirrinka **fusilaren** morroiloaren klaskadak estali zuen. Alberto Ladron Arana

Fusilaren mira hain zen zehatza, non zigarro baten muturra jo baitzezakeen mila metrora. Juan Kruz Igerabide

Militarrek ezagutu zutenean, hankekin, eskuekin eta **fusilen** kulatekin jo zuten. Berria - Mundua

Argiki entzun da haren bizkarrezurra jotzean **fusil** baten kirtenak sortu hotsa. Xabier Montoia

Fusilaren hedea aske zeukan bizkarretik zintzilik. Josu Zabaleta

Pistola bat ezkerrean, **fusilaren** muturra sorbalda gainetik ageri zitzaioela. Juan Kruz Igerabide

Hauek, fusilen **puntetan baionetak** jarrita eta triskantza mendekatzera deliberaturik [...]. **Txillardegi**

Horra non ageri den jende multzo bat oihuka eta **fusilak** eskuan guganantz. **Koldo Izagirre**

Fusilek ematen duten kontra-kolpe zakarra dela-ta, besaburua oso minberatuta amaitu nituen ariketak. **Txillardegi**

2 (izenondoekin)

Nire aitaren Brno **fusil** zaharra tiro egiteko prest egongo zen. **Juan Kruz Igerabide**

700 **fusil** automatiko, 800 pistola eta milioi bat kartutxo. **Berria - Mundua**

Fusil miradunaren zirritutik kendu gabe. **Josetxo Azkona**

3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Fusil -ahoak milioika ageri direla. **Jose Morales**

Ez zeukaten krabelinik **fusil** -ahoetan. **Edorta Jimenez**

Fusil kulataz egin zizkiguten laztanak, eta ostikoak ipurdian bizixeago igotzen laguntzeko. Presoarengana bertze harki bat hurbildu eta hortzak apurtu dizkio **fusil** ukaldi batez. **Josu Zabaleta**

Fusil kanoiaz hanketan bultza egin eta lokatz haren ondoraino erori gintuan. **Josu Zabaleta**

Lehen **fusil** tiroa bota zuenean. **Koldo Izagirre**

Han egokitu baitzitzaion **fusil** -tiroka italiar Kontsulatua jende-aldra basakiro asaldatu baten aurka defendatu beharra. **Juan Garzia**

"¡Viva España!", "¡Arriba España!" diotela, eta segituan **fusil** deskargak eta herio-garrasi izugarriak. **Bernardo Atxaga**

Baina orduan **fusil** desarra ikaragarri bat lehertu da telegrafo bulegotik hurbil, eta bala zaparrada batek leihoetako kristalak txikitu ditu. **Karlos Zabala**

Kanoikadak eta **fusil** -hotsak nahasirik. **Txillardegi**

Metrailadore bat tiroka hasi da gure atzean, eta, hurrengo, **fusil** -hotsak etorri dira. **Mirentxu Larrañaga**

4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zenbait ehiza **fusil** baizik ez zituzten izango hasieran. **Karlos Zabala**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aitaren brno fusil (3); **aitaren fusila** (10); **azken fusila** (10); **bere fusil** (3); **bere fusila** (4); **bere fusilaren** (3); **bi mila fusil** (3); **brno fusil** (5); **brno fusila** (3); **eta fusil** (13); **eta fusila** (17); **eta fusilak** (17); **eta fusilak eskuetan** (3); **eta fusilaren** (7); **eta fusilen** (6); **fusil bat** (17); **fusil baten** (7); **fusil eta** (4); **fusil handi** (3); **fusil handi bat** (3); **fusil hori** (3); **fusil tiroak** (4); **fusil tiroen** (4); **fusil zaharra** (3); **fusila aldean** (3); **fusila bizkarrean** (3); **fusila eskuan** (8); **fusila eskuetan** (3); **fusila eta** (9); **fusila hartu** (7); **fusila hartu eta** (4); **fusila kendu** (4); **fusila kendu zion** (3); **fusila sorbaldan** (3); **fusilak eskuan** (6); **fusilak eskuetan** (6); **fusilak eta** (8); **fusilaren muturra** (3); **fusilen eta** (3); **jimenezen azken fusila** (4); **kanoi eta fusilen** (3); **le fusil** (3); **mila fusil** (4); **mitrailleta eta fusilak** (3); **nire aitaren fusila** (10); **nire fusila** (3); **pistolak eta fusilak** (3)

fusilagai iz fusilatua izango dena.

Pelotoiari noratzeko agindua eman nonean, horra non entzuten dudan "Gora Euzkadi!" ez **fusilagaiak** esana, jakina. **Koldo Izagirre**

fusilagarrri izond fusilatua izatea merezi duena.

-Fusilagarrriak ! -bisitariak, haria harrapatu. **Edorta Jimenez**

Fusilagarrria, horrenbestez. **Berria - Kultura**

fusilaketa (22 agerraldi, 8 liburu eta 3 artikulutan; ETCn 38 agerraldi) 1 iz fusilatzea.

Atxioketak eta **fusilaketak**. Oiarzuar gaztearen **fusilaketa** Goiatzen burutu baitzen abenduaren 15ean. **Txillardegi**

Fusilaketen berri zuzena zeukan baseritarrak. **Koldo Izagirre**

Geure etxean hainbestetan gogoratutako **fusilaketa** latza gauzatu zen lekua ezagutu nahi nuen. **Txillardegi**

Tauladan aleman buruzagi batek **fusilaketa** hasteko besoa altxatu zuen. **Fusilaketaren** imintzioa egin behar dute. **Itxaro Borda**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Fusilaketa deskargak entzuten zituen gauetan amets egindakoa. **Koldo Izagirre**

Amerikanoaren **fusilaketa** saioaz Davidek ematen dituen bi bertsioren kariaz.

Zenbat aldiz libratu zen **fusilaketa** pelotoitik azken unean. **Jokin Urain**

fusilamendu (64 agerraldi, 22 liburu eta 6 artikulutan; ETCn 428 agerraldi) 1 iz fusilatzea.

Zuek ez zaituztete **fusilamenduen** deskargak esnatzen goizaldean. **Koldo Izagirre**

Ezar dadila behingoz nire **fusilamenduaren** data. **Koldo Izagirre**

Nire abokatua izanen da **fusilamenduaren** lekuko! **Koldo Izagirre**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Fusilamendu hormara doanean. **Koldo Izagirre**

Heriotza **fusilamentu** pelotoiaren puntualitatearekin ez baletor. **Joseba Sarrionandia**

Fusilamendu pelotoia zuzendu beharra gertatu zitzaidan, denboraldi batez. **Koldo Izagirre**

Martorellek **fusilamendu** -agiria harramazka idazten ziharduen. **Edorta Jimenez**

Fusilamendu -guneko deskripzioak ez baitzuen duda izpirik uzten: nire ikastola ondoko paretara zahar hura zen. **Iban Zaldua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

eta fusilamenduaren (4)

fusilarazi, fusilaraz, fusilarazten du ad fusilatzer behartu.

Baina inbidia zion eta gainera traizioa egiten ziola uste zuen, eta **fusilarazi** egin zuen. **Koro Navarro**

Hurrengo goizean **fusilarazi** zuen. **Harkaitz Cano**

-"Che"k ehundaka pertsona **fusilarazi** zituen iraultza bukatu zenean -gogorarazi nion-. **Jon Muñoz**

Manibrari txekiar pare bat **fusilaraziko** duela! **Fernando Rey**

Huraxe nuen aukerarik samurrena -edonor **fusilaraz** dezakete desertatu eta ihes joateagatik. **Mirentxu Larrañaga**

fusilatu

Besteak, goizaldean **fusilatzen** zituztenak, haiek ez genituen ikusten. **Koldo Izagirre**
Ihesgin bakoitzeko gutariko hamar **fusilatzen** zizituzten denon aitzinean, zentzagarri... **Koldo Izagirre**
Bagenekien **fusilatze** ateratzen zituztela. **Koldo Izagirre**
Norbait aukeratzea, hilerrira eraman eta harresiaren kontra **fusilatze**. **Ramon Saizarbitoria**
Jarri zintuztela **fusilatze** paretan eta ez zintuztela hil. **Koldo Izagirre**
Heriotza-zigorra harturik, **fusilatuta** hil zen. **Koldo Izagirre**
Obaban **fusilatutako** jendearen zerrenda da. **Bernardo Atxaga**
Libratu zuten hurrengo goizean **fusilatze**koen zerrendan omen zegoen. **Koldo Izagirre**

2 (era burutua izenondo gisa)

Alkate **fusilatuaren** iloba. **Edorta Jimenez**
Gerra zibileko **fusilatuak**. **Joseba Sarrionandia**
Fusilatu bat fosora bezala. **Koldo Izagirre**
Hantxe zeuden Susanak aipaturiko bederatz **fusilatuak**. **Bernardo Atxaga**
Fusilatu eta desagerrarazien zerrenda. **Berria - Euskal Herria**
Fusilatuaren azken borondatea. **Edorta Jimenez**
Hildakoen itzultzailea zeukaten begi aurrean **fusilatu**en denboraren norabidea aldarazten. **Koldo Izagirre**
Fusilatuen hitzak. **Jokin Urain**
Pertsona maitagarrien zerrenden orde, **fusilatu**enak eta salatarietak. **Bernardo Atxaga**
Nafarroako **Fusilatu**en. Senitatekoen Elkarteak. **Berria - Kultura**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

aita fusilatu (3); **aitona fusilatu** (6); **aitona fusilatu ondoren** (3); **asko fusilatu** (4); **asko fusilatu zuten** (4); **atxilote eta fusilatu** (6); **baina fusilatu** (3); **bat fusilatu** (4); **batean fusilatu** (3); **bertan fusilatu** (4); **ere fusilatu** (3); **eta fusilatu** (22); **eta fusilatu egin** (6); **eta fusilatu zituzten** (3); **eta fusilatu zuten** (3); **fusilatu baino** (3); **fusilatu behar** (14); **fusilatu behar zuten** (3); **fusilatu beharra** (4); **fusilatu dute** (7); **fusilatu edo** (3); **fusilatu egin** (25); **fusilatu egin behar** (3); **fusilatu egin zituzten** (3); **fusilatu egin zutela** (3); **fusilatu egin zuten** (7); **fusilatu egingo** (7); **fusilatu egiten** (3); **fusilatu ere** (3); **fusilatu eta** (11); **fusilatu izan** (3); **fusilatu nahi** (4); **fusilatu nahi izan** (4); **fusilatu ondoren** (7); **fusilatu zituztela** (5); **fusilatu zituzten** (38); **fusilatu zituztenak** (4); **fusilatu zituztenen** (3); **fusilatu zuen** (3); **fusilatu zutela** (5); **fusilatu zuten** (53); **fusilatu zutenean** (4); **gerran fusilatu** (6); **lagun fusilatu** (5); **lagun fusilatu zituzten** (4)
fusilatu izan (3); **fusilatu** izateko (5); **fusilatuak izan** (6); **fusilatuak izan behar** (3); **fusilatu**en elkarteak (3); **fusilatu**en eta (3); **fusilatu**en senideen (6); **fusilatu**en senideen elkarteak (3); **fusilatu**en senitateko (3); **fusilatu**en senitatekoek (4); **fusilatu**en senitatekoen (9); **fusilatu**en senitatekoen elkarteak (6); **nafarroako fusilatu**en (12); **nafarroako fusilatu**en senideen (3); **nafarroako fusilatu**en senitatekoen (8)
bertan fusilatuko (4); **ere fusilatu**en (3); **eta bertan fusilatu**ko (3); **eta fusilatu**ko (3); **fusilaturik hil** (3); **fusilatu** hil (5); **fusilatu**en zituzten (4); **obaban fusilatu**ko (3)

fusilatzaile iz fusilatze batean parte hartzen duen pertsona.

Gure aita bereiztu, **fusilatzaile**ei seinalatu, eta hala esan omen zien: [...]. **Xabier Mendiguren Elizegi**

fusilatze (19 agerraldi, 5 liburu eta 10 artikulutan; ETCn 49 agerraldi) 1 iz heriotzara zigortua fusil tiroz hiltzea. ik fusilaketa; fusilamendu.

Atxilote eta **fusilatze** ilegal baten kontatzaile izan zen hura antzeko hilketa estrajudizialaren biktima izan zen hogeitun urte geroago. **Berria - Kultura**
Distantziarik gabe, orain dela 30 urteko **fusilatzeak** deika, basoan bildutakoen emozioa ekarri nahi izan zuen kazetariak albistera. **Iñigo Aranbarri**
Elektrokuzioa, urka, **fusilatze** eta gas ganbera baztertu ondoren, injekzio hilgarriaz ezartzen dute heriotza zigorra. **Berria - Mundua**
Fusilatze hori Isaac Katz, Sruboven eskolako lagunak agindu du. **Pablo Sastre**
El Duesoz jabetu eta hilabetegarrenean burutu zuten lehen **fusilatze**: Manu Egidazu preso komunista hil zuten. **Jokin Urain**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Fusilatze-pelotoia gosaltzen arituko da honezkerok, tea zurrupaka edaten, gorrotok, egingo dutena egin behar dutelako. **Mirentxu Larrañaga**
Matxinada heriotzarekin zigortzen zela, **fusilatze**-pelotoia bitarteko. **Mirentxu Larrañaga**
Gutxiatik itzuri egin zion Dieterrek **fusilatze** pelotoiari. **Harkaitz Cano**
Deskarga elektrikoak, kolpeak, umiliazioa eta **fusilatze** itxurak. **Berria - Mundua**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

fusilatze pelotoia (4)

fusildun iz fusila duena.

Antoniori haien gainera salto egiteko agindu zion **fusildun** batek. **Xabier Etxabe**
Sasiz betetako parajea aukeratu zuten **fusildun**ek [...] bere obra burutzeko. **Xabier Etxabe**
Fusildunek ez zuten, nonbait, fusilatu berri zituzten gizonen lur emateko asmorik. **Xabier Etxabe**

fusileria iz fusilen deskarga hotsa.

Eta, txontaren txio-txioa entzun zuenean, **fusileria** oihartzun urruna etorri zitzaion gogora. **Karlos Zabala**

fusio 1 iz talde, enpresa edo kideko desberdinak batzea.

Aipagarri dira, besteak beste, 2000ko urtarrean egin zen Time Warner eta American Online erraldoien arteko **fusioa**, edo Terra enpresak Lycos ataria erosi zueneko.

Iñaki Heras

Enpresen jabetzan izan diren kontzentrazio prozesuarekin batera (**fusioak**, absortzioak, partaidetak...), kudeaketa aldetik azpikontratazioa erraz erabiltzea izan da joera.

Iñaki Heras

LABek mutualitatean **fusio** prozesuak garrantzitsua behar duela salatu du. **Berria - Ekonomia**

2 batzea.

Fusioarena da teoriarik zabalduegia; teoria honen arabera nerbioen arteko konexioek bi erretinek ematen dituzten informazio ezberdinetatik abiatuta informazio bateratu bat "sortzen" dute (**fusioa** edo bateratzea ez da batuketara hutsa: teoria honen arabera, bada halako "lehia" bat bi begien artean [...]). **Josu Zabaleta**

3 musikan, sukaldaritzan eta kidekoetan estilo edo joera desberdinak batzea.

Fusioaren aitzindarietako bat. Berria - Kultura

Jazzaren eta flamenkoaren arteko **fusiorik** onena. Berria - Kultura

Hirukoak jazzaren eta Afrikako musikaren **fusioa** egiten du. *About Time* bere azken lanean **fusiorako** joera ikusten da. Berria - Kultura

Jazz **fusioa** izan da oraingo honetan ere gehien landu duena. Berria - Kultura

Gasteizko *Azkena* aretorea ekarriko ditu gaur jazz **fusioko** doinuak. Berria - Kultura

Andy Summersen **fusio** jazz Gasteizen. Berria - Kultura

Dantzaren eta arkitekturaren arteko **fusioa**. Berria - Kultura

Fusio-sukaldaritzak: lehengaiez (beren aho-ukitu, usain, zapore, kolore eta guzti), egospenez (tenperatura, denbora, aurre-prestatze, etab.) [...] eta gainerakoez osaturiko sukaldaritzak mestizatua sortuko da. Edorta Agirre

4 fisikan, zenbaki atomiko txikiko nukleoak batzea nukleo astunago bat eratuz.

Fusio nuklearra. Berria - Harian

Fusioan, ordea, energia askatzen da nukleoak elkarrarazten direnean. Berria - Gaiak

Fusioan protoiak eta neutroiak hartzen dira kontuan. Fernando Morillo

Fusioa kontrolatzea da zientzialarien itxaropen handienetako bat. Fernando Morillo

Fusio hotzaren lehengusu hurbila litzateke, baina ez. Fernando Morillo

6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hidrogeno-bonbek (hau da, **fusio**-bonbek) leherrarazteko fisio-bonba txiki bat erabili behar izaten zuten detonagailu gisa. Berria - Gaiak

Fusio-bonba baino mila aldiz indartsuagoa. Fernando Morillo

Lehen **fusio** erreaktore komertziala 30 urte aurretik zabalduko dela iragarri dute egitasmoaren buruek. **Fusio** erreaktoreak eraikitzeko.

Fusio erreakzioan erabiltzen den erregaia deuterioa da. Berria - Gaiak

7 fusiozko izlag

Fusiozko bonbak egin daitezke, bai, eta egingo dituzte. Fernando Morillo

Fusiozko mikrouhinen atalaren ondoan zeuden Tetrak. Iban Zaldua

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

arteko fusioa (6); **arteko fusioak** (3); **fusio hotza** (5); **lehen fusio** (5)

fusionatu, fusiona, fusionatzen du *ad* fusioa egin.

Nafarroako Aurrezki Kutxa eta Iruñeko Udala Aurrezki Kutxa **fusionatu** zirenean. Berria - Ekonomia

Flamenko eta jazz dore **fusionatzeko** iraupen luzeko abestietan. Berria - Kultura

Pareta bezain obra handia sortu nahi zuen, ikuslea eta pintura **fusionatu**. Berria - Kultura

fuste *iz* zutabeaz mintzatuz, enborra edo ardatza.

Koloma korintoarra izango bada, **fustea** eta basa joniarraren kasuan bezala izango dira. Santiago Iruetagoiena

Fusteen buruetan burdinazko buloiak sartu zituen mirubuztan forma zutenak. Santiago Iruetagoiena

Koloma-**fustearen** diametro berekoa. Santiago Iruetagoiena

fut *interj* utikan! ik ut.

Baina, **fut**, **fut**, zu bezalako letrazale guztiak eta anarkista oro buztin beraz eginik daude. Anjel Lertxundi

Fut-fut-fut biak hemendik! Joan Mari Irigoien

Utikan, fut! Anjel Lertxundi

futbol (*ETCn 48.834 agerraldi*) 1 *iz* hamaikana jokalariko bi talderen artean oinez eta buruaz jotzen den baloi batez jokatzen den kirola.

Jendeak ondo pasatzeko ikuskizuna da **futbola**. **Futbol** profesionalean murgildu berria nintzen arren. Joan Mari Irigoien

Athletic **futbol** polita egiteko gai da ia beti. Berria - Kirola

Atzo baino **futbol** ikusgarriagoa ikusiko al dugu behintzat. Berria - Kirola

Jatetxean, afaltzen ari diren gehienak telebistari so daude, **futbol** sakratuari. Piarres Aintziart

Futbola utzi ostean, 'etxera' bueltatu da madrildarra. Berria - Kirola

Futbola gorrotatzen zuela aitortu zion emakumeak. Aritz Gorrotxategi

-Ai, maitea, zuk beti **futbola** buruan! Patxi Iturritegi

Euskal Herriko nesken **futbolak** maila polita du. Berria - Kirola

Ongi bai ongi ohartzen nintzen **futbolak** bere aldiak eta bere mugak dituela. Joan Mari Irigoien

Euskal **futbolaren** ohiko ezaugarriak. Berria - Kirola

Akordio honen bidez Gipuzkoako **futbolari** mesede handia egingo diotela. Berria - Kirola

Banderak eta sinboloak **futbolaren** munduari estu lotuta daudenez. Joan Mari Irigoien

Hara neu ere, **futbolari** begira. Hasier Etxeberria

Futboleko 2004-2005 denboraldia abuztuaren 28an hasi eta maiatzaren 29an bukatuko da. Berria - Kirola

Futboleko entrenamenduez gain, astean bitan aritzen da harriarekin. Berria - Kirola

Futbolekoaren kontuak direla esango didazu. Berria - Kirola

Futbolekoaren tamainako pilota gorri bat. Iñaki Mendiguren

Patiara irten eta berehala hasi ginen **futbolean**. Joseba Sarrionandia

Ez zuelako estudiatzeko gogorik eta beti **futbolean** jokatzeraz joaten zelako. Fernando Rey

Futbolean jokatzea besterik ez zuen buruan. Fernando Rey

Zabalgunen handi bat, maiz **futbolean** egiteko eta bizikletan ibiltzeko baliatzen genuena. Pedro Alberdi

Hemen ibiliko zen Alexis Carrel **futbolean**, 1882an eta 1883an. Unai Elorriaga

Futbolean ona. Unai Elorriaga

Futbolean irabazitako kopa. Eider Rodriguez

Bordeleak, Bordeleak joan dira Metz-era eta han irabazi 1 eta 0. **Herria**

Biok etxe ondoan **futbolean** ari ginela. **Joan Mari Irigoien**

Futbolera joaten zara "zuzenean" ikusteko, telebistaz ematen dutenean ere. **Jon Muñoz**

Lehen Mailara ailegatzeko, **futboletik** bizi ahal izateko egindako lan guztiak. **Berria - Kirola**

Baina nik ez dakit ezer **futbolaz** ! **Xabier Mendiguren Elizegi**

Athleticek **Futboleko** Liga Profesionalaren (LFP) aurrean salatu zuen Osasunaren kaudimen eza. **Berria - Kirola**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Salletarren **futbol** -taldearekin egiten nituen entrenamendu haietako batean. **Joan Mari Irigoien**

Madrilgo hiru **futbol** klubik garrantzitsuenek. **Berria - Kirola**

Argentinako **futbol** -selektzioaren elastiko ofizial bat. **Xabier Mendiguren Elizegi**

Didier Deschamps **futbol** jokalaria nondarra den gogorarazi digu esatariak berriro. **Iñigo Aranbarri**

Futbol -izar bat izango nintzela. **Berria - Kultura**

Nik diotsot behin munduko **futbol** -txapeliduna izan zela, eta taldearen elastikoa zuri-gorria dela. **Edorta Jimenez**

Italiak Portugalako **futbol** -txapelketan egindako joko txarraren barregarrikeria. **Anjel Lertxundi**

Futbol -derbyrako sarrerak lortuz. **Juan Garzia**

Futbol partida amaitu bezain laster. **Edorta Jimenez**

Sevilla-Betis **futbol** partida. **Berria - Kirola**

Futbol -apustuen txarteltxoak. **Juan Garzia**

1991n hasi zen Bonanoren **futbol** ibilbidea. **Berria - Kirola**

Anoetako **futbol** estadioa. **Berria - Euskal Herria**

Futbol estadio oso bat hankaz gora botatzeko lain leherkari. **Hasier Etxeberria**

1914an Bilboko Euzkadi egunkarira bidalitako **futbol** kronikan. **Iñigo Aranbarri**

Edonork izan behar luke prentsako **futbol** albiste bat irakurtzeko gauza. **Koldo Zuazo**

Ordu erdiko **futbol** jokaldiak. **Joseba Sarrionandia**

Aitak eta biok geure **futbol** -saioa egin ondoren. **Joan Mari Irigoien**

Harekin ikasi nian dakidan guztia: penalti bat zer den [...] baita **futbol** taktikak ere: WM, 4-2-4... eta auskalo zenbat gauza gehiago. **Joan Mari Irigoien**

Futbol -entrenamenduaren ondoren. **Joan Mari Irigoien**

Marie Darrieussecq idazlea, Amorrortu **futbol** trebatzailea eta bertze guziak. **Herria**

Baina **futbol** -entrenatzailea ni naiz, nik jartzen ditut arauak. **Joan Mari Irigoien**

Ingalaterrako ligako izar berriak **futbol** merkatua aztoratu du. **Berria - Kirola**

Merkatu horietan [...] **futbol** elastikoak dira produktu ugariena. **Berria - Kirola**

Aitak bizitzeko arrazoi bat aurkitu baitzuen nire **futbol** -etorkizunean. **Joan Mari Irigoien**

Futbol tenperatura gora doa Bilbon. **Berria - Ekonomia**

Oso matxista baita **futbol** -mundua. **Xabier Mendiguren Elizegi**

2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, erakunde ofizialen izenean)

Europako **futbol** erakundeak. **Berria - Kirola**

Nazioarteko **Futbol** Federazioa. **Berria - Kultura**

Frantziako **Futbol** Liga Profesionaleko presidentek. **Berria - Kirola**

Espainiako **Futbol** Ligako emaitzak. **Juan Luis Zabala**

3 areto futbol

Itsuen kategorian areto **futbola** ere jokatuko da aurten. **Berria - Kirola**

Futbolerako baino areto **futbolean** aritzeko aproposagoa dela argudiatzen dute bere kontra daudenek. **Berria - Kirola**

Areto **Futboleko** Espainiako Liga gaur hasiko da. **Berria - Kirola**

Areto **Futboleko** Europako Elkartek. **Berria - Kirola**

4 futbol zelai (orobat futbolzelai g.er.)

Athleticen aurka, **futbolzelaia** goraino beteko da. **Berria - Kirola**

Futbolzelaia inguratzen duten hesietara igo eta agur beroa egin zieten jokalariei jarraitzaileak. **Berria - Kirola**

Michelinen **futbol-zelaian** baitzen finala. **Joan Mari Irigoien**

Almeriaren kontra arituko da gaur Ipuruako **futbol** zelaian. **Berria - Kirola**

22.000 lagun Anoeta **futbol zelaian**. **Berria - Kirola**

Futbol -zelaiari buelta batzuk eman ondoren. **Joan Mari Irigoien**

Futbol zelaiaren inguruan korrika hasi dira soldaduak. **Joseba Sarrionandia**

Biak **futbol-zelai** batean mutur batetik bestera hitz egiten ari balira bezala. **Iñaki Mendiguren**

Mundua izango duzue aurrerantzean **futbol-zelai**, zeuen bizikidetzaren aldeko partidan. **Joan Mari Irigoien**

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

bernabeu futbol zelaian (12); espainiako futbol federazioak (13); espainiako futbol federazioko (14); espainiako futbol liga (7) europako futbol talde (4); euskadiko futbol federazioak (4); futbol agintariak (4); futbol federazioa (5); futbol federazioko (45); futbol federazioaren (6); futbol federaziolari (7); futbol federazioko (28); futbol federazioko presidentek (4); futbol izar (8); futbol izar bat (7); futbol izarra (4); futbol izarra (4); futbol jokalaria (19); futbol jokalaria (8); futbol jokalaria (4); futbol lehiaketa (10); futbol liga (26); futbol liga profesionalak (11); futbol liga profesionaleko (4); futbol munduan (5); futbol munduko (4); futbol partida (73); futbol partida bat (12); futbol partidak (14); futbol partidu (7); futbol profesionalean (6); futbol selektzioak (4); futbol talde (28); futbol talde bat (8); futbol taldea (26); futbol taldeak (24); futbol taldean (12); futbol taldearekin (4); futbol taldearen (29); futbol taldeek (5); futbol taldeen (4); futbol taldeko (25); futbol txapelketa (15); futbol txapelketan (7); futbol zelai (65); futbol zelai batean (7); futbol zelai berria (7); futbol zelaia (53); futbol zelaia (14); futbol zelaian (133); futbol zelaian jokatuko (5); futbol zelaia (20); futbol zelaia (6); futbol zelaiek (4); futbol zelaietan (19); futbol zelaiko (13); futbol zelaia (20); futbol zelaitik (7); munduko futbol txapelketa (5); munduko futbol txapelketan (4); nazioarteko futbol federazioak (9); sadar futbol zelaian (4)

areto futbola (48); futbola futbola da (4); futbola gustatzen (5); futbola ikusteko (7); futbola ikusten (4); futbola ikustera (4); futbola ulertzeko (6); futbola utzi (29); futbola utziko (8); futbola utziko du (4); futbola uztea (4); futbola uzteko (6); futbola uztera (5); horrelakoa da futbola (6); oinarriko futbola (5)

euskal futbolaren (4); futbolaren historia (4); futbolaren historia (5); futbolaren legea (4)

areto futbolean (4); egungo futbolean (14); futbolean ari (13); futbolean aritzeko (11); futbolean aritzen (8); futbolean egin (4); futbolean egiten (4); futbolean jokatu (9); futbolean jokatuz (4); futbolean jokatzea (8); futbolean jokatzeko (24); futbolean jokatzen (23); futbolean jokatzea (5); futbolean jolasten (4); gaur egungo futbolean (5); goi mailako futbolean (4)

areto futboleko (7); futboleko kontuak (7); futboleko munduko (4)

futbolari iz futbol jokalaria.

Bere garaian **futbolari** ospetsu izandako jendea. **Joxerra Garzia**

Eneko Ortega **futbolari** bikaina izan zen, hainbat taldetako izarra urteetan. **Joan Mari Irigoien**

Futbolari arrakastatsua izan nintzen. Joan Mari Irigoien

Futbolari porrokatua Ramonen semea. Jokin Muñoz

Nik **futbolari** profesionala izan nahi nuen beste ezeren gainetik. Joan Mari Irigoien

Errealeko **futbolari** ohiek. Joan Mari Irigoien

Goi mailako **futbolari** batek behar duen heldutasuna. Berria - Kirola

Eliteko **futbolaria** izatea zen aitaren urrezko ametsa. Joan Mari Irigoien

Lizarazu **futbolariaren** aurkako mehatuak. Iban Zaldúa

Frantziako kopa jokatzten zuten **futbolariak**, lehen sailekoak barne zirelarik. Herria

Futbolari izateari utziko dio, baina ez du utziko futbola, epaile hasiko baita. Berria - Kirola

Nire **futbolari** karrera meteorikoa izan zen, handik aurrera. Joan Mari Irigoien

hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

futbolari aparta (4); **futbolari izan** (5); **futbolari onak** (5); **futbolariak dira** (5)

futbolin *iz* mahai futbola.

Taberna barrua nahiko ilun zegoen, **futbolin** makina bat ere sumatzen zen han bazter batean ilunpean. Joseba Sarrionandia

Egunero **futbolinean** jokatzten hasi nintzen eskola-lagunekin. Jesus Mari Mendizabal

futbolista *iz* futbolaria.

Horiekin ibiltzeagatik ni ere sartuko nintzateke **futbolista**. Xabier Mendiguren Elizegi

Hire anaia **futbolista** subnormal hori bezain sano eta lirain egongo haiz. Unai Iturriaga

futbolzale *(orobat futbol zale)* izond/iz futbolaren zalea dena.

Adolfo nire lagun **futbolzaleak** zioen bezala, bibrazio kaxkarrak sorrarazten zizkidan hitz hark. Joxemari Iturralde

Oscar oso ezaguna da **futbolzale** guztientzat. Berria - Kirola

Saritu ainitz futbolari eta **futbolzaleak** izan dira. Herria

Aitona ere **futbolzale** amorratua zen. Joan Mari Irigoien

Txomin **futbolzale** itsua izan zen txikitatik. Joan Mari Irigoien

Futbolzale sutsuak gara bermeotarrak. Berria - Kirola

Manuel Castiella Baiones **futbolzalea** ere ohoratu dute. Herria

Espainiar **futbol zaleen** belarrietara. Iñigo Aranbarri

Futbol zale ez izateko bere arrazoia oso garbi dauka. Joxerra Garzia

Eta **futbolzale** asko, telebistaren aurrean. Berria - Kirola

futbolzaletasun *iz* futbolerako zaletasuna.

Hark kutsatu zion **futbolzaletasuna** amonari. Joan Mari Irigoien

Frantziako hirugarren hiri handienean **futbol** zaletasuna pizteko. Berria - Kirola

futbolzelai ik futbol 4.

futitu, futi, futitzen 1 da *ad* burlatu, trufatu; bost axola izan.

Irudi zuen bestaburu handienaren ospatzen ari ginela eta ongi **futitzen** zirela denen aurrean zegoen hogeita hamar urteko hil dohakabeaz. Daniel Landart

Ni frantsesek beren lurreen egiten dutenaz ontsa **futitzen** naizela, hemen ez baikara Frantzian... Elena Touyarou

Besteak ez zintuen ulertu, zure erantzunaz **"futitzen"** zen zernahi gisaz. Ramuntxo Etxeberri

Futitu egiten zara kontu horretaz. Hasier Etxeberria

Ez dut maite homosexual ez eta operaz **futitzen** den jendea. Patxi Zubizarreta

Egia erran, jadanik ere bada hor gaindi denbora batez baino larderia gehiago, sobera **futituak** diren autozainak zentza dituen poxi bat! Herria

Horrek erakusten baitu puxantenak ere ez direla denen buru hain azkar sasi-gudari errabiatu batzu jazartzen zaizkiotelarik, aski **futituak** eta beren buruaz arrunt etsiak.

Herria

2 (era burutua izenondo gisa) alua.

Hortarik ageri baita ixlamixta **futitu** batzuek mundu guzia beldurpean atxikitzen ahal dutela...! Herria

Nork jakinen duen pollikeniek egiten Zarpantzar **futitu** horrek merexi duen bezalako auzia... Herria

Futituek eta ezazolek dute maiz zerbaitetan kausitzen. Piarres Aintziart

futitukeria *iz* alukeria.

Eta itsasoa aipatzean, berehala gororat heldu batzuen **futitukeriak** nolako makurrak ekartzen ahal dituen! Herria

Batzuen ezazolkeriak beste batzuen **futitukeria** hazten. Herria

Salatu du, eta arrazoinekin segur, petrola negoziario ari direnek arrunt zaharkituak diren unti ztar batzu hola baliatzea, deusen axolarik gabe, **futitukeria** hutsez! Herria

Eta itsasoa aipatzean, berehala gororat heldu batzuen **futitukeriak** nolako makurrak ekartzen ahal dituen! Herria

futurismo *iz* XX. mendearen hasierako doktrina estetikoa, dinamismoa, makinak eta etorkizuneko mundua aldarrikatzen zuena.

XX. mende hasierako abangoardia bik, **futurismoak** eta kubismoak. Berria - Kultura

Arkaismoa **futurismoaren** leizean eror daitekeen bezala, horrela **futurismoa** antzaldaketaren gailurretara igo daiteke. Iñaki Mendiguren

Faxismoaren eta **futurismoaren** uztartze hori gauza polita eta jakingarria da modernotasuna, garaikidetasuna eta, oro har, etorkizunetik zer datorren zaintzea, gauza onak edo jende onaren gauzak direla uste dutenentzat. [Iñaki Seguro](#)

Futurismoaren autotraszendentzia. [Iñaki Mendiguren](#)

futurista *izond* futurismoari dagokiona, futurismoari lotua.

Lekuona, ezagutzen ez duenarentzat, Euskal Herriko lehenengo artista plastiko surrealista izan zen, koadro oniriko, argazki **futurista** eta collage harrigarrien egilea. [Xabier Mendiguren Elizegi](#)

futuro *iz* etorkizuna.

Igual pentsatzen zuen arma hark duintasuna edo botere ezezagunen bat emango ziola **futuroan** edo eternitatean. [Joseba Sarrionandia](#)

futxo *interj* harridura, haserrea eta kidekoak adierazteko hitza. **ikerrefutxo**.

Ikus eta mikus bagoatzi aintzina eta... **futxo**, ez sekulan arribatzen! [Herria](#)

Eta gure Perkain, **futxo**, beti zutik, sekulan ez mozkortzen... [Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren](#)

Eta **futxo** ! badute irriz asetzekoa! [Herria](#)

Alta, irabazten ahal diren borrokak ez dira galdu behar, eta **futxo**, hori da gertatu! [Herria](#)

Ezcurra lehenak du zauritze bat izan belaunean eta, **futxo**, gehiago ezin segi. [Herria](#)

Huna delako tanto sakratu hura, eta hura aski, **futxo** ! [Herria](#)

Nork **futxo** ? [Itxaro Borda](#)

fuxina *iz* hiruhortza.

Elgarrekin belar biltzen ari ginelarik (ez orai bezala bainan **fuxinaz** ekarriz orgetarat belar meta guziak, bat aldian) [...]. [Herria](#)

Hantxe, bi emazte, belarretan ari, gureak bezalako **fuxinekin** . [Piarres Aintziart](#)
